



ANTZERKI

5



GARTZI-XIMENO,
eta...

ALBISU ta AYERDI'tar
ANASTASIO'K

Angel



KARDABERAZ BILDUMA - 9

GARTZI - XIMENO

ETA...

KARDABERAZ BILDUMA - 9



**GARTZI - XIMENO
ETA...**

ALBISU TA AYERDI-TAR ANASTASIO

*Nere osaba maite Ayerdi-tar Bernabe'ri
ta nere izeba maite Mendia-tar
Satur-eri biotz-biotzez.*

*Autor: Anastasio Albizu Ayerdi
Edita: Juan José Garmendia - Librería Técnicas de Difusión - Tolosa
Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria
Depósito Legal VI 49 - 1975
I. S. B. N. 84-400-8251-7*

I.
GARTZI -XIMENO

GARTZI-XIMENO

Lenengo ekiñaldiko antzezleriak:

JAUN MIGEL.

XEBASTIAN.

PAKOMIO EREMUTARRA.

ANDRE PLAXIDI.

IRU EDO LAU GAZTE.

GARTZI-XIMENO.

BUTRON'GO AMAIA.

LARTEUN.

USOA.

AMAGOIA.

PETRONILA.

TEODOSIO.

OARRAK: Itz egiten ez-duanean, zoro baten itxurak artuko ditu Petronila'k lenengo ta bigarrenko ekiñaldietan.

Pago zaar bat ipurditik aterako luken emakume bat, da Petronila.

Jazkerak eta abar, garai artakoak izan bear dute.

Antzerki-zuzendariak ikusiko du, antzezleriak nola ibilli iruditegian.

LENENGO EKIÑALDIA

Goñi'n gaude.
Ikusleen eskubi-aldetik, iruditegi-ao-aldean
arrizko eserleku bat.
Iruditegi atzean, basoa. Ta baso ortan, ikus-
ten ez ba'da ere, Juan Migel, Andre Plaxidi ta
Teodosio'ren etxea.
Eserleku ta baso artean, alde batetik beste-
rañoko bidea.
Jaun Migel eta Xebastian egongo dira iru-
ditegian, iruditegia irikitzen danean.
Arrizko eserlekuan, eserita, agertuko da
Jaun Migel.

- JAUN MIGEL (Ardo-ontzi bat eskeñiaz).
Ea, Xebastian. Zer barri bildu dituk, ba, Iruña'n?
- XEBASTIAN Iruña'ra joaten naizen bakoitzean, irakin egiten dit
odolak, Jaun Migel... Olo batzuek besterik ez ge-
ra euskaldunok...!
- JAUN MIGEL Zer esan dek, Xebastian...?
- XEBASTIAN Bai, Jaun Migel... Errekalde'ko baztarrak nereak
dira ta ez Ranimiro orrenak... Norberari ezer ez
dijoakenian, erreza da etsaiarekin pakeak egitea...!
- JAUN MIGEL Eta nork egin zituk pake oiek...? Bildu ditukan
berri guztiak, au bezelakoak ba'dituk, ez aut alpe-
rrik bialdu Iruña'ra.
- XEBASTIAN Zerbait esan leike, ba, Jaun Migel... Biar omen da-
toz Iruña'ra Ranimiro, ta Errodrigo gudutarren
erregea.
- JAUN MIGEL Eta zertara zetozek, ba...?
- XEBASTIAN Ez neri lapurtutako lurrak itzultzera baintzat...

Irureun milla gizon omen dakarzkite, ta Ranimi-
ro'k izan bear omen du gudarozte onen buru.

- JAUN MIGEL Ranimiro'k...?
- XEBASTIAN Bai...! Neri lurrak lapurtu zizkidanak...!
- JAUN MIGEL Ez zizkian ark lapurtuko...!
- XEBASTIAN Ark lapurtu ez ba'zizkidan, bere aita-jaunak la-
purtuko zizkidan, eta biak odol-batekoak izango
al'dira beintzat...
- JAUN MIGEL Ondo zeok, Xebastian... Bañan eldu akiok, berriz
ere, leengo jardunari... Ta zertara zetorrek, ba, gi-
zon ori, millaka gizon oiekin...?
- XEBASTIAN Iruña'n esaten dutenez, Aprika'ko beltzak ekarri
nai omen ditu Euskal-erri'ra.
- JAUN MIGEL Eta euskaldunak Aprika'ra eraman...!
- XEBASTIAN Orixe bera esaten da, ba, Iruña'n. Eta orain-artean
pakerik egin ez ba'degu, oraingo ontan egin bea-
rrean izango gerala.
- JAUN MIGEL Askotxo esatea izango dek ori...!
- XEBASTIAN Errege bat ez daukagu euskaldunok, Jauna. Teodo-
sio errege egiten ez ba'degu, nundik egin bear die-
gu guk gogor, ainbait gizoneri...?
- JAUN MIGEL Xebastian...! Etsaiak ez-bezelako gogorrek dituk
gure mendiak...! Eta erregerik ez ba'diagu, gureak
zituagu mendi auek...! Eta euskal-mendi auetzaz
ez dituk etsaiak jabetuko, euskal-semeen artean
odolik gelditzen ba'dek beintzat...!
- XEBASTIAN Ori, Jaun Migel...! Ez dezaiegun pakerik eman!
- JAUN MIGEL Ez, Xebastian...! Ez gaituk onelakoak euskaldu-
nok! Gure etsai oiek pakea nai ba'die, pakea izan-
go die bai... Bañan burruka nai ba'die, izango die
burruka ere... Zazpi semeen odola eskatu izan

zidak Euskalerrria'k. Zazpi seme oien odola eman izan zioat... Ba'diat oraindak, ordea, odola nere etxean, eta odol orren bearrean arkitzen ba'dek, ez zeoat, nik, odol ori ukatuko Euskal-errria'ri... Oa, Xebastian. Mokau batek ez dik kalterik egingo, ta Andre Plaxidi'k izango dik, iretzat ere, zer-bait.

Jaun Migel'eren etxerat artuko du Xebastian'ek.

Pakomio'k etxeko-atean joko dituan danbatekoak entzungo dira bat-batean.

Etxe-aldera begiratu, ta...

JAUN MIGEL

Zertara datoz danbateko oiek, Pakomio? Nere etxeko atea ez dala iñoiz ixten, ondo dakizu zuk. Aurrrera, ba.

Pakomio agertuko da iruditegian.

PAKOMIO

Ez, Jaun Migel, ez! Ez det sartu nai. Teodosio nai nuke. Ta emen ez ba'lego, Gazteluzar'era joango naiz aren billa.

JAUN MIGEL

Ez zaite alperrik joan. Ez dezu Gateluzar'ean ere billatuko-ta.

PAKOMIO

Ez da etxetik urruti ibilliko, ordea.

JAUN MIGEL

Zer dakit, ba, nik, Pakomio.

PAKOMIO

Eizean al'da?

JAUN MIGEL

Ez...! Bañan alperrik egingo didazu beste galdera bat. Trago bat egiten ez ba'dezu leen, ez dizut erantzungo.

Eta ardo-ontzia eskeñiko dio.

PAKOMIO

Bai, Jaun Migel! Bañan bat besterik ez! Gaur argi egonbearrean arkitzen naiz eta.

Eta ardo-trago bat artuko du.

JAUN MIGEL

Eta zertarako bear dezu, ba, Teodosio...?

PAKOMIO

Bakarrik al'gaude, Jaun Migel...?

JAUN MIGEL

Bai, zoritxarrez...! Ba'dakizu lagun-artekoa naizela ni.

PAKOMIO

Bai, bañan... Ez nuke, gaur, iñork ikusterik nai. Ba'daki, euskaldenen artean, eta euskaldunentzat etsai diran aien artean, bizi bear dedala nik... Jakingo du nor dan Ranimiro...?

JAUN MIGEL

Bai, zoritxarrez...!

PAKOMIO

Aitormendia'n izan zan gudutarra...?

JAUN MIGEL

Bai...!

PAKOMIO

Aitor-etxeari su eman ziona...?

JAUN MIGEL

Bai...!

PAKOMIO

Ba, Ranimiro ori Iruña'ra dator... Gaur ez ba'da, biar elduko da Iruña'ra. Ta Ranimiro'ren etorrera onek ez du beste elbururik, Euskal-errria menderatzea baizik.

JAUN MIGEL

Eta iñork menderatzekotan, ark mendaratuko du Euskalerrria ...Ala ere, ez nau berak bildurtzen, ez! Aren asmakizunak bildurtzen naute. Buru azkarra du, guda gauzetarako.

PAKOMIO

Jaun Migel, eta Teodosio'k bidera irtengo ba'lioike?

JAUN MIGEL

Zer naiago nuke nik...! Besterik egingo ez ba'luke, ere, nere seme orrek, euskaldunon txalo guztiak berekin izango lituzke beti... Ranimiro'k egiñak, ez ditugu iñoiz-ere aaztuko euskaldunok. Eta Ranimiro orrei berea emango dionak, orrek izan bear ko du euskaldunon errege, euskaldunok iñoiz erregerik izaten ba'degu beintzat... Bañan ori ez da nere semea izango zoritxarrez...

PAKOMIO

Zergaitik ez du, ba, izan bear?

JAUN MIGEL

Noiz etxaratuko zaigun, ere, ez dakigu. Ta Ranimiro ez da, Teodosio etxeratu-zai egongo, Iruña'ra etortzeko.

PAKOMIO Besteren-bat billatu bearko det ortaz... Ez ote luke Gartzzi-Ximeno'k lan ori egingo...?

JAUN MIGEL Abarzuza ta Amezkueta'ko jaunak?

PAKOMIO Teodosio añekoa ez dala, ba'dakit. Gaztea, ere, ba' da oraindik, eta liburuak geiegi maite ditu gudari ona izateko... Nere jantzi au eman bearko diot oraindik. Bañan Teodosio ez-izatea, Jaun Migel...

JAUN MIGEL Guartzi-Ximeno, bai! Ba'du gañera zer apendu... Gudutarrak il bait-zioten bere aita.

PAKOMIO Jaun Migel! Ez dezala, ordea, iñork auen berri jakin. Nik...

JAUN MIGEL (Ziri-antzara).
Bai. Gurekin ondo, ta aiekin ondo bear dezu zuk! Ez dezu gauza erreza ori, Pakomio. Bidea luzea dezu oraindik, eta tori beste trago bat.

PAKOMIO (Edan ondoren).
Ardo onak, Goñi'n!

JAUN MIGEL Onela artzen ditugu, guk, gure lagunak.

PAKOMIO Agur, Jaun Migel!

JAUN MIGEL Zoatz azkar, bai, Pakomio.
 Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da Pakomio.
 Ikusleen eskubi-aldetik agertuko da Andre Plaxidi iruditegi-atzean.

ANDRE PLAXIDI Zer zuan orrek, gizon...?

JAUN MIGEL Nundik dabil gure seme ori...?

ANDRE PLAXIDI Zer dakit, ba, nik! Ez ote digu alabaren-bat etxeratu nai...?

JAUN MIGEL Zaude ixillik! Ume bat besterik ez da oraindik eta.

ANDRE PLAXIDI Bai gureztat! Bañan... ogeitamar urte bete ditu gero.

JAUN MIGEL Egia diozu, andrea. Ta..?

ANDRE PLAXIDI Zer esango dizut, ba, nik...? Aitor'en etxeko bat edo.

JAUN MIGEL Aitor'en etxeko bat...? Butron'go Amaia...?

ANDRE PLAXIDI Ala diote!

JAUN MIGEL Burua galdu al'du, ba, gazte orrek? Bataiaturik-gabe dagoan neskatxa bat, ekarriko ote digu, ba, etxerra?

ANDRE PLAXIDI Bataiatu-gabekoak dituzu ba oraindik Aitor'en etxekoak. Bat-bakarra izango dezu bataiatua. Lore ta Ranimiro'ren alaba: Amaia, au ere.

JAUN MIGEL (Asarre-antzean).
Ranimiro! Nun da gure mutilla? Gaur bear zuan orrek, ere, etxetik-kanpora. Emen izatea, berak baitu bear zuan gaur, eta ez beste iñork, Ranimiro! Ranimiro baituko duan gizonik, ez dago Euskal-erria'n Jaun Migel.

ANDRE PLAXIDI Zergaitik ez, ba...?

JAUN MIGEL Baitu baño leen, il egingo dutelako!

ANDRE PLAXIDI Egia diozu, andrea. Ranimiro'k ez du euskaldunon barkamenik merezi!

 Xebastian agertuko da, Andre Plaxidi agertu dan tokitik.

JAUN MIGEL (Xebastian'i).
Asetu al'aiz...?

XEBASTIAN Bai, Jauna!

JAUN MIGEL Ondo zeok! Iruña'ra joaten aizen bakoitzean, asarre etortzen aiz. Ireak diran Errekalde'ko baztarrak, Ranimiro'ren mendean ikusteak, min ematen dik... Eta zer egingo uke, ik, luralde oietzaz berriro jabetzeagatik?

XEBASTIAN Edozer egingo nuke, Jauna!

JAUN MIGEL Edozer...?

XEBASTIAN Bai, Jauna!

JAUN MIGEL Oa, ba... Ta garbitu itzak, onuzkero erdoituta dauz-
kaken gezia ta ezpata!

XEBASTIAN Jaun Migel!

JAUN MIGEL Bai, Xebastian! Laister dek emen Abarzuza'ko
Gartzi-Ximeno. Ranimiro atzitu naiean zetorrek,
eta orain ikusiko diagu ire kemen ori!

XEBASTIAN Gartzi-Ximeno..? Eta Teodosio zergaitik ez..?

JAUN MIGEL Etxean ez dagolako! Ez oa beraz..?

XEBASTIAN Teodosio'rekin, bai! Gartzi-Ximeno'kin ez! Ori
ez da gure buruzagia!

JAUN MIGEL Ai, Xebastian! Ire urteak ez... ik aña bi izan arren,
gezia eskuan eta ezpata gerrian, egongo nituan ni,
orain, Gartzi-Ximeno'ren zai.
Iru edo lau gazte agertuko dira laisterka-
batean ikusleen ezker-aldetik.

GAZTE BATEK Jaun Migel, dei-adarra ari da Abarzuza'n.

JAUN MIGEL Bai! Teodosio'ren orde, Abarzuza'ko jauna izan-
go dezute gaur buruzagi.

GAZTE BATEK Gartzi-Ximeno..?

JAUN MIGEL Bai! Artu, ba, geziak eta ezpatak, eta zoazte Etxe-
berri aldera. Arutz joango dituk abarzuzakoak ere.
Goñi gordetzeko, naikoak gaituk Xebastian eta ni.

GAZTE BATEK Gudara, mutillak!

GAZTE BATEK Euskal-erria'ren alde!
Eta ikusleen eskubi-aldetik izkuratuko di-
ra gazteak.

JAUN MIGEL Xebastian... oiek gudara, ta gu, zarrok, oera.
Burua esku-artean geldituko da Jaun Migel.

ANDRE PLAXIDI Jaun Migel. Or datorkizu Gartzi-Ximeno.

JAUN MIGEL (Burua jaso gabe).
Eta ez al'dator Teodosio'rik..?

ANDRE PLAXIDI Ez zoritxarrez!

JAUN MIGEL Ondo dago, andrea... Zoaz orain etxera. Gaur ez
ba'da, biar-goizean emen izango ditugu Gartzi-Xi-
meno'ren gizonak, eta ez ditezela, beintzat Goñi'
tik, goserik joan. Zauriturik izaten ba'da ere, one-
ra ekarriko dute noski... Ba'dezu, ba, zer-egia etxe
aldean. Xebastian'ek lagunduko dizu. Onek, ere,
zerbait egin bear du-ta, Euskal-erria'ren alde.
Eta eserlekitik jeikiko da Gartzi-Ximeno'
ren billa joateko.
Ikusleen eskubi-aldean izkuratuko di-
ra Andre Plaxidi ta Xebastian iruditegi-atzean.
Ikusleen ezker-aldetik agertuko da Gartzi-
Ximeno.

JAUN MIGEL Zer dabilk emen, gazte zoro orrek..?

GARTZI-XIMENO Teodosio'ren billa nator, Jaun Migel. Ez al'da
oraindik etxeratu..?

JAUN MIGEL Ez, Gartzi-Ximeno, ez dek etxeratu oraindik.

GARTZI-XIMENO Ba'daki gure gaurko egitekoaren berri. Etxeberri'
runtz bialdu ditut nere mutillak, eta onera etorri
naiz ni, gaurko ontan Teodosio'k bear zualako gu-
re buruzagi.

JAUN MIGEL Ala bear zian, bai. Bañan... ba al'zekiat, ba, nik,
nundik nora dabillen gure mutil ori? Ez zegok gal-
tzeko astirik. Ik irten bearko dek, ba, Ranimiro
orren billa. Neurtu al'dituk ondo, eman bear ditu-
kan pausoak..?

GARTZI-XIMENO Bai nere ustez, Jaun Migel!

JAUN MIGEL Iruña-aldean etsai asko zebillek!

GARTZI-XIMENO Ondo dakit ori, Jaun Migel...!

JAUN MIGEL Gauzak oker irtetzen ba'zaizkik, guda-gogorra zertorkiguk Euskal-erri'ra, Gartzzi-Ximeno.

GARTZI-XIMENO Bestela ere bai, Jaun Migel! Gudutarrak ez dituzte ainbeste gizon Iruña'ra ekarri, gudarako ez ba'dira. Ta euren guda-egarria gure mendietan ase naiko dute besteetan bezelaxe... Bañan Ranimiro gure eskuetan erortzen ba'da gaur, ez degu gudarik izango, Jaun Migel.

JAUN MIGEL Erne ibilli adi, ba.

GARTZI-XIMENO Erne ta azkar. Galduak gera azkar ibiltzen ez ba'gera.

JAUN MIGEL Ez al'dek nere bearrrik?

GARTZI-XIMENO Bai, Jaun Migel. Beorren bear naiz, baña ez burruka tokian. Emen, Goñi'n, bear det beorri. Burrukatik etortzen geranean, izan dezagula zer-jan. Eta beorren ardurapera bialduko ditugu ere, burrukan izango ditugun zaurituak.

JAUN MIGEL Ori besterik nai ez ba'dek, joan adi ardurarik gabe. Artua dik Andre Plaxidi'k ordena ori ta.

GARTZI-XIMENO Ba'noa, bai, Jaun Migel. Illuna, ere, laister izango degu-ta.

JAUN MIGEL Ez ik nai ainbestekoa. Illargi berria diagu gaur, Amagoia'ren gau maitea. Zuek burrukan ari zera-ten artean, emen izango diagu bera, Butron'go sinisgabe oiekin... Bañan ez adi ikaratu. Andre Plaxidi'ren eta nere otoitzak irekin izango dituk... Eta nere malkorik ikusi-nai ez ba'dek, oa leenbaitlen, Gartzzi-Ximeno... Ik ez dakik nolakoa dan nere oraingo samiña..!

GARTZI-XIMENO Zergaitik samin ori, Jaun Migel..?

JAUN MIGEL Oraindik ez dek, nere etxekorik-gabeko burrukarik izan, Euskal-erri'n. Gaurko au izango dek lenengoa... Oa, ba..! Ta ez zak Ranimiro'ren errukirik izan... Ark ere, ez dik guretzako iñoiz izan eta... Ark erre zian Aitor'en etxea. Ark kixkali-erazi zian, bertan, aurdun zegoan Aitor'en alaba bat: Lorea bere emaztea, gaur dakigunez... Ark erail zian ire aita ere..! Anker bat besterik ez dek, ba, Ranimiro ori. Erailtzen ba'dek, ba, Aitor'en izena, ta euskaldunon izena garbituko dituk batera... Oa, ba... ta Jaungoikoa'k lagun dakiala...

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da Gartzzi-Ximeno.

Etixeruntz artuko du Jaun Migel'ek. Poliki-poliki ta itun joango da.

ILLARGI-BERRI GAUA DA.

Ikusleen ezker-aldetik agertuko dira Lar-teun, Usoa, ta Butron'go Amaia.

BUTRON'GO AMAIA Gero-ta, gogo gutxiagoarekin etortzen naiz jai onetara, aita.

LARTUEN Gu ere bai, Amaia... Bañan...

BUTRON'GO AMAIA Leen, gizatalde polita biltzen giñan. Orain ez gera, gu irurok besterik, etortzen... Zergaitik ez gera, gu ere, kristau egiten..?

USOA Bataiatzea besterik ez ba'lego, gaurtik egingo ginake kristau, Amaia... Bañan ondo dakizu, zuk, nor dan nere aizpa Amagoia... Arren asarrepean bizi izatea, ez gendeke gauza gozoa izango... Aitor-mendi'rako dituzun eskubide guztiak galduko zinduzke gaiñera... Amagoia bizi dan artean, ez daukazu, ba, kristau-izaterik, Amaia..!

BUTRON'GO AMAIA Eta eskubide oietzaz jabetzeko, ezkondu egin bear-ko det ba, ama..?

USOA Bai, alaba..!

BUTRON'GO AMAIA Eta zeñekin..?

USOA Amagoia'k naiko duanakin..!

BUTRON'GO AMAIA Eta ba al'da bataiatu-gabeko euskaldunik..? Amagoia'k nai-duanakin ezkondu bear ba'det, ez daukat ezkontzerik. Asier ez da Amagoia'ren irudimenean baizik bizi-ta..!

LARTUEN Egia diozu, Amaia..! Ta orretzek ematen dit, onera etortzeko ere, nazkarik aundiena... Leen ere, ez nuan begizkoa Asier ori... Itxasoak irintxi ba'zuan, zergaitik egon bear degu oraindik ere, aren zai..? Asier añeko mutilla ba'da Teodosio...

USOA Larteun..!

LARTUEN Bai, Usoa, bai..! Atso orren mendean bizi bearko degu, guk, beti... Biotzez kristau geranok, sinisgabeen antzera, illargiari begira beti..! Ta altxor bat dala, ta ez dalako dana..!

USOA Larteun..!

LARTUEN Bai, Usoa, bai..! Lorea, zure aizpak, iges egin zuan Aitormendi'tik, kristau izatearren... Guk ez-bezelako kemena zuan ark..!

USOA Orregatik kixkali zuten Aitormendi'n..!

LARTUEN Gu ez gaitue kixkalduko, ez..! Bañan ori bizi dan artean, ez gera kristau izango ere... Ta gu izango gera Euskal-erri'ko sinisgabe bakarrak..!

BUTRON'GO AMAIA (Amagoia datorrela ikusi-ta).
Aita..!

LARTEUN Ikusi det, bai...
Eta Amagoia agertuko da ikusleen ezker-aldetik. Azti baten antzera jantzia etorriko da. Illargiari-begira geldituko da, pixka-batean iruditegi erdian.
Ikusleen ezker-aldetik geldituko dira Larteun, Usoa ta Amaia, iriditegi ertzean.

AMAGOIA Agur Illargi, Ama gurea..! Agur dagizut biotzez...

Gau illuneko argi-iturri, guretzat izan zaitez... Euskal-erri'ko Zaindari zera. Zureak gera nai ta ez. Aitor aundiren len-alabak, agur dagizu biotzez..!

BESTE IRURAK Illargi, Illargi..! Bizien da illen argi..! Aitor-ekanduetan garbi, zaizu beti Euskal-erri..!
Ixil-unea.

AMAGOIA Illa degu Asier... Itxasoan illa... Eta iñor ez zait joan... aren gorputz billa..!
Ixil-unea.

Gaur bezelako illargi-berri zan, gau eder-eder baten, Aitor-sendia laga zenduan, zuk, mendi-gañean emen... Lur-eder onen edertasunaz jabetu ziran bezin leen, Euskal-erri, izen edarrez, lur au izendatu zuten..!

BESTE IRURAK Illargi, Illargi..! Bizien da illen argi..! Aitor-ekanduetan garbi, zaizu beti Euskal-erri..!
Ixil-unea.

AMAGOIA Asier illa ba'da. Aitor'ren esanak... aizeak eraman zituan... aizeak danak..!
Ixil-unea.

Aitor'ren itzak, euskal-semeak gogoan artu zituzten. "Ibar oietan morroi bear degu. Nagusi gaitzen emen. Askatasuna maite dezagun, gauza guztietan aurren. Aske ba'gera, biziko gera, zorionsu, mendi-arten..!

BESTE IRURAK Illargi, Illargi..! Bizien da illen argi..! Aitor-ekanduetan garbi, zaizu beti Euskal-erri..!
Ixil-unea.

AMAGOIA Asier ez da illa... Bizi da oraindik... Asier elduko da. Ziur dakit ori nik..!
Ixil-unea.

Zure argiz, argitu zendun Aitor'ren buru azkarra... Mendi-arteko sastrakak errez, gertatu zigun ark lurra... Lur maite orrek, artoa ugari eman zigun ta

belarra... Gizonak ogi izan zezaten, ta artaldeak, ere, larra.

BESTE IRURAK

Illargi, Illargi..! Bizien da illen argi..! Aitor-ekanduetan garbi, zaizu beti Euskal-erri..!

Ixil-unea.

AMAGOIA

Ta Asier ta Amaia, biak alkarturik, Euskal-erria'k ez du, ifñoren bildurrik..!

Ixil-unea.

Ez dezute, ez, aberats-zale izan bear euskaldunak. Orregatikan lurperatu zituan ark, bere altxorrak... Gurutz eder bat eman bait-zigun ezaugarri Aitor onak... Beste gurutzik ez degu ba nai, lauberukoak geranak..!

BESTE IRURAK

Illargi, Illargi..! Bizien da illen argi..! Aitor-ekanduetan garbi, zaizu beti Euskal-erri..!

Petronila agertuko da ikusleen eskubi-al-detik, eta bertan geldituko da zutik.

AMAGOIA

Atozkit, ba, laister, nere seme maite. Amaia zai daukazu-ta, zu etorri arte..!

Ixil-unea.

Ama Illargi, negar dagite Amagoia'ren begiak. Lau-buru orde, beste gurutz bat artu bai dute euskaldunak.

Amaia'ren urrezko eskuturrekoa eskuetan artu, ta bertan daukan gurutzari muxu ematen geldituko da Petronila Amagoia'k bukatu arte.

Alperrik dabiltz..! Bizi naiz arten, zureak dira nereak..! Agur Amatxo. Gurtzen zaitugu emen bildu geran denak..!

BESTE IRURAK

Illargi, Illargi..! Bizien da illen argi..! Aitor-ekanduetan garbi, zaizu beti Euskal-erri..!

AMAGOIA

Goazen enetxoak..!

BUTRON'GO AMAIA

(Lanteun'eri).

Petronila...

LARTEUN

Leentxuago ikusi det, Amaia... Bullan, ere, asiko ote zan bildur izan naiz... Nere arreba det, baña dana zoratua dago gajoa...

Eta Amagoia'ren atzetik izkutatuko dira Larteun, Usoa ta Butron'go Amaia ikusleen ezker-al-detik.

Erdi-aldera etorriko da Petronila ta bertan geldituko da, zutik, iruditegi-atzean.

Teodosio agertuko da ikusleen eskubi-al-detik, eta arrituta bezela geldituo da Amagoia-ta an ez daudelako.

PETRONILA

Teodosio..!

TEODOSIO

Zu emen..?

PETRONILA

Emen, zure zai..! Atoz, itz-egin bear dizut eta...

TEODOSIO

Presa det, Petronila...

PETRONILA

Nik ere bai, Teodosio. Ta zuk baña presa aundia-goa gañera. Ondo dakizu nere berri... Zoratua egon naiz orain-arteraño, bañan Jaungoiko'a'k argitu dit, gaur, nere burua... Argitasun au noiz-arte izango dedan, ez dakit... Orregatik esan nai nizuke zer-bait... Zuri eskerrak bizi da, gaur, Amaia, Ranimiro'ren alaba..!

TEODOSIO

Neri, ta zuri eskerrak, Petronila..!

PETRONILA

Euskal-erri'ko buruzagia izateko jaioa zera, Teodosio... Entzun, ba, egin nai dizudan aitormena... Lorea, Amagoia ta Usoa'ren aizpa, Ranimiro'ren emaztea ta Amaia'ren ama, Amagoia'k eta Basurde'k Aitormendi'n preso zeukatela, nik gaztigatu nion Ranimiro'ri... Ura askatzearren ez zuala odol tantarik ixuriko agindu zidan Ranimiro'k. Gero, ordea, Aitormendi'ko berriak jakin nituanean: Aitor'ren basarria erre egin zuala, an preso zegoan Lorea kixkali egin zuala, ta Basurde, Amagoia'ren senarra, il egin zuala, orduan asi ziran neretzako kezkak... Pekatu guzti aukeratu Ranimiro'ren-gain ipintzen bait-zituan erriak... Eta Ranimiro'renak

ba'ziran, nereak ziran pekatu oiek... Ez al'naukan, ba, zergaitik burua galdu..?

TEODOSIO Bai, Petronila, bai..!

PETRONILA Ala ere, kezka auek arindu naiean edo, sortzen ziran neregana beste pensamentu batzuek ere... Ez al'zan kristau Ranimiro..? Ez al'zuan bere emaztea, Aitormendi'n preso zeukaten, Lorea..? Ez al'zekian aurdun zegoala..? Eta ba'ote dago kristau-errian, bere emaztea aurdun dagoala jakin, eta, emaztea ta aurra kixkali naiean, etxe bati su-emango dion kristaurik..?

TEODOSIO Ez kristaurik eta ez gizonik..! Ori ezin dezake inork egin..!

PETRONILA Egia diozu, Teodosio... Eta auek gutxi ba'lira bezela, Aitor'ren altxorraren berri, Ranimiro'ren eskuetan zegoala, nik bakarrik nekian Euskal-erria'n..!

TEODOSIO Aitor'ren altxorraren berri Ranimiro'ren eskuetan?

PETRONILA Gaur arteraño, bai... Gaur ez, Jaungoikoa'ri eskerak! Gaur nere eskuetan dago berrero, Teodosio...

TEODOSIO Zure eskuetan gaur..?

PETRONILA Nere eskuetan gaur, Teodosio..!

TEODOSIO Petronila..!

PETRONILA Zer..?

TEODOSIO Altxor ori ez da zurea... Amaia'rena da altxor ori..!

PETRONILA Bai, Amaia'rena da..! Baña bi Amaia ditugu, Teodosio. Larteun eta Usoa'ren alaba bata, ta Ranimiro'ren eta Lorea'ren alaba bestea... Ta bi auetan nork izan bear du altxor orren jabe..?

TEODOSIO Petronila..!

PETRONILA Bai, Teodosio..! Ba'det zure ametsaren berri...

Euskal-erri'ko buruzagia izatearren, nere illoba Amaia'kin eskondu nai zenduke... Bañan Butrun' goak ez dira kristauak, Teodosio..!

TEODOSIO Izango dira, ordea..!

PETRONILA Amagoia'k naiko duanean...

TEODOSIO Amagoia'k nai ez ba'du, ere, bai..! Teodosio naiz ni, Petronila..!

PETRONILA Teodosio zera bai. Jaun Migel eta Andre Plaxidi'ren semea... Ta orretzek ematen dit naigaberik aundiena... Zure aundi-naiak galduko zaitu, Teodosio... Amagoia'ren mendean ikusten zaitut aspaldi ontan, ta Amagoia'k ba'du Amaia'rentzat beste senargai bat: Asier..!

TEODOSIO Asier il zan..!

PETRONILA Zuretzako bai..! Amagoia'rentzat ez..! Zergaitik ez zera beste Amaia'rekin ezkontzen..?

TEODOSIO (Jeikiaz). Ranimiro'ren alabarekin..?

PETRONILA Ez..! Lorea'ren alabarekin..!

TEODOSIO Ez, Petronila, ez..!

PETRONILA Ez da, ba, zurea izango Aitor'ren altxorra..!

TEODOSIO Ez nerea, ta ez beste inoren ere..!

PETRONILA Zergaitik ez..?

TEODOSIO Amaia orrekin ezkonduko dan euskalduna, nik ilko dedalako..!

PETRONILA Eta zure lagunik aundiena ba'litz..?

TEODOSIO Orduan da areago..!

PETRONILA Entzun dezu nere aitormena, Teodosio... Entzun det nik ere, zurea... Erruki zaitut..!

TEODOSIO Ez nazazu erruki..! Agur..!
 Eta ikusleen ezker-aldera artuko du Teodosio'k.

PETRONILA Nora zoatz..?

TEODOSIO Aitormendi'ra..!

PETRONILA Etxean sartu gabe..? Gure garaipenaren berri jakiteko, lenago al'da Amagoia, zure aita-amak diran baño?

TEODOSIO Izango da bat, bai ,bere garaipenaren barri nere aita-amari emango diena.

PETRONILA Teodosio..! Amagoia Goñi'ra ekartzen ba'dezu, Ranimiro'renak egin zuan..!

TEODOSIO Ez Amagoia'gatik..! Ranimiro'k il bear ba'du, batzarrak eman bear du il-epaia... Ta ez ote duan emango, ere, bildur naiz..! Lagun asko ditu gaur, euskaldunon etsairik aundiena izan dan orrek..!

PETRONILA Bai, Teodosio..! Ta ni lenengoa. Ez Ranimiro'gatik bear ba'da. Bañan bai Lorea ta Amaia'gatik... Batzarrekoak entzun bearko didate. Ta nik esandakoa entzun ondoren, ez dute Ranimiro iltzeko kemenik izango... Jaungoikoa'k gordeko al'dit argi, ordurarte, nere buru au..! Zoatz, bai, Teodosio... An arkituko dituzu Amaia ta besteak... Gordeko al'dizu, zuri ere argi, burua Jaungoikoa'k..!
 Eta ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko da Teodosio.
 Iruditegiko ezker-aldeko txokora joango da Petronila. Ta irrintzi bat jo-ta, tente-tente geldituko da bertan Petronila.
 Ikueleen eskubi-aldeetik, iruditegi-atzean, agertuko dira Jaun Migel eta Andre Plaxidi. Ez dute Petronila'rik ikusiko.

JAUN MIGEL (Irripar gozo batekin).
 Irrintzia zan Andre Plaxidi... Garaipen-irrintzia..!
 Ez naiz umea... Urte asko dauzkat, bañan ez dit,

iñoiz, irrintzi batek, oraingo onek añeko pozik eman..! Ranimiro, gure etsairik aundiena illa da, Plaxidi..!

PETRONILA

(Bere txokotik).

Ez da illa..!

Petronila'ren abotsa entzun-da, arri-arri geldituko dira Jaun Migel eta Andre Plaxidi. Pe-

tronila'rengana urreratuko da Andre Plaxidi.

Zuk jo al'dezu irrintzia, Petronila..?

ANDRE PLAXIDI

PETRONILA

Nik jo det, bai...

ANDRE PLAXIDI

Eta zer dala-ta, jo dezu, ba..?

PETRONILA

Laister jakingo dezute... Gartzzi-Ximeno ez dago emendik urruti..!

Ikusleen eskubi-aldeetik agertuko da Gartzzi-Ximeno.

GARTZI-XIMENO

Zorionak, Jaun Migel. (Andre Plaxidi ikusi-ta). Zuri ere bai, Andre Plaxidi...

Gartzzi-Ximeno'rengana etorriko da Andre Plaxidi.

Bere txokoan, leen bezin tente, geldituko da Petronila.

Gurekin izan degu Teodosio ere... Ta Teodosio'ri ta orrei (Petronila'gatik) eskerrak, irten da gauza guk nai baño obe..!

JAUN MIGEL

Ez da egia izango..?

GARTZI-XIMENO

Bai, Jaun Migel..! Egia da..!

ANDRE PLAXIDI

Eta nun da, ba, bera..?

GARTZI-XIMENO

Zer dakit, ba, nik..! Burrukea akabatu dan bezin laister, erbi-iñudea bezelaxe izkutatu da gure arte-tik... Izango du egitekoren bat..!

ANDRE PLAXIDI

Ez zan, ba, zauritua izango..?

GARTZI-XIMENO

Ez, Andre Plaxidi..! Odol-tanta bat ere, ez da ixuri... Ez diot egia... Gizon bat bakarra il da burru-

ka garaian, bañan, gero ikusi dedanez, ez zan, ez gure artekoa, ta ez aien artekoa ere... Judutarren bat izan bear zuan... Ez du bataiatzerik nai izan beintzat eta... Idazki au eman dit berak... (Kolkotik atera, ta erakutsiko du idazkia). Ez dezaiedala, ez Ranimiro'ri ta ez gudutarrei erakutsi..!

- JAUN MIGEL Eta zer zioz idazki orrek..?
- GARTZI-XIMENO Ez det irakurtzeko astirik artu, Jaun Migel... Teodosio'k agindu didan bezela, Gazteluzar'era ekarri dituk baitu ditudanak..!
- JAUN MIGEL Baitu ditukanak..?
- GARTZI-XIMENO Bai, Jaun Migel..!
- JAUN MIGEL Orain artean, ez diagu onelako oiturarik izan euskaldunok... Gure eskuetan erori izan diran etsaiak, bertan illak izan dituk orain artean.
- GARTZI-XIMENO Bart, ez, ba, Jaun Migel..!
- JAUN MIGEL Eta nortzuk dituk baitu oiek..?
- GARTZI-XIMENO Orixe esan nai nion, Jaun Migel... Baitu, baitu bezela, ez det Ranimiro besterik egin...
- JAUN MIGEL (Pozaren-pozez).
Ranimiro..?
- GARTZI-XIMENO Bai, Ranimiro..! Bañan onen alaba, Amaia ere, Gazteluzar'ean dago. Eta Gazteluzar ez zait Amaia' rentzat egiten dan lekua iruditzen.
- ANDRE PLAXIDI Etorri dedilla, ba, gure etxera..!
- GARTZI-XIMENO Ez du, ordea, aita bakarrik utzi naiko..!
- ANDRE PLAXIDI Etorri ditezela, ba, biak..! Aientzat aiña leku ba'da oraindik gure etxean eta..!
- JAUN MIGEL Biak ez, Andrea..! Irikiak ditu Amaia orrek gure etxeko ateak, Ranimiro'k ez, ordea..! Ala ere, zoatz Gazteluzar'era, ta ez dezatela, ez aita eta ez ala-

bak, ezeren paltarik izan..! Eta ez zaite aaztu onen mutillekin ere...

- ANDRE PLAXIDI Ba'noa, bai..! Lorea'ren alaba ori ezagutzeko irrikan bait-nago..!
Eta ikusleen eskubi-aldeetik izkutatuko da Andre Plaxidi.
- JAUN MIGEL Gartzi-Ximeno..! Zergaitik ekarri det onera Ranimiro.
- GARTZI-XIMENO Teodosio'k agindu didalako, Jaun Migel..!
- JAUN MIGEL Ondo dakik, ik, ni nor naizen..! Mundu guztiarentzat zeudek irikiak nere etxeko ateak... Ez diat, ordea, Ranimiro etxean nai..! Etxean ba'nu, ik bezin ondo artuko nitek ura ere... Ta ez nitek gero, eriotzera bialtzeko kemenik izango..!
- GARTZI-XIMENO Eta Ranimiro il egin bear degula, uste al'du beorrek ere..?
- JAUN MIGEL Eta nork ez..!
- GARTZI-XIMENO Nik..! Eta barkatu, Jaun Migel, bañan Ranimiro ez du iñork ilko, ni ez ba'naute aurrena iltzen beintzat..!
- JAUN MIGEL E..?
- GARTZI-XIMENO Bai, Jaun Migel..! Onela agindu diot berari ere..!
- JAUN MIGEL Nola eman dek, ik, betetzerik izango ez dekan itz bat.
- GARTZI-XIMENO Ez det ba, nik, nere itzerik jango, Jaun Migel..! Nere eskuetan ipiñi du ark bere burua, ta iñork okerrik txikiena ari egin baño leen, nik eramango det Ranimiro, nere mutillekin, Iruña'ra..!
- JAUN MIGEL Zer adi aiz esaten, gazte..? Teodosio bezin maite aut. Biotz-bera nauk ni ere. Ez zioat iñori gorrotorik. Ez Ranimiro'ri ere. Ta ondo dakik, ik, gizon orrek erail zidala nere semeetako bat... Bañan or-

tik, orren bizia gorde nai izatera, bide asko zegok... Mirari ori egiten ba'dek, ez dik inork ezer egin-go. Ire alde izango nauk ni ere-ta. Bañan bertan bera utzi bearko dituk ire aundi-naiak... Gorroto izango die beti euskaldunak..!

GARTZI-XIMENO Nik ez det aundi-nairik, Jaun Migel..! Nere egin-bearra betetzea besterik ez det nik nai... Barkatu, Jaun Migel. Gazteluzar'era joan bear det. Ez det aieri okerrik gertatzerik nai..!

JAUN MIGEL Ago pixka-batean oraindik, Gartzzi-Ximeno...

PETRONILA Gelditu zaite, Gartzzi-Ximeno... Nik zaituko ditut-eta Ranimiro ta Amaia.

Eta ikusleen esubi-aldetik izkutatuko da Petronila.

JAUN MIGEL (Arrituta).

Ez al'uan ori Etxeberriko zoroa..?

GARTZI-XIMENO Zorotzat euki deguna, Jaun Migel..! Bañan ez ote du gu-guztiok baño buru argiagoa..!

JAUN MIGEL (Leengo leloari eldu-ta).

Gartzzi-Ximeno, ik baitu dek Ranimiro. Ta ik baitu dekalako, ire eskuetan daukakela aren bizia, us-te dek ik... Eta ori ez dek orrela...

GARTZI-XIMENO Zergaitik ez..?

JAUN MIGEL Ire alde asko esan nai dik ire asmo orrek... Baño ez ago zuzen..! Ez ik, eta ez nik, ez diagu gure eskue-tan Ranimiro'ren bizia..!

GARTZI-XIMENO Zergaitik ez, Jaun Migel..? Ez al'da onela izan orain arte..?

JAUN MIGEL Ez diagu euskaldunok ori bezelako gizonik baitu orain-arte. Eta baitu izan ditugunak, bertan il izan zituagu beti. Beste ainbeste egiten zien gure etsaiak gurekin ere... Bañan Ranimiro'rekin ez zegok ori egiterik orain. Epaitua izan bearko dik, ba...

GARTZI-XIMENO Eta nortzuk epaitu bear dute, ba..?

JAUN MIGEL Batzarrekoak..!

GARTZI-XIMENO Batzarrekoak..?

JAUN MIGEL Bai, Gartzzi-Ximeno..! Ta au iri esan-bearrak, min ematen zidak benetan: Ranimiro ez diagu, bes-teak bezela, etsaia bakarrik. Etsaiaz gañera, eraille diagu Ranimiro..!

Andre Plaxidi agertuko da ikusleen esku-bi-aldetik.

ANDRE PLAXIDI

Jaun Migel..! Euskalduna degu neskatxa ori..! Aitor'ren alabaetan ederrena... Muxuz jan ez de-danean... Etxera ekarri nai izan ditut, bañan Ra-nimiro'k ez du nai izan... Ba'noa..! Gazteluzar'era eraman bear ditut etxeko gauzarik onenak..!

Eta ikusleen eskubi-aldetik izkutatuko da Andre Plaxidi iruditegi-atzean.

GARTZI-XIMENO Gogorregi jardun diot, Jaun Migel..! Barkatuko al'dit.

JAUN MIGEL Ez diat zer-barkaturik, Gartzzi-Ximeno..!

GARTZI-XIMENO Nik ez nuan, beorren aurrean, itzik atera bear... Ume bat besterik ez naiz oraindik eta..!

JAUN MIGEL Ez adi bildurtu, Gartzzi-Ximeno..! Ire alde dek gaurtik, Andre Plaxidi, ikusi dekanez, eta aundia dek orren almena... Egon adi, ba, trankil. Ez dek Jaungoikoa'k konpontzen ez duan gauzarik, ta au ere, konponduko dik Jaungoikoa'k.

GARTZI-XIMENO Konponduko al'du, bai, Jaun Migel... Egin deza-gun bestela, leenbaitlen Teodosio euskaldunon bu-ruzagia, ta berak konpondu ditzala gauza auek..! Jaungoiko bat zeruan, Jaun Migel... ta Euskal-erri bat munduan..!

JAUN MIGEL Egia diok..! Joan adi, ba, trankil Gazteluzar'era. Gorde itzak ire baitu oiek. Eta ez adi aaztu judutar orrek emandako idazki orrekin...

GARTZI-XIMENO Ez naiz, ez, aaztuko..!
JAUN MIGEL Agur, ba...
GARTZI-XIMENO Agur, Jaun Migel..!
Eta ikusleen eskubi-aldeetik izkutatuko da
Gartzi-Ximeno.
JAUN MIGEL (Gartzi-Ximeno izkutatu dan bideari begira).
Ori dek, ori, mutilla..!

GARTZI-XIMENO

Bigarren ekiñaldiko antzezleriak:

XEBASTIAN.

I AMEZKUATARRA.

II AMEZKUATARRA.

GARTZI-XIMENO.

JAUN MIGEL.

PAKOMIO.

AMAIA.

RANIMIRO.

III AMEZKUATARRA.

IV AMEZKUATARRA.

PELAIO.

PETRONILA.

AMAGOIA.

GIZON-TALDEA.

TEODOSIO.

ANDEKA.

BIGARREN EKIÑALDIA

Gazteluzar-aurrean gera.
Xebastian eta amezkuatar bi agertuko dira
iruditegian, Ikusleen eskubi-aldeetik.
Eseririk agertuko dira amezkuatarrak. Ten-
te Xebastian.

- XEBASTIAN Nai dezutena esango dezute zuek... baña Gartzi-Ximeno'k ez dirudi, gaur, euskalduna. Ranimiro' ren mendean dirudi, gaur, ark. Ba al' du, ba, aueri on-egitea baño beste ametsik..? Ez die, nik dietan gorrotorik! Ranimiro'ri batez ere..! Lapur alena..! Zergaitik izan bear du, orrek, nere baztarren jabea? Etorriko al'ba, bai, Teodosio. Orduan jakingo degu Ranimiro'rekin zer-egin..!
- I AMEZKUATARRA Arrigarria da, ba, Teodosio'ren joera au ere, Xebastian. Bere aginduz ekarri giñuzen onera baitu auek, eta bizi dan arrastorik, ere, ez du geroztik eman..!
- II AMEZKUATARRA (Ziri-antzara).
Izango dik orrek, ere, bere usteko zer egiñen bat..!
- XEBASTIAN Gartzi-Ximeno ez-bezelako gizona da Teodosio..! Izan ere, zuen orrek ez zuan gudari izan bear, praille bear zuan orrek..!
- I AMEZKUATARRA Eta ala ere, iñork egin ez duana, egin du orrek..! Noiz baitu du euskaldun batek, Ranimiro bezelako gizonik..?
- XEBASTIAN Baitu, bai... Baña, zertarako..? Loisintzaz beteta eukitzeko..? Gartzi-Ximeno gizona izan ba'litz, illa bear zuan, gaur, Ranimiro'k..!

- II AMEZKUATARRA Il erazi ez ba'du, zerbait-gaitik izango da, Xebastian..!
- XEBASTIAN Zerbait-gaitik..? Bai, Amaia'ren begi ederrak-gaitik. Amaia'rekin txoraturik daukazute zuen buruzagi ori. Amaia'rik izan ez ba'zan, buruauste gutxi emango zidan, gaur neri, Ranimiro'k... Nereak lirake gaur, Errekalde'ko baztarrak..!
- I AMEZKUATARRA Ai, Xebastian..! Orrek ematen dizu, zuri, min..!
- XEBASTIAN Eta nori emango ez lioke..?
- II AMEZKUATARRA Ranimiro baitu genduanean, ez ziñan, ala ere, gu-rekin.
- XEBASTIAN Ume bat al'naiz, ba, ni..?
- I AMEZKUATARRA Ume bat ez..! Bañan zu baño zaarragoak ba'ziran gure artean...
- XEBASTIAN Eta zer on atera degu, burruka artatik, euskaldunok? Ez al'dijoaz, leen bezelaxe, gure gauza guztiak. Etsaiak jasoko dituzte, bai, aurtengo nere gariak ere..!
- Gartzi-Ximeno agertuko da ikusleen ezker-aldeetik.
- GARTZI-XIMENO Zoazte pixka-batean. Ni geldituko naiz emen..!
Ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko dira Xebastian, eta amezkuatar biak.
Gazteluzar-aurreko eserlekuan eseriko da Gartzi-Ximeno.
(Oldozkor).
Alperrikoak izango dira, bear ba'da, nere alegin guztiak, bañan ez det emandako itzik jasoko. Jaungoioa'k ez dit garaille-irtetzekorik agintzen! Euskaldunon izen-ona garbi gordetzen saiatuko naiz, eta nere alegin ortan iltzen ba'naiz, izango al' du nere errukia Jaungoioa'k..!
Bañan ez ote nau, nere eginkizun onetan, Amaia'k pixkan-bat itxutzen..? Neskarxa ederra da! Ta

orrei kalterik egingo dion euskaldunik ez dago..!
Bañan, aita iltzen ba'diote, naigabez ilko da alaba
ere. Ta nik izango det eriotz orren errua. Izan ere,
errezena egin nuan nik ere... Nork menderatuko ez
zuan ba, emakumez-inguratutako etsai bat..? Eta
orixe da, nik Ranimiro'rekin egin nuana..!

Amaia... Ederra da, bai, bañan ez da, nik, maite
bear dedan neskatxa. Lorea'ren alaba ba'da ere, Ra-
nimitro'ren alaba da. Ta Ranimiro'ren alaba batek,
ezin dezake euskaldun baten senargaia izan. Onela
esan dit Jaun Migel'ek ere, ta egia esan dit!
Amaia maite izatea, euskaldun-izateari uko egitea,
izango litzake neretzat. Teodosio saltzea..! Ta nik
ez det Teodosio'rik salduko... Bere alde jokatu-
ko det..! Alegin guztiak egingo ditut Butrun'go
Amaia'kin ezkondu dedin, eta euskaldunon buru-
zagia izan dedin..! Bai, Teodosio, ni izango nauk
ire lagunik leialena... Eta ortarako nere Amaia'
renganako maitasun au, edo dana-dala, ito bear ba'
diat ere, bertan itoko diat..! Jaungoikoa'ren urrena,
ez diat nik, inor maite, Euskal-erria aña..!

Jaun Migel agertuko da ikusleen ezker-al-
detik.

JAUN MIGEL

(Irriparrez).

Zer dagik, ik, emen bakarrik..?

GARTZI-XIMENO

Jaun Migel..! Noizko bildu bear du gure Batzar
orrek..?

JAUN MIGEL

Nik zer zekiat, ba..! Ain estuak dituk, izan ere, iga-
rotzen ari gaituken egunak..! Etxeko-atean zeuz-
kagu gure etsaiak... Batzar ori biltzea ez dek, ba
lan erreza izango..!

GARTZI-XIMENO

Noiz bildu zan azkenengoz..?

JAUN MIGEL

Aspaldian ez..! Ni ez nauk beintzat erotzen..!

GARTZI-XIMENO

Eta batzar ori biltzerik ez dagonean, nork agin-
tzen du, ba, Euskal-erria'n..?

JAUN MIGEL

Ondo dakik, ik, ori, Gartzzi-Ximeno. Ballera bakoi-
tzean, an-bertako jaunak. Ta emen inguruetan, zuen
artean zaarrena naizelako edo, nik agintzen diat
aspalditik; eta Teodosio'k, gaur, nere orde..!

GARTZI-XIMENO

Ondo dago, Jaun Migel..! Ba'daki Ranimiro'ri
eman nion itza. Beorren eskuetan uzten det, ba,
Ranimiro.

JAUN MIGEL

Nere eskuetan ez..! Nere semearen eskuetan nai
ba'dek..!

GARTZI-XIMENO

Beorren eskuetan..! Teodosio'rik ez dago emen..!
Egunen batean, nik nai dedan bezela, gure buru-
zagia izaten ba'da Teodosio, orduan izango da Ra-
nimitro aren eskuetan... Ori izaten ez dan bitar-
tean, zure eskuetan bakarrik uzten det..!

JAUN MIGEL

Ez, Gartzzi-Ximeno..! Biotz-bera nauk ni ere, ta ez
nikek Ranimiro eriotzera bialtzeko kemenik izan-
go.

GARTZI-XIMENO

Jaun Migel..! Il erazteko kemenik ez ba'du, gorde
beza Ranimiro'ren bizia..!

JAUN MIGEL

Ori ere ez, Gartzzi-Ximeno. Ranimiro'ren bizia gor-
deko ba'nikek, zer esango lieke euskaldunak, zer
nere seme Teodosio'k..? Oraindik etxeratu ez ba'
dek, ez ote zebilek, balleraz-ballera, Ranimiro epai-
tzeko, balleraetako jaun oiek bildu naiean..?

GARTZI-XIMENO

Ez nuke ezetz esango, Jaun Migel..! Eta Amagoia'
rik ekartzen ez ba'digu, gaitz erdi..!

JAUN MIGEL

Ba'diat, nik ere, orren kezka..! Ta oiek ba'dituk
Teodosio'ren asmoak, aren naia ezagutzea ere, ez
dek zailla..! Amagoia'k ez zioz bizia barkatuko, Ai-
tormendi erre, ta Basurde bere senarra il zionari...
Ta ire itza bete bear ba'diat, Teodosio'rekin asa-
rratu-bearra zeukat... Gogorregia dek ba, nere ur-
teetarako eskatzen didaken ori..!

GARTZI-XIMENO

Entzun? Jaun Migel..! Eta ez naiz orain lagun be-

zela ari, Abarzuza ta Amezkueta'ko jaun bezela ari naiz orain..! Emen ez dago, gaur, baitu bat besterik, eta baitu ori, Ranimiro da..! Amaia'k etxerako bideak irikiak dauzka. Nai duanean artu dezake Iruña'rako bidea. Nik ez det emerik baitzen..! Eta Ranimiro Teodosio'ren eskuetan ipiñi ba'nuan, aren bizia gordeko zidala agindu ondoren, ipiñi nuan..! Ranimiro gure artean izango da, bai, guretzako arrisko bat dan artean. Bañan arrisko izatea, uzten dion bezin laister, nik-neronek eramango det Iruña'ra. Ta nerea bakarrik izango da pekatu guztia..!

JAUN MIGEL Erruki aut, Gartzzi-Ximeno..!

GARTZI-XIMENO Zergaitik, Jaun Migel..?

JAUN MIGEL Ik esan-bezela izatea ,ez nik eta ez Teodosio'k, ez degulako gure-gain artuko ire baitu ori...

GARTZI-XIMENO Nere etxera eramango det, ortaz..!

JAUN MIGEL Irea dek..! Bañan ez dituk, euskaldun bati ipintzeko, ik esaten ditukan baldintza oiek..!

GARTZI-XIMENO Ara, Jaun Migel..! Orain egun batzuek, guda gogorren bat izango ote genduan, kezkatan arkitzen gifianean, gugana bat etorri ta onela esan ba'zigun: "entzun euskaldunak. Zuen etsarik aundiena ta bildurgarriena Ranimiro dezute. Ba nik ekarriko ditutet baituta Ranimiro ori, kalterik egin ez daizuten. Eta zuen artean gordeko dezute guda-arriskoak iraungo duan arteraño. Bañan guda-arrisko ori izkututzen dan bezin-laister, bizirik eman bearko didazute berriro". Esan, Jaun Migel! Nork ez genduan gizon ori txalotuko..? Ba ori besterik ez det nik egin!

JAUN MIGEL Egia diok, Gartzzi-Ximeno... Egi aundia..!

GARTZI-XIMENO Eta onela egiten ba'degu, Jaun Migel, ez ote degu, gure etsarik aundienetik, gure lagunik aundiena egingo..? Ez gaituzte ezagutzen? Jaun Migel..!

JAUN MIGEL

Ala dek ori ere..! Baña Ranimiro ez dek besteak bezelakoa. Orrek zor aundiak zeuzkak Euskal-erria'n. Eta orri ez zegok barkatzerik..!

Pakomio agertuko da ikusleen eskubi-alde-tik.

PAKOMIO

Deo gratias..!

JAUN MIGEL

Zer zabiltz emen, Pakomio..? Zer berri dakarzkigu-zu.

PAKOMIO

Berri onak, eta berri txarrak. Bietatik aukeran..!

GARTZI-XIMENO

Aukeran ba'dira, txarrak naiago ditugu lenengotik, Pakomio.

JAUN MIGEL

Egia diok, Gartzzi-Ximeno.

PAKOMIO

Ona ba, nik Iruña'n bildu dedan berri txar bat: Gofñi'ra etortzekotan omen da Errodrigo, gudutarren erregea.

JAUN MIGEL

Gofñi'ra..?

PAKOMIO

Onera, bai..! Ranimiro ta Amaia askatzera..! Ta ez omen du, gañera, arririk arri-gain utziko baztar guzti auetan..!

GARTZI-XIMENO

Ez ote du lan aundiegia artuko..?

PAKOMIO

Su ta gar kixkaliko omen du guztia. Ta euskaldunen odolez gorriak geldituko omen dira mendiak..!

GARTZI-XIMENO

Eta ez al'du beste asmorik..?

PAKOMIO

Zer geiago nai zenduke, ba..?

GARTZI-XIMENO

Nik ezer ez..! Bañan auk besterik ez ba'dira berri txarrak, ez daukagu zergaitik bildurtu, Pakomio. Ez al'da onela, Jaun Migel..?

JAUN MIGEL

Bai, Gartzzi-Ximeno..! Ta emen nai nitek nik, egun artan, Teodosio ere.

GARTZI-XIMENO

Emen izango da, ba..! Ez du Errodrigo'k mendi auetara etortzeko, presa aundirik artuko-ta..!

PAKOMIO (Gaiztoz).
 Errodrigo'k artzen ez ba'du ordea, ba'da presa ori artuko duan beste bat: Pelaio..! Ta ba al'dakizu Pelaio ori nor dan, Gartzzi-Ximeno..? Amaia'ren senargaia..!

GARTZI-XIMENO (Gaiztoz onek ere).
 Amaia'ren senargaia, bai..! Bañan entzun ondo, Pakomio..! Euskaldunok ez daukagu zergaitik begi-onez ikusi ez, Amaia ta Pelaio'ren arteko ezkontza ori... Ba'degu guk beste Amaia bat Butron'en, Teodosio'ren emaztea izango dana, ta Aitor'ren aberastasunak bereganatuko dituana. Garbiago ezin, ba, esan..!

JAUN MIGEL Ea, Pakomio..! Oiek ez-bezelakoak izango al'dira berri onak..!

PAKOMIO Bai, Jaun Migel..! Zuen eskuetan daukazute Iruña'ko uria..!

JAUN MIGEL Gure eskuetan..?

PAKOMIO Bai..! (Gartzzi-Ximeno'gatik). Oni eman nai dizkio-te uriko giltzak..!

GARTZI-XIMENO Neri..? Nortzuk, ordea..? Ez dira, ba, Errodrigo ta Pelaio izango..?

PAKOMIO Ez..! Ez dira oiek..! Oien aurka jaiki diranak dira: euskaldunen lagunak..!

JAUN MIGEL Benetan ari al'zera, Pakomio..?

PAKOMIO Ain benetan ezik..! Oraintxen egingo ditugu, nai ba'dezute, ortarako agiriak..!

GARTZI-XIMENO Eta nortzuk agintzen dute, ba, an..?

PAKOMIO Judutarrak gaur beintzat..!

GARTZI-XIMENO Abraham Aben Hezrra'k..?

PAKOMIO Ezagutzen al'dezu..?

GARTZI-XIMENO Nik ez..! Ezagutzen al'dezu zuk..?

PAKOMIO Nik, bai..!

GARTZI-XIMENO Ezagutu nai nuke nik ere ba..!

PAKOMIO (Gaiztoz).
 Zertarako..? Zure eskuetan daukazun idazki ori eman nai diozulako edo..?

GARTZI-XIMENO Nundik dakizu, zuk, ori..?

PAKOMIO Eta nork ez daki ori Iruña'n..! Ain zuzen ere, idazki orren truke eman nai dizu Iruña'ko uria, zuk izendatu dezun Abraham Aben Hezrra orrek. Eta idazki orrek ez du zuretzako baliorik, eberkeraz idatzia dagola..!

GARTZI-XIMENO (Gaiztoz).
 Egia diozu, Pakomio..! Neretzat ez du oraindik balio aundirik izan beintzat..! (Gazteluzar erakutsiaz). Or daukat, irakurtzeko alperrez, or-bertako mai gañean. (Jaun Migel'eri). Pakomio au, benetako laguna degunik, ezin ukatuko degu beintzat, Jaun Migel..! Berak ekarri zigun, leen ere, Ranimiro'ren etorreraren berri. Ta idazki txar baten truke, Iruña'ko uria eman nai digu gaur. Geiago eskatzerik bai al'dago..?

JAUN MIGEL Ez Gartzzi-Ximeno..! Ez zegok geiago eskatzerik... Bañan nik ez nitek nai, judutarrak emandako Iruña'rik.

GARTZI-XIMENO Nik ere ez, Jaun Migel..! Kristo'ren etsaien eskue-tatik ezertxo ere ez..! Auxe dezu ba, Pakomio, euskaldunon aldetik Abraham Aben Hezrra'ri eman bear diozun erantzuna..!

PAKOMIO Ez nuan beste erantzunik espero..! Ba'noa, ba, leenbaitleen...

JAUN MIGEL Onera etorri-ta, noiz joan zera zu, ezer artzeke, Pa-

komio..? Egun luzea dezu oraindik.. Goazen, ba..!
Ez al'dute berri auek trago bat merezi..?

PAKOMIO

Eta Ranimiro-ta, bakarrik utzi bear al'ditugu..?

GARTZI-XIMENO

Ez dute iges egingo, Pakomio..!

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira
irurak.

Gazteluzar'reko atean agertuko dira Rani-
miro ta Amaia.

AMAIA

Egia esan, aita. Ez zaituk ain goibel iñoiz ikusi...

RANIMIRO

Ez nau nere buruaren arriskoak goibeltzen, Amaia.
Nere bizitzak ez du ezer esan nai... Aberriaren
arriskoak goibeltzen nau... Iruña'n bilduko zituan
gure errege Errodrigo'k bere gudarozte guziak, eta
Iruña'n ez dago guretzako arriskorik. Betika-al-
dean bai..! Aprika'tik datoz, gure aberria ta gure
kristau-sinismena oinperatu nai dituzten, mahoma-
tarrak. Eta be-alde oietan, ez zan gudarozte ba-ba-
karra ere, geldituko... Onetxek goibeltzen nau, ala-
ba...

AMAIA

Eta ez al'dute ba, Pelai'k-eta, arrisko ori ikusten?

RANIMIRO

Pelai'k-eta ikustea ez da naikoa, Amaia... Erre-
geak ikusi bearko luke arrisko ori. Ta erregeak ez
ote duan ikusten, bildur naiz. Saltzalle asko izan
bear ditu Errodrigo'k bere inguruan. Iruña'ko au,
erregea atzipetutzeko aitzaki bat besterik ez dala
izan, uste det nik..! Eta gure errege orri argi egin
dezaiokenik, ez dago gaur gizon bat besterik..!

AMAIA

Zu, aita..!

RANIMIRO

Ni ez, Amaia..! Nik ezin nezaket gaur, ezer egin..!

AMAIA

Eta nor da, ba, gizon ori..?

RANIMIRO

Gartzi-Ximeno..!

AMAIA

Gartzi-Ximeno..? Ori ala izatea, ez zaite bildurtu,

aita..! Biotz aundiko gaztea degu Gartzi-Ximeno.
Nik eskatuko diot mesede ori... Ta gure aberriaga-
tik egingo ez ba'du ere, kristau-sinimenagatik eta
nigatik egingo duala, ziur-ziur nago, aita..!

RANIMIRO

Entzun, Amaia..! Gure aberriaren ona ta kristau-si-
nismenaren ona, Gartzi-Ximeno'k mai-gaiflean aaz-
turik daukan idazki orretan daude nere ustez. Ba-
ñan ez dio, nik añeko garrantzirik ematen, idazki
orri.

AMAIA

Ez du, bear ba'da, ulertuko, aita..!

RANIMIRO

Ortan nago ni ere... Ez zuan bestela, ainbait-egun-
netan, or utziko..!

Eta bitarte onetan ikusleen eskubi-aldeko
iruditegi-ertzean eseriko dira Ranimiro ta
Amaia.

Pakomio agertuko da ikusleen eskubi-alde-
tik.

Ez du iñork ikusiko, ta Gazteluzar'era sar-
tuko da.

Ura Gazteluzar'era sartzen danean, tentetu-
ko dira Ranimiro ta Amaia.

Laister agertuko da berriro Pakomio, kol-
koan zerbait gorde naiean, eta ikusleen eskubi-
aldeko bidea artuko du.

Ranimiro bidera irten, ta bi idazki aterako
dizkio kolkotik.

Guzti au ikusteko eran, agertuko da Gartzi-
Ximeno ikusleen ezker-aldetik.

PAKOMIO

(Asarre).

Alperrik zabilzate..! Ez zerate emendik bizirik ate-
rako..!

Eta ikusleen eskubi-aldetik izkutatuko da
Pakomio.

GARTZI-XIMENO

Bildur nintzan, bai..! Onelako bat, ez ete zigun
egingo, bildur. Orregatik etorri naiz..!

RANIMIRO

Barkatu, Gartzi-Ximeno..! Egunetan ikusi det idaz-
ki au Gazteluzar'reko mai-gaiflean. Ez det iraku-
rri, bañan ez diot begirik kendu ere. Garrantzi aun-

dia du idazki onek neretzako! Orregatik zaindu det, zaindu dedan bezela. Eta ez da alperrikoa izan nere zaintze au..! Tori ba, Gartzzi-Ximeno. Zurea dezu. Eremutar orrek ez du irakurtzeko astirik izan.

Eta Gartzzi-Ximeno'ri emango dio idazkia.

Uler-gaitza ba'zaizu, emen gaude Amaia ta biok.

GARTZI-XIMENO Ona egia esan, Ranimiro. Arduraz asi nintzan irakurtzen, bañan izar-kontuak besterik ez zituala aipatzen-eta, errez laga nuan, bai, mai-gaiñean... Gaur bait-dakit garrantzi aundiko idazkia dala. Iruña'ko giltzak eman nai dizkidate idazki onen truke..!

RANIMIRO Nortzuk, ordea..?

GARTZI-XIMENO Iruña'ko judutarrak..!

RANIMIRO Ezin lezakezu ori egin, Gartzzi-Ximeno..!

GARTZI-XIMENO Zergaitik ez..?

RANIMIRO Gure erriaren ondamendia egon leikelako idazki orretan..!

GARTZI-XIMENO Ez dizut ori ukatuko..! Bañan euskaldun batekin ari zerala, ez aaztu, Ranimiro..! Ta zuen erri ori, etsai-erria degu euskaldunok. Gure aurka jeiki dan erri bat..! Ori bestetik ez ba'lego ba, pozik emango nuke idazki au, Iruña'ren truke..!

AMAIA Eta kristautasunaren ondamendia ere, idazki orretan ba'lego..?

GARTZI-XIMENO Beste gauza bat da ori, Amaia..! Kristo'ren etsaiak ditugu, gaur, Iruña'ko judutarrak. Eta Kristo'ren etsai oiekin ez degu, ezertxo ere nai, euskaldunok..! Ezezkoa eman diegu, ba..! Ez ba bildurtu, Amaia..! Eta kristautasunaren ona, idazki onetan baldin ba'dago, nik jakingo det zer-egin idazki onekin.

Eta idazkiari begiratzean, bi dirala Ranimiro'k eman dizkion idazkiak, konturatuko da Gartzzi-Ximeno.

Bañan zer da au..? Leen bakarra zan idazkia. Nundik sortu da, ba, bigarren idazki au..?

RANIMIRO Nik kenduko nion eremutar orri..!

GARTZI-XIMENO Zuk kendu ba'diozu, zurea dezu, Ranimiro..!

RANIMIRO Ez..! Nik ez det, gaur, nererik..! Nere bizia ere, zure eskuetan daukazu, Gartzzi-Ximeno..!

Bigarren idazkia irakurtzen bezela ariko da Gartzzi-Ximeno.

GARTZI-XIMENO Ranimiro..!

RANIMIRO Zer..?

GARTZI-XIMENO Gurekin degu Jaungoikoa..! Bigarren idazki onek ematen bait-digu lenengoa ulertzeko giltza..!

Ikusleen eskubi-aldetik dator III amezkuatarra.

Laisterka dator, etorri ere.

III AMEZKUATARRA Gudutar bat dator, Jauna..! Ikurrin txuria dakar eskuan..!

GARTZI-XIMENO Zoatz Goñi'ra ta etorri dedilla, leenbaitlen, Jaun Migel..!

III AMEZKUATARRA Bai, Jauna..!

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da III amezkuatarra.

Ikusleen eskubi-aldeko iruditegi-ertzero jango da, bitartean, Amaia.

Eta pixka-batean begira egon ondoren, aitarengana biurtuko da.

AMAIA Nere begi auk gezurtzen ez ba'naute, Pelaio da datorren ori, aita..!

RANIMIRO Goazen barrura, Amaia..!

Eta Gazteluzar'ean izkutatuko dira Ranimiro ta Amaia.

GARTZI-XIMENO Pelaio..! Ranimiro'rekin gure etsairik bildurgarriena..! Amaia'ren senargaia..! Ez ote da Amaia'ren

billa etorriko..? Aske da Amaia... Onela esan izan diet, bein baño geiagotan, Jaun Migel'i, Ranimiro'ri ta Amaia berari ere..! Ai, Gaztuluzar'era ekarri ez ba'nu..! Zenbait buruko-min gutxiago izango nituan orain..! Amaia emendik eramaten ba' didate, min izango det, bai..! Min aundia..! Bañan berea du Pelaio'k... Eta eramen nai ba'du, eraman dezala, bai. Aske izango naiz, ni ere, orduan..! Eta Euskal-erria'rentzat bakarrik izango da nere biotza. Teodosio'ren mendeko egingo gera euskaldun guztiok, eta Butron'go Amaia izango degu gure erreña. Aske nai det, ba, nere biotza..!

Ikusleen ezker-aldetik agertuko da Jaun Migel.

JAUN MIGEL

Zer dek, Gartzzi-Ximeno..?

Ikusleen eskubi-aldera begiratzeko kiñua egingo dio Gartzzi-Ximeno'k.

Pelaio agertuko da ikusleen eskubi-aldetik.

PELAIO

Egun on Jaungoikoa'k..!

JAUN MIGEL

Baita zuri ere..!

PELAIO

Gartzzi-Ximeno..?

GARTZI-XIMENO

Ni..!

PELAIO

Pelaio naiz..! Ranimiro'ren illoba..! Baña erregearen mandatari bezela natorkizu gaur..!

GARTZI-XIMENO

Eregearen mandatari bezela ba'zatoz, ni ez naiz iñor emen..! Au dezu emengo jauna, ta onekin jardun bearko dezu..!

PELAIO

Zuk ez al'dituzu, ba, baitu Ranimiro ta Amaia..?

GARTZI-XIMENO

Ranimiro bai..! Amaia ez..! Nik ez det emakumerik baitzen..! Amaia emen ba'dago, bere gogoz dago. Zurekin joan nai baldin ba'du, irikiak dauzka atea eta bideak..!

PELAIO

Ondo dago, Gartzzi-Ximeno..! Eta Ranimiro'ren orde, zer naiko zenduke..?

GARTZI-XIMENO

Zure erregearen galdera al'da au..?

PELAIO

Bai, Gartzzi-Ximeno..!

GARTZI-XIMENO

Ona, ba, nere erantzuna..! Ez berak, eta ez zuek guztiok, ez daukazutela Ranimiro erosteko-aña diru.

PELAIO

Espero nuan zure erantzun au..! Bañan entzun, zer dizun orain erregeak: gaur bertan askatzen ez ba' dezu Ranimiro, bera etorriko dala biar, Ranimiro askatzera, bere gudarozte guztiakin..!

GARTZI-XIMENO

Ez dedilla biarko egunaren zai egon..! Gaur bertan etorri dedilla, nai ba'du..!

PELAIO

Au al'da zure azken-itza..?

GARTZI-XIMENO

Auxe da bai..! Ez al'da ala, Jaun Migel..?

JAUN MIGEL

Bai, Gartzzi-Ximeno..!

PELAIO

Ez al'zaio ezeren-okerririk gertatuko Ranimiro'ri bi-tarte orretan, errukarriak izango zerate, bestela, euskaldunak..!

GARTZI-XIMENO

Bai nai ba'dezu..! Bañan nai deguna egingo degu euskaldunok Ranimiro'rekin..!

PELAIO

Ondo dago..! Erregearen mandatari bezela, itz egin dizut orain-artean. Orain, ordea, Ranimiro'ren illoba ta Amaia'ren lengusu bezela itz egin nai nizuke ta mesede bat eskatu, Gartzzi-Ximeno. Gorde eza-zula nere osabaren bizia..!

GARTZI-XIMENO

Alperrikoa da zure eskabidea, Pelaio..!

PELAIO

Alperrikoa..?

GARTZI-XIMENO

Bai..! Aspeldi eman bait-nion Ranimiro'ri itz ori. Gure arteko guda-kezka auk izkutatzen diranean,

aske izango da Ranimiro. Ta ez det nere itzik jango, zuen errege orrek, bere txorakeri oiekin, jan-erazten ez ba'dit, beintzat..!

PELAIO

Eskerrik-asko, Gartzzi-Ximeno..! Nik uste ez-bezelako gizona zera..! Eta beste eskabide bat ere, egin nai nizuke... Aske dagoala Amaia, esan didazu. Izango al'nuke Amaia'rekin itz egiterik emen, zuen bion aurrean..? Ez degu guda-konturik aipatuko..!

GARTZI-XIMENO

Amaia'rekin bakarrik ez..! Amaia ta Ranimiro'rekin itz egingo dezu. Ta ez emen, gu bion aurrean, or-barruan aiekin bakarrik baizik. Eta ez kezkarik izan, ez zaituzte iñork zelatuko-ta..! Eta ez zaitte, nerekin egon gabe, itzuli. Nere mandatari izan bearke dezu, bear ba'da, zure errege orren aurrean-da..! Lagundu bezaio, Jaun Migel...

Gazteluzar'rean izkutatuko dira Jaun Migel eta Pelaio.

Kolkotik atera, ta idazkiari begira, geldituko da Gartzzi-Ximeno.

Bereala itzuliko da, berriro iruditegira Jaun Migel.

GARTZI-XIMENO

Gudutarren erregeak jakin-bearrekoak daudela idazki onetan, esaten dit barruak, eta gure eliz-gizonarengana noa, Jaun Migel..! Laister izango naiz berriro emen..!

Eta ikusleen eskubi-aldetik izkutatuko da Gartzzi-Ximeno.

JAUN MIGEL

Nerea bear zuan orrek..! Ori bezin kementsua nintzan, ni ere, nere gazte-aroan, eta ori bezin biotzbera..! Maite du, bai, Euskal-erria..! Gutxik maite duten eran, maite ere..! Euskalduna du bere zaiñetako odol guztia..! Ta euskaldun bati dagokion bezela, jokatu oi du beti..! Arrigarria da benetan Ranimiro'rekin darabillen jokabidea. Euskalduna bezin, kristau ona, izan bear ortarako..! Ai, Teodosio! Nundik-nora ote dabil..? Asmo onak ibilliko

al'ditu beintzat..! Bañan bildur naiz..! Emen bear zuan ark ere..! Bestelako egun batzuek izango ziran, egun auek, neretzako... Zaartua bait-nago, ni, gorabera auetarako..!

Amaia agertuko da Gazteluzar'eko atean.

AMAIA

Jaun Migel..?

JAUN MIGEL

Zer nai dezu, Amaia..?

AMAIA

Eta Gartzzi-Ximeno..?

JAUN MIGEL

Eginkizun bat egitera joana da, bañan laister etorriko da berriro..!

AMAIA

Ez al'du gure artera etorri bear, Jaun Migel..?

JAUN MIGEL

Ez, Amaia..! Zaudete zuek bakarrik..! Izango dezute zer-esana ta..!

AMAIA

Ez, Jaun Migel..! Eseri bedi emen, eta Gartzzi-Ximeno etorri bitartean, ni izango natzaio lagun..!

JAUN MIGEL

Ori ez..!

AMAIA

Bai, Jaun Migel..!

Eta eseri dedin, lagundu bezela egingo dio Amaia'k.

Bere alboan jarriko da Amaia ere.

Eta ez al'da Teodosio'rik agertu oraindik..?

JAUN MIGEL

Ez da, ba, agertu, ez..!

AMAIA

Ari zor diot, nik, nere bizia, ta ez diot eskerrik eman oraindik..!

JAUN MIGEL

Dalako Pelaio orrekin joaten ez ba'zera, ikusiko dezu oraindik..!

AMAIA

Nora joan bear det, ba..?

JAUN MIGEL

Zuk nai dezun lekura. Ez omen zaude zu baitua-ta, dio Gartzzi-Ximeno'k..!

AMAIA Ez, Jaun Migel..! Nere aita emen dagoan artean, ni ez noa emendik inora..! Oso ondo arkitzen naiz Euskal-erria'n..! Ez al'naiz ba, ni ere, euskalduna.

JAUN MIGEL Bañan emen, Gazteluzar'ean..?

AMAIA Egia, Jaun Migel..! Ez da au, gure etxea bezelakoa, bañan ba'du, onek ere, gure etxeak ez daukan zerbait neretzako beintzat..!

JAUN MIGEL Ez luke zure aitak ori esango..!

AMAIA Nere aitak ere, maite du Euskal-erria, Jaun Migel. Euskalduna zuan bere emaztea: Aitor'ren jatorrikoa. Ta euskaldun-txertu au, ez zitzaion alperrikoa izan..!

JAUN MIGEL Utzi dezagun arlo au, Amaia..!

AMAIA Ez, Jaun Migel..! Jaungoikoa'k zerbait-gaitik ekarri nau Euskal-erri'ra..! Ba'dakit, euskaldunen etsai batekin ezkondu zalako, ez daukala, nere amak, izen onik euskaldunen artean..! Ba'dakit nere aitarren-gain ere, txarkeri asko ipintzen dituztela euskaldunak..! Auek danak egia izatera, ez nintzake, ni, naizen bezin euskalduna izango..! Jaun Migel..! Naiago det nik, emengo erregiña izan, gudutarren erregiña izan baño..!

Pekatu bat entzun ba'lu bezela jeikiko da Jaun Migel.

Amaia ere, jeiki egingo da.

Bat-batean agertuko da Gartzzi-Ximeno ikusleen eskubi-aldetik.

GARTZI-XIMENO Eta Pelaio..?

AMAIA Ba'noa aren billa..!

Eta Gazteluzar'ean izkutatuko da Amaia.

GARTZI-XIMENO Ona, gudutar-erregiari bialdu bear diodan eskutitza..!

JAUN MIGEL Gudutar-erregiari..?

GARTZI-XIMENO Bai, Jaun Migel..!

JAUN MIGEL Eta onela, inori ezer esan gabe..? Zer esan bear dute Teodosiok, eta Euskal-erri'ko beste jaun guztiak..?

GARTZI-XIMENO Ez orren kezkarik izan, Juan Migel..! Ba'daki Jaungoikoa'k, Teodosio-ta emen izatea, ez nukela nik, aiekin egon gabe, onelakorik egingo.. Bañan ez dago aien zai-egoterik, Jaun Migel..! Arriskoan arkitzen diranak, ez dira gudutarrak..! Kristau-sinismena da arriskoan arkitzen dana. Ta euskaldunona ere, ba'da kristau-sinismena..! Ez bedi bildurtu, Jaun Migel..! Emen daukat, Teodosio'ri-ta erakusteko, eskutitza onen berdiñeko, beste idazki bat eta..!

Pelaio agertuko da Gazteluzar'etik.

Tori, Pelaio..! Garrantzi aundiko eskutitza dezu au. Ez zuentzako bakarrik, guretzako ere bai..! Eraman zaiozu ba, leenbaitlen, zuen errege orri. Ta onerako asmoetan baldin ba'dago oraindik, utzi ditzala asmo oiek; euskaldunen aurka ez dauka zer-egiñik eta..! Bildu ditzala, bai, al'dituan gudarozte guztiak, bañan ez onerako asmoetan..! Zuen arriskoa ez dago emen, Pelaio..! Betika-aldean dago zuen arriskoa. Aprika'tik sartzen ari zaizkizuten mahomatarretan..! Laguntzarik bear ba'dezute, nere ere izango dezute, euskaldunori pakean uzten ba'diguzute beintzat..! Ez da zuen erria bakarrik, arriskoan arkitzen dana, Kristau-fedea ere, ariskoan arkitzen da. Ta zuen erriaren-alde pausorik emango ez ba'nuke ere, prest nago gurutzearen-alde bizia emateko. Baita, ortarako, zuekin-bat egin bear ba'det ere..! Zoatz, ba..! Ta artuko dituzuten erabakiak, leenbaitlen biali neri, nik ere, nereak artu ditzadan..!

PELAIO Gaur bertan bialiko dizkitzut..! Jaun Migel, etsai etorri naiz, eta lagun nijoa..! Agur, Jaun Migel..! Agur, Gartzzi-Ximeno..!

GARTZI-XIMENO Agur..!
Eta ikusleen eskubi-aldeetik izkutatuko da Pelaio.

GARTZI-XIMENO Orain irakurriko diot, nai ba'du, Pelaio'ri eman diodan eskutitza..!

JAUN MIGEL Ez..! Ez daukak irakurri-bearrik..! Entzun zituat esan dizkiokan itzak..! Gure sinismena arriskoan ikusi-ra, ik bezelaxe jokatu nian nik ere..! Teodosio ez-bezelakoa ikusten aut, eta orrek ematen zidak biotzean min..! Euskaldunok errege bat bear iza-tea, norik bear ote'likek, errege ori..?

GARTZI-XIMENO Teodosio'k, Jaun Migel..!

JAUN MIGEL Teodosio'k, bai, ire antzekoa izatera..!
I amezkuatarra agertuko da ikusleen ezker-aldeetik.

I AMEZKUATARRA Teodosio eldu da, Jaun Migel..!

GARTZI-XIMENO (Alai).
Teodosio..?

JAUN MIGEL (Alai).
Gogoan zituk, ala ere oraindik, guraso zaarrak..!
Goazik, Gartzzi-Ximeno..!

GARTZI-XIMENO (I amezkuatar'eri).
Geldi zaite zu, emen..!
Ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko dira Jaun Migel eta Gartzzi-Ximeno.
Aueri begira, geldituko da pixka-batean I amezkuatarra.
Ikusleen eskubi-aldeetik agertu, ta Gazteluzar'ean izkutatuko da bitarte ortan Petronila. Ez du inork sartzen ikusiko.
Iruditegiko eskubi-aldera joango da, poliki-poliki, I amezkuatarra, ta iruditegi-ertzean eseriko da.

I AMEZKUATARRA (Berekiko).
Arrigarria mutil orren joera..! Bere aginduz ekarri genituan baitu auk onera, ta bera agertu ere ez, gaur arteraño... Maite-mindua dagoala..? Besteak ere bai..! Bañan Euskal-erria'k deitzen digunean, dana utzi bear izaten degu guk ere... Onela erakutsi digu, guri, Gartzzi-Ximeno'k... Erakutsi bakkarik ez..! Inork maite ba'du, maite du Gartzzi-Ximeno' bere ama. Ta, ala ere, ez da oraindik bere amarengana joan, ezta bere garaipenaren berria ematera ere..! Jaun Migel gizajoa..! Bere seme ori dala-ta, zenbait naigabetu ez ete-da egun auetan..! Biotz-alaikoa da, Bañan zeñien itun agertzen zai-gun une batzuetan..!
IV amezkuatarra agertuko da ikusleen eskubi-aldeetik.
Estu dator.

IV AMEZKUATARRA Beñat..!

I AMEZKUATARRA Zer dek..?

IV AMEZKUATARRA Nun dek Gartzzi-Ximeno..?

I AMEZKUATARRA Teodosio eldu dala-ta, Goñi'ra joan dek Jaun Migel'ekin..!

IV AMEZKUATARRA Teodosio..! Bear ez duan zerbait egin ote duan, bildur nauk..! Ara, Beñat..! Amagoia'rekin zetorreen, or-beian... Amagoia agurtu, ta Goñi'ko bide artu dik gero... Onuntz zetorrek Amagoia... Gizon-talde polita zekarrek berekin... Eta Amagoia'rekin zetorrek, ezpata-moduko bat eskuan, dalako Pakomio, eremutar ori ere..!
Asmo onik ez die, itxuraz beintzat, ta, ba'da, ez ba'da ere, Gartzzi-Ximeno jakiñen-gañean ipintzea, obe izango diagu..!

I AMEZKUATARRA Ondo diok, Xatur..! Oa, i, Goñi'ra..! Emen geldituko nauk ni-ta..!
Eta ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko da IV amezkuatarra.

I AMEZKUATARRA (Ikusleen eskubi-aldera begiratuaz).
Emen datoz, bai. Eta dalako eremutar ori dator buru, etorri ere..! Alperrik izango da, ba, eremutarra..! Alperrik izango da Amagoia..! Ez dira Gazteluzar'ean sartuko, Gartzzi-Ximeno'ren baimenikan-gabe, beintzat..!

Pakomio agertuko da ikusleen eskubi-alde-
detik.

Eta Amagoia-ta, Pakomio'ren ondoren.

I AMEZKUATARRA Geldi emen..!

PAKOMIO

Geldi ez..! Aurrera, Amagoia..! Gure eskuetan bait ditugu Aitormendi'ko gaizkillea, ta Aitor'ren altxorrez jabetu nai duan emea..! Il ditzagun ba, euskaldun-izenak garbi iraun dezan orain-arteraño bezela..! Aurrera, Amagoia..!

I AMEZKUATARRA

Geldi danok, esan det..!

Pakomio, ala ere, Gazteluzar'eko ateraño urreratuko da.

Petronila agertuko da Gazteluzar'eko atean.

PETRONILA

Atzera zu, Abraham Aben Hezrra..! Judutarrak ez daukate zer-ikusirik-eta euskaldunekin..!

Jende-artean izkutatuko da Pakomio, ta iruditegitik-kanpora iges egingo du poliki-poliki.

AMAGOIA

Ni ez naiz judutarra, Petronila..! Euskalduna naiz, eta euskaldunetan lenena..! Nereak ditut ba, baitu oiek, eta nik jakingo det, zer-egin oiekin..!

Eta Gazteluzar'eko atera zuzenduko da Amagoia.

PETRONILA

Atzera zu ere, Amagoia..! Aitormendi'ri su-eman ziona, ez dago emen..! Ezta zure aizpa Lorea il zuana ere..!

AMAGOIA

Or dago, bai..!

PETRONILA

Ez, Amagoia..! Aitormendi erre zuana, ta zure aizpa Lorea il zuana, ez zan Ranimiro izan..! Basurde, zure sanarra izan zan..!

AMAGOIA

Ez da ori egia..!

PETRONILA

Bai, Amagoia..! Egi garratza, bañan egia..! Lorea illaz, Lorea'k bere erraieran zeraman alaba il nai izan zuan ark, eta Aitor'ren altxorrez jabetu orrela..! Bañan Jaungoikoa'k gorde zuan Lorea'ren alaba..!

AMAGOIA

(Giza-taldeari).

Zer egiten dezute, or, geldirik..! Zergaitik ez dezute iltzen au ere..!

PETRONILA

Kristau artean, Amagoia, kristauak agintzen dute Euskal-erria'n..! Begira orra..!

Eta Gartzzi-Ximeno agertuko da, amezkuatar batzuekin, ikusleen eskubi-alde-
detik.

AMAGOIA

Alperrik zabiltzate..! Asier nere semea etorriko da, ta ura etortzean, ura izango da, ta ez beste inor, euskaldunen buruzagia..! Ta arrek egingo du, zuek egin nai ez dezuten, zuzenbidea..! Goazen Aitormendi'ra..! Galdua dute auek-eta, euren euskalduntasuna..!

Eta ikusleen eskubi-alde-
detik izkutatuko dira Amagoia ta onen lagunak.

Gazteluzar'ean izkutatuko da Petronila ere. Iruditegi-erdira urreratuko da Gartzzi-Ximeno.

Iruditegi-ertzean geldituko dira amezkuatar-
tarrak.

GARTZI-XIMENO

Arerio asko daukat..! Jaungoikoa nere alde ez ba' det, ez det emandako itza betetzerik izango..! Gutxi-ena uste dedan orduan, ilko didate Ranimiro, ta Amaia ere bai..! Eskerrak Petronila'ri..! Nere-
gaitik il zituzten..!

Barkatu, zeruko Jaun orrek, nere arduragabekeri au..! Gudarako ez ba'da, ez naiz emendik alden-
duko, ez gau ta ez egun..! Onela baintzat, Ranimiro-ta il nai ba'dituzte, ni il bearko naute aurrena..!

Teodosio agertuko da ikusleen eskubi-al-
de-
detik.

TEODOSIO Zer izan dek emen..!

GARTZI-XIMENO Ezer ez..! Gazteluzar'rean sartu nai zien Amagoia'k eta..!

TEODOSIO Eta nork eragotzi ziek..?
Petronila agertuko da Gazteluzar'eko atean.

PETRONILA Nik, Teodosio..!
Eta besterik-gabe izkutatuko da Petronila ikusleen eskubi-aldeetik.
Arri-arri egin-da, geldituko da Teodosio.

GARTZI-XIMENO Emakume orren bearra ba'diagu euskaldunok..!
Zoroa zirudik, ta ez ote dik, guk baño ere, buru argiagoo..!

TEODOSIO Orrek..?

GARTZI-XIMENO Bai, Teodosio..! Guk ez zekizkiagun gauza asko, zekizkit orrek..! Gu ez-bezelako euskalduna dek ori. Ta guk ez-bezelako gorrotoa ziek orrek gudutarrei. Ta, ala ere, eskerrak orri, bizi dituk Ranimiro ta Amaia... Amagoia berak ere, iges egin bear izan dik orren aurretik..!

TEODOSIO Ez ni, emen, izan ba'nintz..! Amagoia diagu euskaldunetan, euskaldunena: Aitor'ren len-alaba, ta aren mendeko bear diagu euskaldunok..!

GARTZI-XIMENO Gauza batzuetan, bai, Teodosio..! Beste batzuetan ez..! Amagoia'ren gañetik zegok kristau-legea..! Ta Kristo'ren lege orren-aurka zerbait egin nai duanean...

TEODOSIO Ez zian ark orrelakorik nai..! Bere eskubide baten billa etorri det ura..!

GARTZI-XIMENO Ez, Teodosio..! Ta iñork ez-bezela dakik ik, ori..! Euskaldun, eta kristau bezela, eman eian itz bat, eta itz ori dala-ta, dauzkak, emen gaur, Ranimiro ta Amaia..! Nerekin izango nizkian, nere etxean, bestela... Bai, Teodosio, bai..!

Jaun Migel eta Andeka agertuko dira ikusleen ezker-aldeetik.
Idazki bat ekarriko du Andeka'k esku-artean.

JAUN MIGEL Ona emen, gure bi mutillak..! (Gazte biri). Onelaxe nai zaituztet beti, alkarren lagun..!

ANDEKA Auek ditugu beraz, Teodosio ta Gartzi-Ximeno..?

JAUN MIGEL Auetzek dituzu, bai..!

ANDEKA Zorionak, mutillak..! Zuek egiñak, ez du parerik Euskal-erria'n..! Andeka, Bizkai'ko Jauna nauzute. An ere jakin genduan, zuek egindakoaen berri, ta zuek ezagutu naiean, etorri naiz onera..! Gartzi-Ximeno, euskaldunok ez degu iñoiz, Ranimiro bezelako gizonik baitu..!

GARTZI-XIMENO Nik ere, ez nuan baituko, onen laguntzarik izan ez ba'nu..!

ANDEKA Eta aaztu baño leen, tori, gudutar batek zuretzako eman didan eskutitza au..!

GARTZI-XIMENO Neri ez..!

ANDEKA Nori, ba..?

GARTZI-XIMENO Jaun Migel da emengo nagusia..! Ta au da, bere aitaren ordezkooak, egiten dituana..! Eman zaiozu, ba, oni.

TEODOSIO Neri..?

GARTZI-XIMENO Nori, ba..!
Idazkia artu, ta onela irakurriko du Teodosiok.

TEODOSIO Pelaiok, Gartzi-Ximeno'ri agur..! Zure eskutitza ez da alperrikoa izan..! Itxu zebillen gure errege, Errodrigo..! Euskal-erria'n ikusten zuan, ark. bere arriskorik aundiena, ta orregaitik, Euskal-erri osoa menperatzeko asmoa, artua zeukan. Eta Ranimi-

ro'rekin gertatuak, geiagotu egin zion oraindik, euskaldunentzako zeukan garroto ori..! Bañan zure eskutitza orrek argitu dio burua..! Gure arriskoa ez dago, ez, Euskal-erria'n..! Betika-aldean ditugu gure etsaiak, eta etsarik bildurgarrienak gañera: gure kristautasuna galdu naiean datozen mahomatarrak..! Ez goatz ba, orain, gure aberriaren-aldeko burruka batera. Gurutzaren-aldeko burruka batera baizik..! Eskutitza au artzen dezunean, ez da gure-tako bat-bakarra ere, Iruña'n geldituko..! Egon zaitte, ba, trankil..! Ez dezute gure-aldetik gudarik izango, ez orain da ez gerora..! Gurutz-pean izan gaitezen danok anai..! Ta Betika-aldean il naizela, jakiten ba'dezu, otoitz bat, zurea ta nerea dan, Jaungoikoa'ri. Kristo'gan zure anai, Pelaio'k..!

Zer-esan ez dakitela, geldituko dira danak.

GARTZI-XIMENO

(Une batzuk ixilik egon ondoren).
Leenbaitlen ezkondu bearra deukak orain, Teodosio..! Euskal-erri'ko buruzagia izateko eskubidea emango dik ezkontza orrek, eta ire ardurapean utzi nai zituat, nik, nere Amezkuetako lurrak..! Bai, Jaun Migel..! Guda-bildurrak aldendu diran ezkerro, gaur bertan eramango ditut, Iruña'ra, Ranimiro ta Amaia..! Ta nere amari agur egin ondoren, biarbertan irtengo naiz, nere mutilekin, Betika-aldera..! Gurutzaren-aldeko burruka batean, an bear du Euskal-erria'k ere..! Euskal-erria'ren izenean ba, ta ire izenean, Teodosio, egon nai diat Betika-aldean..!

ANDEKA

Ez zera bakarrik izango, Gartzi-Ximeno..! An izango nauzu ni ere..! Jaun Migel..! Kristo'ren ordua degu au..! Kristo'ren-alde, ba, euskaldun guztiok..!

JAUN MIGEL

Ni ez, beste guztiok, Andeka..! (Teodosio'gatik) Zergaitik, ez ote naiz ni, au bezin gazte..!

GARTZI-XIMENO

Irugarren ekiñaldiko antzezleriak:

RANIMIRO.

AMAIA.

MORROIA.

MUNIO.

GOTZAI JAUNA.

PETRONILA.

AMEZKUATARRA.

BI MUTIL GAZTE.

GARTZI-XIMENO.

TEODOSIO.

AMAGOIA.

OARRAK: Bi mutil gazte oiek ez dute itzik egingo.

Eremutar-jentzita, agertuko da Ranimiro ekiñaldi ontan.

Zoro-itxurak galdu zituan, bein-betirako, Petronila'k.

IRUGARREN EKIÑALDIA

Ranimiro'k, Iruña'n duan jauregia, degu ekiñaldi ontako iruditegia. Jauregi apaña, gudutarren jauregiak izan oi ziran bezela.

Arpa bat eskuetan duala, agertuko da Amaia.

RANIMIRO Ederki..! Oso ederki, Amaia..! Onelaxe lagundu bear didazu, gaurtik-aurrera, nere otoitzetan..!

AMAIA Bai, Aita..! Onelaxe lagunduko dizut beti..! Alaitu egin zaituala soñuak, esango nuke..!

RANIMIRO Soñuak... eta Eudon'en etorrerak..! Kezkatan bizi nintzan, Amaia..! Ez genduan, aspaldi ontan, Betika-aldeko berririk..! Gure gudariak menderatuak izan ote ziran, bildur nintzan..! Baña gure errege Errodrigo'k, Eudon onera bialdu duanean, ez da orrelakorik izango..! Ez zuan, bere ondotik kenduko bestela, Eudon bezelako gizon bat..! Eta, emen, buru genduan Munio au, ez zitzaidan atsegin..! Ondo dakit nik, euskaldunak ez zigutela okerrik egingo..! Bañan Betika-aldean menperatuak izan ba'giñan, ez ote ziguten euskaldunak ere, "zoazte emendik, esango, gurutza gordetzen ez dakizute..! Eta orrelakorik izatea, Munio ez genduan, guk bear genduan gizona..!

AMAIA Euskaldunen bildur al'zera oraindik, aita..?

RANIMIRO Euskaldunen bildur ez, bañan...

AMAIA Ez daukazu ba, zergaitik bildur izan..! Iruña'n da, diotenez, gizon aundi ori, ta trankil egon leikezu! Zure gaurko eginkizunak, beste eginkizun batzuek dituzu, aita..!

RANIMIRO Egia diozu, Amaia..! Jantziak, ordea, ez omen du bat eremutar egiten, eta, ni ere, ez nau oraindik egin osoro beintzat..!

Odola berotu egiten didate, ikusten ari naizen eskergabekeri batzuek..! Ez al'nuan, Eudon'en ikustaldirik merezi..? Ain gizon-utsa egin ote naiz ba ni, illabete batzuetatik onera..? Jaungoikoa lagun dedanari, eskarrak..! Egun gutxi-barru egingo diot, bein-betirako, nere buruaren eskeintza..!

AMAIA Gotzai Jauna'k esan bear ko du ori, aita..!

RANIMIRO Gotzai Jauna'k ez dit galeraziko eskeintza ori, Amaia..! Noiz egin bear dedan, ori bai, Marziano gure gotzai santuaren eskuetan, dago ori..! Nola nai ere, egun auetako batean egin bear ko det noski..!

AMAIA Zuen arteko oitura on bat dezuten ezkerro, nik ere, ez dizut galeraziko ori, aita..!

RANIMIRO Ez da oitura bat bakarrik, Amaia..! Ba'du orrek bere sustraia, ta sustrai sendoa gañera..! Sendagille jaunak gizon bat galdua ematen duanean, Jaungoikoa'ri eskiñi oi dio gizon ori... Ta Jaungoikoa'k berriro osasuna ematen ba'dio gizon orri, beretzako bakarrik nai duala andik-aurrera gizon ori, esan nai du Jaungoikoa'k..! Eta orixe gertatu da nerekin ere..! Jaungoikoa'rena bakarrik bear det beraz..! Eta zuk ere, onelako zerbait pensatu bear ko dezu, Amaia..!

AMAIA Zergaitik, aita..?

RANIMIRO Amarik ez zenduan ezagutu..! Aitarik-gabe gelditu bear dezu laister, eta ikusten danez, Pelaio berak ere, aaztu egin zaitu..! Aaztu egin gaitu, obekiago esateko..!

AMAIA Ez da ori egia, aita..! Pelaio ez da zurekin aaztu. Orain illabete-pare bat artu nuan, zuretzako zan,

Pelaio' ren eskutitza bat..! Zuri ez erakusteko, agindu zidan sendagille jaunak..! Kalte egingo ote zizun, bildur zan noski..!

RANIMIRO Kalte..?

AMAIA Bai, aita..! Gaxorik zeunden artean eta..!

RANIMIRO Orain ez nago, Amaia..! Ta zer dio ba, Pelaio'k, eskutitz ortan..?

AMAIA Zure izenean etorri zan, eta zure izeneko-eskutitzarik ez det, nik, irikitzen, aita..! Ona emen eskutitza..!

Eta an-bertako kutxatxoren batetik atera, ta aitari eskiñiko dio Amaia'k eskutitza.

RANIMIRO Ez, Amaia..! Irakurri zazu, zuk, lenengo..!

Amaia'ri-begira, geldituko da adi-adi Ranimiro.

Irripar goxo bat sortuko da Amaia'ren ezpañetan.

Berri onek ditugu, ikusten danez, Amaia..!

AMAIA Bai, aita..! Bizi da Gartzzi-Ximeno, ta ez da eremutar egin, emen baten-batzuek esan zuten bezela..! Betika-aldean dabil, bera ere, Andeka, Pelaio ta Teodomiro'rekin..! Gurutzaren-alde, aita..!

RANIMIRO Eta ez al' du beste berririk ematen..? Gurutzaren-aldeko guda ori, irabazten ala galtzen ari diran, esaten..?

AMAIA Ez, aita..! Ez du orrelakorik esaten..!

RANIMIRO Eta noiz idatzia dago eskutitza ori..?

AMAIA Orain bi illabete..!

RANIMIRO Aspalditxo..! Bi illabetetik-onuntz zerbait egingo zuten gure gudariak..! Eudon'ek jakingo ditu angon berriak..! Noiz agertuko ote da onera, ordea, gizon ori..? Ta ez al'dizu, zuri, ezer esaten Pelaio'k..?

AMAIA Zuri esaten dizuna, aita..! Pelaio'renak egin zuan neretzako..!

RANIMIRO Zergaitik, Amaia..?

AMAIA Pelaio'k ez dauka aukerarik, aita..! Edo gurutzaldeko burruka ortan il bear du, edo Toledo'ko erregea izan bear du..! Ta Toledo'ko erregea izaten ba'da...

RANIMIRO Zuk izan bearko dezu Toledo'ko erregeña..!

AMAIA Ori ez, aita..! Leen ere, esan nizun: erregeña izan bear ba'det, ez naiz Toledo'ko erregeña izango..! Euskal-erri'ko erregeña izango naiz, erregeña izan bear ba'det beintzat..!

RANIMIRO Neri bai..! Neri esan zidazun ori..! Bañan ez diozu orrelakorik, Pelaio'ri esan..!

AMAIA Bai, aita..! Ari ere, esana nago zerbait..! Edo-ta, obekiago esateko, berak esan zidan orrelako zerbait..! Ez giñala alkarrentzako izango..! Bi errien buruak izateko, jaiok giñala, ta bi erri oiek alkarrezeko alegia...

RANIMIRO Aberri batean..?

AMAIA Ez, aita..! Sinismen batean..!

Morroi bat agertuko da ikusleen ezker-aldeetik.

MORROIA Munio'k ikusi nai luke, jauna..?

RANIMIRO Munio'k..? Etorri dedilla, bai..!

MORROIA Ondo dago, jauna..!

Eta ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko da Morroia.

RANIMIRO Gelditu zaite, zu ere emen, Amaia..! Betika'ko berriak jakiteko, nik añeko gogoia izango dezu, zuk ere, ta..!

AMAIA Ezin ukatu, aita..! Bañan zaude, zu, trankil..!
 Morroia'rekin-batera, agertuko da Munio
 ikusleen ezker-aldeetik.
 Bereala izkutatuko da, berriro, Morroia.

RANIMIRO Bear-bezela agurtzen ez ba'zaitut, barkatu, Munio..!
 Zer berri ekarri ditu, Betika-aldeetik, Eudon'ek..?

MUNIO Berri onak, Jauna..! Bañan etorri zan bezin-laister,
 irten bearra izan zuan, eta neri eman zidan beorri
 agurtzeko agindua..!

RANIMIRO Ondo dago, Munio..! Ta egia esan, Eudon'en zai
 nengoan..! Betika-aldeko berriak jakin nai ni-
 tuan..! Zertan daude gure gizonak..?

AMAIA Zertan Pelaio, Gartzzi-Ximeno ta abar..?

MUNIO Gartzzi-Ximeno an zala, ba zenekizun beraz..?

RANIMIRO Bai..! Ango eskutitz bat jaso det nik..!

MUNIO Ez daukat orduan, zergaitik izkutatu ezer..! Mende-
 ratuak izan gera Betika-aldean..! Il egin digute
 Errodrigo gure erregea, ta il.....

AMAIA Gartzzi-Ximeno..?

MUNIO Bai, Amaia..! Gartzzi-Ximeno, Andeka ta aiekin zi-
 ran euskaldunak..! Gutxi-asko izango dira, gure ar-
 tetik ere, bizirik irten diranak..! Eudon'ek dionez,
 il-erriak ematen omen zuten baztar aiek..! Ta Gar-
 tzi-Ximeno'ren eriotza, aipagarria izan zala bene-
 tan..! Iñor ez-bezela burrukatu ondoren, gurutza
 esku artean, il zala burruka erdian..!

RANIMIRO Eta guk zer egiten degu emen, Munio..? Zergaitik
 ez gera biltzen gazte ta zaar, gizon eta emakume,
 apaiz eta praille, ta zergaitik ez gera joaten gure
 etsai oien aurka..! Ez al'da gure kristautasuna arris-
 koan arkitzen..? Onelako zerbait esan nai zuan bai,
 Eudon'en etorrera onek..! Eta euskaldunak guda-
 rako bildu naiean, joango zan ura Euskal-erri'ra..!

MUNIO (Bildurrez).
 Ni ez naiz ordea, ortarako iñor, Jauna..! Eudon
 etortzean...

RANIMIRO Laister etorriko al'da, bai..!

MUNIO Eta barkatu, jauna, eman dizkiodan berri mingarri
 auek-gatik..!

RANIMIRO Ez daukat zer-barkaturik, Munio..!

MUNIO Etortzen dan bezin-laister, azalduko diot, Eudon'
 eri beorren asmoa..! Ta orain ba'noa..! Erne egon
 bearrean arkitzen gera, ta ez nuke, emen ere, ezer
 txarrik gertatzerik nai..! Agur ba, jauna, ta agur,
 zuri ere, Amaia..!

RANIMIRO Agur, bai..!
 Eta Amaia'k lagunduko dio ateraño Mu-
 nio'ri.

AMAIA (Maiteki).
 Orain bai, zurea bakarrik izango nauzula, aita..!
 Nai dezun lekura jarraituko dizut orain..!

RANIMIRO Zer esan nai didazu orrekin, Amaia..?

AMAIA Lekaime izateko ere, prest nagola orain..!

RANIMIRO Ainbeste maite al'zenduan Gartzzi-Ximeno..?

AMAIA Bai, aita..! Ainbesteraño maite nuan, ba..!

RANIMIRO Pelaio ez bezela..?

AMAIA Pelaio ez bezela, aita..! Zu maite zaitudan neurrian,
 ta nere amaren izen-ona maite dedan neurrian..!
 Alperrikoa izango nuala nere maitasun au, ez nua-
 la geiago ikusterik izango, ondo nekian, bai..!

Geiegi maite zuan arriskoa Gartzzi-Ximeno'k..! Ez zan atzean egotekoa..! Bañan ikusi nuanetik egin zan GartzziXimeno nere biotzaren jabe..!

- RANIMIRO Euskalduna zenduan ordea, Gartzzi-Ximeno..!
- AMAIA Gure alde il dan euskalduna..!
- RANIMIRO Gure alde il dan euskalduna, ez..! Gurutzaren-alde il dan euskalduna, Amaia..!
- AMAIA Bai, aita..! Gurutzaren alde..! Ta gurea bezelaxe da gurutza, euskaldunena ere..!
- RANIMIRO Nik ere, maite nuan Gartzzi-Ximeno, Amaia..!
- AMAIA Ba'nekian, aita..! Ta zuk maite zendualako, maite nuan, nik ere ainbeste, Gartzzi-Ximeno..!
- RANIMIRO Ala ere, ez nuan ontzat emango zuen ezkontza ori!
- AMAIA Ez da Gartzzi-Ximeno'k ere ,zure gogokoa ez izatea.
- RANIMIRO Ondo dakit ori ere..! Barkatu, Amaia, bañan zugan baño, uste ohea nuan, nik, Gartzzi-Ximeno'gan..!
Ez al'dizut onekin, iraiñik egiten..?
- AMAIA Ez, aita..!
- RANIMIRO Ondo dago, Amaia..! Lekaime izan bear dezun ala ez ordea, ez dizut, nik, ori esango..! Gure gotzai jaunak esango dizu ori..! Zoatz ba, biar, beregana..!
- AMAIA Joango naiz, bai, aita..!
Gotzai Jauna agertuko da ikusleen ezker-alde-
detik.
Beregana urbildu, ta bere aurrean belaunikatuko da Amaia.
Bedainkatu egingo du Gotzai Jauna'k.
- GOTZAI JAUNA Pakea bedi etxe onetan..!
- RANIMIRO Ondo etorria izan bedi, jauna..! Beorren bear giñan oraintxe..! Emen izan degu Munio, jauna, ta ark

eman dizkigun berriekin, naigabetuta gelditu gera biok... Galdu da gure erria, ta gure sinismena ere, bai..!

- GOTZAI JAUNA Ez, Ranimiro..! Gure sinismena ez..! Munio'k eman dizkizun berriak ere, ez dira ark esan bezelakoak, ikusten dedanez..! Betika-aldeko berriak, guk nai bezelakoak ez ba'dira ere, itxaropen pixkabat izan dezakegu oraindik..! Ba'degu beintzat beste errege bat..!
- RANIMIRO Nor da errege ori, jauna..?
- GOTZAI JAUNA Teodomi..!
- RANIMIRO Teodomi..?
- GOTZAI JAUNA Bai..! Gutxi ez-bezelako gizona..! Kristau sutsua! Aberria baño, gurutza maiteago duan, gizona..! An gelditu da bera, Betika-aldean, etsaiekin burrukan, ta gudarozte berrien zai..! Ta gudarozte berri oitako bat sortzeko-aginduakin, etorri da Pelai Asturias'era..!
- RANIMIRO Bizi al'da ba, Pelai..?
- GOTZAI JAUNA Bizi da..! Ta agindu berdiñakin etorri zaigu onera ere, Gartzzi-Ximeno..!
- AMAIA Gartzzi-Ximeno..?
- GOTZAI JAUNA Bai..!
- AMAIA Bizi al'da ba..?
- GOTZAI JAUNA Bai, Amaia..! Ta berak esan dizkit berri auk..! Ikusi omen zaitu, gaur goizean, elizan..!
- AMAIA Eta nolatan ez da ba, onera etorri..?
- GOTZAI JAUNA Ez onera... ez Teodosio'rengana, ta ez bere amarengana ere, ez da agertu..! Leendik ezagutzen nuan gazte ori..! Bañan zuk esanak, geiagotu egin zidaten oraindik, gazte orrentzat neukan iritzi ona..! Ta garuko ikustaldian nere biotz-osoaz jabetu da..!

Ai, Ranimiro..! Beste ollar batek joko zigun gaur, gazte orren antzekoak izan ba'ziran gure buruzagiak... Eta gure erregeak entzun nai izan ba'zion.

RANIMIRO Ez zion entzun, beraz..?

GOTZAI JAUNA Ez..! Eta gure artekoren batek lapurtu zion, berak ain zintzo gordetzen zuan, idazki ura..! Saltzalle asko izan ditugu, Ranimiro..!

RANIMIRO Eta saltzalle oietakoren batek lapurtu zion idazkia!

GOTZAI JAUNA Bai, Ranimiro, bai..! Bañan ez dizut oraindik esan, zer dala-ta, izan dedan aren ikustaldia..! Gure errege Teodomiro'k bera izendatu du Euskal-erri osoko buruzagia..! Iruña'koa ere bai, beraz..!

RANIMIRO Eta Eudon..?

GOTZAI JAUNA Eudon ez da iñor guretzako..! Ta bildur da Gartziximeno, ta bildur naiz orain ni ere, ez ote degun Eudon ori gure saltzalle oietako bat izango..!

RANIMIRO E..?

GOTZAI JAUNA Ez nuan, nik ere onela uste, bañan Gartziximeno'k iriki dizkit begiak..! Zergaitik ez da zuregana agertu, ta zergaitik ez da neregana agertu..? Onera etorri bezin-laister, euskaldun-jantzita, Euskal-erri'ra joan zan ura..! Ez ote da Eudon au, Amagoia'k semetzat daukan Asier bera..? Ta Asier ba'da, ez da bataiatua izango..!
Ez ote da Euskal-erri'ra joan, euskaldunen artean dituan eskubideak azaltzera, Teodosio'k bere ezkontzarekin, kenduko ote dizkion bildurrez..?

RANIMIRO Asier ote degu ba, Eudon au..?

GOTZAI JAUNA Nik ez dakit, Ranimiro..! Bañan buru-auste gogorak ipiñi dizkate Gartziximeno'ren kezka auek..!

AMAIA Dana dala, ez al'dauka Gartziximeno'k erregearen agiririk..?

GOTZAI JAUNA Bai, Amaia..! Bañan agiri orrek ez du Gartziximeno betetzen..! Ezagutzen dituzu euskaldunak..! Eta Gartziximeno euskalduna dezu azal eta mami..! Ontzat ematen ba'du ere, gure erregearen erabakia, ala ere, gure erregea ez dala iñor, dio berak Euskal-erri'ko erregea edo buruzagia izendatzeko..! Euskaldunen lana dala ori, ta euskaldunak atzo aukeratu zutela buruzagitzat Teodosio..!

RANIMIRO Teodosio..?

GOTZAI JAUNA Bai..! Atzo ezkondu bait-zan Butron'go Amaia'kin..!

RANIMIRO Ez al'da ba, nere illoba ori, bataiatu gabea..?

GOTZAI JAUNA Ez, Ranimiro..! Butron'go Amaia bataiatu zan, eta aren aita-amak ere, bai..! Ta auxe da, euskaldunen artean, Teodosio'k bere-alde duan garaipenik aundiena..!

RANIMIRO Ez dira auek, gauza auek aipatzeko uneak, bañan euskaldunen erregiña izateko eskubide guztiak, onek (Amaia'gatik) dauzka, ta ez beste iñork..! Bañan utzi ditzagun, gaurkoz, gauza auek alde batera..! Nik ez det uste Teodosio'k gure buruzagia izan leikenik..!

GOTZAI JAUNA Orixe esan diot nik ere..! Bañan euskaldunak, euskaldun dituzu..! Ta Gartziximeno'k ez du onik izango, bere aginpide au Teodosio'ren eskuetan uzten ez duan artean..!

AMAIA Nun dago bera..?

GOTZAI JAUNA Nerekin zetorren..! (Ranimiro'ri). Beste iñori baño leen, zuri agertu nai zizun erregearen agiria..! Bañan nik ez dakit, zer gertatzen dan, gaur, Iruña'n..! Begi onez ikusten ez duan norbaitek, ikusi du sobrare, ta euskaldunen aurka jaiki zaigu erri osoa..!

RANIMIRO Ez ote da au ere, gure etsaien asmakizunen bat..?

GOTZAI JAUNA Ortan nago ni ere, Ranimiro..! Ta okerrik izan ez zezan, lagundu nai izan diot, nik-neronek, onera..! Gartzzi-Ximeno galdu nai dute, ta ez beste iñor, nere ustez..! Eta onera urbildu geranean, azokara etorri diran emakume batzuek, ta bi edo iru gizon, ikusi ditu, iñungo laguntzarik-gabe, eta aiek an, orrela uztea, ez zaio bidezkoa iruditu, ta an gelditu da aien artean..! Euskal-erri'ra eramaten ditua-nean, etorriko dala onuntz, esan dit..!

RANIMIRO Il egingo dute, ordea..!

GOTZAI JAUNA Ori-bera esan diot, nik ere..! Bañan Jaungoikoa'ren urrena, Euskal-erri'ri zor diola bizitza, erantzun dit..! Marroia agertuko da ikusleen ezker-aldetik.

MORROIA Euskaldun emakume batek sartu nai luke, Jauna..!

GOTZAI JAUNA Babesa naiko du gajoak..!

RANIMIRO Sartu dedilla ba..!
Eta Morroia izkutatu, ta Petronila agertu-ko da ikusleen ezker-aldetik.
Beregana joan, eta besarkatu egingo du Amaia'k.

AMAIA Petronila..!

PETRONILA Amaia, Lorea'ren alaba maitea..!

RANIMIRO Zer dakartzu, Petronila..?

PETRONILA Gartzzi-Ximeno'ren agindu bat orain..! Berea du Iruña'ko ate bat, eta ate ortatik bialdu ditu, Euskal-erri'ra, emen arkitu dituan emakume guztiak..! Be-rarekin gorde ditu gizonaekoak..! Eta uste duan bezela, goñitarrak etortzen ba'zaizkio, ez duala etor-tzerik izango, Iruña guztia menderatzen ez duan ar-tean, beorri esateko esan dit..! Eta ez dala gudu-tarren aurka ari, gurutzaren-alde ari dala bakar-ba-barrrik..!

RANIMIRO Bañan ez du ortarako, bear-aña gizonik..!

PETRONILA Izango ditu laister..! Euskal-erri osora bialdu bait-ditu mandatariak..! Eta gurutzaren-alde ekiteko, prest gaude beti euskaldunok..!

RANIMIRO Teodosio'rik ez da ordea, agertuko..!

PETRONILA Teodosio ta Goñi'n bildu diran eztaitar-guztiak ero-rriko dira, Ranimiro..! Ez gaituzu ezagutzen orain-dik..!
Danbateko batzuek entzungo dira etxe-ko atean.
Zer-esan ez dakitela, geldituko dira danak.
Eta estu ta larri sartuko da, iruditegian, Morroia.

MORROIA Munio da, jauna, ta gizon-talde aundi batekin eto-rrri, dator..! Emen izkutatuak dauden euskaldunak nai omen ditu..!

RANIMIRO Emen ez dago euskaldunik..!

PETRONILA Bai, Ranimiro..! Ona, ni, emen euskalduna..! Sar-tu dedilla ba, dalako Munio ori, nik dakit zer-egin bear dedan-da..!

RANIMIRO Ez, Petronila..!

PETRONILA Bai, Ranimiro..! Zuek ez-bezela egingo det, nik, euskaldunen alde..! Utzi nazazute ba, bakarrik..!

RANIMIRO Eta ezer egingo ba'lizuke..?

PETRONILA Ez dit ezer egingo..! Zoazte ba..!

RANIMIRO Izkutatu egingo gera bai, bañan ez zaitugu bakarrik utziko, Petronila..!
Eta iruditegi-atzean izkutatuko dira Go-tzai Jauna, Ranimiro ta Amaia.

PETRONILA (Morroia'ri).
Etorri dedilla gizon ori..!
Ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da Mo-rrroia, ta an-bertatik, agertuko da Munio.
Petronila bakarrik ikustearekin, asarratu egingo da Munio.

MUNIO Zer..? Ez al'dago, etxe ontan, gizonik..!

PETRONILA Ez al'zenduten, zuek, erumutarra egin Ranimiro..? Gaur ez dauka ba, ark, zer-ikusirik onelako gauze-kin..! Eta Gartzzi-Ximeno'rekin egon nai ba'dezu, ez zera arekin, nerekin egon arteraño, egongo..!

MUNIO Zoratu egin al'zaizu..?

PETRONILA Zoroa deitzen didate leen ere..! Etxebarri'ko zoroa..!

MUNIO Bañan ez al'dago gizonik etxe ontan..?

PETRONILA Baietz esan dizut..! Bañan itz egitera etorri ba'zera, nerekin bakarrik itz egin bearko dezu lenengo..! Ixilka nai ba'dezu, ixilka..! Ta garraxika nai ba'dezu, garraxika..! Ixilka obe izango dezu ordea..! Zuretzako obe, ta Eudon'entzat ere bai..!

MUNIO Zergaitik..?

PETRONILA Ara, Munio..! Zure aldekoak entzuten ba'dituzte nere esanak, gaizki ibilli bear dezu zuk, eta gaizki Eudon'ek ere..! Eudon ez da erriak uste duana..!

MUNIO Zer esan nai didazu orrekin..? Euskalduna dala..? Ba'nekian ori, leen ere..! Ta Eudon ez dala aren benetako izena ere bai..! Asier du ark bere izena..!

PETRONILA Asier ez..! Aser du, ark, bere izena, Munio..! Ta itz bi geiago esaten ba'dituzte, galduak zerate ura ta zu..! Gezurra besterik ez dizu esan Eudon'ek! Eudon ez da euskalduna..! Eudon judutarra da..!

MUNIO Zaude ixillik..!

PETRONILA Ez naiz egongo..! Eta zuk entzun nai ez ba'didazu, kanpoan utzi dituzun oietara joango naiz, eta dea-dar bizi batean, Eudon judutarra dala, esango diet!

MUNIO Ez, Petronila..! Ez dezu orrelakorik egingo..! Bañan ez nuan orrelakorik uste..!

PETRONILA Bai, Munio, bai..! Ta ba'da oraindik geiago ere..! Pakomio'ren semea dezu Eudon ori..!

MUNIO Ez da egia izango..?

PETRONILA Egia da, bai, Munio..! Ta Pakomio, eremutar txar ori, nor dan ere, esango dizut: Iruña'ko judutarren burua: Abraham Aben Hezrra..!

MUNIO Orrelako zerbait izan bear zuan bai, orrek..!

PETRONILA Eta orain zer..?

MUNIO Orain ezer ez..! Bañan ez itzatzu berri auek zabaldu Jaungoikoarren, Petronila..!

PETRONILA Ez zazu orren kezkarik izan, Munio..! Zuk esan-erazi dizkidazu orain ere..! Ez dezala, ez, erriak jakin judutar baten mendean bizi zeratela, ta judutar orren aginduz egin duzutela Ranimiro eremutar..!

MUNIO Aski da, Petronila..!

PETRONILA Aski da, bai..! Zoatz ba, ta baretu itzatzu zure gizon oietk..! Lagun bezela, lagun zintzoak izango gaituzu euskaldunok..! Bañan etsai bezela, etsairik gogorrenak..!

MUNIO Lagun nai ditut euskaldunak..!

PETRONILA Lagun izango gaituzu ba..!

MUNIO Agur, Petronila..!

PETRONILA Agur, Munio..!
 Eta ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko da Munio.
 Munio izkutatzean, agertuko dira, iruditegi-atzetik Gotzi Jauna, Ranimiro ta Amaia.
 Petronila'rengana joan, eta eskerrak emanaz bezela, besarkatu egingo du Amaia'k Petronila.

GOTZAI JAUNA Egiak al'dira, esan dituzun guzti oiek, Petronila..?

PETRONILA Nik ez det gezurrik, Gotzai Jauna..!

RANIMIRO Eta nundik jakin dituzu gauza guzti oiek..?

PETRONILA Ara, Jauna..! Zorona egin dedalako, zorotzat euki naute danak..! Eta zoro baten-aurrean, ez da, itz egiteko, kezkarik izaten..! Bañan Jaungoikoa'k gorde dit burua..! Ba'nuan, bai, zergaitik zoratu..! Ez da bereala eldu egun au..! Ba'dituz oraindik, nik bakarrik gordetzen ditudan gauza batzuek, zure emate Lorea'k esan zizkidan izkutu batzuek..! Bañan aukeratu ere, ez dituz luzaro gordeko..! Ta orduan bai, arinduko dala nere buru au..!

GOTZAI JAUNA Ranimiro..! Entzun ditugunak, entzun, eta ezin dezakegu besoak tolostatu-ta, egon..! Ba'noa, ni, nere eliz-gizonetara..!

RANIMIRO Gartzi-Ximeno'rengana joango nintzake, ni, jauna..!

GOTZAI JAUNA Zoatz, bai..! Ta egin itzatzu gu, eta euskaldunen arteko, pakeak..!

RANIMIRO Petronila'rekin geldituko zera zu, Amaia..! Gartzi-Ximeno'rekin egoten naizen bezin-laister, itzuliko naiz berriro..! Eremutar-jantzi onekin, ez daukat burrukarik egiterik, zoritxarrez..! Bañan gure buruzagia nor degun, nik adieraziko diet gudutarrari..! Laister arte, ba..!

GOTZAI JAUNA Agur, Petronila..!

PETRONILA Agur, Jauna..!
 Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatu baño leen, onetsi egingo ditu Gotzai Jauna'k Petronila ta Amaia.
 Goztai Jauna'rekin izkutatuko da Ranimiro ere.
 Kolkotik-edo, aterako du Petronila'k Amaia'ren eskuturrekoa.

PETRONILA Tori, Amaia..!

AMAIA (Arrituta).
 Nun arkitu dezu..?
 Eta muxu bat emango dio Amaia'k eskuturrekoari.

PETRONILA Gartzi-Ximeno'ren mendean erori zifianean, kendu nizun, nik, eskuturretik..! Ez dezu ori, amaren oroi-garri bat bakarrik, Amaia..! Euskaldunen erregina izateko eskubide osoa, ematen dizu eskuturreko orrek..! Aitor'ren aberastasunak, nun dauden gordeak ere, berak esaten dizu..! Eskuturreko orrek gordetzen duan izkutua, galdu ote zenduten, bildur nintzan, eta orregatik kendu nizun! Bañan ez..! Ez dezute izkutu ori galdu..! Jaungoikoa'k gorde du..! Zenbait buru-auste ez dituz nik izan, eskuturreko ori dala ta ez-dala..!

AMAIA Bai..!

PETRONILA Bai, Amaia, bai..! Izkutu orren berri jakin naiean, baitu zuan, Basurde'k, zure ama..! Izkutu orren berri jakin naiean, ibilli dira Pakomio ta Eudon..! Aitor'ren aberastasunaz jabetu nai zuan Pakomio'k, eta euskaldunon buruzagia izan nai zuan Eudon'ek izkutu orretzaz jabetu-ta gero..! Teodosio ere, ez da lo egon..! Butrun'go Amaia'rentzat nai zuan, onek, izkutu ori..! Izkutu orretzaz jabetzen ba'zan Butron'go Amaia, berekin zituan, orduan Teodosio'k, euskaldunon buruzagia izateko eskubide guztiak. Au zan balleratako Jaun guztien naia ere..!
 Ai, Amaia..! Zuk ez dakizu, zeinen gogorra izan dan neretzat, izkutu au Teodosio'ri ukatu, ta zuretzako gordetzea..! Lorea'ren alaba zera neretzako bai, bañan Ranimiro'ren alaba zera euskaldun guztientzako..! Ta Ranimiro'k ez du, oraindik beintzat, izen onik euskaldunon artean..!

AMAIA Nere aitak ez zituan ordea, egin, euskaldunak ezartzen dizkioten oker oiek..!

PETRONILA Egia da ori ere, Amaia..!

AMAIA Maite ditu nere aitak euskaldunak..! Ez nintzan, ni, bestela, naizen bezin euskalduna izango..!

PETRONILA Egia, Amaia..! Lorea bezelakoxea zera..! Onegatik, eta nere barruak onela agintzen didalako, uzten det zure eskuetan, euskaldunok geien maite degun gauza..! Zurea dezu ba, Aitor'ren izkutua..! Ez al'dezu gure-aurka ibilliko..!

AMAIA Ez, Petronila..! Ori ez..! Euskalduna naiz ni ere, ta kristau-euskalduna..!

PETRONILA Eskerrik-asko, Amaia..!
 Eta besarkatu egingo du Petronila'k Amaia.
 Ba'det oraindik, zuri esan-bearreko beste gauza bat ere..! Aitor'ren aberastasun oiek, bere lekuan ote zeuden- edo ikusteko, an sartu nintzan, bein, arkaitz-zulo artan..! Urratsa aiek, zure amaren urratsak ziran, Amaia..! Ta an zegoan, bai, Aitor'ren altxorra..! Altxor artatik, zerbait idatzia zeukala-ta, auxe jaso nuan..! Aitor'ren azken-naia, ez ote dago emen idatzia..? Onela izatea, bete arren, Aitor'ren nai ori, Amaia..!
 Eta urrezko oltxo bat emango dio Petronila'k Amaia'ri.

AMAIA Bai, Petronila..! Bañan nork irakurriko dizkit, neri, Aitor'ren idazkera auek..?

PETRONILA Gartzi-Ximeno'k... edo Amagoia'k..!
 Amezkuatar bat sartuko da, bat-batean, ikusleen ezker-aldetik.

AMEZKUATARRA Barkatu, Amaia..!

AMAIA Zer da..?

AMEZKUATARRA Gartzi-Ximeno..!

AMAIA Zer..?

AMEZKUATARRA Zauritu egin zaigula, ta onera dakarkigula..!

PETRONILA Zauritu..?

AMEZKUATARRA Bai..! Gudarik gogorreanean ari giñala, ez zaigu ba, Eudon agertu..? Gaizki bear zuan maltzur orrek, Gartzi-Ximeno'k, erori-ta, anka-ezurra ausi ez ba' lu..! Iges egin al'izan du, bai..! Bañan ez du gure eskuetatik, iges egingo..! Gure mendietara jo du, ta ondo ezagutzen ditugu, guk, gure mendietako izkutuak..!

PETRONILA Eta nor gelditu da orain, euskaldunen buru..?

AMEZKUATARRA Teodosio agertzen ez dan artean, Lope, zure gizona..!

PETRONILA Agertuko al'da leenbaitlen Teodosio..! Ta nun jarri dezakegu, emen, Gartzi-Ximeno..?

AMEZKUATARRA Ementxen jarriko degu..!
 Eta eserleku-aundi baten aurrean, aulki txiki bat ipiñiko du Amezkuatarra'k.
 Aulki txiki orren-gañean ipiñiko du, gero, Gartzi-Ximeno'k bere zauritutako ankea.
 Ikusleen ezker-aldeko atera joango da, bi-tarte ontan, Amaia.

AMAIA (Kanpokoeri).
 Ekarri zazute, bai, onera..!
 Eta euskaldun biren eskuetan sartuko dute Gartzi-Ximeno, ta Amezkuatarra'k gertatutako eserlekuan jarriko dute.

GARTZI-XIMENO Eskerrik-asko, mutillak..! Zoazte orain, leenbaitlen, ta Teodosio agertzen danean, izan dedilla, be-
 ra, zuen buruzagia..!
 Eta ezer-esan gabe izkutatuko dira Amezkuatarra ta euskaldun biak, ikusleen ezker-aldetik.
 Gartzi-Ximeno'ren alboan, belaunikatuta geldituko da Amaia.
 Iruditegi-atzeko atean izkutatuko da Petronila ere.

Amaia'ren eskua artu-ta, muxu emango dio Gartzzi-Ximeno'k.

- GARTZI-XIMENO Ai, Amaia..! Ez nau Jaungoikoa'k martiri nai..!
- AMAIA Ez da ori, Gartzzi-Ximeno..! Bizi-izateak bildur ematen dizu, ta orregaitik il nai zenduke..! Zertarako il bear dezu..? Zure biotzean loretu dan maitasunak, ainbesterañoko bildurra ematen al'dizu..?
- GARTZI-XIMENO Bai, Amaia..!
- AMAIA Ez dezu ba, il-bear, Gartzzi-Ximeno..! Zure bear da Euskal-erria, ta zure bear naiz, ni, ere..!
- GARTZI-XIMENO (Goxo).
Amaia..!
- AMAIA Bai, Gartzzi-Ximeno..!
Gartzzi-Ximeno'ren ankea lotzeko, zapi zuri luze bat ekarriko du Petronila'k.
Amaia'ren beste aldetik belaunikatu, ta zauritutako ankea lotzen asiko da Petronila.
- AMAIA Zure bear da Euskal-erria, ta nere bear ere, bai..! Oni eskerrak (Petronila'gatik) nere eskuetan da gaur, Aitor'ren izkutua..!
- GARTZI-XIMENO Izango ez ba'zenduke, obe, Amaia..!
- AMAIA Zergaitik, ba..?
- GARTZI-XIMENO Gaur ez ba'da, biar Teodosio'k eskatuko dizulako izkutu ori..! Ta ematen ez ba'diozu, sestra ta asarrea besterik, ez degu izango Euskal-erria'n..!
- PETRONILA Bai, Gartzzi-Ximeno..! Bañan Amaia'rena zan izkutu ori, ta Amaia'ri zor nion, nik..!
- GARTZI-XIMENO Egia da..! Bañan Teodosio'ri eman bear dio Amaia'k izkutu ori, nik Iruña'ko uria emango diodan bezelaxe..!
- AMAIA Ez, Gartzzi-Ximeno..! Nik ez diot Teodosio'ri emango, nere amak neretzako utzi zuan gauza bat..!

- GARTZI-XIMENO Amaia..! Zuk daukazu, bai, izkutu ori, bañan izkutu orrek gordetzen dituan aberastasunak, oiek ez dira zureak..!
- AMAIA Norenak dira ba..?
- GARTZI-XIMENO Euskaldunok izango degun lenengo erregiñanak..!
- AMAIA Eta nor da erregiña ori..?
- GARTZI-XIMENO Nor izango da ba..? Atzo Teodosio'rekin ezkondu zan Butron'go Amaia..!
- AMAIA Nork esan dizu ori..?
- GARTZI-XIMENO Ez det iñork esan bearrik..! Ondo dakit, nik, Euskal-erri'rako zer dan onena..! Ta ez Eusal-erri'rako bakarrik..! Teodomiro'ren asmoak ere, aurrera eramango ba'dira, ez dago ori, beste biderik..!
- AMAIA Oker zaude ortan, Gartzzi-Ximeno..! Gudutarrak ez dute iñoiz, Teodosio erregetzat ezagutuko..! Ta euskaldun berak ere, Teodosio baño maiteagoa dute beste bat..! Itz egin dezala onek..!
- PETRONILA Ondo dakizu, zuk, ori, Gartzzi-Ximeno..! Teodosio'ren aspaldi ontako ametsa, euskaldunon buruzagia izatea besterik, ez da izan..! Eta buruzagia izatearren, ezkondu zan, atzo, nere illoba Butron'go Amaia'kin! Amagoia'rekin ortarako izan dituan artu-emanak, ez dira, Kristau-euskaldun bati tokatzen zaizkion artu-emanak, izan..! Nork ekarri zituan, Gazteluzar'era, auek an baitu-ta zeudela, Amagoia ta Pakomio..? Zertarako il nai izan zuan au, bere amets oietarako, onengan, traba bat ikusten zualako, izan ezik..?
- GARTZI-XIMENO Zaude ixilik, Petronila..! Ezin-ikusia dezu, zuk, Teodosio'rentzat eta..!
- PETRONILA Ondo daki Jaungoikoa'k, ori ez dala egia, Gartzzi-Ximeno..! Teodosio neunkan, nik ere denbora baitean, euskaldunon buruzagitzarako..! Ranimiro'ren

alaba baño lenagokoa dek, nik, neretzat, nere anaia-
ren alaba..! Ez naiz ba, zuk uste dezun bezelakoa!
Agur, Gartzzi-Ximeno..! Agur, Amaia..!

AMAIA

Nora zoatz, Petronila..?

PETRONILA

Emendik urruti ez dabillen, baten billa..! Ez det
au, judatar-sendagilleen eskuetan utzi nai..! Ere-
mutar egingo didate bestela, zure aita egin zuten
bezelaxe..! Laister arte, ba..!

Eta ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko da Pe-
troniila.

Ixil-une bat izango dute Gartzzi-Ximeno'k
eta Amaia'k.

AMAIA

Ona zer eman didan Petronila'k..!

Eta urrezko olatxoa ipiñiko du Gartzzi-Xi-
meno'ren eskuetan.

GARTZI-XIMENO

Eta au zer da..?

AMAIA

Aitor'rek laga digun idazki bat, aren ustez..! Zuk
irakurtzerik ez ba'dezu, Amagoia'k irakurriko duala
esan dit, ba'duala ark eta, Aitor'ren iidazkeraren be-
rri..!

GARTZI-XIMENO

Nik ezin det, beintzat, irakurri..!

AMAIA

Eta ez ote da, au, Aitor'ren azken-naia..?

GARTZI-XIMENO

Ai, ala ba'litz, Amaia..! Orduan bai, bukatuko di-
rala gure ezta-baida auek..!

Ranimiro agertuko da ikusleen ezker-alde-
tik.

RANIMIRO

Zorionak, Gartzzi-Ximeno..! Zure mendeko gaitu-
zu..! Nork sendatu zaitu..?

GARTZI-XIMENO

Petronila'k, jauna..!

RANIMIRO

Ba'dezute euskaldunak orren bearra..! Berari zor
diozu, geien bat, zure gaurko garaipen au ere..!
Munio'kin, ark, emen eginduanari eskerrak, men-
daratu gaituzu..! Euskaldunen aingeru-zaitzallea

dezutela ori, esango nuke nik..! Euskal-erria'ren-
tzat bizi dan emakumea..!

GARTZI-XIMENO

Eta ez al'da Teodosio'rik agertu..?

RANIMIRO

Ikusi dute, bai..! Bañan indarrik gabe, eroria, es-
ku biak odolez gorrituak..! Iñori agurrik, ere, egin
gabe, joan omen da gure Gotzai Jauna'rengana..!

GARTZI-XIMENO

Orrek izan bear du gure buruzagia, Ranimiro..!

RANIMIRO

Orrek ez..! Ez gera orren mendeko egingo, zure
mendeko egin geran bezela..! Zuk, eta ez beste
iñork, ezin dezake izan gudutarron eta euskaldunen
buruzagia..! Barkatu, leenago esan ez ba'dizut..!
Zurekin egon nai lukela-ta, zai daukazu Teodosio..!
Zozatz ba, Amaia..! Laister izango naiz, ni ere, zu-
rekin.

Iruditegi-atzean izkutatuko da Amaia.

Ikusleen ezker-aldera joan, eta Teodosio'
rekin agertuko da Ranimiro.

Eroria dator Teodosio.

RANIMIRO

Ona emen, zure lagun Gartzzi-Ximeno..!

Eta iruditegi-atzean izkutatuko da Rani-
miro.

Ranimiro izkutatzen danean, urreratuko da
Teodosio Gartzzi-Ximeno'rengana, ta onen on-
doan belaunikatuko da.

GARTZI-XIMENO

Zertan ari aiz..?

TEODOSIO

Entzun egin bear diak, eta merezi ba'diat, barkatu
ere, bai..!

GARTZI-XIMENO

Ago ixillik, eta ator nere besoetara..!

TEODOSIO

Ez, Gartzzi-Ximeno..! Oraindik ez..! Entzun zak
lenengo nere aitormena..! Igan ikusten nian, nik,
nere aundi-naikerietarako trabarik aundiena, ta go-
rroto bizi bat izan diat, beti, Gartzzi-Ximeno..! Poz
aundi bat izan nian Betika-aldean il intzala, jakin
nianeana..! Ez nian uste ain-laguna leiala, intza-
nik..! Neretzako asmoetan irabazi dek, ik, Iruña'ko

uria..! Onela esan zidak gure Gotzai Jauna'k..! Ez diat, nik, onelako gauzarik merezi, Gartzzi-Ximeno..! Ondo zigortu zituk Jaungoikoa'k nere arroke-riak..!

GARTZI-XIMENO Ori ez dek ezer, Teodosio..!

TEODOSIO Esateko asko zeukat oraindik, Gartzzi-Ximeno..! Eudon ere, an agertu uan, atzo, zoritxarrez, nere eztaietan..!

GARTZI-XIMENO Eudon..?

TEODOSIO Eudon edo Asier..! Eta maikide guztien aurrean, nere ezkontza, ez zala benetako ezkontza, esan zia-ken. Nere emazteak emana zeukala ezkontz-itza, ta nerekin ezkondu ba'zan ere, ura iltzat zeukalako, ezkondu zala..! Ai, Gartzzi-Ximeno..! Itz auek izan ituan nere ondamentia..! Ez ote uan ba, egiazkoa Amaia'ren nereganako maitasuna..? Ala ere, ez nian bildurri bezela agertu nai izan, an bildu itu-kan zaar aien artean, ta onerako bidea artu nian illunabarrean..! Ez nian, iri opa, beste garaipen berri bat. Leengoak ere, naikoak itukan nere aundi-naia zapaltzeko..! Ta onerako bidean, eremutar batek irten ziaken bidera...

GARTZI-XIMENO Pakomio'k..?

TEODOSIO Pakomio'k ez..! Eta nere emaztea Eudon'ekin bat-egin da zebilela, esan ziaken..! Zer besterik bear nian, nik, orduan..? Ezpata eskuan artu, ta itzuli ninduan nere etxera..! Gorputz bi arkitu nituan, gurea izan bear zian oe artan, ta besterik gabe il nizkian biak..! Nere emaztea ta Eudon nere us-teetan..! Bañan ez itukan ala..!

GARTZI-XIMENO Nortzuk itukan, ba..?

TEODOSIO Ai, Gartzzi-Ximeno..! Nere aita-amak itukan..!
Ixillik geldituko dira biak une batean.

Egin nian pekatuaren aundia ikusi-ta, eskuak orain-dik odoletan, iritxi nauk, gaur, Iruña'ra..! Gure Gotzai Jauna'rekin egin diat nere pekatuen aitormena ta ark agindu-ta garbitu zituat nere esku auek..! Ala ere, nere pekatuaren aitormena iri ere, egin ez ba'nian, ez nian pakerik izango..! Barka-tzen al'diak, Gartzzi-Ximeno..?

GARTZI-XIMENO Nola ez ba, Jaungoikoa'k barkatu ba'dik..! Ator nere besoetara, Teodosio..! Bein-ere baño maitea-go aut..!

Eta besarkada estu batean lotuko dira biak. Entzun egiak orain, Teodosio..! Ik izan bear dek, ala ere, gure buruzagia..! Iretzat menderatu bait-diat Iruña'ko uri au..!

TEODOSIO Ez, Gartzzi-Ximeno..! Neretzako bukatu itukan kontu auek..! Gaur bertan irtengo nauk Erroma'ra erromes..! Aita Santua'rekin aitortu nai diat be-rriro, ta arrek ezarritako oben-nekea bete..! Ire es-kuetan uzten diat nere emaztea, ta Goñi osoa ere, bai..! Zainduko dizkiak noski..!

GARTZI-XIMENO Bai, Teodosio, bai..!

TEODOSIO Agur, ba..!

GARTZI-XIMENO Agur, Teodosio..!

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da, itun, Teodosio.

Itun, eta Teodosio'k artu duan bideari-be-gira, geldituko da, une batzuetan, Gartzzi-Xime-no ere.

Amaia agertuko da, gero, iruditegi-atzetik, eta Gartzzi-Ximeno'ren alboan geldituko da leen bezela ta ixillik.

GARTZI-XIMENO Nun dezu urrezko olatxoa..?

AMAIA Ementxen daukat..!

GARTZI-XIMENO Aitor'ek bere azken-naia azalduko duala, bear ba'da idazki ontan, esan al'dizu leen Petronila'k..?

GARTZI-XIMENO Ala esan dik, bai..!

AMAIA Eta Amagoia'k irakurriko lukela idazki au..?

GARTZI-XIMENO Bai..!

AMAIA Amagoia'ri erakutsi bear diozu ba, ta al'dezun azkarren gañera..!

AMAIA Onera etortzekoa dala, uste det..!

GARTZI-XIMENO Amagoia..?

AMAIA Bai..!

GARTZI-XIMENO Ez du onera etorri naiko..!

AMAIA Etorri nai ez ba'du, ekarri egingo du Petronila'k..! Gaixo-kontuetan ez daki iñork Amagoia'k aña zuen artean, ta aren billa joango zan Petronila..!

GARTZI-XIMENO Ai, ala ba'litz, Amaia..!
 Petronila ta Amagoia agertuko dira ikusleentzako ezker-aldetik.

AMAIA (Amagoia'rengana urbildu ta Amagoia besarkatuaz).
 Amagoia..!

AMAGOIA Zu al'zaitut nere illoba, Amaia..?

AMAIA Lorea, zure aizparen alaba nauzu, bai..!

AMAGOIA Ez nuan, onera etorriko nintzanik, uste..!

AMAIA Ba'dakit, izeba..! Au ez da zuretzat Amaia'ren etxea..! Ranimiro'ren etxea da, au, zuretzako..! Eta Ranimiro...

AMAGOIA Ez zaidazu ezer esan, Amaia..! Leen ez nuan Ranimiro beste etsairik..! Gaur ordea..! Maiteenak nituanak gezurtatu naute..! Alabatzat neukan Butron'go Amaia'k, bakarrik utzi nau..! Ta Asier'ek egin didanak, ez du izenik..! Ez nau, gaur, iñork maite Euskal-erria'n..!

AMAIA Ez da ori egia, Amagoia..! Euskalduna naiz ni ere! Aitor'ren odola daramat nere zaiñetan... eta nik maite zaitut beintzat..! Izeba bezela, ta Aitor'ren alaba bezela maite ere..! Ba'nuan zu besarkatzeko gogo..!

AMAGOIA Benetan ari al'zera, Amaia..?

AMAIA Bene-benetan, Amagoia..! Ta maite zaitudalako, zuri erakutsi nai nizun, ekarri didaten, Aitor'ren idazki bat..!

AMAGOIA Aitor'ren idazki bat..?

AMAIA Bai..! Ta auxe dezu, gure ustez, Aitor'ren idazki ori. (Ta urrezko olatxo erakutsiko dio). Ez ote du emen Aitor'ek bere azken-naia azaltzen..?

AMAGOIA Gorde ezazu orain, Amaia..! Onek zer duan ikusi bear degu orain..!
 Eta Gartzzi-Ximeno'rengana urreratuko da.

AMAIA Anka-ezurrean izan bear du zerbait..! Ez genduan, ordea, gure sendagilleen eskuetan utzi nai..! Judutarrak ditugu gure sendagilleak, eta euskaldunen etsaiak dira..!

AMAGOIA Bai..! Pakomio ta Asier bezela..! (Ta Gartzzi-Ximeno'ren ankan ikutu batzuek egin ondoren). Ezurra dauka ausia..! Penagarria da Gartzzi-Ximeno..! Zure bear giñan oraintxe euskaldunok..! Zu zaitugu gure buruzagia, ta ori dala-ta etorri naiz bakar-bakarrik..!

GARTZI-XIMENO Eskarrik-asko, Amagoia..!

AMAGOIA Ez didazu ezer eskertu bearrik..! Ni naiz zurekin zorretan nagoana..! Laister sendatuko zera, ta zorionekoa zu, dezun bezelako maitale bat dezulako..!

GARTZI-XIMENO Benetan al'diozu ori, Amagoia..?

AMAGOIA Benetan diot, bai..! Teodosio'rekin gertatu zaiguna ondo dakizu, zuk ere..! Emen izan dezula, ba' dakit..!

GARTZI-XIMENO Emen izan det bai, Amagoia..! Bañan ez da Teodosio'rena errua..! Iruzur egin diote gizajoari..!

AMAGOIA Bai, Gartzi-Ximeno..! Ez du, bestela, euskaldun batek orrelako ogenik egiten..! Nun dezu, Amaia, Aitor'ren idazki ori..?

AMAIA Emen, izeba..! Tori..!

AMAGOIA Aitor'ena da, bai, idazkera au..! (Irakurriaz). "Aro berri bat etorriko da Euskal-erri'ra ere, Sinismen berri bat..! Zorionekoa sinismen berri ori, lenen, artuko duan nere ondorengoa..! Aintzaldua izan bedi, beti, Euskal-erri'n, ori egingo duanaren izena".

AMAIA Aintzaldua izan bedi, ba, Euskal-erri'n nere amaren izena..! Eskarrik-asko, Amagoia..! Zure aotik entzun bear nituan bai, nik, itz gozo auek..! Euskal-erria ez da ilko, Amagoia..! Kristo'ren sinismena illezkorra da..! Ta Kristo'ren ondoan ikusten ditut, orain nik, Aitor, eta zuen aizpa ta nere amazan Lorea..!

AMAGOIA Atoz, Petronila..! Zoatz Euskal-erri'ra, ta zabaldu ezazu Euskal-erri'ko bazter guztietan Aitor'ren azken-nai au..! Bañan besarkatu egin nai zaitut leen Zuk irabazi bait-dezu gu-bion arteko auzi au, Petronila..!

PETRONILA Ez, Amagoia..! Zerbait esan bear dizut lenengo..! Nik uste ez-bezelako ona zera Amagoia..! Barkatu ba, zure aurka izan ditudan itz gaizto guztiak..!

AMAGOIA Barkatuak daude, Petronila..!
Eta biak besarkatuko dira.
(Amaia'ri).

Izenaren jabe zera, Amaia..! Zu izango zera bai, gure sinismen zaarraren amaia..!

AMAIA Eta Gartzi-Ximeno sinismen berriaren jarraitzalle zintzoa..! Ez da, gaurtik Euskal-erri'n, kristau ez-danik, izango..!

AMAGOIA Ni ez beste guztiak, egingo dira kristau Aitormendi'n ere... Baña ez naiz, gaurtik, arutz, joango..!

AMAIA Zergaitik ez, izeba..?

AMAGOIA Zureak dituzulako, gaurtik, Aitormendi ta Aitor'ren etxea..!

AMAIA Ez, izeba..! Zurea bear du Aitormendi'k beti..!

AMAGOIA Ez, Amaia..! Zurea dezu..! Ni ez naiz kristau egingo..! Aitor bera il zan sinismenean ilko naiz ni. Aitor'ren azken-naia ez dedala onela betetzen, onda dakit... Bañan ez bildurtu, Amaia..! Aterik-ate joango naiz, gaurtik, Euskal-erri'ko etxe guztietara, ta auxen esango diet euskaldun guztieri: Ranimiro'ren alaba, dezute Aitor'ren alaba ere. Ta berekin ezkonduko dan Gartzi-Ximeno'k izan bear du zuen buruzagia..!

Azkenengo itz auek entzuteko eran, agertuko da Ranimiro iruditegi-atzeko atean.
Ez da, ala ere, atetik- aurrera sartuko.

GARTZI-XIMENO

Azken ontako antzezleriak:

GOTZAI-JAUNA.

PETRONILA.

TEODOSIO.

GARTZI-XIMENO.

BARRUTIK ENTZUNGO DAN ABOST BAT.

AZKENA

Arkaitz-zulo bat degu iruditegia.
Ol zaar batzuekin egindako aldare bat ikusiko da iruditegi-atzean.

Bi egurrekin egindako gurutz bat egongo da aldare-erdian.

Zapi zuri batekin estalia agertuko da aldarea.

Eta aldare ertze bertan, zuzi bi piztuak.
Aldarearen albo batean, illobi bat egurrezko gurutz batekin.

Zapia jasotzen danean Gotzai Jauna agertuko da aldare aurrean.

Aldare aurrean belaunikatuta agertuko dira Teodosio ta Gartzzi-Ximeno.

Gerritik lurrerañoko kate lodiak eramango ditu Teodosio'k zintzilik.

Gotzai Jauna'ren eskutik jaunartu bear dute biak.

Ikusleen ezker-aldetik, eta balaunikaturik, agertuko da Petronila ere.

Onek ez du jaunartuko.

Beste eginkizun bat ekarri du onek.

GOTZAI JAUNA

(Osti Santua erriari erakutsiaz).

Ona emen Jaungoikoaren Bildotsa... Ona munduko pekatua kentzen duana..! Zoriontsuak Onen maiera deituak..!

BESTE IRURAK

Jauna, ni ez naiz iñor, Zu nere etxean sartzeko, bañan esazu itz bat eta sendatuko naiz..!

GOTZAI JAUNA

Jauna bakoitzari ematekoan). Kristo'ren Gorputza..!

TEODOSIO

Amen..!

GOTZAI JAUNA

Kristo'ren Gorputza..!

GARTZI-XIMENO

Amen..!

GOTZAI JAUNA

(Aldarera biurtu, ta Jauna artu dutenak bedeinkatuaz).
Bedeinka zaitzatela Jaungoiko guztialdunak: Aita'k eta Semea'k eta Espiritu Santua'k.

BESTE IRURAK

Amen..!

Eta eliz-jantziak kendu, aldare gañean utzi ta Petronila'rengana urbilduko da Gotzai Jauna.

Zapi zuri baten gañean, jateko batzuek ipintzen ariko da, orain, Petronila.

GOTZAI JAUNA

Au zan bezelako mutilla, ta gizon-itxurarik ez dauka orain ia..!

PETRONILA

Egia dio,Gotzai Jauna..! Ni-neroni ere, ez nintzan atzo-arteraño konturatu..! Askotan ikusi ba'det ere, atzo-arte ez nion itzerik zuzendu.

Atzo. ordea, orren kateak, eta orren ezur eta azalak ikusi nituanian, naigabez beterik jetxi nintzan etxera..!

Pekatu aundia egin ba'zuan ere, eramaten ari dan ordaiña ere, ez da txikia..!

GOTZAI JAUNA

Egia diozu, Petronila..!

PETRONILA

Udan ez du belarra besterik jaten..! Neguan belarrik izaten ez dalako, ta goserik il ez dedin, or, sarre-dera-inguruan, uzten dizkiot ogi zati legor batzuek..! Ifioiz utzi izan dizkiot ogi osoak eta beste jaki batzuek ere, bañan alperrik..! Ez du orrelakorik artzen..! Txori ta beste piztientzat izaten dira ogi ta jaki oiek..!

Jaungoikoa'k bakarrik daki emengo neguaren otza, ta surik ere, ez du orrek pizten..! Atera erazi egin bear luke emendik, Gotzai Jauna..!

GOTZAI JAUNA

Asmo ortan etorri naiz, Petronila..! Naiko duanik, ez dakit... eta Aita Santua'ren aginduak zenbaite-
raño lotzen duten ere, ez..! Egin daigula argi Jaungoikoa'k..! Gertu al'dago gosaria..?

PETRONILA Bai, Gotzai Jauna..!

GOTZAI JAUNA Ondo dago..!

Eta Gartzzi-Ximeno ta Teodosio'rengana joan, eta zerbait esango die Gotzai Jauna'k.
Biak jeiki, ta Gotzai Jauna'rekin Petronila'rengana etorriko dira.

Gaurkoatik gurekin gosaldu bear dezu Teodosio..!
Emendik irten bearrean izango zera, bear ba'da, ta zerbait geiago jateak, ez dizu kalterik egingo..!

TEODOSIO Agintzen didana egiteko, prest nago, Jauna..!

GOTZAI JAUNA Noiztik ez dezu munduko berririk..!

TEODOSIO Erroma'tik itzuli nintzan ezkerotik, ez det munduko berririk, Jauna..!

GOTZAI JAUNA Ondo dago..! Bañan ba'dira, jakin bear dituzun berri batzuek..! Nik bezin ondo esango dizkizulako, ekarri det nerekin zure lagun Gartzzi-Ximeno..!

GARTZI-XIMENO Egun estuak dizkiagu, Teodosio..! Mahomatarrak jabetu dituk España osoaz ia..! Ta ontan jarraitzen ba'diagu, laister zituagu Euskal-erri'ko ateetan ere. Ez diagu ba, Aberria'ren aldeko burruketa bat... Gurutzaren aldeko gudaketa bat diagu oraingo au! Danok alkartu bearrean gaituk, ba...! Ta alkartze ori egiteko, ire bear gaituk..! Betika-aldean asia zeukak Teodomiro'k gudaketa au, Pelai'k ere bai, Asturias-aldean..! Euskaldunok falta gaituk..!

TEODOSIO Eta zer egin nezakeat, nik..?

GOTZAI JAUNA Ez al'daukazu emendik irtetzerik, Teodosio ? Egun batzuetarako bear ba'da ere..! Zu berriro, ta onela ikusteak, suspertu egingo lituzke euskaldunak..!

TEODOSIO Agindutakoa egiteko nago, Jauna..! Bañan Aita Santua'rengana, barkamen-eske, joan nintzanean Erroma'ra, gerrian kate au lotzeko, agindu zidan Aita Santua'k, eta bakardadean bizi izateko ere bai,

kate au desegindu ta gerritik erortzen ez zitzaidan artean..! (Jeiki, eta onela jarraituko du). Eta ikusten danez, kate onek, deseginduko dan-itxurarik, ez dauka oraindik beintzat..!

GARTZI-XIMENO Egia diok, Teodosio..!

Eta eseri egingo da berriro Teodosio.

TEODOSIO Ale bat besterik ez zaiok oraindik joan..!

GOTZAI JAUNA Eta noiz joan zitzaion ale ori..?

TEODOSIO Zulo ontara etorri aurretik, Jauna..! Erroma'tik nentorrela, Goñi aldetik igaro bear izan nuan..! Laister zan egun-sentia..! Ta nere emaztea, elizarakoan ikusiko ote nuan, bertako izkutu batean gordeko ote nintzan, zalantzan egon nintzan..! Bañan etsaiaren zirikaldi bat nuala ura ere ta, nere bideari berriro eldu nionean, an gelditu zan sasiartearen nere kate ontako ale bat..!

GOTZAI JAUNA Jaungoikoa'k mirari bat egiten ez ba'du, urteetarako dezu oraindik kate ori, Teodosio..! Bete ezazu ba, Aita Santua'ren agindua..! Onen ildurak eta otoitzak gurekin izango ditugu Gartzzi-Ximeno..!

TEODOSIO Ori bai..! Ta gaur arte ez-bezela, saiatuko naiz gañera..!

GOTZAI JAUNA Ez, Teodosio..! Naikoak dituzu orain-arteak ere! Ta orain beste galdera bat egin nai dizut: batenbat obiratu al'dezu or..?

TEODOSIO Bai, Gotzai Jauna..! Gizon bat obiratu bear izan nuan or, gaur zeruan egongo dan gizon bat..!

GOTZAI JAUNA Eta nola izan zan ba, ori..?

TEODOSIO Esango diot ori ere, Jauna..! Belar batzuek biltzen ari nintzan or-kanpoan..! Zaldizko bat zetorren laisterka bizi-batean, eta zaldia izutu zalako edo, arkaitzetik-bera amildu zan gizon ori..! Oraindik bi-

zirik zegoan, ni urreratu nintzaionean..! Korderik ez zeukan ordea..! Nola edo ala ekarri nuan one-raño..! Bere senera etorri zanean, bere okarrak aundiak izan zirala-ta, ez zuala Jaungoikoa'ren errukirik merezi, esan zidan..! Nik, orduan, nere okerrak azaldu nizkion: nere gurasoeri eman nien eriotz gogorra..! Ta orduan "Teodosio, esan zidan, eriotz oien errua ez zan zurea... Nerea ta nere aitarena zan, eriotz oien erru guztia..!

GARTZI-XIMENO

Eudon..?

TEODOSIO

Eudon uan, bai..! Ta bere oker guztiak aitortu zizkidanean, Jaungoikoa'k arentzat errukirik izan al' zezakean, galdetu zidaken berriro..! Ta nere baiezkoa eman nionean, gure sinismenaren aitormena egin, ta bataioa eskatu zidaken..! Bataiatu nian, eta irripar goxo batekin il uan bereala..!

GOTZAI JAUNA

Goazen, Gartzai-Ximeno..! Ez gera emen egoteko diña-ta..!

GARTZI-XIMENO

Ez nere lagun au, berriro, besarkatu gabe. (Ta besarkatu egingo du). Agur, Teodosio..! Otoitz egizak nere alde..!

Eta ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko dira Gotzai Jauna ta Gartzai-Ximeno.

Gotzai Jauna'k aldare-gañean utzi dituan erroketeta estolaren billa joango da Petronila.

Iruditegi-erdi-aldera urbilduko da Teodosio.

PETRONILA

Teodosio, ez al'dezu zure emazteagatik ezer galdetu bear..?

TEODOSIO

Nik ez det ezer galdetzen, Petronila..! Esaten didatena, entzun besterik ez det egiten nik..! Il ba'da, ordea, esan zaidazu, bere gogoaren-alde otoitz egin dezadan..!

PETRONILA

Ez da il, ez..!

TEODOSIO

Bizi da beraz..?

PETRONILA

Zuk utzi zenduan, leku artan bertan, bizi da..! Ta zure maite-miñez bizi ere..!

TEODOSIO

Au poza, Jauna..!

PETRONILA

Maite zaitu, ta ez du, oraindik, zurekin berriro bizi izateko itxaropenik galdu..! Euskaldun geienak iltzat ematen zaitue, Teodosio..! Urruti-bateko lurraldeetan illa..! Bañan zure emazteak ez du, zu berriro ikusteko, itxaropenik galdu..!

TEODOSIO

Maite nazala, esan zaiozu, bai..! Ez dezala itxaropen ori galdu..! Ez..! Ez zaiozu ezer esan, Petronila..! Nik baño bizi luzeagoa dute nere kate auek..! Alperrikoa da, ba, aren itxaropena..! Jaungoikoa'ren mirari bat bearke litzake ortarako, ta nik ez det mirari ori merezi..!

PETRONILA

Zuk merezi ez ba'dezu, ark mereziko du, bear ba'da... Ain ona da gajoa..!

TEODOSIO

Ai, Petronila..! Ez zaidazu nere emazterik aitatu..! Biotz guztia minbera ipiñi didazu..! Zoatz zu ere, Petronila..! Laga nazazu bakarrik..!

Eta ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko da Petronila ere.

Burua-makur geldituko da Teodosio iruditegi erdian.

BARRUTIK ABOTS
BATEK

Teodosio, Teodosio..! Errurik ez ta ari zera, ba'zu bizitza au eramaten..! Berea zala erru guztia ez al' zizun ba, Eudon'ek esan..? Atzipetuta egin zenduan, zuk, egin zenduana..! Ez dago, ba zukan pekatu-rik..! Eta zergaitik damakizu, ba, bizitza au..? Alde ederrean bizi da Gartzai-Ximeno..! Ranimiro'ren alabakin ezkondata egon arren, bera dute euren buruzagia euskaldunak..! Eta Amaia, ez zure emaztea, Ranimiro'ren alaba baizik, da gaur euskaldunen erregiña..! Ta zure Amaia, erregiña bear zuan zu-

re emaztea, or bizi da bakarrik, Aitor'ren alaba ez ba'litz berela..! Ontan bai-zerala errudun, Teodosio..! Ez dezu kemenik..! Ez zera gizona..! Gizona ba'ziña, aspaldi urratu bear zenituan, zuk-zero-rrek, kate oiek, eta zure emaztearengana joan..! Zuk bear zenduan euskaldunen buruzagia ta..!

Poliki-poliki kateetara eramango ditu Teodosio'k bere eskuak, eta kateak urratu naiean asiko dala, uste dutenean ikusleak, belauniko eroriko da Teodosio.

TEODOSIO

Ez det orrelakorik egingo..! Errudun naiz, Jauna. Nere gurasoen odoletan gorritu nituan, nik, nere esku auek..! Aundia izan-nai izan nuan, eta Zuk betu ninduzun..! Eskerrak, Jauna..! Izan dedilla, bai, Gartzzi-Ximeno euskaldunen buruzagia..! Ni ez-bezelako ona dezu bera, Jauna..! Lagundu zaiuzu..! Lagundu aren Amaia onari ere..! Aitor'ren alaba izan arren, erail egin nai izan nuan, nik. Jauna, gero ta aundiagoak ikusten ditut nere pekatuak..! Izango al'dezu nerekin errukia..! Nigmatik ez ba'da, nere emazteagatik izan dedilla, Jauna..! Mikel..! Mikel Goiaingerua lagun zaidazu, zuk, nere kate auek, bear-bezela, eramaten..!

Tximits-argi ta trumoi-ots ikaragarriak izango dira bat-batean, eta une batzuetan.

Lurrean agertuko dira, gero, Teodosio'ren kateak.

Begiak zururontz, ta eskuak batuta, egongo da Teodosio, Gotzai Jauna, Gartzzi-Ximeno ta Petronila agertuko diranean.

Arkaitz-zuloan sartzen diranean, eta Teodosio'ren kateak lurrean ikusten dituztenean, belauniko eroriko dira irurak.

GOTZAI JAUNA

Arrigarrizko miraria..!

GARTZZI-XIMENO

Gurekin degu Jaungoikoa..! Nor, ba, gure aurka..!

PETRONILA

Mikel, Mikel gurea, zaizu Euskal-erria..!

1960'garren urteko Petronila Donea'ren egunea.

II. MESEDERIK AUNDIENA

MAITAGARRI

(Lurrean etzan-da dagoan agurearengana urbildu ta izardun makillatxoarekin agureari burua ikutu ondoren).
Zer dezu Euskal-erri..?

EUSKAL-ERRI

(Erabat jeikitzeke).
Zer dedan..? Ai, Maitagarri..! Ementxen nai nuke nik orain nere illobia iriki ta nere burua bertan eortzi..!

MAITAGARRI

Ez orrelakorik, Euskal-erri.

EUSKAL-ERRI

Ez orrelakorik diozu..? Ez al-dezu nere egoera negargarria ikusten..? Etengabeko burrukan dabilte nere semeak. Euskaldun-odolez odolduak daude mendi-erpiña eta erreka-zuloak..!
Leen ere odolduak ikusi izan ditut nere baztarrak. Bañan leengo odol ura, ni gordetzearren, ixuri izan zuten nere semeak..! Euskal-erriaren aurka zetozen etsai aiekin guda gogorrean ixuri oi zuten beren odola nere semeak...
Gaur ordea...

MAITAGARRI

Bai..! Anai-arteko gudaketa gogorrean gaur.

EUSKAL-ERRI

Anai-arteko gudaketan gaur..!
Sortu ziran bein, zoritxarrez, nere seme-artean, Jauntxo izan nai zuten seme batzuek. Beren mendeko nai izan zituzten Jauntxo auek nere beste semeak..! Eta agindu-nai nazkagarri onek sortu zituan euren arteko guda negargarriak.
Zenbat euskaldun-odol ez ote da alperrik ordutik ixuri..?

MAITAGARRI

Eta zenbat ez ote da ixuriko oraindik..!

EUSKAL-ERRI

Ba-ditut oraindik seme zintzoak. Anai-arteko gudaketa auek amaitzearren alegiñak egin dituzten seme zintzoak. Bañan alperrikoak izan dira orain-ar-

teko aien alegiñak..! Gero ta burruka geiago..! Gero ta odol geiago..!

Nola naiko det ba oraindik bizi..? Ituna da erri baten eriotza..! Bañan erri orren semeak onelakoak diranean, erri orrek ez du bizitzerik merezi..! Ta ni naiz gaur erri ori.

MAITAGARRI

(Jeikitzen laguntzen dion bitartean).
Jeiki zaite, Euskal-erri. Zure eriotzarik ez du oraindik Goiko-Jauna-k nai..! Odol asko ixuri-erazi dizute zure semeak. Odolez lertu-bearrean daude zure zaiñak oraindik, ordea.
Egingo ditu, egunen batean, Jaungoikoa-k euskaldun zure semeen-arteko pakeak..!
Atoz nerein. Nere etxean biziko zera pake-egun oiek argitzen ez diran artean.
Nik gordeko ditut oraindik zintzo diran euskaldun zure semeak.

EUSKAL-ERRI

Eskerrikasko, Maitagarri..! Ez dute zure antzerik nere errian sortu diran sorgin bildurgarriak. Zuk neretzako dituzun itzak, goxoak ba-dira, garratzak dira aiek neretzako dituzten itzak. Euskeraz jardun arren, ez dute Euskal-erri zaarrantzako ongi-nairik... Ez dute zuk bezelako biotzik.
Nere eriotza naiko luteke aiek, eta nere alabak ditut aiek ere...

MAITAGARRI

Egia diozu, Euskal-erri..!
Anai-arteko burrukak aña kalte egiten dizute gaur zuri sorgin bildurgarri oiek..!
Bañan ez bildurtu Euskal-erri. Lagun degu oraindik euskaldunok Jaungoikoa ta..!
Atoz ba nerekin Euskal-erri...

Iruditegiko atzeko-aldean izkututzen dira Euskal-erri ta Maitagarri.

Illunabarra da.

Ikusleen eskubi-aldetik sartzen da iruditegian Mari Gaizto.

Sorgiña da. Ta sorgiña dan aldetik zatarra ere bai. Bel-beltza du bere soñekoa.

MARI GAIZTO

(Euskal-erri-k eta Maitagarri-k eraman duten bideari so-
egiñaz).

Lagun Jaungoikoa..! Ja, ja, ja..!

Oñaztarrak eta Ganboatarrak Euskal-errian diran artean, ez da Euskal-errian pakerik. Onak dira ba, izan ere, oñaztarrak eta ganboatarrak..! Guda gogorrean ez ba-da-biltz, ez daukate onik..!

Ez dago pakerik, ez, Euskal-errian..!

Euskaldun-odola nolakoa dan ondo dakite Euskal-erriko erri guztiak. Ta berekin du odolak gorrotoa.

Lagun Jaungoikoa... Ja, ja, ja..!

Ez ni bizi naizen artean..! Gorrotoa maite det. Ase-eziñeko odol-egarria det nerekin. Atsegin zaizkit lagun-urkoaren malkoak. Besteen naigabeetan egi-ten ditut ni nere eztaiak..!

Mari Gaizto deitzen didate... Neri ajolarik ez..! Sorgiña naiz... Emen inguruetako sorgin guztien buru. Ez da nik jakiten ez dedan gauzarik. Orregatik nago orain emen..!

Laister etorriko da onera Gebara, Oñati-ko Jauntxo. Ez da goxo-goxo etorriko. Aspalditik zeukan Arrasate menderatzeko gogoa. Ta ganboatarrak-geienak lagun artuta asi zan, orain egun batzuek, guda gogorrean.

Oñaztarrak ain-gogor erantzun bear zutenik ez zuan ark uste. Eguna joan eta eguna etorri, ta aurrerapenik ez..! Gebara gaixoa..!

Bere guda-mutil leialtsu batzuekin batzar bat egi-tera dator onera. Gorrotoz bete-beterik dakar biotza. Arrasate menderatu nai luke..!

Nik erakutsiko diot Arrasate nola menderatu..! Sua..., sua izango da nik bere eskuetan ipiñiko dedan guda-tresna bildurgarria..! Ta Arrasate-n egin-
dago ditugu biar gure eztaiak sorgiñak.

Ba-noa nere izkutura...

Izkutura dijoan bitartean.

Eta Jaungoikoa lagun duala Euskal-erriak..? Ja, ja, ja.

Iruditegi-atze-aldeko zugaitz baten atzean izkututzen da Mari Gaizto.

Gaua da...

Garai artako Jauntxoak oi zuten jazkerakin agertuko da Gebara Jauna.

Ikusleen esker-aldetik agertuko da. Berarekin dator I guda-mutilla.

GEBARA

(Iruditegian sartzearekin batera).

Zer esan ez dakit nik. Erri madarikatu ori menderatzea ainbat kostatu bear zitzaidanik ez nuan uste...

I GUDA-MUTILLA

Erri aundia dezu Arrasate, Jauna.

GEBARA

Erri aundia..?

I GUDA-MUTILLA

Laguntasan aundia izan dute gañera bertan dauden oñaztarrak. Aramaiotarrak izan ez ba-lira...

GEBARA

Eta guk ez al-degu ba laguntasunik izan..? Ez aldira ba gure aldetik ganboatarrak jaun ospatsuak..? Milla ta bosteun gizon ditut nik nereak. Beste bi milla gizon etorri zaizkit Bizkai ta Gipuzkoa-tik. Eta ala guztiz ere aurrerapenik ez..! Atzoko berri berberak izango ditugu gaurko berriak ere. Ez ote ditugu beingoz lurperatuko oñaztar madarikatu oiek..?

Arrasate nere-mendeko izateagatik zer ez ote nuke emango nik..?

I GUDA-MUTILLA

Mendeko izango dezu Arrasate..!

GEBARA

Mendeko izan bear..!

Odol-ixurtzeak ez naute bildurtzen. Arrasatearren-tzat dedan gorrotoa ase nai det. Eta aseko det...! Baita euskaldun-emakume guztiak alargun gelditu bear ba dute ere..!

Nun ote dira besteak..?

- I GUDA-MUTILLA (Ikusleen eskubi-aldera begiratuaz).
Orra nun datozen, jauna.
- GEBARA Ez dakarte arpegi ederrik..! Gaurko berriak atzokoan antzekoak, okerragoak ez ba-dira gañera.
Ikusleen eskubi-aldetik agertzen dira bi guda-mutil.
Zer berri dakartzute..?
- II GUDA-MUTILLA Berri onik ez, jauna. Gero ta gogoragoak agertzen dira oñaztarrak. Gipuzkoa-ko oñaztar guztiak bertan bildu dirala esango nuke nik.
- GEBARA Ez al-ditugu ba gure mendean errirako sarrera guztiak..?
- III GUDA-MUTILLA Ala ditugu, jauna.
- GEBARA Nundik sartzen dira ba..?
- II GUDA-MUTILLA Guk ez dakigu, jauna. Ta bildur naiz...
- GEBARA Bildur..?
- II GUDA-MUTILLA Bai, jauna... Gure jende ori aspertzen asi ez ote dan bildur...
- GEBARA Alperrik aspertuko dira ba... Ordaindu bear didaten zor bat dute Arrasatetarrak nerekin. Eta oraingo ontan ordaindu bearke didate, Euskal-erriko errekek odol-errekak, biurtu bear ba dute ere... Nere gorrotoa ase ezker, zer zait neri Euskal-erri-gatik..!
Arrasate ez da tente geldituko..! Ez, ala jainkoa..!
- I GUDA-MUTILLA Eta zer egin dezakagu ba, jauna..?
- GEBARA Zer egin..? Ezpata eskuan artu, ta iltzen dana iltzen dala, erri-barrura sartu.
Ez degu egun bat geiago galdu bear..!
- III GUDA-MUTILLA Eta ganboatar beste jaunak ez ba-dute ontzat artzen gure asmo au..?

- GEBARA Ez ba-dute ontzat artzen..., aiekin izango degu lenengo burruka..! Bañan Arrasatetarrak ez dute berriro nere lepotik parrerik egingo..!
- MARI GAIZTO (Bere izkututik).
Ja, ja, ja..! Ezpatak atera ta alkarri-begira nora joan ez dakitela geldituko dira laurak.
Iruditegiko atzeko-aldean agertuko da Mari Gaizto. Bertan geldituko da lau gizonetatik aparte.
Ezpatak ez naute zauritzen..! Mari Gaizto sorgiña naiz..! Ai Gebara jauna..! Oñati-ko jauntxo zera zu bai..., bañan ez guda gizona..!
- GEBARA (Ezpata jasoaz).
Guda-gizona ezetz..?
- MARI GAIZTO Ez, Gebara..! Gorde zazu ezpata ori. Arrasate menderatzeko ez dezu ezpata-bearrik..! Noizkorako dezu sua..?
- GEBARA Sua..?
- MARI GAIZTO Bai, Gebara... sua..! Zure ezpatak ez ditu oñaztarrak Arrasate-tik atera-eraziko. Ondo gordeak baitaude aiek..!
Ez al-dituzu, ba, zure mendean errirako sarrera guztiak..? Sutu zazu ba erria. Ta zure ezpatak egin ez duana egingo du suak..! Suari igeska irten bearke dute Arrasate-tik oñatarrak.
Ixil-unetxo baten ondoren
Bildur al-zera, Gebara jauna..?
- GEBARA Bildur ni..?
- MARI GAIZTO Bai..! Erri bat kizkalduko ote dan bildur. Emakume ta ume batzuek erreko ote diran bildur..!
Ez zera zu guda-gizona, ez..! Ollor bat zera zu, Gebara jauna..!
Ezpata atera ta Mari Gaiztoarengana asarre dijoan artean.

GEBARA

Ollo bat ni..?

MARI GAIZTO

Ja, ja, ja..!

Gebara bereganatu baño leen, iruditegiko atzeko-aldean izkututzen da Mari Gaizto.

GEBARA

(Ixil une baten ondoren).

Sorgin madarikatua..! Orain ikusiko den ik Gebaratarren ausardia zenbaterañokoa dan..!

Ea, nere lagunak..! Arrasate kizkaltzeko ta oñaztarrak mendaratzeko sua bear ba-da, sua izango da ba Arrasate-n. Emakume ta ume-negarrak ez naute geldi-eraziko.

Adierazi nerekin dauden ganboatar guztieri nere asmo au. Arrasate-ko erria biar-gauerako menderatzen ez ba-degu, artu dezala ganboatar bakoitzak zuzi piztu bat eta ez dezala etxe bat ere sutu gabe utzi. Ona ba nere agindua. Bete nai ez dunik ba-le-go, jauna izan edo erriko gizona izan, nik neronek ilko det nere ezpata onekin.

Nere agindu auek nik nai bezela bete-eraziko dituzutela, zin egin bear didazute. Atera ba zuen ezpata oiek.

Ezpatak atera ta ezpata-muturrak alkartuko dituzte airean.

Ondo dago. Orain ikusiko du sorgin madarikatu orrek erri bat kizkaltzeak, eta emakume ta ume-negarrak min ematen dioten ala ez Gebaratar bati. Nere gorrotoa asetzen ba-det, zer zait neri negar oiegatik..!

Ea, mutillak. Jakin-erazi ba nere agindu auek.

Eguna argitu baño leen an izango nauzute ni ere zuen artean.

GUDA-MUTILLAK

Agur, jauna.

Ikusleen ezker-aldetik izkutaruko da Gebara jauna. Ta eskubi-aldetik beste irurak.

Gau-erdia da.

Iruditegiko atzeko-aldetik agertuko da Mari Gaizto.

MARI GAIZTO

Joan dira. Odola bero-bero araman digu Gebara jaunak. Asarre zan nerekin... Ja, ja, ja..!

Ba-nekian nik zerkin asarratuko zan bai... Arrokeriz puztutako gizon bat da izan ere, ta ollo bat dala esateak mindu egin dio biotza. Orixe nai nuan nik..!

Asarrean ez da Gebara bezelako gizon biotz-gogorrik, Erruki diet biar Arrasate-ko oñaztarreri... Erruki Arrasate-ko erriari..!

Olooa ez dala agertu naiko du biar, eta aren ezpata ta zuziak ez dute oporrik izango. Ikustekoa izango da biarko gudaketa. Ikustekoak izango dira biarko etxe-kizkaltzeak. Ikustekoak biarko odol-iturriak..! Euskal-erri zaarraren zañak odolez lertubearrean daudela..., ja, ja, ja..! Biarko ortan utsun galanta artu bear dute... Ai, Euskal-erri, Euskal-erri..., Jaungoioa izan bearko dezu, bai, lagun. Ja, ja, ja..!

Oiartzuna ba-litz bezela, Ja, ja, ja, erantzungo diote barrutik sorgin-lagunak.

Atozte, bai, aizpatxoak. Bete-betea agertu zaigu ama-illargia. Egin dezagun ba gure gaurko batzarra. Atozte ba ta jarri zaitetze nere inguruan...

Iruditegi-erdian, lurrean eseriko da Mari Gaizto.

Iruditegiko baztar guztietatik agertuko dira beste sorgiñak.

Mari Gaiztoren eskubi-aldean eseriko dira lau, ezker-aldean beste lau.

Ja, ja, ja, egiñaz sartuko dira sorgin guztiak.

SORGIN BATEK

Ipuitxo bat, Mari Gaizto...

MARI GAIZTO

Ipuitxo bat nai dezute..? Entzun, ba, ene aizpatxoak. Ba-zan gizon zaar bat... Aulduta bizi zan gizon zaarra. Gorrotorik nai ez, ta gorroto-arte bizi zan gizona... Ez zan gure laguna... Maitagarri zuan ark bere lagun. Maitagarri au izan ez ba' litz, basoan ilko zan gizon zaarra..!

ESKUBI-ALDEKO SORGIÑAK Euskal-erria..!

ESKER-ALDEKO SORGIÑAK Euskal-erria..!

MARI GAIZTO Ez zuan bere etxean zorientasunik. Seme biurriak irten zitzaizkion. Burruka maite zuten semeak... Anai-arteko odol-ixurtzeetan atsegin izan oi zuten semeak... Seme oien biotzetan erne egin zan guk eraindako azia...

ESKER-ALDEKO SORGIÑAK Gorrotoa..!

ESKUBI-ALDEKO SORGIÑAK Gorrotoa..!

MARI GAIZTO Jaungoiko-zalea zan agure zaarra... Sorgiñen etsaia... Ta ala ere gure Akelarreak ugaritzen ari ziran eta kristautasuna gutxitzen... Pozez beterik bizi giñan gu sorgiñok, eta naigabez beterik...

ESKUBI-ALDEKO SORGIÑAK Euskal-erri zaarra..!

ESKER-ALDEKO SORGIÑAK Euskal-erri zaarra..!

MARI GAIZTO Jaungoikoa-ren laguntasuna agindu zion Maitagarriak. Anai-arteko pakea..! Eta anai-arteko pakerik ez da Euskal-errian izango gu nai ez degun artean... Zertarako gera ba gu...

ESKER-ALDEKO SORGIÑAK Sorgiñak..!

ESKUBI-ALDEKO SORGIÑAK Sorgiñak..!

MARI GAIZTO Jaungoikorik ez degu nai gure errian. Jaungoikoak lotu egiten du gizona. Ta aske nai degu guk gizona... Griña guztiak aseko dituan askatasunean.

Loikeria maite degu. Gorrotoa degu gure seme... Odola gure edari. Lagun urkoaren malko-samifietan egiten ditugu guk...

ESKUBI-ALDEKO SORGIÑAK Gure eztaiak..!

ESKER-ALDEKO SORGIÑAK Gure eztaiak..!

MARI GAIZTO Mendeko degu Euskal-erria, Gure esanetara bizi dira euskaldun-seme geienak. Ez dute gure almenik Maitagarriak. Guk ala nai degulako su ta gar kizkaliko dute biar...

ESKER-ALDEKO SORGIÑAK Arrasate-erria..!

ESKUBI-ALDEKO SORGIÑAK Arrasate-erria..!

MARI GAIZTO Eta su ta gar artean..., agure ta ume-negar artean. Euskal-erri zaarraren eriotz- dardar artean... indartsu entzungo da Arrasate gainean...

ESKUBI-ALDEKO SORGIÑAK Gure irrintzi bulartsua..!

ESKER-ALDEKO SORGIÑAK Gure irrintzi bulartsua..!

MARI GAIZTO Ona emen, aizpatxoak, nere gaurko ipuitxoak. Gure biarko batzarra...

ESKUBI-ALDEKO SORGIÑAK Arrasate-n..!

ESKER-ALDEKO SORGIÑAK Arrasate-n..!

MARI GAIZTO Laister da goiz-ezkillak. Goiz-ezkillak galdu-eraziko digu gure sorgin-almena. Bañan laister azalduko da berriz ere ama-illargia. Ta eskobak zalditzat, Arrasate-n egingo ditugu biar gure eztaiak.

Erne egon gaitean. Elizarako jeikitzen asi bait-dira gure basarrietako amona-agureak. Laister igaroko dira emen. Orotzean ari dira egun guztian. Sekula ezagutu ez dan bezelako legortea dala oraingo legorte au ta eten-gabeko arrenak egiten ari dira gizajoak... Eta ala ere euririk ez..., Ja, ja, ja..!

SORGAÑAK

Jaungoikoa lagun duala Euskal-erriak...?

MARI GAIZTO

Ja, ja, ja..!

Matutia entzuten da.

Laisterka batean izkutatuko dira sorgin guztiak iruditegiko bazter guztietatik.

Egun-sentia da.

Ikusleen ezker-aldetik agertu ta eskubi-aldean izkutatuko dira elizara dijoazen euskaldunak.

Agure zaar bat eta bi edo iru gaztetxo joango dira aurretik. Eta gizonezko auen ondoren agertuko dira emakumeak ere, bi edo iru amona, iru edo lau sasoiko andre ta iru edo lau neskatxa.

Egun-sentia da oraindik eta goizean-goiz ez da izketarako gogorik izaten, eta guda-egunetan oraindik gutxiago. Ixilik dijoaz beraz. Auek izkutatzean agertuko da Maitagarri.

MAITAGARRI

Zorigaiztoko eguna, gaurko egun au ere, gure Euskal-erri zaarrantzako... Euskal-odolez gorrituko dan beste egun bat. Pesta-eguna gure sorgiñentzat. Negar-eguna euskaldun zintzo askoentzat. Elizarako bidean ikusi dituzute auek... Euriaren-aldeko ta pakearen-aldeko arrenak egiten ari bait-dira. Jaungoikoa-ren laguntasunaren bearrean arkitzen baita gure Euskal-erri zaarra. Lagunduko al-dio bai Jaungoikoa-k. Izango al-du gure erriaren errukia.

Onela bizi ziran, Jaun-andreak, amabostgarren eun-kiko euskaldunak. Sorginkeri-artean... Anai-arteko gorroto artean..., eta pakerik gabe.

Noiz-bait, ordea, izan zuan Jaungoioa-k gure Euskal-erri zaarraren errukia.

Eta egun artan..., Euskal-erri zaarra Errodrigo-Baltzategi-ren aitonarekin izketan ari zan egun artan...

ZAPIA BAT-BATEAN.

Bigarren ekiñaldia: ARANTZAN-ZU..!

Antzezleriak:

AITONA. ERRODRIGO-REN AITONA.
EUSKAL-ERRI.
ERRODRIGO.
JOXEPA. ERRODRIGO-REN AMONA.
MAITAGARRI.
AMA BIRGIÑA.
PRAILLEA.
LOIOLA-KO IÑIGO.
ERRIKO GIZON ETA EMAKUMEAK.

Basarri bateko etxe-aurreko zelaian ari di-
ra kontu-kontari Euskal-erri ta Aitona.
Ez daude ikusleeri begira, albo batera bai-
zik.

AITONA Bai, Euskal-erri maite..! Gogoan det oraindik
egun artako gertaera mingarria... Gau-erdi izan
arren, argi ikusten ziran emen bertatik Arrasate-
inguruko baztarrak.
Negar-malko samiñak ixuri nituan gau artan..!

EUSKAL-ERRI Nik ixuritakoak ere ez ziran gozoagoak izan, Eus-
kaldunen aita egin ninduen Jaungoikoa-k, eta aita
batentzat mingariak dira seme-arteko gorroto ta
barrukak...

AITONA Egia diozu, Euskal-erri.

EUSKAL-ERRI Urte geiegi eman dizkit Jaungoikoa-k. Ez nituan
egun negargarri auk ikusiko leenago il ba-nitz...
Ixil unea.

AITONA Eta zer dala-ta sortzen dituzte gure jauntxo auk
gudaketa auk..?

EUSKAL-ERRI Zer dala-ta..? Ba-ote dakite erak..! Batek besteak
baño aundiagoa izan nai...

AITONA Eta gudaketa auk euren artean izango ba-lituzke,
ezer ez..! Zertarako naastu bear dituzte burruka
auetan, pakean bizi nai duten euskaldunak..?

EUSKAL-ERRI Egia diozu... Bañan erri osoen jabe dira jauntxo-
izeneko nere seme auk. Maistar dituzte beste eus-
kaldunak... Eta nagusiaren agindua bete bear mais-
tarrak bere etxeetan biziko ba-dira, ta lantzeko baz-
tar batzuek izango ba-dituzte.

AITONA Eta nork eman izan die oieri nagusitasun ori..?
Zuk, Euskal-erri..?

EUSKAL-ERRI Nik ez..! Nik ez diet onelako nagusitasunik eman.
Berdinak ditut nik neretzako euskaldun seme guz-
tiak. Nere seme-artean ez det nik morroirik nai; na-
gusiak nai ditut nik guztiak..!
Lurralde ederra eman zidan Jaungoikoa-k. Seme in-
dartsuak azi nituan. Munduan ez zan beste erri bat
nere erri au añekorik.. Baña bildur naiz, ez ote dan
nerekin Jaungoikoa bera asarratu..!

AITONA Ez dezu orrelakorik esan bear..!

EUSKAL-ERRI Ez nuke esan nai..! Bañan begi-aurrean dan gau-
zarik ezin ukatu dezaket..! Askota aundiak izan
dira Euskal-erria-k egin dituan obenak...

AITONA Zuk, ez, Euskal-erri.

EUSKAL-ERRI Nik ez... baña nere semeak bai..! Ta nere semeen
oben oiek nere obenak dira, Aitona.
Zarra zera zu. Ni zarragoa. Ta ala ere, ez det
oraindik emen ezagutu-izan oraingo au bezelako
legorterik. Eta ez ote da legorte au Jaungoikoa gu-
rekin asarre degulako..?

- AITONA Entzun, Euskal-erri..! Zure seme-artean ez al-da seme zintzorik..? Ez al-dituzu egunero Elizarako bidean ikusten..? Eta ez al-du Jaungoikoa-k zure seme zintzo oien errukia izango..?
- EUSKAL-ERRI Izan bear lukela esango nuke nik.
- AITONA Izango duala esango nuke nik..! Bai, Euskal-erri. Laister izango du Jaungoikoa-k zure erruki. Laister izango dira euskaldunen arteko pakeak. Laister izango zera zu berriro leengo Euskal-erri zoragarria.
- EUSKAL-ERRI Ala nai izan dezala Jaungoikoa-k.
- AITONA Ala nai izango du Jaungoikoa-k..!
Ikusleen ezker-aldeetik laisterka batean agertuko da Errodrigo.
- ERRODRIGO Aitona, aitona..! Ez al-ditu ikusten, Aloña-malda bera, izu ardiak..? Gure ardiak dira, aitona.
Euskal-erri ta Aitona bat-batean jeiki ta Errodrigo-k izentatzen duan leku-aldera, begirabegira geldituko dira.
- AITONA Arrano-pola..! Ala dituk, izan ere... Zer ote die ardi oiek..?
- EUSKAL-ERRI Pizti gaiztoren bat noski..!
- ERRODRIGO Ba-noa ni, aitona... (Txakurrari deituko ba-lío bezela)... Ea, Txuri, goazen azkar-azkar...
Eta laisterka batean irtengo da Errodrigo iruditegiko atzeko-aldeetik.
Ikusleen eskubi-aldeetik agertuko da Joxepa, Aitona-ren emaztea.
- JOXEPA Zer zuan orrek..?
- AITONA Ezer ez..! Pizti gaiztoren bat sartu dala noski gure artaldean, eta ankak ausi-bearrean jetxi dirala ardiak, malda-bera, erreka zulo aldera...
- JOXEPA Jesus, milla bider..! Eta zer egiten dezu zuk emen,

gizona..? Mutillari laguntzera-joateko asmorik ez aldezu..? Otso bat ba-litz pizti ori, zer egin bear du bakarrik gure mutillak..!

- AITONA Egia diozu, Joxepa... Ba-noa ni ere bai... Ekarri zaidazu nere makilla.
- Makilla billa joaten da Joxepa.
- Eta zu, Euskal-erri, zaude oraindik emen. Laister etorriko gera bearba-da ta.
- EUSKAL-ERRI Ondo dago. Zure emaztearekin geldituko naiz ni. Pozik lagunduko nizuke, bañan zaartua nago...
- JOXEPA Tori zure makilla..!
Makilla artu ta Errodrigo-ren bideari elduko dio Aitona-k.
Iruditegi-atzera eltzen danean, aurrez-aurre agertuko zaio Maitagarri.
- MAITAGARRI Ez, Aitona..! Gelditu zaiz zu emen. Nik lagunduko diot Errodrigo-ri... Ez bildurtu... Ez zaio ezer txarrik gertatuko. Laister bilduko degu bion artean artaldea... Zaude zu Euskal-erri-kin kontukontari orain bezela. Agur ba ta laister arte.
Zer esan ez dakitela geldituko dira Aitona ta Joxepa.
- JOXEPA Nor zan ori, Euskal-erri..?
- EUSKAL-ERRI Nere aingeru zaintzallea dala esango nuke nik. Indar-gabe erori nintzan basoan orain urte batzuek. Bertan ilko nintzala ere uste izan nuan. Orduan agertu zitzaidan lenengo aldiz... Lurretik jaiki-erazi ta bere etxera eraman ninduan. Berak gordeko zizkidala, artean zintzo ziran euskaldunak, agindu zidan, eta bere agindua ondo betetzen du, ikusten dezutenez.
- JOXEPA Ez da ba sorgiñen bat izango..?
- EUSKAL-ERRI Ez, Joxepa..! Gaiztoak eta itxusiak dituzu sorgiñak... Arrasate kizkali zuten zorigaiztoko gau ar-

tan, ez al-zenituen entzun irrintzi ta algara bildurgarri batzuek..? Irrintzi ta algara aiek sorgin-irrintzi ta algarak ziran..! Sorgiñak ez dute gure erririk maite, orrek maite duan bezela...

Leengo eserlekuetan eseriko dira Euskal-erri ta Aitona.

AITONA

Neskatxa ederra zan benetan...

EUSKAL-ERRI

Ederra ta ona. Gure basoetan bizi diran Maitagarrietako bat dezute ori...

JOXEPA

Ez naiz ni ere ba gaurkoa. Bañan orrelako neskatxarik ez det bein-ere ikusi izan gure basoetan... Ez ote da gure Errodrigo txo, ori ikusi-ta, bildurtuko..?

AITONA

Orixe pentsatzen ari nintzan ni ere...

EUSKAL-ERRI

Ez dezute bildurrik izan bear. Maitagarri bat ez da sorgin bat bezelakoa..! Ez du sorgin batek ematen duan bildurrik ematen. Bildurtu al-zerate ba zuek?

AITONA

Bildurtu..? Bildurtu, ez ..! Arritu, ordea..? Arriarri eginda gelditu naiz ni beintzat. Ta Errodrigo gaztea da oraindik...

Joango ote naiz ba, Euskal-erri..?

Bat-batean agertuko da Maitagarri.

MAITAGARRI

Entzun, Euskal-erri..! Berri alaia dakarkizut gaur. Amaitu dira zure naigabeak. Lagun dezu Jaungoikoa... Euskaldun zintzoen otoitzak entzun ditu Goiko-Jaun onak..!

Gaur izango du legorte bildurgarri onek bere azken-eguna. Euri osasungarria bait-dator itxaso aldetik. Poztu, Euskal-erri. Sorginkeriak ez du zure errian gaurtik aginpiderik izango. Amaitu ziran Euskal-erri-ko Akelarreak..!

Zurea izango dezu gaurtik pakea, Euskal-erri. Anai izango dituzu zure semeak. Pake-ekarlea gure ar-

tean bait-daukagu. Atoz nerekin, Euskal-erri..! Atozte zuek ere, euskaldun zintzoak. Gurtu ezazute Zerutik arantza-gaiñera etorri zaigun Pake-ekarlea..!

Maitagari-ren atzetik joango dira irurak.

Eskuan duan izar-dun makillatxoakin joko du Maitagarri-k iruditegi-atzeko zapia, ta bi aldetara bilduko da zapi au.

Arkaiz-artean eta elorri-arantza gaiñean azalduko da Arantzazu-ko Ama.

Arantzazu-ko Ama-ren eskubi-aldetik eta pixka bat alboka azalduko da belauniko Errodrigo.

Iru edo lau ardi ari dira bertan bazkatzen.

Iruditegiko lurretik pixkaren-bat jasota azalduko ba-lira Ama Birgiña, Errodrigo ta ardiak obe... Onela obeago ikusiko lituzte ikusleak eta.

Ama Birgiña-ren ezker-aldean geldituko da tente eta erriari begira Maitagarri.

Ama Birgiña-ren aurrez-aurre belaunikatuko da Euskal-erri. Onen eskubi-aldetik eta iriditegiko alboan Joxepa. Euskal-erri-ren ezker-aldetik eta iruditegi-alboan au ere, Aitona.

EUSKAL-ERRI

Arantzan-zu..?

AMA BIRGIÑA

Bai, Euskal-erri. Arantzan ni..., zuk arantzarik izan ez dezazun.

Entzun ditu Jaungoioa'k zure arrenak. Zure Zaindari izan nadin bialdu nau onera Jaungoikoa-k. Esan diot Errodrigo-ri: Eliza bat nai det emen. Euskaldun zure semeak jasoko didaten eliza. Eliz ortatik zabaldu nai det Euskal-errian pakea..!

Ixil unea.

Butaku ziran zure seme-arteko burrukak. Euskaldunen artean ez da gaurtik oñaztarrik eta ganboarrik izango. Euskaldun-uts izango dira zure semeak. Entzun, Euskal-erri..! Erromes datoz zure semeak. Erri-xearekin naastu-ta datoz leengo jauntxoak. Ezpataren ordez kandela bana dakarte eskuan. Ez du-

te guda-zantzorik beren ezpañetan. Errosario Santua erreztatzen datoz etengabeko lerro luzuan. Emen dira, Euskal-erri. Leen burrukalari ziran zure semeak dituzu. Entzun ba, Euskal-erri..!

Ikusleen eskubi-aldetik sartuko dira emakumezkoak. Jauntxoek emazteak dira batzuek, errixeko alabak besteak. Joxepa-ren atzean belaunikatuko da lenengoa. Onen atzean bestea ta onela, beste guztiak ere. Ez du azkenik lerro onek. Ikusiko ez ba-da ere iruditegiti kanpora jarraitu bear du lerro onek.

Beste ainbeste egingo dute gizonezkoak ere iruditegiko ezker-aldetik. Gizonezkoen artean ere jauntxoek jazkerakin azalduko dira batzuek.

Euskal-erri-ren atzean belaunikatuko da, errosario santua erreztatzen datorren Praillea.

Iruditegian sartzen ari diran bitartean...

PRAILLEA	Auxilium christianorum.
BESTE GUZTIAK	Ora pro nobis.
PRAILLEA	Regina angelorum.
BESTE GUZTIAK	Ora pro nobis.
PRAILLEA	Regina Patriarcharum.
BESTE GUZTIAK	Ora pro nobis.
PRAILLEA	Regina prophetarum.
BESTE GUZTIAK	Ora pro nobis.
PRAILLEA	Regina Apostolorum.
BESTE GUZTIAK	Ora pro nobis.
PRAILLEA	Regina Martyrum.
BESTE GUZTIAK	Ora pro nobis.
PRAILLEA	Regina confesorum.
BESTE GUZTIAK	Ora pro nobis.

PRAILLEA	Regina virginum.
BESTE GUZTIAK	Ora pro nobis.
PRAILLEA	Regina sanctorum omnium.
BESTE GUZTIAK	Ora pro nobis.
PRAILLEA	Regina pacis.
BESTE GUZTIAK	Ora pro nobis.
PRAILLEA	Salbea.
BESTE GUZTIAK	Agur Erregiña. Ama errukiorra. Gure itxaropena, agur... Ea bada, gure bitarteko on orrek, itzuli gurgana zure begi errukitsu oiek. O biotz-bera. O errukiorra. O birgin gozoa. Amen.

Ixil-unea.

AMA BIRGIÑA

Entzun zuek ere euskaldun nere semeok..! Nigan eman dizute Jaungoikoa-k zuen ama. Ez zaituzte ordea aitarik gabe utzi nai. Laister izango dezute euskaldunok zuen aita ere. Loiola-tik dator gaur erromes bera. Iruña-ko gudaketan zauritu zuten. Loiola-ko bere etxean Jaungoikoa-rengana biurtu zan. Santutasun bidean jarraitu nai luke. Ni euskaldunen ama bezela, bera izango dezute egunen batean euskaldunen aita. Ona emen, nun dan bera, euskaldunok. Entzun ba gogoz bere itzak..!

Ikusleen ezker-aldetik, zaldun bezela jartzia, azalduko da Loiola-ko Iñigo.

Praillea-ren atzean geldituko da tente iruditegi-erdian.

IÑIGO

Ama..! Arantzazu-ko Ama..! Anai ditut zure aurrean belaunikaturik dauden euskaldun guzti auek. Zuri itz bat ematera etorri naiz gaur onera. Ta nere anai auek ipintzen ditut zuri eman nai dizudan itz onen testigu. Bera zainduko duan santu bat bear du Euskal-erriak. Eta ni izango naiz euskal-

dunen santu au, zuk laguntzen ba-didazu, Ama...
Ona. Ama, nere itza..!

Praillea-ren atzean belaunikatuko da Iñigo.

AMA BIRGIÑA

EUSKAL-ERRI

Zurekin izango dezu, seme, nere laguntza.

Eskerrikasko, Ama..! (Zutik)... Poz-pozik zure aurrean, ona emen nun dezun Euskal-erria. Nere seme auek onela alkartuta ikusi ez ditudala, urte asko dira. Ama. Zuri zor dizut gaur dedan pake au... Gure Zaindari autatzen zaitut nik gaur. Gorde. Ama, euskaldunen artean, zuk eman diguzun pake au... Anai izan gaitezela beti euskaldunok. Ez de-dilla gure artean burruka geiago izan. Pakean bizi nai degu, Ama. Izan ba zu, Arantzazu-ko Ama, gure pake onen zaindari. Zu zaitugu euskaldunok gure ama, ta santu izango dan itza eman dizun Loiola-ko zaldun au, izango da egunen batean gure aita.

Bertan belaunikatuko da Euskal-erri.

MAITAGARRI

Ona emen zuen begien aurrean, Jaun-andreak, Arantzazu-ko gure Ama onen kondaira labur bat. Euskaldun-arteko anai-burrukak gogor-gogorrean ziran garaian agertu zitzaigun arantza-gaiñean gure Ama au 1.468-garren urtean.

Egun artatik aurrera beti izan dira erromesak Arantzazu-n.

1.522-garren urtean etorri zan onera eromes Loiolako Iñigo santua ere.

Eta 1.918-garren urtean autatu zuan Euskal-erriak, (Gipuzkoa-k), bere zaindaritzat Arantzazu-ko Ama au.

Arantzazu-ko Ama oneri zor diogu euskaldunok gure gaurko pake au.

Eta gaurko euskaldunen arteko pake au nolakoa dan jakin nai baldin ba-dezute, Jaun-andreak, zatozte nerekin gaur-eguneko Arantzazu-ra...

ZAPIA POLIKI-POLIKI.

Irugarren ekiñaldia: ARANTZAZU-ONDORENGO EUSKAL-ERRIA

Antzezleriak:

AUSTIN.

FRAY ADRIAN. ATEZAIÑA.

FRAY LEON. ESKEKO PRAILLEA.

BERTSOLARIA.

I EMAKUMEA.

II EMAKUMEA.

III EMAKUMEA.

JOANES.

JOSETXO... JOANES-EN BILLOBA.

MIKEL.

MIREN.

MAITAGARRI.

ERRIKO GIZON ETA EMAKUME TALDEA.

Arantzazu degu iruditegi.

Ikusleen aurrez-aurre Arantzazu-ko eliza-
ren sarrera.

Ikusleen eskubi-aldetik Arantzazu-ko prai-
lle-etxearen sarrera. Ezker-aldetik berriz mendi-
rako bidea.

Praille etxe-aurrean dago Fray Adrian, atezaiña.

Oin-utsik datorren agure bat agertuko da
ezker-aldetik, Oñati-ko bidetik.

Beltzak ditu txamarra ta galtzak. Nekatua
dator.

Fray Adrian-en ondora iristen denean, txape-
laren egala pizka-bat jaso ta egun-onak ematen
dizkio Fray Adrian-i.

AUSTIN Egun on Jaungoikoa-k.

FRAY ADRIAN Baita zuri ere, gizon..! Nekatua zatoz..?

AUSTIN Ezin ukatu..! Ez dira alperrik urteak igarotzen..!

FRAY ADRIAN Zenbat dituzu..?

AUSTIN Askotxo, jauna. Irurogei ta amairu.

FRAY ADRIAN Oñati-tik onera oñutsik etortzeko ba-dira, bai, urteak. Nekatua zatozela..? Ez da, ez, arritzekoa.

AUSTIN Nekatua nator, bai. Baña nik dakardan pozak ez du neurririk.
Gaztea izandakoa naiz ni ere. Ta gaztea oi danez txoro-xamarra ere bai. Gaztetako txorakeri aiek nolabait ordaindu nai ta, aspalditik neukan onera oñutsik etortzeko gogo. Ez nuan nere asmo au betetzeke il nai.
Nere egunak ez dira onezkero luzeak izango. Oraingo ontan "Zerura arte" agurtu bearke det nere Arantzazu-ko Ama au. Bañan "agur onek" ez dit miñik ematen. Zeruan ere Arantzazu-ko Ama au, ama izango dedala iruditzen bait-zait.

FRAY ADRIAN Ama izango dezu bai. Euskaldunen ama izatera etorri zan arantza-gaiñera, ta euskaldunen ama izango da zeruan ere Arantzazu-ko ama au.

AUSTIN Eskerrikasko, jauna. Pozgarriak dira, azken-urteetan dabillen agure zaar batentzat, zuk esandako izak. Galdera bat egin nai nizuke orain. Nere gaurko aitorketa ta nere gaurko jaunartzea, Arantzazu-ko Amaren aurrean egingo ditudan azkenengo aitorketa ta azkenengo jaunartzea izango dira noski. Onelaxe egin nai nituzke, jauna, oñutsik..! Ba al-da ortarako eragozpenik..?

FRAY ADRIAN Ez, gizona..! Ez dago ortarako eragozpenik..! Poz izango du Arantzazu-ko Amak zu onela bere aurrean ikusten zaituanean. Lasai joan ziñeke ba.

AUSTIN Ba-noa ba.

FRAY ADRIAN Agur, gizon.

AUSTIN Agur, jauna.
Austin elizara dijoan artean, begira egongo zaio Fray Adrian.

FRAY ADRIAN Euskaldun, fededun. Egia da. Zuri eskerrak, ordea, Arantzazu-ko Ama..!
Praille-etxetik irtetzen da Fray Leon.
Eskean ibilli oi dan Arantzazu-ko praille bat degu Fray Leon.

FRAY LEON "Goiko-Borda"-rako ezer nai al-dezu Fray Adrian?

FRAY ADRIAN "Goiko-Borda"-rako..? Lagundu egingo nizuke nik Goiko-Borda-ra, Fray Leon..! Noizko izango zera an..?

FRAY LEON Ez ba jakin. Egualdiak esan bear ori... Giro ona danean, errez ibiltzen gera eskeko-prailleak. Giro txarra danean, ordea, neketsuago beti...
Dana dala ere, an izango naiz, Jaungoikoa lagun, iru edo lau egun barru.

FRAY ADRIAN Eskumiñak nere ama ta etxekeori. Ondo naizela ta bazkari on bat eman daizutela.

FRAY LEON Esan bearrik ez dago ori. Goiko-Borda-n maiburu izan oi da beti Arantzazu-ko praillea.

FRAY ADRIAN Ondo da..., ondo da, Fray Leon..!
Elizatik dator Bertsolaria.
Beso-gaiñean tolestatuta bertso-paper batzuek dakarzki.

BERTSOLARIA (Bertso-paper bana emanaz).
Arantzazu-ko Amaren omenez ipiñitako bertsoak

dira... Tori..., irakurri nai baldin ba-dituzute beintzat...

FRAY ADRIAN Irakurri naiko ez ditugu ba..! Pozik irakurri ere...

FRAY LEON Irakurri bakarrik ez... Buruz ikasiko ditut nik bertso auk... Erri batetik bestera noan bitartean, zer gauza oberik, bertso batzuek kantatzea baño... Zer doñu dute..?

BERTSOLARIA Doñu erreza ta ezaguna... Entzun...

Arantzazu-ko Ama Birgiña
emen nator ni kantari,
zure omenez egin ditudan
bertso auen abeslari.
Euskaldun arten, nai nuke azaldu
gaurko onetan nik garbi
Euskal-erriak zenbat zor dizun
Arantzazu-ko Andra Mari.

Ezagutuko dezute noski doñu au..?

FRAY ADRIAN Ez degu ba ezagutuko..? Bai, gizona, bai...

BERTSOLARIA Mesede bat eskatu nai nizuke orain, Onelakoxeak gera bertsolariak. Elizako elizkizun eta itzaldiak atsegin izaten zaizkigu bai... Itzaldi ederra oraintxen entzun dedana ere...

Bañan ba-degu pekatu koxkor bot bertsolariak... Taberna-zaleak izan oi gera... Lagun-arte atsegin zaigu..., ta lagun-arte ortan baxo- erdi batzuek edan nai ba-ditugu, bertso-paperak saldu bear ortarako... Aulkitxo bat nai nuke ba... Aulkitxo baten gainetik obe kantatu oi degu bertsolariak eta.

FRAY ADRIAN Aulkitxo bat nai zendeke beraz..? Bai, gizona. Aulkitz ondo gaude Arantzazu-n. Laister naiz emen.

Praille-etxean izkutatuko da Fray Adrian.

BERTSOLARIA Arantzazu-giroa gaurko au.

FRAY LEON Ez diozu gezurrik. Ez da, ez, beti Arantzazu-giro izaten... Euria ta elurra izaten diranean...

BERTSOLARIA Ala ere, oitu-xamarrak egongo zerate zuek..!

FRAY LEON Zer esan ez dakit... Euri ta elurretara nekez-xamar oitzen ote dan bat, nago...

BERTSOLARIA Egia diozu. Biak ere ez dira lagun onak, izan ere. Ala ere Arantzazu, beti Arantzazu izango da. Ama Birgiñaz gañera ba-du baztar onek beste baztarrak ez duten zerbait. Euskaldun-arteko fedea ta euskaldun-arteko anaitasuna beste ifungo lekuan baño obe ikusten bait-da Arantzazu-n. Arantzazu-ra etortzea atsegingarria izan oi da beti neretzat beintzat.

Aulkia eskuan agertuko da Fray Adrian.

FRAY ADRIAN Tori, gizon... Onelako bat naiko zenduan noski..?

BERTSOLARIA Ona da, bai... Eskarrikasko. Bertso-saioa bukatzen dedanean, nik neronek ekarriko dizut berriro. Laister azalduko da jendea ta ba-noa ni nere txokora. Gero arte, jaunak...

FRAY ADRIAN Gero arte, bai...

Aulkia artu ta iruditegiko beste albora joango da Bertsolaria.

Aulki-gaifnean zutik, elizatik jendea noiz aterako dan zai geldituko da Bertsolaria.

FRAY LEON Bueno, Fray Adrian... Ba-noa ni ere... Agur ba.

FRAY ADRIAN Agur, Fray Leon. Ondo ibilli ta itzuli arte. Goiko Borda-ko berriak ondo ekarri gero.

FRAY LEON Ez kezkarik izan. Berri onak ekarriko dizkizut eta. Agur Fray Adrian.

FRAY ADRIAN Agur, Fray Leon.

Oñati-rako bidea artzen du Fray Leon-ek. Gizon, emakume ta gaztetxoren batzuek ir-

tengo dira naastuan elizatik. Beren pardeltxo
eskuan geienbat, Arantzazu-n oi dan bezela.

Bertsolariarengana zuzenduko dira gizonez-
ko geinak.

Mendi-aldeko bidea artuko dute gizon eta
emakume batzuek.

Fray Adrian-engana urbilduko dira iru edo
lau emakume.

Euren arteko ixil-jarduna ibilli lezakete an-
tzerkian itzerik egin bear ez duten gizon eta
emakumeak.

BERTSOLARIA

(Lenengo gizonak elizatik irtetzen asten diran bezein
laister).

Arantzazu-ko Ama Birgiña
emen nator ni kantari,
zure omenez egin ditudan
bertso auen abeslari...

Euskaldun arten, nai nuke azaldu
gaurko onetan nik garbi
Euskal-erriak zenbat zor dizun
Arantzazu-ko Andra Mari...

I EMAKUMEA

Egun on, Fray Adrian...

FRAY ADRIAN

Baita zueri ere... Zintzo etorri zerate..?

I EMAKUMEA

Nola ez..! Auxe da guk egiten degun ibillaldi ba-
karra ta..!

II EMAKUMEA

Egun onen zai egoten gera urte osoan... Arantza-
zu-ko ametsetan... Nor bizi leiken emen..! Emen-
go pakea..! Ai, Fray Adrian... Praille konbentu
bat dagoan bezela, monja konbentu bat ba-lego
Arantzazu-n, zenbat neskatxa ez ote lirake monja
etorriko.

FRAY ADRIAN

Ala irizten al-diozu..?

II EMAKUMEA

Bai, Fray Adrian. Ez dudarik izan...

FRAY ADRIAN

Ondo da, ondo da... Meza-diruakin etorriko zera-
te zuek..?

III EMAKUMEA

Bai, ala gatoz etorri ere.

FRAY ADRIAN

Ortxe barruan dezute Fray Kosme. Berak artuko
dizute diru ori...

Praille-etxean sartuko dira emakumeak.

Gizon talde polita bildu da Bertsolariaren
inguruan.

Bere billobakin irtengo da orain elizatik
aitona bat. Zabaleta-ko Joanes da. Zaartua dago
bañan gordiña oraindik.

JOSETXO

Elizan oñutsik ibilli dan gizon ori ikusi al-dezu ai-
tona..?

JOANES

Bai, Joxe. Ikusi diat... Eta ikusi bakarrik ez... Eza-
gutu ere bai, nere begi auk gezurrik esan ez ba-
zidatek beintzat...

JOSETXO

Ezagutu ere bai..?

JOANES

Bai..! Nere aspaldiko adiskide bat dek...

JOSETXO

Eta zer dala-ta ibilli da oñutsik..?

JOANES

Zer zekiat ba nik, Joxe..? Promesaren bat egingo
zian noski.

JOSETXO

Promesaren bat..? Eta ori zer da, aitona..?

JOANES

Ai, Joxe..! Oraindik gazte aiz... Zaartzen ba-aiz
egingo dituk ik ere ire promesak, bai...

JOSETXO

Bai, aitona..?

JOANES

Bai, Joxe..! Egon gaitezen ementxe. Itz-aspertu bat
egin nai diat-eta gizon orrekin..!

BERTSOLARIA

(Elizatik besterik ez dala irtetzen eta).

Oñaztar eta ganboatarrak

beti burruka bizian...

Euskal-erria zeukaten aiek

il-zori penagarrian...

Sorgiñak berriz beste aldetik

Jaungoikoa kendu naián.

Amabostgarren gizaldi artan
on gutxi zan gure errian...

Beste antzezlarien jardun bitartean bartso-
paperak zabalduko ditu Bertsolariak.

Orain irtengo dira Praille-etxera sartu zi-
ran emakumeak.

I EMAKUMEA

Agur, Fray Adrian.

FRAY ADRIAN

Agur... On egin daizutela janak.

II EMAKUMEA

Eskarrikasko..!

Eta Bertsolariaren atzetik mendirako bidea
artuko dute emakume auk.

Eliz-atean agertuko da Austin.

JOSETXO

Orra or nun agertu dan zure laguna, aitona. Ez da-
tor orain oñutsik.

JOANES

(Austin-engana urbildu ta).

Adiskidea barkatu bañan elgetarra al-zera zu..?

AUSTIN

Bai, elgetarra naiz..!

JOANES

Etxe-zuri-koa..?

AUSTIN

Etxe-zuri-koa..!

JOANES

Austin..?

AUSTIN

Austin..!

JOANES

Antz emen dizut bai...

AUSTIN

Zu ez zaitut ba nik gogoan...

JOANES

Orain berrogei ta amar urte alkarrekin bazkaldu
genduan Oñati-ko taberna batean.

AUSTIN

Izan leike, bai...

JOANES

Ala da, izan ere... Bergara-ko azokan esne-bei eder
bat saldu zenidazun. Ederra ala ere... Eta bei-di-
ruak artzera etorri zifian Oñati-ra.

AUSTIN

A, bai... Arranoa..! Joanes zera zu, oñatiarra..!

JOANES

Zabaleta-n jaioa ta igarotako larogei urte auetan
bertan bizi naizena...

AUSTIN

Aspaldiko Joanes... Urteak dira ba alkar ikusi ez
degula...

JOANES

Berrogei ta amar..!

AUSTIN

Ez al-degu geroztik alkar ikusi..?

JOANES

Nik ez zaituk geroztik begiz jo..! Leenago bai...
Leenago sarritxoago ikusi oi zindudan. Batak bes-
teaz artu-eman asko erabili oi genduan. Alkarri
ondo lagundu oi genion.

AUSTIN

Bai, orixe... Ta zer egin zuten gure orduko lagu-
nak..?

Bizi al-dira..?

JOANES

Il ziran geientsuak...

AUSTIN

Il zirala..?

JOANES

Bai, antziñatxo il ere...

AUSTIN

Gizon zintzoak, gizon maitagarriak...

JOANES

Bai, Austin. Gutxi bezelako gizonak..!

Bañan goazen Zabaleta-ra... Joxepateko-zelaian
ikusiko gera urrungoz bear ba-da ta, itz-aspertu bat
egitea merezi du gure gaurko alkartze onek... Zer
jan ere izango degu noski... Goazen, Josetxo.

AUSTIN

Billoba al-dezu, Joanes..?

JOANES

Billoba!

AUSTIN

Landare ona... Garo artean artu dezala lurra Alo-
ñatik urrean...

JOANES

Amen...

Oñati-rako bidean izkutatuko dira irurak.

BERTSOLARIA

Zer ote zuten Aloña bera
izu zetozen ardiak..?

Erodrigo-ren amonak ba-zun
bildur galanta gajoak...

Arantz-geñean agertu ziñan
Arantzazu-ko Birgiña,
zorion eta pake guztia
Zuri zor Euskal-erriak...

Ixil unea.

Orain nai ba-du iñortxok jakin
euskaldenen bizi-era,
ez du besterik etorri baño
erromes Arantzazura...
Egun artatik euskaldun danok
pakean bizi ba-gera
zuri eskerrak, Aloña goiko
Andra Mari biotz-bera...

Txaloka artuko dituzte entzuleak Bertsola-
riaren azkenengo bertsoak.

Bazkaltzeko ordua ba-da ta, baskaltzera
joango dira entzule guztiak mendi-aldera.

Aulkia artu ta Fray Adrian-engana joango
da Bertsolaria.

BERTSOLARIA (Aulkia ematen diola) ...Eskarrikasko, jauna.

FRAY ADRIAN Ez dago zergatik eskerrik eman. Bertso ederrak
abestu dituzu...

BERTSOLARIA Gaia izan ederra..!

FRAY ADRIAN Gaia ta zure trebetasuna...

BERTSOLARIA Ba-da ni baño trebeagorik..!

FRAY ADRIAN Ondo dago... Bazkaltzeko gogoia egingo zitzaizun
onuzkero...

BERTSOLARIA Beti izaten degu guk bazkaltzeko gogo ori... Zer-
kin ase ez degu askotan izaten baño...

FRAY ADRIAN Gaur izango al-dezu beintzat...

BERTSOLARIA Izango al-det..!

FRAY ADRIAN On egin daizula ba...

BERTSOLARIA Baita zuri ere, jauna.

FRAY ADRIAN Agur ba...

BERTSOLARIA Agur, jauna.

Aulkitxoa eskuan Praille-etxera sartuko da
Fray Adrian.

Mendi-aldeko bidea artuko du Bertsola-
riak.

Elizatik irtengo du Mikel-ek. Ta ur-be-
deinkatu ontziaren ondoan geldituko da norbai-
ten zai,

Laister dator Miren. Ur-bedeinkatua eske-
niko dio Mikel-ek.

MIREN (Lotsati) ...Eskarrikasko, Mikel.

Ixil-unetxo baten ondoren.

MIKEL Elizan igaro dedan denbora guztia, zuri begira
igaro det, Miren...

MIREN Neri begira..?

MIKEL Bai, Miren... Ain ederra agertzen ziñan zure otoi-
tzean..!

MIREN Ederra..? Ta zuk ez al-dezu otoitzik egin, Mikel..?

MIKEL Bai, egin det nik ere... Nere otoitzak ordea ez
dira zureak bezein xamurrak izan...

MIREN Ez ba jakin, Mikel.

MIKEL Galdera bat egingo nizuke pozik, Miren..?

MIREN Zer jakin nai zenduke ba, Mikel..?

MIKEL Zure otoitz orretan oroitu al-zera nizaz..?

MIREN Nere lagun-arteko bat baldin ba-zera zu ere, bai,
Mikel, oroitu naiz zutaz...

MIKEL Eskarrikasko, Miren.

MIREN Ez dezu zergatik eskerrik eman... Beste ainbeste egingo zenduan zuk nerekin..?

MIKEL Zer esan ez dakit, Miren... Eskari bat bakarra egin diot gaur Arantzazu-ko Amari... Aspalditik daukadan gogo bat zuri azaltzeko indarra eskatu diot bakar-bakarrik... Miren!!

MIREN Bai, Mikel... Ba-dakit zer esan nai didazun...

MIKEL Maite zaitut, Miren..!

MIREN Baita nik ere zu, Mikel...
Goazen berriro Amarengana... Ta Arantzazu-n izan dezala bere osotasuna, Arantzazu-n asiera duan gure maitasun onek...
Elizara sartuko dira biak.
Miren-ek eskeñiko dio oraingo ontan urbedeinkatua Mikel-i.
Oñati-aldeko bidetik agertuko da Maitagari.

MAITAGARRI Ona, Jaun-andrak, Arantzazu... Euskaldun-pakearen kabi... Euskaldun-arteko anaitasunaren bizi-leku...
Ba-du gaurko Euskal-erri onek, amabostgarren gizaldiko Euskal-erri arrekin zer-ikusia..! Arantzazuko Ama au agertu bait-zan bi Euskal-erri auen erdian...
Berak gorde dezala ba beti gure Euskal-erri zaarra. Auxe izango da, Jaun-andreak, Arantzazu-ko Amari beti zorko diogun MESEDERIK AUNDIENA.

ZAPIA POLIKI-POLIKI...

III. G A R O A

G A R O A

Iru ekiñaldietan antzerki bat.

OARRA: Domingo Agirre'ren GAROA'tik, itzez-itz ia, artutako antzerkia dezu au, irakurle. Euskera naastua irudituko zaizu, bear ba'da, bertako euskerea, bañan esana dago euskera naastu orren zergatia. Bertako edertasunak Domingo Agirre'renak dirala, esan bearrik ez dago. Ta ezer itsusirik ba'lego, nere dezu ori, irakurle.

Antzezlariek:

JOANES.
ANA JOXEPA.
JOXE RAMON.
KATALIN.
MANUEL.
MALENTXO.
JOXE.
INIXIO MARI.
MIKELA.
MARTIN.
PAULA.

Senar-emazteak ditugu Joanes eta Mari Joxepa, Joxe Ramon eta Inaxio Mari'ren gurasoak.

Joxe Ramon'en emaztea degu Katalin. Manuel eta Malentxo anai-arrebak ditugu. Ta Manuel, Malentxo baño, zaarragoa da.

Inixio Mari ta Mikela ere, senar-emazteak ditugu, Martin eta Paula'ren gurasoak. Mutila, neskea baño zaarragoa emen ere.

Umezurtza degu Joxe.

LENENGO - EKIÑALDIA

Zabaleta basarriko sukaldean.

Antzezleriak:

ANA JOXEPA.
JOXE RAMON.
KATALIN.
INIXIO MARI.
MANUEL.
JOXE.
MALENTXO.

I. *Ana Joxepa, Katalin eta Malentxo.*

ANA JOXEPA Ezin zintzoagoa izan mutilla..!

KATALIN Semea ba'nu, ere, ez nuke nik geiago maitatuko beintzat...

ANA JOXEPA Sinisten dizut... Nik ere, Manuel eta Malentxo bezein billoba det Joxe, Iturralde'ko umezurtza...

KATALIN Penagarria da gero...

ANA JOXEPA Ez da-ba, penagarria izango..! Zazpi urteekin umezurtz gelditzea baño gauza panagarriagorik ezagutzen al'dezu, ba..? Eskerrak Zabaleta'n...

KATALIN Bai, Zabaleta'n arkitu ditu Joxe'k guraso ta Anai-arreba berriak... Ez luke, Joxe billoba duanik, Joanes'ek ukatuko beintzat...

ANA JOXEPA Eta nik bai ala...

KATALIN Ez..! (Izketako-era aldatu ta). Bañan ba'du, nere ustez, egun auetan zer edo zer Joxe'k...

ANA JOXEPA Ez diot nik ezer oartu..!

KATALIN Zuk, ez..! Ba'dezu zuk beti, buru-austeren bat buruan eta...

ANA JOXEPA Egia diozu. Abarkak bear dituala batek, prakak eta txapela besteak eta nik... ba ote dakizkit neronek, ere, zenbait buru auste ditudan..? Eta orain batez ere, danak bai daude ezkontzeko sasoian... eta one-lako saltsetan ni sartzen ez ba'naiz, nor sartuko da Zabaleta'n..?

KATALIN Aukerakoa zera, izan ere, orrelako gauzaetarako...

ANA JOXEPA Nik ez ba'zindudan Joxe Ramon'en emaztetzarako aukeratu, ez ziñan, gaur, Zabaleta'n izango, Katalin... Eta zer du, ba, Joxe'k.

KATALIN Nik ez dakit... baño ba'du zer edo zer... Joanes'ek ere sumatu diola, uste det... Joxe ez da leen bezein alai... Danok sukaldean bat egiten degunean, ez du Joxe'k leengo irripar ura ezpañetan...

ANA JOXEPA Urteen gora-berak...

KATALIN Urteen gora-berak ote dira gero..?

MALENTXO (Baztar batean lenean ariko da Malentxo ta berekiko itz egingo du).

Ez, ez dira urteen gora-berak... Biotzean du min Joxe'k. Maitasunak minberatu dio biotza, nereganakiko maitasun sutsuak. Eta entzungor egin bear nik maitasun sutsu orri...

II. *Ana Joxepa, Katalin, Malentxo ta Inixio Mari.*

INIXIO MARI (Atetik).

Gabon... (Alde guztietara begiratu ondoren). Ez al' da oraindik aita etorri..?

ANA JOXEPA

(Asarre).

Bai..! Azpiak ateratzen ari dek..! Arek esango dik iri, tanker ori... Ba ator i orain ere zerbaiten billa. Dirurik ez al'daukak? Gurean etzegok... Joan ari Peru Odolki'gana, arek emango dik mauka. Amaika bider jan dik ire umien ogia, eskallu, saskel, txotxolo, arloteak alakoak..! Ire ondoren ikusten dedanean, ara, baru-guztia irakiten jartzen zaidak... Maxkar billatzen aut..! Gaxorik al-ago..? Ez, ez uste izan... ire kupidarik etzeukat... ire ume ta emaztearen erruki nauk..! Ez geniken guk "prenda" txarra Azkarraga'ra bialdu...

INIXIO MARI

Ama, eman zaidazu lukainka-mutur bat, sermoia baño goxoagoa da-ta...

ANA JOXEPA

Lotsagabe lotsagaldukoa... Obeto egingo ukek nere itzaldiak ondo entzun eta elizakoetara sarriago joan..! (Labaña eskuan duala lukainkea ebakiaz) Martin nun dek..? Moxolo'ren ardangelan edo..? Paula nola ekarri eztek..? Amarekin gelditu al' dek..? Ik añako ikasbideak emango ziziok, bai, ark..! Mikela gaixoa..! Esaiok, asti aldi batean etorri dedilla onuntz urdai zati bat eta lukainka batzuk eramatera... Ba al'dezute babarrunik aurten..? ez ba, erain ezik... Asto, baldan, alper, ondatzalle... Buruan jotzeko gogoia ematen diak, orra...

INIXIO MARI

Nun da Joxe Ramon..?

KATALIN

Aiterekin azpiak ateratzen ikulluan...

INIXIO MARI

Ea ots egiten diozun, Malen..?

Ikullu aldera joango da Malen.

ANA JOXEPA

Zer dek..? Diru-eske al'ator orain ere..? Amaika duro galdu-dituk, txotxolo orrek, apuestoetan... Azkarraga'n goserik eta i dirua nola txautu eztakikela... Ez ari neregana diru-eske etorri, ez diat emango ta... Alper lotsagabe ori..! Leen ere eman nian nik naiko urre... Ez nitek gaur emango.. Ez..! Alperrik etorriko aiz...

III. *Ana Joxepa, Katalin, Inixio Mari, Joxe Ramon eta Malentxo.*

JOXE RAMON

(Sartzean).

Zer dezute..? Auek demandak..! (Inixio Mari'ri). Zer bear dek..?

Joxe Ramon'ekin sartuko da Malentxo ere.

INIXIO MARI

Bost duroko bat eman bear diak...

JOXE RAMON

E..? Bost durokoa..? Zer dala ta..?

INIXIO MARI

Gizarteko gauzak..! Leengo igandean, Moxolo ta ni asi gaituk, zaragia esku bakarrez jaso baietz ta ezetz, eta galdu egin nian... Ezartarako ez nauk ia, Joxe Ramon.

ANA JOXEPA

Jesus, Jesus, au mutilla..!

JOXE RAMON

Baño zertan sartzen aiz i orrelako itxilluetan...

INIXIO MARI

Egia diok, egi aundia... Ez nitek nik sartu bear... eta ez nauk geiago sartuko. Ondo garbatuta neok! Ondotxo ala ere... "Tira" emaidak oraingoagatik. Biar goizean eramatekotan gelditu nindukan eta. Aurki biurtuko diat...

JOXE RAMON

Bai, aizerik eztan urtean... Ba al'dezu bots durokorik, ama..?

ANA JOXEPA

Bai ortxe, tximiniko apalean izan bear dik.

JOXE RAMON

(Tximiniko apalean begiratu ondoren).

Bai, eman dago... (Inixio Mari'ri). Otzok...

INIXIO MARI

Biar edo etzi...

JOXE RAMON

Edo etzidamu... Jangoikoa zaartu baño leen..!

INIXIO MARI

"Beno"... Baniok, aita agertu baño leen. Agur.

JOXE RAMON

Agur, bai...

ANA JOXEPA

Asti aldi batean etorri dedilla onuntz, esaiok Mi-

kela'ri, urdai zati bat eta lukainka batzuk erame-
tera...

INIXIO MARI (Ate-atzetik).
Ondo da...

IV. *Ana Joxepa, Katalin, Joxe Ramon eta Malentxo.*

MALENTXO Zergaitik ematen diozu, aita..? Etzaio orrela grifia txar ori galduko...

JOXE RAMON Zer nai dezu, Malen..? Etxekoa degu ori ere...

MALENTXO Bai ala da... Grifia txar orrek galtzen du, ordea, gure osaba...

KATALIN Ori izan dan mutilla ta...

ANA JOXEPA Bai, Katalin... Amaika apuestu irabazitako mutilla da, gero, gure Inixio Mari... Arrasate'n bein...

KATALIN Abadiano'ko Joxe Domingo'rekin etzuan, ba, jakatu..?

ANA JOXEPA (Arro).
Jokatu bakarrik, ez..! Irabazi, ere, bai... Orduan zuan sasoia, orduan, Inixio Mari'k... Neronek, ere, ikusi nuan aizkora-apuestu ura... Dirutan irabazi zuten, orduan, gipuzkoarrak..!

KATALIN Eta Inixio Mari'k, berak ere...

ANA JOXEPA Ontzako urre pilloa ekarri zidan neri, ere...

MALENTXO Ordukoak ez dira, ba, bartso auker..?

Bertso-berri batzuek
nai ditut paratu,
pulamentuz esanaz
gaur zer dan pasatu...
Bizkai guztia emen,
guk degu ondatu

ezta Ixio Mari
ain gaizki portatu...

Gaurko apostu orrek
ba'du inportantzia,
itz bitan esango det
bere sustantzia.
Bizkaitarren diruak
bete dik poltzia
orra zergaitik au dan
nere alegrantzia...

ANA JOXEPA Bai... Arrasate bertan entzun izan nituan nik.

KATALIN Eta nun ikasi dituzu zuk..?

MALENTXO Ene..! Oñati'n. Etzan denbora baten beste abestirik entzuten.

V. *Ana Joxepa, Katalin, Joxe Ramon, Malentxo, Joanes, Joxe ta Manuel.*

JOANES (Joxe ta Manuel'kin etorriko da).
Gabon Jaungoikoa'k dizutela...

SUKALDEKOAK Baita zueri, ere...

JOANES Zer zenduten abeslari..? Ikullutik entzun ditugu zuk abestutako bertsoak, Malen... (Joxe Ramon'eri). Eta zer zian orrek..?

JOXE RAMON Betiko gauza, aita... Igandean apuestoren bat egin zuala edo ta, bost duroko baten eske etorri zait...

MANUEL Moxolo'nen esku-bakarrez zaragi ardoa ezin jasorik ikusi nuan nik igandean... Ez al'uan ik ikusi, Joxe...

JOXE (Beste gauza batzuetan pentsatzen ari da ta).
E..?

MANUEL Osaba Inixio Mari ez al'uan ikusi..?

JOXE

Bai...

JOXE RAMON

Apuesto ori zuan, ba, aita...

JOANES

Jokorako griña txar orrei uzteko amaika bider esan zioat, ba, baña alperrik. Ez dek erreza izan bear, izan ere. Azkarragokoak gaixoak. Etzien orrelako mutillik espero... Zitzak jandako abe ustelak geunden Azkarraga jaso eziñik, esan zidan bein Mari Batista'k, baño abe zindo beria datorkigu, etxea erori ez dedin... Inixio Mari, zion zoro-antzean, zeruak zakarzuki... Gurea zera... Ez didazu igeserik egingo.

ANA JOXEPA

Neronek ere sarritan entzun izan nion...

JOXE

(Bere kolporako).

Ez, ametsak dira nere gogoramenak... Ganoragabeko mutil ausarditsuen amets-txoroak. O zer zoriona nerea amets auek gertaera biurtuko ba'lira... Nola biziko nintzaken, orduan, Malentxo'rekin. Zeiñen apalkiro itz egingo nioken. Zeiñen bigunkiro bizitzen lagunduko... nolako pozak emango... Nolatan maitatuko... Lurreko zerua izango nuke Malentxo'rekin, Urbi'ko txabolan bizi bear izan-ta ere... Ixil-unea.

JOANES

Geroago, ere, ona izango al'aiz, seme, esan nion eztai-egunean, ona izango al'aiz, seme... Adi zak ire aitaren esana bere mendetik oan orduan. Gaurtik aurrera lan berriak izango dituk eta orain artean baño lan aundiagoak. Bañan ez ikaratu. Bildur bat-bakarra izan bear dik gizonak: Jaungoikoa'rena. Itxaropen bat: Jaungoikoa'gan... Zaarrak eta nekatuak arkituko dituk Azkarraga'ko nagusi-etxeakoandreak. Begiratu egiek guraso bezela, gorde egiek illa zuriari zor zaion begirunea. Goiz guztiak die beren arratsaldea. Zaartuko aiz i ere, bizi ba'aiz, eta egiek orain gaurko zaarrei, ire buruari ordurako opa diokena. Izan ari etxearen zaintzalle, argaleen indargarri,

emaztearen lagun zintzo. Emazte ona artu dek, baño ez uste izan, akats gabekoa danik. Danok zitua-gu gureak eta orrek bereak izango zituk, baña dana leuntzen dik maitasunak. Nai ta naiezkoa dek gurutzea jaso bearra. Naigaberen bat, ez bearren bat datorkikanean, artu zak patxadan, alperriko aserrerik gabe. Asarratuta gauz on gutxi egin oi dek, patxarakin berriz, bear dan guztia bear bezela... Jaungoikoa'k seme-alabarik ematen ba'dik, azi itzak bere maitasunean edo egin zak orretarako alegiña. Gero, beren erruz okertzen ba' dituk, ik ez dek zer erantzunik izango...

JOXE RAMON

Ez du, ba, zure itzaren ajola aundirik izan. Buru ariña izan bear beti...

Ixil-unea.

JOXE

(Berekiko).

Ezkergabea..! Orrela ordaintzen dek ik emen jandako ogia..? Soñean dauzkaken prakak iñorenak dituk, eta Urbia'ko gazterik ondasuntsuena nai uke..? Marroi sartu itzan, semetzat azi aue ta etxe-ko alaba bakarrarekin amets egiten ausertzen aiz? Noiztik-ona senartzen dituk jauregietako marroiak erregiñarekin, ipuietan ez ba'dek..? Dollorra..! Ezkergabea i galanta..!

MALENTXO

(Berekiko).

Leen ere esan dizut, Joxe: iñorekin izatekotan, zurekin izango naiz, Baño ez itxaron, Joxe, ez alperrik itxaron. Billatu zazu beste bat, zure kidekoa. Neskats-on bat opa dizut, ni baño ohea opa dizut.

JOXE

(Berekiko).

Eskergabea..! O ez..! Iturralde'ko umezurtza ez da eskergabea. Berak ausi, galdu ta soilduko ditu animaren liliak edo biotzaren kimuak... berak itoko ditu bidegabeko amets eta itxaropenak, egiaren itxasoko ur garratzetan... Eta ito ezin ba'ditu, iges egingo du Zabaleta'tik edozein lekutara...

Ixil-unea.

JOANES Ez nuan nik orrelako semerik izango nuanik uste. Ta jakiña, azak berea kirtena ta aritzak bere arikoa ezpala, ta Martin, Inixio Mari'ren antzekoa...

JOXE RAMON Antzekoa bakarrik ez, aita bera baño, ere, okerragoa.

JOANES Egia diok, seme... I aiz nere semerik zintzoena. Ire antzekoak izango al'dituk ire semeak ere... Juan Andres ere, etxeko-bizitzaz nekatuta edo, atzerri-ra aldendu zitzaidan. Eta atzerri, otsoerri, esan oi da, ta ala gertatzen da geienetan. Erbestekoari ez zaio inun ere ain ondo begiratzen, ezagutu artean beñik-bein. Nik ba'dakit, beltz guztiak ez dirala ikatzak eta zuri guztiak iriña ere ez. Nik ba'dakit gaztelerrian, ere ,gizaki onak ba'dirala, gure artean gaiztoren batzuk diran bezela, baño ezin asmatu nezake zeintzuekin batuko zan gure Juan Andres... Nola nai, ere, Burgos-aldean etzun euskerarik billatuko beintzat, eta euskerari utzi ba'dio, euskalduntasuna, ere, or nunbait ibilliko zan... Gordeko al'zuan gure euskera maitea bere biotzarren erdian "Aita Gurea" esateko ba'da ere... Ez al'zuan galduko etxetik zeraman garo-usaia... Ona izango al'da dabillen tokian...

Ixil-unea.

JOXE (Berekiko).
Ez, ezin naiz ni onela emen bizi... Oraintxe arte abeslari zan Malentxo. Orain ni etorri naizelako edo... Ez, ez nioke nik Malentxo'ri alaitasunik kendu nai... Oera joango naiz... (Sukaldean daudenari). Logureak eldu dit. Ondo lo egin, ba...

JOANES Ez, Joxe, ez ari lotara joan... Irekin jarduntxo bat egiteko gogoia diat eta...

JOXE Nai duan bezela, aitona...

JOANES Amaitu al'dituzute emengo gora-berak..?

ANA JOXEPA Amaitu ditugu...

JOANES Zoazte, ba, lotara...

KATALIN Goazen, ba, Malen. Gabon Jaungoikoa'k dizutela.

JOANES Baita zueri ere. Ondo lo egin...

Eta Katalin'ekin irtengo dira Malentxo, Joxe Ramon eta Manuel.

ANA JOXEPA Or nijoia ni ere... Ondo lo egin ba...

JOANES Baita zuk ere...

Ta irtengo da Ana Joxepa ere.

VI. *Joanes eta Joxe.*

JOANES Zer dek aspaldi onetan, Joxe..?

JOXE Aitona, bai al'daki Juan Andres zein erritan dagoan..?

JOANES Ez, aspaldian ez diagu aren eskutizik izan... Zergaitik galdetzen didak ori..?

JOXE Ez dakit, ba... Neu ere beregana joateko edo.

JOANES Juan Andres'engana joateko..? Zentzun obekoa itzala uste nian, Joxe... Naiko ogi ez al'daukak emen..?

JOXE Orain artean naikoa ta geiegi izan det.

JOANES Biguñagoa billatu nai al'ukek..?

JOXE Ez det nik bigun eta gogozkoagorik idoroko..!

JOANES Ai..! Orduan... bai, diru billa joango aiz... Asko naikoa izan i ere.

JOXE Gipuzkoa guztiko diruakgatik enitzake Oñati'raño jetxiko...

JOANES Etzekiat, ba, zer dekan, baño, dana dala, ezker-gabea arkitzen aut...

JOXE Ezker-gabea ni...

JOANES Aundienetakoa, Joxe, ta ez nian uste, ez nian esango...

JOXE Aitona, ni ez naiz eskergabea..! Nere zañetako odol guztia eskatu bizait, esker onaren agergarritzat, eta dena pozik emango diot, dena zor diot eta...

JOANES Mutil! Ezin ulertu diat... Leen baño okerrago jar-tzen nauk. Zer darabilk igarotako il bi auetan..? Ezazak garbiro... Biotza zabaldu zak...

JOXE Esatekoa ba'litz, edo esan ba'nezake...

JOANES Oraindaño ez aiz, ba, motela izan. Tira, asi ari...

JOXE Ara... zerbait zertzeko ustietan nago ta...

JOANES Zerbait zertzeko ustietan..? To, to, to! Andragaia nai al'uke..? Ta urrutikoa..? Ire balditasunak urru-tietan obeto al'zekizkite..?

JOXE Nik ez dakit zer nai dedan ere... Orain artean Eus-kal-errian bizi ta iltzeko asmoan izan naiz...

JOANES Eta orain ez..? Mutil ezkondu-naia baño besterik ez ba'dek, ez zegok Gaztelerrí'ra joan bearrik... Askotan gogoratu zaidak, urtietan aurrera uala ta, Manuel'ek etxera emazteren bat dakarrene-rako, ire-tzat, ere, aukeratuta neukekan norbait...

JOXE Eskerrikasko, aitona... Milla ta milla esker... Baña norberak aukeratzea ez al'da obe..?

JOANES Bai, beti obe, zentzunezko gaztien artean eta gura-soen baimenaz ba'da... Bañan nik ez nian uste ik iñor begiz jota eukekanik... Gañera emazte-gaia batek aukeratzea, ez dek nai ta nai ez artzeko esatea. Ondo ba'dator artu egiten dek. Gogozkoa ez ba'

da, utzi... Alegia, ez litekek danak orrela utziko gure Malentxo. Ez niokek neuk ere edozeñeri emango...

JOXE Malentxo..?

JOANES Malentxo..!

JOXE Zer esan du, aitona..?

JOANES Gaizki al'deritzaik..?

JOXE Gaizki..? Nola irudituko zaio gaizki gaxoari sen-dagaia..! O nere ametsak egiak ba'lira..!

JOANES Ori egin al'dek amets..?

JOXE Orixe ber-bera...

JOANES Ba' nengoken, ba. Banengoken, ba, Nola ulertu ez i ta Malentxo.

JOXE Baño, aitona, Malentxo'k zerbait igarri didan ezke-ro, iges egiten du nigandik.

JOANES Ondo egiña. Suaren ondotik ardagaiak kendu egin bear dik.

JOXE Ez du naiko nerekin zertu...

JOANES Ikusiko diagu...

JOXE Amonak ere ez... Diruduna ba'nintz baña...

JOANES Manuel'ek aña ezkonsari izango dek, etxekoa aiz eta...

JOXE Jaungoiko maite maitea..! Au atsegiña ematen dit..! Au astuntasuna kentzen zait..! Neuk baka-riak dakit barnan-nerabillen arantza samiña...

JOANES Arantzak eta naigabeak beti izango dituk, gizon guztiak dizkiagun antzera... Ara, Joxe, nik ez diat nai etxean gaztien arteko kiñurik eta txutxuputxu-rik. Orain dakidana ikasi dedalako, gaurtik aurrera

uda onetan beintzat, eta gero ere bai, gauza zuzendu arteraño, Aloña'n bizi bearko dek geinbat. Eurre gain gelditzen dituk artaldeak, larra-beiak, beortegiak, ezparruak, eskortak eta saletxeak. Mendietako errege bezela biziko aiz. Bertara eramango diat bear dekan guztia, edo euk artuko dek Mezatara jeisten aizenean...

- JOXE Edonun biziko naiz ongi, aitona. Edonun izango naiz orain doatsu. Nere barruan daramat alaitasunaren iturri gozoa.
- JOANES Biar arte, ba, Joxe... Ondo lo egin.
- JOXE Biar arte Jaungoikoa'k nai ba'du, aitona...
(Ana Joxepa'kin topo egingo du Joxe'k atean...

VII. *Ana Joxepa ta Joanes.*

- ANA JOXEPA Jesus..! Zer du mutil onek... Txarranpiña irten bear zaiola dirudi.
- JOANES Irten zaio...
- ANA JOXEPA Irten zaiola..?
- JOANES Bai, ta neu izan naiz sendatzalle...
- ANA JOXEPA A zer nolako Petrikillo zu... Jolaserako gogoaren bizarra dakartzu zeuk...
- JOANES Gabon Jaungoikoa'k dizula, emaztea...
- ANA JOXEPA Baita zuri ere...

ZAPIA

BIGARREN EKIÑALDIA

Antzezleriak:

- JOANES.
ANA JOXEPA.
JOXE RAMON.
KATALIN.
MIKELA.
MANUEL.
MALENTXO.
JOXE.
MARTIN.
PAULA.

Zabaleta basarriko atarian.
Iruditegiarekin izan bear da ardur pixkabat. Basarri-ataria bear da alde batean. Atari orren barru-aldetik izango da etxe-barrurako atea. Ana Joxepa, Katalin eta Mikela'k atari-barruan agertu bear dute. Etxeko beste muturrean Malentxo ta Paula'k.

Joanes agertzen danean, atari-barruan agertuko da au ere.

Malentxo ta Paula agertuko diran tokian egingo dute burruka Joxe'k eta Martin'ek.

Oso eroria agertzen zaigu ekiñaldi onetan Joanes.

I. *Ana Joxepa, Katalin, Mikela, Malentxo ta Paula.*

Ana Joxepa, Katalin eta Mikela etxeko atari barruan. Etxeko ataritik pixkan-bat bazartuta Malentxo ta Paula.

ANA JOXEPA

Itxo egin, Mikela... Zer edo zer billatuko al'det sukalde-aldean... (Sukaldera joango da Ana Joxepa).

MIKELA

Ai, Katalin..! Negarrak, bai, negar aundiak egin zitunat..! Eta egiteko dauzkadanak, oraindik... On-do dakin nere senarraren berri. Azoka dala ta jokua dala, gelditu gabe zebillen aruntz ta onuntz... Askok bear din... oso asko ta gurean etzegen ezer. Leenago, bai. Ni txikia nintzarian, ezten arrokeria, Katalin, bazter guztietan giñan guk urrea: ontzakoak, ontzaerdikoak, eun errelekoak, ogetabateoak, zer ez..? Nere amak, nik aña ezkonsari etziñala auzotegian beste iñork izango, esan oi ziñan. Ikusiko ba'lu, gaur nola nabillen..! Nere aitak ikusiko ba'nindu..! Nere aizpatxoa Jauna'k eraman da laister, naigabez il itunan aiek, bear baño leenago, etxearen ondarena ikusi ta... Gaur etzegen Azkarraga'n zorra besterik. Soñean zeukatan mantela ere, zorretan artu diñat. Ia zer janik ere etzeukenu, itxurak egin arren. Ameriketan zitunagu gure itxaropenak. Bitartean barriz... Eskerrak zueri. Zuenetik zetorkigun artiriña, urdaia ta babarruna. Zuen bizkarretik gabiltzen. Ta samiñ auek naikoa ez dirala, orain semea, nere semea, sinistegabe, protestantiak baño txarrago etorri zaigun Somorrostro'tik. Ai, Katalin, ik eztakin nolakoa dan nere oñazea..!

KATALIN

Jaun goikoa'k arautuko gaitun... Berak argi egingo zion ire semeari, berak biunduko zion biotza...

MIKELA

Bai, Jaungoikoak dana bere eskuetan zeukan, baña...

KATALIN

Berri on bat eman bear diñat; gure amonaren asmoa...

MIKELA

Zer den bera..?

KATALIN

Ezkundu egin bear duala Martin'ek.

MIKELA

Zeñekin baña..? Nork artuko din gure mutil zakarra..?

KATALIN

Zuzenduko din neskatx batek. Amonaren iritziz Malen'ek zuzenduko din.

MIKELA

San Migel aingeru ederra..! Ai olako bat..! Baño, Katalin... zer esaten ari aiz neska..! Malentxo'k zer zion..?

KATALIN

Gure neska orrek ez din ezer aitatu, bañan urteetan aurrera dijoala ta, amonari gogoratu zaion...

Paula ta Malentxo ataritik urruti-xamar egongo dira kontu-kontari).

MALENTXO

Egingo niken gure amak eta, ezkontzako-ipuiak daramazkitela...

PAULA

Bai zera..!

MALENTXO

Ik ez dakin... Ire anaiarekin ezkondu nai neon amonak...

PAULA

E..? Martin'ekin..?

MALENTXO

Bai, Ta nere aita-amak baiezkoa erantzun zione, edo itxaropena eman gutxienez...

MIKELA

Eta zuek..?

KATALIN

Guk, Joxe Ramon'ek eta nik, miñez baña, bein edo bein bear dala ta danak ondo izateagatik "bue-

no" esan diñagu... Joan dedilla Malen Azkarraga' ra, Paula etorri dedilla gurea, alkarri lagundu daigula, ta Jaungoikoa'k guztioi...

MIKELA Txoratu bear zait...

PAULA Malen..! Nere anaia gaiztoa den, neuk zekiñat ondo... Gaiztoa den eta etzertokin egoki... Joxe ba' litz, eztiñat esaten. Joxe bai aukerakoa...

MALENTXO Ala zion aitonak... Ura bezelako mutillik etzegoala ta, jardun ziñean atzo...

PAULA Ez etzegon...

MIKELA Baña, Malentxo...

KATALIN Gure Malentxo ez tirudian bezelakoa den, ona ta zorrotza, ezta ta ozpiña, bear dan orduan bear dan bezelakoa. Bai, Katalin, amonaren ustea iritxiko den. Malen'ek nai duan guztia egingo zion Martin' eri: egun auetan konfesatzera eraman bear duala ta, koipea baño biguñago ibilliko din. Inixio Mari ere bildurrez egoten den gure neskatsaren aurrean... Ikusiko den nola ekarriko din bide onera.

MIKELA Ai olako bat, Katalin...

KATALIN Eskatu zaiogun Jaungoikoa'ri...

MIKELA Belaun gorrien gañean joango negon Arantzazu'ra asmo ori ondo ertetzen ba'den...

PAULA Ez, etzegon Joxe bezelako mutillerik. Eta maite ua. Asko maite au...

MALENTXO Baita ik ere bera...

PAULA Ezin ukatu nezaken... Barkatu bear didan.

MALENTXO Zergaitik barkatu... Maitasun ori nere gogo-betekoa den, Paulatxo.

PAULA Ire gogo-betekoa..?

MALENTXO Bai...

PAULA Bada orduan, nere barna irauli bear diñat leertu baño leen. Egia den, Malentxo, maite diñat, nere ama bezin maite diñat edo etzekiñat nik geiago ez detan ere. Iturralde'ko Joxe, animaren erdian, biotzaren tokirik ederrenean zeukanat. Bere izena entzuteak atsegin zidan. Bera ikusteak alako zarrastada bat... Bañan benetan al'abil..? Ez al'den iretzat bear..?

MALENTXO Ezten neretzako egiten dana.

PAULA Ta Martin..?

MALENTXO Gutxiago.

PAULA Ta Moxolo..?

MALENTXO Gutxiago..!

PAULA Baño nolako emakumea aiz i..? Ezten inor maite..?

MALENTXO Bai...

PAULA Aundikiren bat..?

MALENTXO Aundiena.

PAULA Aberatsen bat..?

MALENTXO Aberatsena..!

PAULA Aitaren Semearen... Jakin al'liteke zein dan..?

MALENTXO Jakingo den. Ago orain ixilik. Emen den ire ama... (Iruditegian agertuaz).

ANA JOXEPA Otzon; urdai zati bat ta lukainka batzuk ditun...

MIKELA Eskarrikasko... Milla bider eskarrikasko... Agur... Au poza. (Malentxo ta Paula'ren ondora iristean). Goazen, Paula... Agur zuri ere Malentxo maite...
Bijoaz Mikela ta Paula.

II. *Ana Joxepa, Katalin eta Malentxo.*

- ANA JOXEPA Zer ziñan orrek, Katalin..?
- KATALIN Ezer ez..! Martin'en eta Malentxo'ren ezkontz-
kontuak aitatu dizkiot eta...
- ANA JOXEPA Moxolo'k aña diru ba'lu Martin'ek..! Orrek onuz-
kero dirua aurreratuta euki bear ziñan ba. Zuk era-
kutsi bearko diozu, Malen, bai dirua aurrerazten eta
bai, langillea ta etxeckoia izaten, eta elizara joa-
ten...
- Jardun onetan ari diran bitartean, etxe-ba-
rrenean izkutatuko dira biak.

III. *Malentxo ta Joanes.*

- MALENTXO (Etxe-aldera artuaz).
Ez nuan nik ainbat naigabe eman bear nuanik us-
te. Joxe gizajoa. Azkarragakoak errukarriak...
Etxekoak, ere, amaika negar egin bear dute... Bar-
katu, aitona... (Etxean sartzerakoan Joanes'erekin
bat egingo du ta atarian geldituko dira biak).
- JOANES Atoz pixka batean, Malen..!
- MALENTXO Zer nai du, aitona..?
- JOANES Guri entzuten iñor ba'lego... Eztaukazu zer esa-
nik, Malentxo..?
- MALENTXO Ez, ba..!
- JOANES Aspaldian goibel zabiltzala ta nago.
- MALENTXO Egia da...
- JOANES Zer dezu, enetxoa...

- MALENTXO Zer..? Gauza bat, gogo bat ioran bat...
- JOANES Ezin iritxi al'diteke..?
- MALENTXO Iritxi bai, danok batera etorriko ba'giña...
- JOANES Aitor zadazu.
- MALENTXO Min emango diot.
- JOANES Aitor zadazu; zu poztera da nere poza...
- MALENTXO Nik... mojararako ustea darabilt.
- JOANES Neskato..!
- MALENTXO Bai, antziñatik, oso antziñatik. Aldedan guztietan
Bidaurreta'rako eleizara joaten naiz. Bertan dau-
kat nere arrenak egiteko txoko jakiña. Eztitan be-
zela egoten naiz barrukoen otoiiza entzuten. Zerua
deritzait aien artean bizi al'izatea, ta gauza guztien
gañetik orixe nai nuke...
- JOANES Au albiste..!
- MALENTXO Txarra..?
- JOANES Txarra ez, txarra ez... baño ez nekian, ez nuan us-
te, etzait bururatu. Ba al'daki bestek..?
- MALENTXO Jaungoikoa'k eta Bidaurretakoak.
- JOANES Aditzen eman diezu beraz..?
- MALENTXO Bai, Jauna...
- JOANES Zer diote..?
- MALENTXO Tokia ba'dagola.
- JOANES Nik Joxe'rentzat nai zindudan.
- MALENTXO Amamak, oster, Martin'entzat.
- JOANES O, ez... Martin'entzat ez. Ez nion nere baimenik
iñola emango.
- MALENTXO Baña Jesus'eri bai, aitona, Jesus'eri bai, ezta..?

JOANES

Jesus'ek berea zaitu, alabatxoa... Nere begi gantutuok, ia ezer ikusi ezin duten begi auek, ordua datorkidanean, laister, zeuk itxiko zenizkidala ta nengoen... Zu zera, ez nere saminiñen ezta bakarrik, baita nere luzapena ere, Zabaleta'ko zuaitz zaararren kimu berri maitea... Baña neuk ere, nere antzera, Jaungoikoa'ri eskeñita zaduzkat eta Jaungoikoa'k ondo artu bear izan du nere oparia. Egin bedi bere oldea..! Nai dezunean, bada, bertatik joan zindezke... Ni il da gero, joango ba'zina, neuk utzitakoa emango nioke Jesus'eri, ta ez nuke orrela nai. Eztiot neuk utzitakoa eman bear, neuk daukadana, neuk lurrean geien-geien maite dedan izatea emango diot, naiz ta zuk etxetik irtetzean, neure biotza zauriturik, odo!a dariola gelditu... Ta Joxe'rena..? Joxe gizagaixoa..! Jaungoikozkoa da mutilla ta orri eskerrak! Etsiko al'du..! Zoazkit, Malen, Martin'ek alde auetatik iges egin dezan, zoazkit ainbait laisterren. Joxe gurea nolabait artetu dedin. Bera ta Manuel izango dira nere azken orduko lagunak, zure ordez, zure izenean...

MALENTXO

O zein ona dan nere aitagoia..! Ederki esaten du: Jaungoikoa'ri guretzat geien opa deguna eskeñi bear diogula, biar edo etzirako luzatu gabe... Berak ordainduko dio gaur berorrek berari egiten dion oparia... Nik, besterik ezin dezaket, baña eguenero otoitz egingo det berorren alde...

JOANES

Bai, egin otoitz nere alde, zure aidien alde, Euskal-erri guziaren alde...

MALENTXO

Baño nork esango dio amonari nere asmoa..? (Barrutik).

ANA JOXEPA

Malen..!

JOANES

Neuk. Utzi zazu nere gain. Zoaz orain barrura...
Etxera dijoa Malentxo. Samiñez geldituko da Joanes. Ixil-unea).

IV. *Joanes, Joxe ta Martin.*

JOXE

(Malentxo ta Paula egon diran leku-alde artatik agertuko da Joxe. Menditik dator).

Esan ote dio aitonak Malentxo'ri nere ametsa..? ta berea, aitonarena..! Aitonarena, bai, aitonarena! O zeñen maitagarria dan Zabaleta'ko etxe-jauna! Illobatxo orrek maitatzen duan bezela maitatu ta neri eman nai..! Neri, umezurtz ezerezari..! O Joanes mazala..! Eriotzaraño belaun-gorri gañean ibillita ere, eztizut ordainduko nik zuri... Jaungoikoa'k opa daizula, nik opa dizutena. Zuk emango didazu Zabaleta'ko aberaska gozoa neretzat, neretzat bakarrik... Bai ote..? Nola iruditu ote zaio amonari. Manuel'eri... Malentxo'ri..? Gaizki? Jesus, Maria ta Jose..! Ta zergaitik ez gaizki..? Zer naiz ni? Tira, Joxe, begirakiok eure buruari. I zer aiz..? Joanes'ek etxetik jaurtigi ezkerro, eskale bat. Beñepein lan-billa joan bearro ukek erririk erri, aterik ate. Erromana'ño joango itzake, oñutsik eta eskale, Malentxo'ren diña izatearren. Aterik-ate ibilli bearrak ez au i samintzen. Neskats orren diña ez izateak samintzen au... Ta ezin izan. Ezta berriz jaiota ere. O Jaungoiko aundia, zergaitik egin dezu Malentxo, ainbeste doiaren jabe..?

Martin agertu ta Joxe'ri begira geldituko da... Joxe ez da oartuko).

Baña zer dala ta, alderdi txarretik begiratu bear diot nere etorkizunari..? Joanes nere alde ez al'daukat..? Malentxo ez al'da emakumerik apalena..? Ez al'dezake aitonaren iritzia ontzat eman langillea ta eskertsua naizelako..? besteak ez bezela maitatzen dedalako..? A nor legoken aren buruko gogamenak irakurtzen..! Zai ote daukat atadian par-pixka baten bitartez baiezkoa emateko..? Geldirik ago, ene biotz, ez adi lertu..!

MARTIN Arratsalde on.

JOXE (Lo batetik esnatuko ba'litz bezela).
Baita iri ere, Martin.

MARTIN Egualdi polita gaur..?

JOXE Ederra.

MARTIN Onelakoak ba' dira, aurki joan bearko dek, berriro ere, Urbi'ra.

JOXE (Otz-otz).
Ori nai uke ik...

MARTIN Zergaitik diok ori..?

JOXE Zerbait-gaitik.

MARTIN (Ziri-antzean).
Min al'dek..? Nik auzia irabazia min..?

JOXE Etzekiak auzia irabazi dekan ala ez... baño i ez aiz senargai ona Malentxo'rentzat.

MARTIN Eu, ohea, eu..! Zer uste uan ik..! Gurera marroi sartu ta bertako jaun da jabe izatea..? Ez jaun eta ez morroi, ez aiz iñola emen izango...

JOXE I al'aiz nagusia..? Ik baño lan geiago egin diat gero nik emen..!

MARTIN Baita jan ere galanki, goseak ekarri induten eta...

JOXE Itz egin zak obeto..!

MARTIN Nai diaten bezela itz egingo diat... Kaka egiten diat nik iri...

JOXE Zer esan dek..?

MARTIN Iri... ire aita-ordi akerrari... ire ama ustel zikiñari...

Burruka bizian asiko dira. Joxe garaille.
Biraoka ba'lego bezela marru batzuk egingo

ditu Martin'ek. Birao bakoitzeagatik eskukada-simaur emango dio Joxe'k. Bitartean Joxe'k...

JOXE Orixe arraio orrek..! Nere gurasoen izen ona ta Jaungoikoa'ren izen donea loitu nai ba'dek, orra satsa, orra simaurra. Jantzak, lizun orrek, jantzak..!

V. *Joanes, Joxe, Martin, Ana Joxepa, ta Malentxo.*

ANA JOXEPA (Larri etorriko da burrukan ari diran tokira. Malentxo'k darraikio atzetik).
Zer da emen..? (Joxe'ri belarrondoko bi eman eta).
Zer daukak ik zer jo gure mutilla..?

JOXE Orrek esan duana entzun eta...

MALENTXO (Joxe ikusi orduko ikaratuta bezela).
Ene, Joxe. (Bijoa sukaldera).

ANA JOXEPA Orrek esan duana ta ik egin diokena..! Ik, zital, gizatxar, naspillari orrek egin diokena...

JOXE Ori ta ni ezin gindezke zorro batean bizi...

ANA JOXEPA Bada, orduan, alde... alde nai dekan lekura... Ori etxekoa dek ta i etzekiak nungoa. Mukizu bat etorri intzan zer janik ez uala...

JOXE Aditu det amona... leen ere aditu det eta gañera neuk ere ba'nekian, bai, ondotox...

Joxe etxe-aldera abiatzen da. Aitona arkituko du atarian. Martin'ekin geldituko da Ana Joxepa. Martin'en erropak garbitzen edo. Martin kifiuka izkutatuko da bere orduan.

JOANES (Joxe'ri).
Zer izan da or..?

JOXE Ezer ez..! Martin eta ni asarratu ta...

JOANES Ta..?

JOXE Jakin nai nukela ea zertan dagon arako bedorrek esan zidana, Malentxo neretzat izango zala edo...

JOANES A bai... Orra ba Joxe... Nik nai nian baño ezin litekek. Berak oraintxe bertan...

JOXE Naikoa det... Geiegi det... Ondo geldi bedi...
Bijoa Joxe barrura.

JOANES Nora ua motil..? Ator onera...

ANA JOXEPA (Sukalde-bidean eta aitonaren parean).
Ortzak loka-loka jarri dizkio..! Aotik odola dariola ipiñi du nere illoba. (Etxean sartzen ari dala). Ergel, sepatsu, ziraun, kilimakor, gaizkille...

VI. Joanes, Joxe Ramon eta Manuel.

JOANES Joxe gizarajoa..! Ona aiz... Orrei eskerrak. Jaungoikoa'k eskatu zidak, Malentxo... Ezin ukatuko zuat ezer Jaungoikoa'ri... Ez ote diok ik, ere, ire maitasun ori Jaungoikoa'ri eskeñiko..? Joxe, billoba maitea, iñoiz baño maiteago aut..! Malen berak ere maite au... Baña...
Ixil-unea.
Martin izkutatu dan aldetik agertuko dira Joxe Ramon eta Manuel. Sorotik edo peritik etorriko ba'lira bezela datoz.

MANUEL Asarre zijoan, gero, Martin..?

JOXE RAMON Bai. Etzamarrean ark parre-egiteko gogo aundirik...

MANUEL Zerbait izan ote du, ba, emen..?

JOXE RAMON Ez nitek ezezkorik esango. Egingo zian, orain ere, astakeriren bat eta... (Joanes ikusten du). Oraindik emen, aita..?

JOANES Bai, zuen zai nengoan. Biotzak nor maite eskatzen ziak... Ezin zuek besterik maite... Malentxo...

MANUEL Ondo maitagarria da, ba, Malentxo...

JOANES Bai ala dek baña... Joan ari Joxe'rengana, negarez zegok eta.
Bijoa Manuel.

JOXE RAMON Goazen gu ere, aita.

JOANES Goazen, bai, seme.

JOXE RAMON Ta zer du, ba, Joxe'k..?

JOANES Beste batean esango diat dana. Ezin itzerik egin diat gaur eta...
Etxean sartuko dira biak.
Maitasun-abestiren bat entzungo da urrutira xe-xe... Abestiarekin batera dator illuna... Pardeltxo bat eskuan agertuko da Joxe...

VII. Joxe.

JOXE Arpegia illuna ta illunagoa biotza. Nola ez..? Zabaleta'tik at betirako. Etxe onetan egin ditut nere umetako jolas-apurrak. Ementxen jan det izardiz ondo irabazitako taloa. Ementxen uste izan det, zorionaren edaria edan bear nuala. Bai, etxe ontakotzat neukan nere burua, baña emengoa ez naizela esan didate ta beste aterperik ez daukat..! Nai-gabearen eztenak izugarritzko sastadak ematen dizkit. Sastada zoliak Malentxoz oroitzean. Errukarria Malentxo..! Esku onetan erori bear du. Ai. Malentxo ez da itzeko emakumea izan. Iñorekin izatekotan zurekin, esan zidan bein Urkiola'n. Aingeru batek orrelako gezurra esan bear zuanik, ez nuan askorik uste. Zu ta ni anai-arrebak gera, esan zidan beste batean. Eta Joxe, "anaia", esakerarik

garratzenez iraindu dutenian, eta etxetik irtetzeko agindu diotenean, itz-goxo bat ere ez, begirada bigun bat ere ez "anaiarentzat". Ez Malen'ek, ez beste inork... Arkaitzekoak dituzte erraiak. Joanes. Maite det aitona zaarra. Bera izan det nere gurasoa. Berak du Zabaleta'n biotzerik aundiena ta xamurrena. Ez diot agurrik egin. Ba'dakit etxean gelditzeko eskatuko didala. Ba'dakit umezurtzaren alde arpegia aterako duala. Ez det ori nai ordea. Entzunak entzun da, gero, ikusiak ikusi ezker, ez dezaket arnasarik Zabaleta'n artu. Ito egingo nitza-ke. Ta Martin'en aurrean berriz ni..? Ez..! Agur Zabaleta... (Bijoa).

ZAPIA

Antzezlariek:

IRUGARREN EKIÑALDIA

INIXIO MARI.

MIKELA.

PAULA.

JOXE.

MANUEL.

Gure basarrietako sala bat degu iruditegi, kutxa ta guzti.

Ekiñaldi ituna izan bear du irugarren ekiñaldi onek.

Inixio Mari, Mikela ta Paula beste ekiñaldietan baño apaiñago jantziak egongo dira.

Langille-antza izango du Joxe'k bere jazkeran. Buru guztia zapi-zuriz lotua izango du, miña dutenak oi dutenez. Itxua dago. Aitona'ren gelatik itxu-antzean irtetzean, gurutz bat ekarriko du esku-artean.

Zapia jasotzen danean, ez da iñor, irudite-
gian, agiri. Alboko gela batetik etorriko da, ge-
ro, Paula itun-itun...

- PAULA (Naigabez).
Ai... Or egoteko biotzik ez det izan. Negar nik.
Ez nik bakarrik, ordea... Guztiak negar dagite or,
aitonaren gela ortan... Il zorian, eta Joxe'ren zai
zegoan gaixoa. Bere adizkide on baten semea du
Joxe. Illoba antzera maitatuko zuala agindu zion
azkenekotan zegoan Joxe'ren aitari, ta maite du,
maitagarria da ta... Bai maitagarria dala neretzat,
ere, Joxe.
- INIXIO MARI (Paula etorri dan leku bertatik, etorriko da au ere).
Zer dezu, Paula..? Zer gertatu zaizu..?
- PAULA Ai, aita...
- INIXIO MARI Aitona gaixoak bildurtzen al'zaitu..?
- PAULA Ez, aita, ez nau bildurak onera ekarri.
- INIXIO MARI Zerk, ba..?
- PAULA Negarrari ezin eutsi nion... eta onera etorri naiz...
Ez det orko gertaerak ikusteko indarririk izan, aita.
- INIXIO MARI Nik ere ez ba, Paula...
- PAULA Ta sendatuko ote da aitona..?
- INIXIO MARI Ez det uste. Azkenekotan dago oraintxe...
- PAULA Malentxo maitea..! Otoitz egizu Joanes, gure aito-
naren alde. Zure otoitzak itxaropen aundi bat da-
karkio animara ta... (Inaxio Mari'ri). Ta Joxe, ai-
ta, Joxe sendatuko al'da..?
- INIXIO MARI Ez dakit, ba... Itxua da oraindik gaixoa... Ez zuen
txantxateko gauza izan...

- PAULA Sendatuko da, ordea..?
- INIXIO MARI Ezin, ba, nik esan... Ala ere okerrago zan orain
illabete batzuk.
- PAULA Egia da... Malentxo monja joan zan egunean izan
zuan izatekoa Joxe errukarriak. Elizkizun artara
etorri nai zuala ta, gauean ere lanean jardun zuan
gaixoak arrobian. Danbada batzuk egiteko, dana
prest zeukanean, ardagai-ariari su ematekoan, pos-
polo burua, alakoa, garrauts-saskira erori zitzaion...
ta Joxe gaixoa arkaitz artean, ikatza baño beltzago,
zearo kizkalduta arkitu zuten bere lagunak... Ai,
aita, negar-samiña egin nuan egun artan...
- INIXIO MARI Ta ez zan ala ere il..!
- PAULA Joxe orduan il ba'litz, aitona illobian genduan,
gaur, aita.
- INIXIO MARI Egia diozu, Paula..! Ez digu semeeri ere, iñoiz gu-
re aitak, gaur Joxe'ri egin dion bezelako arrera
biguñik egin.
- PAULA Zai zeukan aspalditik eta...
- INIXIO MARI Bai... Etorri danean ere, ator, zai nengoan, esan
eta besarkada eztitsu bat eman dio. Ta gero, ez al'
nauk ikusten, galdetu dionean...
- PAULA Joxe'k ezetz erantzun dio. Ez dakit nik geiago. Zer
esan dio gero aitona..?
- INIXIO MARI Zer..? Ikusteko begirik ez, eta negar egiteko bai?
Asko maite au gure Jesus'ek onela samatzen aue-
nean... Ez ikaratu..! Onaze oiek ez dituk betirako.
Gauaren-ondoren, eguzki garbi zeok, nekearen on-
doren zoriona... Elduko zaik iri ere, bai... Bitar-
tean nere ordezeko ik izan bear dek... Sukaldeko
zizelluan jarriko iaz, nere lekuan jarriko aiz, nere
aginpidien-jabe ipintzen aut. Ni ba'nintz bezela be-
giratuko ditek...

PAULA Ai, aita...

INIXIO MARI Gerora berriz; to, Joxe, artzak Malentxo'ren gurutzea. Muin egiok. Iretzako dek geroxeago. Orain pitin batean neretzat... Auxe diat zeruko giltza...

PAULA Ixil zaite, aita, ezin negarrari eutsi izango diot eta...

INIXIO MARI Ori bera gertatu zait neri ere...

PAULA Eta ez da Matin'erik agiri, aita..?

INIXIO MARI Ez du orrek. Malentxo monja joan zanetik, ezertxo ere nai emengoekin. Zearo galdu zait semea ta nik det erru osoa. Barkatu, Paula...

PAULA Ez dezu zuk errurik, aita...
Besteak agertu diran atetik, agertuko da Mikela ere.

MIKELA Badijoakigu... Atozte...
Bijoa Inixio Mari.

PAULA Ni ez, ama... Bildurtu egiten naiz.

MIKELA Atoz zu, ere...

PAULA Ez ni, ama...

MIKELA Zeren bildur zera..?

PAULA Emen otoitz egingo det nik. Zoaz... zoaz zu...
Bijoa Mikela.

PAULA (Belaunikaturik).
Entzun, arren, Jauna, nere otoitza... Ez zaidazu, ain maite dedan aitona, oraindik eraman. Gurasoak bezein maite det nik Joanes, zure lureko laguna. Nere ezkontza egunean, nere alboan euki nai nuke nik aitona. Ez zaidazu poz ori ukatu. Entzun, arren, Jauna, nere otoitza...

MIKELA (Iruditegian agertuaz).
Zertan zaude, Paula..?

PAULA Otoitz egiten, ama. Aitonarentzat bi edo iru orduko bizia eskatzen...

MIKELA Ezin, ordea... Zarra bait dago aitona...

PAULA Ez dago, ordea, ezinezko gauzarik Jaungoikoa'rentzat, ama.

MIKELA Egia... baña...

PAULA Zer, baña...

MIKELA Atoz, Paula. Azken-agurra egiozu aitonari...

PAULA Zer..? Ez ote dit Jauna'k entzungo. Nere ezkontza-ren berririk jakin gabe eramango ote dit Jaungoikoa'k aitona..?

MIKELA Lasaitu zaite, Paula... Aitonak ba'daki zure ezkontzaren berri ta...

PAULA Ez, ama, ez daki...

MIKELA Zu Manuel'rentzat zerala, nork ez daki ba...

PAULA Nik ez det Manuel bear ordea.

MIKELA (Arritua).
E..? Nor bear dezu, ba..?

PAULA Joxe..!

MIKELA Iturraldeakoa..? Orain..?

PAULA Iñoiz baño geiago. Leen besterik ezean nai niola esan zitekean. Gaur askoren artetik aukeratzen det. Errege guztien artetik aukeratuko nuke. Zertarako ditut Ameriketako osabak utzitako ondasunak, Joxe'rentzat ez ba'dira..?

MIKELA Itxua dezu, baña...

PAULA Anima du argi.

MIKELA Itxusia dago.

PAULA Barrutik da eder...

MIKELA Kasketa..!

PAULA Biotzduna..!

MIKELA Ezertarako ez dan gizakumea.

PAULA Ez beza ikutu nere biotza, minbera daukat eta...

MIKELA Ainbait diru daukagunean...

PAULA Diruak edozeiñentzat, Joxe neretzat...

MIKELA Ta berak nai ez ba'lu..?

PAULA Baita... Norbaiten bearrean dago ta neuk zainduko det. Etxean edo txirotegian, neu izango naiz Joxe' ren ama edo arreba edo neskame.

MIKELA (Aitonaren gelara dijoalarik).
Jas! Aita Santiago'k adiña eman daigula...

PAULA Ezin miñez bizi naiz... Burutik berañako narrua eskatuko ba'lida, ez nioke nik amari ukatuko. Egundano ez diot atsegaberik eman... egundano ez diot ezetzik esan... ta orain ezetz erantzun diot... Ni ez naiz, Manuel, nere lengusurekin ezkonduko... ezta zuzi zuzi, zati zati, birrin birrin egiten ba naute ere... Oi aitonak ba'leki..! Ez lidake aitonak ezezkorik esango... Erruki nazazu, Jauna...

Manuel gelatik irten eta kanpo-aldera joango da.

PAULA (Manuel'eri).
Ta..?

MANUEL Il da, Paula.

PAULA Il..?

MANUEL Bai... Emen dezu Joxe ere... Zaindu zazu gaixoa... Malentxo'rengana noa ni. (Bijoa).

JOXE (Aitonaren gelatik irtetzekoan).
Aita nuana il zait...

PAULA Ez dit Jauna'k entzun. Ez dit aitonarik gorde, Joxe.

JOXE Nor zaitut..? Ez det ezertxo ere ikusten...

PAULA Ba'dakit, bai, Joxe... Paula naiz...

JOXE Jaungoikoa'k entzun ez dizunik, ez esan, arren, Paula. Beretzat nai zuan Jauna'k gure aitona...

PAULA Ala da... Naigabeak, ordea...

JOXE Ala ere aita-amak dituzu zuk oraindik.

PAULA Jauna'ri eskerrak.

JOXE Umezurtz izan naiz ni, ordea, beti... ta gaur iñoiz baño umezurtzago... Aita nuan nik Joanes... ta iges egin dit berak ere...

PAULA Ai Joxe...

JOXE Zer egin bear det nik, orain...?

PAULA Ez estutu, Joxe... Jauna'k lagunduko dizu ta...

JOXE Jauna'k lagunduko al'dit, bai...

PAULA Bai, Joxe... Ta gaur iñoiz baño geiago. Gure aitona, ere, Zerua'n dago ta...

JOXE (Naastu-xamar).
Baña... ta nora jo bear det nik orain..?

PAULA Iñora ere ez, Joxe. Bere ordezeko egin zaitu aitonak... bere aginpidien jabe... Zaude, ba, lasa-lasa, emen, Zabaleta'n. Emen dezu zuk eta, zure bizilekua...

JOXE O ez..! Ni ezin bizi naiz emen... Zugaitza erortzean ez da itzalik. Gaur ondo begiratua izan, arren, biar edo etzi aspertuko litzaizkidake, ez naiz, ba, ezertarako gauza... Etxekoak aspertu baño leen, neu irteztzea obe da...

PAULA Ori ez, Joxe... Ez ote dezu aitonaren azken-naia bete bear..? Itxua zera gañera...

JOXE Ez dio ajolik... Aldapa gora etorriko zait... asko lotsatuko naiz, bañan eskean ertengo naiz aterik-

ate, Jaungoikoa'ren izenean. Ni baño aundiagoak
 ibilli izan oi dira...

PAULA Jaungoikoarren, Joxe... Zabaleta'n danak maite zai-
 tue... Amona berak, ere, amaika negar egin zuan
 zuk etxetik iges egin zenduan egun aretan...

JOXE Ezin, ordea...

PAULA Malentxo'ri zenion maitasunagaitik...

JOXE Ez... alperrik...

PAULA Malentxo'ren eta aitona'ren oroigarri dezun gurutz
 orregaitik, Joxe...

JOXE Bai, baña... ta iñoiz nitzaz aspertzen ba-dira..?

PAULA Nik artuko zaitut, orduan...

JOXE Eskarrikasko, Paula... Milla esker... Bañan ezin
 naiz ni zurea izan...

PAULA Zergaitik ez baña...?

JOXE Manuel'entzat izan bear dezulako zuk...

PAULA Ni ez naiz Manuel'entzat izango..!

JOXE Zergaitik ez ba..?

PAULA Zuk Malentxo maite zenduan bezelaxe, nik zu mai-
 te zaitudalako...

JOXE Erruki zaitut...

PAULA Erruki nazazu, bai...

JOXE Iñori baño esker ohea zor dizut... Goazen, ba,
 orain, aitonaren alde otoitz egitera...

PAULA Goazen, bai, Joxe... Bera izan dedilla Zeru'tik gu-
 re maitasun onen testigu...

Besotik elduta, eramango du Paula'k Jo-
 xe.

ZAPIA

1936'garrengo Ilbeltza'ren 3'an.

IV. LOYOLA-XABIER

LOIOLA - XABIER

OARRA: Ez billatu emen Edesti-idazlea'ren xeetasunik.
Antzerki-egillea ez da-ta Edesti-idazle.

Lenengo ekiñaldirako antzezleriak:

PERU	Xabier-Gaztelu'ko morroi bat.
MATXIN	Peru'ren laguna ta Peru'ren kidekoa.
EUSKAL-ERRIA	Emakumezkoa ta zaarra. Euskal-erri'ko ikurdia eramango du bere soñeko luze erdian.
NAPARROA	Emakume gaztea. Naparroa'ko ikurdia eramango du bere soñeko luzean.
XABIER	18 urteko gaztea.
MARI	Xabier'en arreba. Xabier baño zaarragoa.
OSABA	Apaiza. Xabier eta Mari'ren osaba.
MANDATARIA	Gudari-gaztea.
ERRIA	Agure ta emakumezko batzuk.
AMA	Xabier'en ama.

Garai artan oi ziran jantziak ibilliko dituzte antzezleri guztiak.

LEENENGO EKITALDIA: XABIER

Xabier-gaztelu'ko etxe-aurrea degu iruditegia.

Ikusleen eskubi-aldetik Gaztelu'rako sarrrera.

Ikusleen ezker-aldetik errirako bidea.

Iruditegi-erdian eta atze-aldean arrizko eserleku bat.

Iruditegi-erdian agertuk dira Peru ta Matxin.

PERU Ai Matxin..! Ez dakik ik, zer naigabe sentitzen dedan nik, Xabier'ko gaztelu oneri begirutzen diodan bakoitzean. Oraindik urte batzuek, besterik ez, lerdena jeiki oi uan gaztelu au. Begira akiok gaur. Ez dik leengo itxurarik.

MATXIN Beste ainbeste esango nikek nik, ere, Peru. Iretzat gaztelua bezela, dituk neretzat maasti ta so-roak. Ikusgarriak egoten ituan leen emengo baztarrak. Loretegirik ederrana bezin ederrak. Gaur, ordea, sasi-biurturik agertzen dituk baztar guztiak. Guda-gogorrek ekartzen dituan gauzak dituk auek, Peru... Ta guda gogorrean sarturik, arkitzen gaituk, gaur, zoritxarrez, naparrok.

PERU Egia diok. Matxin... Eta ez al'diagu, oraingo ontan beintzat, gudarik galduko..! Ipurditik aterako die bestela gaztelu au..!

MATXIN Ta iñorenak izango dituk gure soro ta maastiak...

PERU Kastillatarrenak..!

MATXIN Eta aien morroi gure semeak, Peru...

PERU Ori ez..!

MATXIN Ori bai, Peru... Jaungoikoa'k bakarrik zekik, zer ikusi bear ote-degun oraindik...

PERU Atzoko berriak ez ituan ain bildurgarriak, Matxin. Une batetik bestera errortzekoa uan Iruña'ko gaztelua, ta gazteluaz jabetu ezker, gurea ukek Iruña osoa...

MATXIN Bai, Peru... Bañan gaztelua ez dek erori oraindik.

PERU Eroriko dek, ordea...

MATXIN Eroriko al'dek..! Bañan gipuzkoarrak dituk gaztelua gordetzen dutenak... eta gipuzoarrak ere, euskaldunak dituk, Peru...

PERU Gipuzkoarrak eta Loiolatarrak..! Ez dik, ez, nolanaikoa izan bear Loiola'ko buruzagi orrek... Urte batzuek gutxiago ba'ntu...

MATXIN Ez negokek ni ere, emen, ori egia ba'uke... Bañan gure sasoia joana dek, Peru. Ez gaituk gudarako gauza. Ta ementzen egon bear diagu ango berrien zai...

PERU Ola dek, bai, Matxin... Eta ango-berriak guk nai baño nekezago etortzen dituk... Emen negok ni, eguzkiarekin batera jeiki-ta, mandatariaren zai... Ta ez dek mandatariarik agiri. Ez ote-die, bein-betirako galduko loiolatar ori..! Askatasuna nai diagu naparrok... gure lurraren askatasuna... ta askatasun ori ezin lortu diagu... Au dek gure zoritxarra, Matxin..! Ez ote'dik Jaungoikoa'k-gure errukirik izango...

MATXIN Izango al'dik..!

PERU Izango al'dik, bai... Agur, Matxin.

MATXIN Agur, Peru..!

Gazteluan sartuko da Peru.
Ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da Matxin.

Aldatu egingo dira iruditegio argiak.

Iruditegi-atzean agertuko da Naparroa, ta Matxin'ek eraman duan bidea artuko du Naparroa'k ere.

Naparroa iruditegitik irten baño leen, agertuko da iruditegi-atzean Euskal-erria.

EUSKAL-ERRIA

Naparroa..!

NAPARROA

Ama..! Euskal-erri, nere ama..!

Euskal-erria'rengana joan eta besarkatuko du Euskal-erria Naparroa'k.

Une batean besarkatuta egon ondoren.

EUSKAL-ERRIA

Goazen, alaba... Nekaturik nator, eta jarri egin nai nuke.

Iruditegi-erdiko aulkian jarriko da Euskal-erria. Euskal-erria'ren oñetan jarriko da Naparroa.

EUSKAL-ERRIA

Naigabeturik ikusten zaitut, alaba..! Negar samina darabilkizu biotz-begietan.

NAPARROA

Bai, ama... Guda gogorrean ditut nere semerik leialenak, nere aldeko guda gogorrean, eta odolez gorri daude, emen, baztar guztiak... Negar dagit, ba, gau ta egun.

EUSKAL-ERRIA

Odol-gabeko gudarik ez da izan oi, alaba.

NAPARROA

Ondo dakit, ama..! Bañan ez nau geienbat naigabetzen, nere seme leial oiek kastillatarren eskuetan ixurtzen duten odolak, ez..! Euskaldunen eskuetan ixurtzen duten odolak, orretzek naigabetzen nau geienbait. Gipuzkoa, nere aizparen semeak ditut, gaur, nere etsaierik gogorrenak. Eta auxen da nere naigaberik aundiena, ama...

EUSKAL-ERRIA

Bai, alaba. Onela da zoritxarrez... Amaika guda ikusitakoa naiz ni ere... Leengo gudaketak, ordea, ez ziran anai-arteko gudaketak, gaurkoak bezela. Euskaldunak bat egiten zuten leen guda-garaiean.

NAPARROA

Senide sentitzen ziran leen euskaldunak... Gaur, ordea...

EUSKAL-ERRIA

Gaur ez dago olakorik, ama...

Ez, zoritxarrez..! Eta orretzek mintzen dit neri ere biotz guztia. Entzun zaidazu, alaba... Ez ote-dezute zuek, nere zazpi alabok, guzti-orren errua..?

NAPARROA

Guk..?

EUSKAL-ERRIA

Zuek, bai..!

NAPARROA

Zergaitik, ama..?

EUSKAL-ERRIA

Nerekin aaztu zeratelako..!

NAPARROA

Gu..?

EUSKAL-ERRIA

Bai, alaba... Nere ondoan bizi izan zifiaten artean, aizpa maiteak izan zifiaten zazpirak. Nere ondotik iges egin zenduten bezein laister aaztu zifiaten nerekin. Zuetako bakoitzak, eman zitzaion lurraldea, artu zuan bere amatzat. Eta amarekin aaztutzen dan alaba, ez ote-da bere aizparekin aaztuko..? Ez zaite, ba, arritu, gipuzkoarrak, gaur, zure aurka ba'dituzu...

NAPARROA

Ai, ama...

EUSKAL-ERRIA

Ai, alaba... Zuk baño minuagoa daukat nik, nere ama-biotz au... Ta ala ere, leen bezein maite zaituztet nere zazpi alabak... Oraindik garaiz zaudete... Zazpirak bat egiten ba'dezute, ez naiz ni oraindik ilko... Ta Euskal-erri zaar onek gauza arrigarri asko ikusiko ditu oraindik, zuek alkar artzen ba'dezute.

Norako asmoetan zifian, alaba..? Atsedendu naiz eta pozik lagunduko dizut.

NAPARROA

Or bertako muño batera ni joan. Iruña'ko berriak jakin nai nituan...

EUSKAL-ERRIA Goazen, ba, alaba...

Eta Euskal-erria ta Naparroa ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira iruditegiko aoan.

Xabier agertuko da gazteluko atetik.

Liburu bat edo bi dakartz besapean.

Oldozkor dator... Iruditegiko eserlekuan liburuak utzi, ta gazteluko ate-ondora joango da berriro... Gaztelu-barrenean dagoan Peru'ri deituko dio ixil-antzean...

XABIER Peru..! (Ta ertetzeko kiñua egingo dio eskuakin).

Peru agertzen danean, iruditegi-erdira eramango du Xabier'ek...

PERU Zer nai dezu, Xabier..?

XABIER Galdera bat egin nai nizuke, Peru.

PERU Galdera bat..?

XABIER Bai, Peru... Bañan bene-benetan erantzutekotan, ordea...

PERU Ondo dago, Xabier...

XABIER Emezortzi urte izango ba'zinduzke zuk, emen egongo al'zifñake, gaur..?

PERU Ori galdera, Xabier..!

XABIER Orixe da, ba, nik jakin nai nukeana. Ta ez dago gezurrik esaterik, Peru.

PERU Gezurrik esaterik ez ba'dago...

XABIER Ez dago gezurrik esaterik, Peru..!

PERU Emezortzi urte ba'nitu, ez negoke, ez, emen Xabier..!

XABIER Nun egongo zifñake, ba..?

PERU Nun egongo nitzake, ba..? Zure bi anaiekin Iruñia'n... An bait-daude, guda gogorrean egon ere, Naparroa maite duten guztiak...

XABIER Nik ez det, beraz, Naparro'rik maite..?

PERU Zergaitik diozu ori, Xabier..?

XABIER An ez nagolako ni..!

PERU Gaztea zera zu, oraindik, ortarako, Xabier.

XABIER Emezortzi urte ditut, Peru...

PERU Bai, egia diozu ori ere... Bañan zuk ez dezu, an, egonbearrik...

XABIER Zergaitik ez..!

PERU Amak bakarrik gelditu bear luke ortara... Ta an dira beste zure anai biak...

XABIER Etxe askotako amak gelditu dira bakarrik egun auetan... Eta etxe askotako bi edo iru anai ari dira, guda gogorrean, Iruña'n, Naparroa'ko askatasunaren alde... Zergaitik egon bear ez det nik ere..?

PERU Buru argia eman dizu zuri Jaungoikoa'k, Xabier...

XABIER Eta ez al'zuan buru argia nere aitak ere..?

PERU Bai, Xabier..!

XABIER Eta ez al'zan, orregatik, gudari trebea ere izan...

PERU Bai, Xabier.

XABIER Ta..?

Gazteluko atean agertuko da Mari. Iruditegi erdiko eserlekura joango da Xabier eta liburu bat artuko du esku-artean.

MARI Peru..!

PERU Zer nai zenduan, Mari..?

MARI Ezer ez..! Bañan ba'dakizu, ez duala amak orrela-ko jardunik, Xabier'ekin izaterik nai.

PERU Ba'dakit, bai, Mari. Bañan egin didan galderari, ezin, ba, gezurretan erantzun...

MARI Ondo dago, Peru. Bañan urrungo baterako, ere, ba'dakizu. Odol-berokoak gera xabiertarrak eta ori ere bai, Peru...

PERU Bai, Mari. Ondo ezagutzen det nik, Xabier.

MARI Emen degu gure osaba, apaiza, ere...
Osaba, apaiza, agertuko da ikusleen ezker aldetik eta Mari ta Peru dauden lekura zuzenduko da.

OSABA Arratsalde on Jaungoikoa'k.

MARI Berdin zuri ere...

OSABA Zer dio amak, Mari..?

MARI Betiko eran ura, osaba. Egiten ditut nik alegiñak, bañan ez dago ura alaitzerik. Iruña'n dauka ark bere pensamentua.

OSABA Ez da, ez, arritzekoa, Mari. Naigabea besterik ez bait-diate oraindik ekarri Naparroa'ko gudak... Ez al'dago gaurko berririk, Peru.

PERU Beorrek ekartzen ez ba'ditu, ez, Jauna.

OSABA Arritzekoa da, ba... Atzoko berriak, Iruña'ko gaztelua artuko, ez artuko zeudela, esaten ziguten... Ez zuten oraindik artuko, ikusten danez.

MARI Orixe esaten du amak ere. Okerren bat izango zutela gutarrak.

PERU Eta ez al'genduan oker ori, ere, jakingo..?

OSABA Dana dala, arratsalde luzea dago oraindik beintzat eta ez degu ain-errez etsi bear... Xabier'ekin bukatzen dedanean, or izango nazute zuekin, Mari.

MARI Eskerrik asko, osaba... Zai izango gaituzu.

OSABA Agur, ba, Mari, eta agur, Peru...

MARI-PERU Agur... Gazteluan izkutatuko dira Mari ta Peru. Xabier'engana joango da Osaba.

XABIER Barkatu egin bearko didazu, gaur, osaba.

OSABA Zer, ba, Xabier..?

XABIER Nere burua ez dago egun auetan liburuetarako. Irudimenez, ba'da ere, gudan nabil ni, ere, egun osoan, osaba. Ta bertan egotearren, zer ez ote-nuke emango...

OSABA Ez, Xabier; ez zaitugu zu gudari nai. Gudariak bezin bearrezkoak izan oi ditu erri batek, buru argiko gizonak ere. Auetakoa izan zan zure aita ere.

XABIER Eta ez al'zan gudaria, ere, izan..?

OSABA Bai, Xabier. Izan zan gudaria ere. Bañan zure aita-aren esanetara jokatu izan ba'lute, orduko, Naparroa'ko jauntxoak, ez orduan eta ez orain, ez genduan gadarik izango... Bañan jauntxo aiek ez zuten zure aitak bezelako buru argirik, eta...

XABIER Zer, osaba..?

OSABA Prantzes batekin ezkondu erazi zuten, gure erregiña izan bear zuan Katalina. Ta ezkontza onek ekarri zigun kastillatarren asarrea, gure arteko gorrotoa, beste lurraldeetako euskaldunen ezin-ikusia ta Naparroa'ren ondamentia...

XABIER Zergaitik, ordea..?

OSABA Gure prantzes-erregea, Prantzia'ko erregearekin alkartu zalako... ta Prantzia'ko erregea Eleiza'ren etsaia zalako... Ortik sortu ziran gure naaspilla guztiak...

XABIER Eta gure aita..?

OSABA Bai, Xabier... Zure aitak, ala ere, erregearen alde jokatu zuan. Ez Prantzia'ko erregearekin alkartu zalako, ez! Naparroa'ko erregea zalako baizik... Beste jauntxoak beste-ainbeste egin ba'lute... Bañan ez..! Eta guda amaitzean, zuentzako izan ziran kastillatarren zigorkada guztiak... Begira gazteluari, Xabier... Gazteluak esaten dizu ondoen, nolakoak izan ziran kastillatarrak eman zizkizuten zigorkadak. Ordutik dator Naparroa'ren ondamentia...

dia ere. Ondamendi au ikusi ez naiean, il zan, nai-gabez, zure aita... Ai, Xabier... zure aitaren esana egin ba'lute orduan jauntxo aiek, gure lagunak izango ziran, gaur, kastillatarak, eta ez genduan, gaur, gudarik izango Naparroa'n, aske genduke, gaur, Naparroa ta...

XABIER Bañan gaurko guda onek, ez dauka zer-ikusi aundirik leengo guda orrekin.

OSABA Ez, Xabier..! Askatasunaren aldeko guda da gaurko guda au.

XABIER Eta zergaitik dira gure aurka euskaldunak..?

OSABA Nortzuk..? Gipuzkoarrak..?

XABIER Bai..! Loiolatarak..!
Iruditegi-atzean eta ikusleen-ezker aldetik agertuko da Mandataria.

MANDATARIA Arratsalde-on Jaungoikoa'k... Gurea degu azke-nean Iruña'ko gaztelua..!

OSABA-XABIER E..?

MANDATARIA Bai..! Xabier jeiki ta gaztelura joango da laisterka.

MANDATARIA Ez zaigu erreza izan..! Gogor jokatu dute gure etsaiak! Bañan Loiola'ko Eneko zauritu degunean, orduantxe bukatu dira gure etsaien kemenak... Ba'da ori buruzagia..!

OSABA Ta..?

MANDATARIA Ezer ez..! Anka ezur bat besterik ez diogu ausi. Gu-retarrak daramate, ballarta batean, Loiola'ra...
Gazteluko atera urreratzen diranean, gazteluko atean agertuko da Peru...

OSABA Gurea degu Iruña, Peru...

PERU E..?

OSABA Bai, Peru, bai...

PERU Gurea..?
Irriparrez begiratuko dio Osaba'k.
Ta laisterka ekingo dio Peru'k.
Iruditegiko aoan eta ikusleen ezker alde-tik izkutatuko da Peru.

OSABA (Mandataria'ri)
Goazen barrura...
Ta gazteluan iukztatuko dira Osaba ta Mandataria.
Iruditegiko ARGIAK ALDATUKO DI-RA.
Euskal-erria ta Naparroa agertuko dira ikusleen ezker-aldetik, iruditegiko aoan.

EUSKAL-ERRIA Berri onak artu dituzu, alaba.

NAPARROA Bai, ama... Leialki jokatu dute nere semeak. Ne-rea det berriro Iruña.

EUSKAL-ERRIA Zurea dezu, bai. Ta ala ere...

NAPARROA Zer, ama..?

EUSKAL-ERRIA Ez dute nere biotzetik arantzak iges egin.

NAPARROA Zergaitik ez, ama..?

EUSKAL-ERRIA Gipuzkoa'n det nik, orain, nere pensamentua. Ta negarrez ikusten det nere alaba ta zure aizpa dan Gipuzkoa. Semerik leialenetako bat zauritu bait-diote.

NAPARROA Loiolatarra..?

EUSKAL-ERRIA Bai..! Eneko..!

NAPARROA Ez zeukan ez etorri besterik.

EUSKAL-ERRIA Ez du ark errurik..! Alkartuko al'zaituzte, bai, egu-nen batean, Jaungoikoa'k... Seme leialak eman dizkizute Jaungoikoa'k biori. Ez, ordea, anai-arteko guda gogorrean, alkar iltzeko semeak, ez..! Alkar-arturik munduaren jabeak izateko semeak, baizik.

- Zeñen aundia nintzaken orduan ni, zuen ama au...
Berandutzen ari zaigu, alaba, ta bide luzea dago
emendik Loiola'ra...
- NAPARROA Ez zera orain Loiola'ra joango..?
- EUSKAL-ERRIA Bai, ara noa, alaba. Zureak bezin samiñak dira ne-
retzat nere alaba Gipuzkoa'ren negar malkoak.
- NAPARROA Illuna egingo zaizu bidean.
- EUSKAL-ERRIA Illargi amak argi egingo dit bidean.
- NAPARROA Goazen, ba... Nik lagunduko dizut, ama...
- EUSKAL-ERRIA Naparroa'ko muga-arteraño zu nai zaitut, bai, la-
gun...
Eta iruditegi atzean izkutatuko dira Euskal-
erria ta Naparroa.
- ARGIEN ALDAKETA.
Matxin eta beste agure ta emakume ba-
tzuek agertuko dira Peru'rekin iruditegiko aoa
eta ikusleen ezker aldetik. Gazteluruntz dijoaz...
Gaztelutik dator Xabier ere.
- PERU Ta, Xabier..?
- XABIER Bai, Peru... Gurea degu Iruña..!
- EMAKUME BATEK Laister izango ditugu, ortaz emen, gure mutillak..!
- XABIER Ez da oraindik gudarik amaitu..! Naparroa osoa
gurea egiten ez degun artean, ez dira, ez, etxeratu-
ko mutillak.
- MATXIN Eta nola izan da Iruña'ko ori, Xabier..?
- XABIER Loiolatarra zauritu ez duten artean, ez ain erreza,
esaten dutenez.
- EMAKUME BATEK Eta zauri aundiak egin al'dizkiote..?
- PERU Ez zeukan, ez etorri besterik.
- MATXIN Egia, Peru..!
- PERU Nik ez nion bizitzarik barkatuko..!

- MATXIN Ez nik ere...
Ama agertuko da gazteluko atean.
- AMA Xabier..!
Ama ikustean, ixil-ixilik eta burua makur-
turik izkutatuko dira gizon eta emakumeak,
ikusleen ezker-aldetik.
Gaztelura joango da Peru ta amaren billa
Xabier.
Iruditegi-erdira ekarriko du maiteki Ama'k
Xabier.
- AMA Entzun zaidazu, Xabier... Poz izan dezu Iruña'tik
etorri diran berriekin. Gure gudarien garaipenak
poztu egin du zure biotza, nerea poztu duan beze-
laxe. Naparra naiz ni ere... Ezin ukatuko det...
Eta iñork Naparroa maite duan neurrikerik aundie-
nean, maite det nik ere nere aberria. Bai, Xabier...
Eta ala ere, ez det iñorentzat gorrotorik gordetzen.
Ez nere etsaierik aundientzat ere. Ta ez kalterik
egin ez didatelako.
Xabier..! Loiolatarra, dala ta ez dala, oraintxen,
emen, entzun dituzun itzak, ez dira kristau batek
esan bearreko itzak. Eta kristau ori, euskalduna da-
nean, oraindik eta gutxiago...
- XABIER Bañan...
- AMA Bai, seme. Zer esan nai didazun, ondo dakit. "Ez
zeukan ez-etorri besterik"... Xabier! Gure aurka
ekin ba'dio loiolatarrak, ez du txarrez ekin. Euskal-
dunak ez ba'gera gaur, anaitzat ezagutzen, ez da
aren errua. Jaungoikoa'k bakarrik daki, norena dan
erru ori.
Dana dala, izango du loiolatar orrek ere, ama edo
senideren bat... eta naigabez egongo da gaur, nere
semeren bat zauriturik ekarri izan ba'lidate, ni
egongo nintzaken bezelaxe... Ez diozu, ba, gorro-
torik gorde bear..! Ama baten seme-alabak gera
euskaldun guztiok, Xabier..!
- XABIER Bai, ama. Bañan...

BIGARREN EKITALDIA : LOIOLA

Antzezlariek :

OTXOA	Naparro'ko gudaria.
TXOMIN	Loiola-etxeke morroia.
PATXI	Loiola-etxeke morroia.
MADALEN	Loiola-etxeke etxekeandrea.
PEDRO	Apaiza. Eneko'ren anaia.
MARTIN	Sendagillea.
ENEKO	
IRU EDO LAU NAPARROA'KO GUDARI.	
EUSKAL-ERRIA	
GIPUZKOA	Emakume gaztea. Gipuzkoa'ko ikurdia eramango du bere soñeko luzean.
BI GIZON	Ez dute itzerik egiten. Apaizaren alboetan agertuko dira, au "elizakoekin" etortzen danean.

Loiola'ko etxe-aurrea degu, orain, iruditegia.

Iruditegi-atzean, eta iruditegi-erdi-erdian Loiola-etxerako sarrera. Ikusleen ezker-eskubitara, bideak. Ikusleen eskubi-aldetik agertuko da Otxoa. Loiola'ko etxera urreratu ta "danbateko" batzuek joko ditu etxeko atean. Txomin agertuko da atean.

- OTXOA Arratsalde on Jaungoikoa'k.
- TXOMIN Baita zuri ere...
- OTXOA Au al' degu loiolatarren etxea..?
- TXOMIN Auxen dezu, bai.
- OTXOA Nagusiarekin egon nai nuke.
- Ikusleen ezker-aldetik agertuko da Patxi, ta Otxoa ta Txomin'engana urreratuko da.
- TXOMIN Ez dago, ba, etxean...
- OTXOA Etxekoandrerik ere ez..?
- TXOMIN Etxekoandrea, bai...
- OTXOA Berdin zait..!
- TXOMIN Eta nor zerala esango diot..?
- OTXOA Eneko'ren berriak dakarzkion Naparroa'ko gudari bat.
- TXOMIN Naparra, beraz..?
- OTXOA Bai...
- TXOMIN Ondo da...
- Eta etxe barruan izkutatuko da Txomin.

- PATXI Eneko'ren berriak..? Zerbait entzun degu, bañan gauza garbirik ez dakigu... Biziko da, ordea..?
- OTXOA Bizi da, bai... Ez zuan nolanaikoa artu, bañan bizi da. Anka-ezur bat dauka ausia.
- PATXI Anka-ezurra..?
- OTXOA Bai...
- Txomin agertuko da atean.
- TXOMIN Sartzeko dio etxekoandreak...
- OTXOA Barkatu, bañan ez det sartzerik... Gudaria naiz, eta gudari bezela, loiolatarren etsaia. Ni etxe onetan sartzea, ez legoke, ba, ondo. Ementxen emango dizkiot, ba, etxekoandreari, dakarzkiodan berriak...
- TXOMIN Ondo dago...
- Ta etxe barruan izkutatuko da berriro Txomin.
- PATXI Ez al'da oraindik guda ori bukatu..?
- OTXOA Oraindik ez... Eta Naparroa guztia aske ikusten ez degun artean, ez da, bukatuko ere..!
- PATXI Lan aundia artu dezute...
- OTXOA Aundia, bai, bañan gogozkoa... Ez degu ifñoren mende bizi nai... Ikustekoa da gaurko nabartarren alkartasuna... Euskaldun batzuek ez ba'genitu etsai.
- Madalen, Loiola-etxe'ko etxekoandrea agertuko da atean. Onen ondoren agertuko da Txomin eta atean geldituko da. Patxi'k ere baztar bat artuko du, ikusleen ezker aldean.
- MADALEN (Otxoa'rengana urreratuta). Arratsalde on Jaungoikoa'k.
- OTXOA Baita zuri ere... Zu al'zaitut Loiola-etxe'ko andrea..?
- MADALEN Ni nazu, bai...

OTXOA Eneko'k bialdu nau...

MADALEN Ta zer du, ba..?

OTXOA Ana-ezur bat ausia... Orain amabost egun, Iruña' ko gaztelua menderatu genduanean, anka-ezur bat ausi genion burruka-bitartean. Ausia lotu diote gure sendagilleak, eta bulartsu burukatu zalako, bizia barkatu ta etxerako baimena eman diote gure buruzagiak...

MADALEN Ez da, ba, etxean agertu..!

OTXOA Oraindik ez, bañan laister izango dezu etxean... Ortarakoxe bialdu nau. Ballarta batean dakargu Iruña'tik... Ez degu, nai bezein azkar, ibiltzerik izan... Min aundiak izan ditu bidean, eta min oiek dirala-ta, makal etorri bear izan degu. Oso eroria dator. Azkoiti'rako bidean izango dira onuzkero...

MADALEN Ta sendagillerik bear ote-du..?

OTXOA Baietz irizten diot nik... Minbera izango da aren zauria-ta.

MADALEN Patxi..!
Madalen'gana urreratuko da Patxi.

PATXI Agindu, etxekoandre...

MADALEN Gertatzen danaren berri ba'dezu ta zoatz Azpeiti'ra. Ea leenbaitlen ekartzen dituzun Azpeiti'ko sendagille jauna ta Azpeiti'ko Erretore Jauna. Emen izan ditezela Eneko etorri aurretik.

PATXI Ondo dago, etxekoandre.
Ta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da Patxi.

MADALEN Eta ez al'dezu ezer artu nai zuk..?

OTXOA Besteak etortzean, artuko degu zerbait.

MADALEN Ondo da..! Txomin..!

TXOMIN (Madalen'gana urreratuaz).
Agindu, etxekoandre...

MADALEN Gazte onekin gelditu zaiz zu. Eneko'ren gela gertazera noa ni eta... Gero arte, ba...

OTXOA Gero arte..!
Ta etxean izkutatuko da Madalen.

TXOMIN Zer bide ekarri dezute..?

OTXOA Bide luzea benetan. Lizarraga'tik Urbasa'ra; Urbasa'tik Olazaguti'ra; Olazaguti'k Elgea'ra; Elgea'tik Oñati'ra; Oñati'tik Anzuola'ra ta Anzuola'tik onera, Azkoiti'tik barrenera etortzekotan gelditu dira. Bide luzea, bai, bañan biderik seguruenen iritzi diogu bide oneri.

TXOMIN Nekatua egon bear dezu, ortaz, nai ta nai-ez.

OTXOA Bai zerbait, baña ni ez bezela nekatuko dira nere lagunak... Ain sorbaldak ez datoz utsik..!

TXOMIN Jarri gaitezen. Jarrita, ere, berdin itxo-egingo diegu etorri bear duten oieri ta...
Besterik ezean, ateko armalletan eseriko dira biak.

OTXOA Urruti al'dago Azpeiti'ko erri ori..?

TXOMIN Ez..! Laister izan bear dute, emen, azpeitiarrak. Eneko'ren anaia degu bertako apaiz jauna...

OTXOA Eneko'ren anaia..?

TXOMIN Bai... Ta nolako gudaria izango ez ote-zan bera, apaiz egin izan ez ba'litz. Bildurrik ezaguten ez duan gizona da...

OTXOA Eskerrak apaiz egin zanik, ba...

TXOMIN Zer, ba..?

OTXOA An izango genduan bestela ta, Eneko'rekin batera Iruña'n..!

TXOMIN A, bai... Ziurki gañera...

OTXOA Eneko'k eman digu, ba, naiko lan... Ez genduan, oraindik, gaztelua menderatuko, anai biak an izate-ra...

TXOMIN Emen ditugu azpeitiarrak...

OTXOA Eneko'k, ere, ez du urruti bear.
Biak jeikiko dira...
Ikusleen ezker-aldetik agertuko dira Pedro, Martin eta Patxi, iruditegiko aoan...
Baztar bat artuko dute Txomin eta Patxi'k.

PATXI Auxe dezute Eneko'ren berriak ekarri dituan gudarria.

PEDRO Arratsalde on, Jaungoikoa'k.

OTXOA Baita zueri, ere...

PEDRO Eneko'ren anaia nauzu ni. Erriko sendagillea dezu beste jaun au.

OTXOA Etortzeko zifiatela, ba'nekian, bai.

MARTIN Eta zer du, ba, Eneko'k..?

OTXOA Aundiagoa izan zezakean aren zauriak, jauna, bañan anketan artu zuan dunbatekoa, zorionez... Ala ere...

MARTIN Bai...

OTXOA Etorrera onek ere, ez dio onik egin nere iritzira. Ballarta batean ez dago, nai bezela, gaixo bat ekartzetik. Eta luzea da Iruña'tik onera ekarri degun bidea. Aulduta dator bai... Erabat gaixorik dator...

MARTIN Odol asko ere, galduko zuan, bear ba'da.

OTXOA Ez nuke ezetz esango.
Madalen agertuko da etxeko ateetik.

MADALEN Emen da...

Ta ikusleen eskubi aldeko iruditegi-ertzera joango da Madalen. Aren atzetik joango dira Pedro ta Martin.
Txomin eta Patxi'rengana joango da Otxoa.
Auek ere, Eneko'k dakarren bidera begiratuko dute...
Eneko iruditegira sartzen danean, lurrean utziko dute, pixka-batean, ballarta.
Iru edo lau gudari sartuko dira Eneko'rekin batera, ta ballarta lurrean uzten dutenean, Otxoa-ta dauden lekura zuzenduko dira...

MADALEN Eneko..!

ENEKO Zure bear izango naiz, Madalen.
Eta eskuan muxu bat emango dio Eneko'k.

ENEKO Eta Martin..?

MADALEN Ez dago etxean...

ENEKO Gaizki nator... Ai, Pedro! Zure bear ere, izango naizela uste det...

MARTIN Sendatuko zaitugu.

ENEKO Alegiñak egingo dituzu, bai. Bañan nere anka au zuzenduko duanik, ez ote-dagon, nago. Ta anka oker gelditu baño...

MADALEN Ez dezu orrelakorik esan bear, Eneko...

ENEKO Ez nuke, ez, esan bear. Bañan pensamentu orretzek naigabenetzen nau geienbat. Begiak aña dira, gudari batentzat, anak, Madalen.

MARTIN Laister ikusiko degu, ba, anka ori ere. Sartu dezagun barrenera.

MADALEN Atozte, Txomin eta Patxi. Sartu ezazute bion artean.
Mutur banetatik elduko diote ballartari Txomin eta Patxi'k.

ENEKO Ez zaite gazte oiekin aaztu, Madalen.

MADALEN Ez naiz aaztuko, ez, Eneko.

ENEKO Agur, gazteak. Eta ez dezazutela nere zorigaiztorik izan gudean... Esker-asko zor dizutet danori, Agur, ba...

GUDARIAK Agur..!
 Eta Madalen aurretik dala, sartuko dira etxean Txomin eta Patxi Eneko'rekin. Sendagillea sartuko da auen atzetik. Eta Pedro guztien atzetik...

PEDRO (Gudarieri).
 Ez al'dezute zuek sartu nai...

OTXOA Ondo gaude gu emen, jauna...

PEDRO Gero arte, ba...

OTXOA Gero arte, ba... (Gudari-laguneri) Ta..?

GUDARI Nekatuak, mutil..!

OTXOA Ortaz...

GUDARI Zer..?

OTXOA Bertan igaroko al'diagu gau au..?

GUDARI Ez, motel..! Oraindik ez dik illundu, ta illunduta ere, illargi ederra izango diagu gaur. Iruña'rako gogoarekin negok ni, beintzat...

GUDARI Baita, ni ere...

GUDARI Pixurik gabe ibiltzeak, ez dik gafiera nekerik. Eta ondo asetuta gaudek loaz, beintzat...

OTXOA Iruña'ra beraz..?

GUDARI Iruña'ra, bai..! Ango berririk gabe bizi izan gaituk ainbait egunetan eta...

OTXOA Egia diok..! Zer egin ote-die gure guda-lagunak..? Nun billatuko ote-zituagu..?

GUDARI Goazen, Otxoa...

Pitxar batean ardoa ta edontzi bat eskuan agertuko da Txomin.

TXOMIN Oraindik ez, mutillak..! Ez dezute izango Naparroa'koa bezein ona, bañan ardoa dezute au ere, beintzat. Tori, ba, trago bana...

OTXOA Eskerrik-asko..!
 Ta guztiak edango dute banan-banan. Ta edaten ari diran bitartean...

TXOMIN Erruki zaituztet..!

GUDARI Erruki..? Zergaitik..?

TXOMIN Ekarri dezuten nekeagatik..! Bere gelaraño jasotzea besterik ez degu guk egin eta, arraioa! aztuna zegoan.

OTXOA Ez ainbesteraño, Txomin..!

TXOMIN Ezetz..? Aaztu egingo zitzaizun zuri, ariñean eman dezu gaurko eguna-ta.

OTXOA Ori esan...

GUDARI Ta zer iritzi diozu, ba, zaurituari..?

TXOMIN Ba'duala beretzako latin. Ez zerate jolasean ari, arrano pola..!

OTXOA Ez, Txomin, ez..! Gogorra dioa gure guda...

TXOMIN Bai, nik ikusi dedanez.
 Patxi agertuko da zorro batekin.

PATXI Biderako zerbait izan dezazuten, eman dit etxeko andreak.

OTXOA Zer dago, ba, or..?

PATXI Zer izango dezute, ba... Mokau bana biderako...

OTXOA Eskerrik asko... (Zorroa artu ta gudarieri). Gertu al' zerate, mutillak..?

GUDARI Gertu gera..!

OTXOA Goazen, ba...

TXOMIN Ez al'dezute beste trago bana artu bear.

OTXOA Eskerrik asko, Txomin... Laister degu illuna, ta urrats asko eman bear ditugu. Agur, ba...

TXOMIN Agur, bai... Ta dunbatekoekin kontu izan gero...

GUDARI Ez gure kezkarik izan... Agur..!

PATXI Agur, ba...
Ta ikusleen eskubi-aldetik izkutatuko dira Otxoa ta Gudariak.

PATXI Oiek die, oiek, sasoi...

TXOMIN Guk gaur ez bezelakoa.

PATXI Ta gudarako irrikatzen zeudek, gañera.

TXOMIN Gaztetasunak ez dik barkatzen, Patxi...
Pedro ta Martin agertuko dira etxeko atetik.

PEDRO (Txomin eta Patxi'ri).
Joan al'ziran oiek..?

TXOMIN Oraintxe joan dira, Jauna...

PEDRO Ondo dago..!
Etxean izkutatuko dira Txomin eta Patxi.

MARTIN Odol asko galdu du, bai... ta ez zait batere gustatu Eneko'ren itxura...

PEDRO Ez neri, ere...

MARTIN Eta bera gertu dagoan ezker, elizakoak artzea obe du bai...

PEDRO Ala irizten diot nik ere. Gaur bertan ekarriko dizkiot eta lasaiago egongo gera guztiok...

MARTIN Egia diozu...
Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira biak.
IRUDITEGIKO ARGIAK ALDATU
EGINGO DIRA.
Euskal-erria agertuko da ikusleen eskubi-aldetik.

EUSKAL-ERRIA Emen izan bear du, ba, nunbait nere alaba Gipuzkoa'k. Seme elbarrituaren-ondoan izan oi da ama... ta semea du ark Eneko... Ez da, ba, urruti izango...
Loiola-etxe'ko ateari begira.
Or dator bera...
Loiola-etxe'tik agertuko da Gipuzkoa, ta Azpeiti'rako bidea artuko du ikusleen ezker-aldetik.

GIPUZKOA Nora zoatz, alaba..?
(Euskal-erria'rengana urreratuaz).
Zu emen, ama..?
Ta besarkatu egingo du ama.

EUSKAL-ERRIA Bai, ni emen, alaba... Ta urrutitik etorria gañera.

GIPUZKOA Ama..!

EUSKAL-ERRIA Alaba..!

GIPUZKOA Gaizki dago. Gaizki, nere Eneko..! Ta Napparroa'n zauritu didate... Goazen, ama... Goazen baztar batera. Ez det Eneko'ren eriotzarik ikusi nai... Negar egin nai det... Negar, iñork ikusiko ez naun baztar batean.

EUSKAL-ERRIA Ai, alaba... Negar zegion, zuk orain bezelaxe, orain egun batzuek, zure aizpa Napparroa'k ere. Zenbait seme ez ote-da, ura ere, galtzen ari, guda au dala ta ez dala... Aaztu egin ziñaten, izan ere, egun batean, nere alabak ziñatela biok...

GIPUZKOA Ez, ama... Ni ez naiz zurekin aaztu..!

EUSKAL-ERRIA

Nerekin aaztu ez ba'zera, zure aizpekin aaztu zera. Anai arteko guda auek, ori besterik ez dute adierazten. Etorriko al'da, bai, berriro, aizpa guztiok, amaren ondoan, bat egingo dezuten eguna...

Txintxarri-otsa entzungo da bidean.

GIPUZKOA

Elizakoak..! Goazen emendik, ama.

EUSKAL-ERRIA

Goazen, bai... Bañan ez baztar batera negar egitera. Goazen Eneko'ren ondora. Antxen egon bear dezu zuk, Eneko sendatzen ez dan artean-eta...

Eta Euskal-erria aurretik dala, sartuko dira biok Loiola'ko etxean...

ARGIEN ALDAKETA.

Ikusleen ezker-aldeetik agertuko dira elizakoak, Sakristaua aurretik dutela. Parola ekarriko du onek ezker-eskuan, eta noizean-bein astinduko duan txintxarria, eskubian...

Apaizaren alboetan, gizon bana... Zuzi piztuak ekarriko dituzte gizon auek eskuetan.

PEDRO

Miserere mei, Deus, secundum magnam misericordiam tuam...

Et secundum multitudinem miserationum tuarum dele iniquitatem meam.

Eta guzti auek, ere Loiola'ko etxean izkutatuko dira.

Bat-batean itzaliko dira iruditegiko argiak, eta Loiola'ko etxea izkutatuko da.

Argiak pizten diranean, Eneko'ren gela agertuko digu iruditegiak.

Loiola etxe'ko kapilla nagusian ikusi oi dan eran, aulki luze batean eseririk agertuko zaigu Eneko. Liburu bat irakurtzen ari da. Beste mundu batean bizi dala, esango genduke.

Aulki txiki batean, eskutako lan bat egingen, agertuko zaigu Madalen.

Eta ikusleen ezker-aldean, zutik, agertuko dira Euskal-erria ta Gipuzkoa.

Eneko'ri, adi-adi begira, agertuko dira guzti auek.

ENEKO

(Liburutik begiak, zerurontz jaso-ta).

Santu auetako bizitzaren bat irakurtzen dedanean, lotsagarria iruditzen zait, Jauna, nere bizitza... Zure mendeko izan zedin, egin zenduan zuk gizona. Ta munduko beste izaki guztiak, gizonaren mendean ipiñi zenituan. Ez gizonak, nola-nai, erabili zetzan... Ez..! Zureganako bide bat izan zitezen baizik...

Eta nik, izaki oietan billatu izan det, orain arte, nere atsegin guztia... Loikerian eta arrokerian bizi izan naiz orain arte, zu zifianik oroitzeke, Jauna... Barkatu.

Zu gurtu ta zu maite izateko, egin zenduan gizona... Gurtuko zaituk... Maite izango zaitut, Jauna... Ta zuri izango dizudan maitasunagaitik, eskale irtengo naiz etxe onetatik, ta eskale izango naiz munduan zear... Ala izan zifian zu ere... ta ala izan ziran santu geienak ere...

Mundu onetara lotzen nauten lokarri guztiak, ausiko ditut, eta zure aintzarik aundienerako izango dana besterik, ez det mundu onetan billatuko... Zin dagizut, Jauna... Benetako zifia...

Bere aulkitik jeikiko da Madalen, eta Eneko'ren alboan, belainikatu bezela, egingo da negarrez.

MADALEN

Eneko..!

ENEKO

Ez negarrik egin, Madalen... Zuri zor dizut nere gaurko zoriona... Zuri, ta nere eskuetan ipiñi dituzun liburu aueri... Eskerrak, ba, Madalen...

Eta Eneko'k eskua luzatzen dionean, eskua artu ta muxu luze bat emango dio Madalen'ek Eneko'ri eskuan. Zapia jeitxiko dan arterañoکو muxua.

EUSKAL-ERRIA

Auxe izango dezu, alaba, zure bizitzako egunik zoriongarrienetako bat... Eneko Jaungoikoa-rengana biurtu zaizun eguna... Ondo dakizu, Eneko nor

dan... Gudaritzan trebea izan ba'da, trebea izango da orain artu duan asmoan ere... Ta Eneko'ren izenarekin batera ibilliko da, munduan zear, zure izena ere... Aundia egingo zaitu Eneko'k, nere alaba maite Gipuzkoa...

ZAPIA

IRUGARREN EKITALDIA: PARIS

Antzezleriak:

BEÑAT	Ikastola Negusiko ikaslea.
FABRO	Ikastola Negusiko ikaslea.
XABIER	Ikastola Negusiko ikaslea.
EUSKAL-ERRIA	
NAPARROA	
ENEKO	Ikastola Negusiko ikaslea.
LAINEZ	Ikastola Negusiko ikaslea.
SALMERON	Ikastola Negusiko ikaslea.
BOBADILLA	Ikastola Negusiko ikaslea.
RODRIGEZ	Ikastola Negusiko ikaslea.
MIKEL	Xabier'en lagun eta morroi bezelakoa.

Paris'ko Ikastola Nagusi'ko klaustroa degu iruditegia. Lorategi bat agertuko da klaustroaren erdian; eta ikusleen aurrez-aurre, loretegirako sarrera bat...

Fabro agertuko da, bakarrik, iruditegian. Norbaiten zai dago.

Beñat agertuko da, gero, ikusleen eskubi aldetik.

- BEÑAT Ez al'zatoz, Fabro..?
- FABRO Nora..?
- BEÑAT Urira... Beti izan oi da Paris onetan ikusmiraren bat...
- FABRO Ez noa, ez, Beñat...
- BEÑAT Xabier'ren zai..?
- FABRO Aren zai nago-ta, ezin ukatuko dizut...
- BEÑAT Laister dezu, ba, emen... Baiñan.
- FABRO Zer..?
- BEÑAT Xabier ez zaizula emen geldituko..!
- FABRO Zergaitik ez, ba..?
- BEÑAT Paris'ek lilluratuta dauka Xabier... Eta aren asmoak ez dira zuen asmoak bezelakoak... Alperrik zabiltzate, Fabro.
- FABRO Ala uste al'dezu, Beñat..?
- BEÑAT Ala uste det, bai, Fabro... Askori ez bezelako burua eman zion, izan ere, arreri Jaungoikoa'k eta...
- FABRO Zer, Beñat..?

- BEÑAT Aundia dala Xabier'ek, mundu onetan, izango duan etorkizuna... Urte gutxi barru, Paris'ko irakaslerik gorenetakoa bat izango degu Xabier...
- FABRO Ez diozu gezurrik, Beñat...
- BEÑAT Agur, Fabro. Emen dezu Xabier eta.
- FABRO Agur, Beñat.
- Ikusleen ezker-aldean izkutatuko da Beñat.
- Xabier eta Mikel agertuko dira ikusleen eskubi-aldean.
- Naparra, ta Xabier'en morroia bezelakoa degu Mikel.
- FABRO Xabier..!
- XABIER Zer nai zenduan, Fabro..?
- FABRO Zurekin itz egin nai nuan, Xabier. Baiñan zurekin bakarrik, al'izatera beintzat.
- XABIER Ondo dago, Fabro. Zoatz, ba, Mikel. Laister izango naiz berriro zurekin eta...
- Ikusleen ezker-aldean izkutatuko da Mikel, baiñan ez, Fabro'ri begirasun zorrotz bat egin gabe.
- FABRO Ez du ontzat artu, Xabier.
- XABIER Ez zan orregaitik asarratuko, ez... Odol berokoak gera, izan ere, naparroak, eta begietara igotzen zaigu sarri odola... Baiñan biotz ederrekoak gera...
- FABRO Zu bai beintzat, Xabier..!
- XABIER Eta zer nai zenduan, ba, Fabro?
- FABRO Esan dizut leen ere... Zurekin itz egin nai nuan, baiñan nundik asi ez dakit... Jarri gaitean, beintzat...
- Eta klaustroko eserleku batean jarriko dira biok.

FABRO Zer asmo dituzu zuk, Xabier..?

XABIER Zer asmo dituan..?

FABRO Bai, Xabier...

XABIER Oraindik, beintzat, besteak ez-bezelako asmorik, ez..! Ikastera etorri nintzan onera... ta ikasi-beste asmorik ez det orain beintzat...

FABRO Eta geroago, Xabier..?

XABIER Zer dakit, ba, nik...

FABRO Emengo irakaslerik goreneta bat izatea, bear ba da..?

XABIER Zergaitik ez..!

FABRO Eta geroago..?

XABIER Jakin-nai aundia dezu, gaur, Fabro... Geroagoko nere asmoak..? Zer esango dizut, ba, nik..! Oraindik, beintzat, ez det orrelako asmo berezirik... Ez nituzke, ala ere, nere ezur auek Paris onetan utzi nai... Naparra naiz eta Naparro-aldera jo nai nuke urte gutxi barru... Emengoak ez bezelakoak dira ango neskatxak eta.

FABRO Ango neskatxaren batekin ezkonduko zera, ez al'da ala..?

XABIER Uste ori det beintzat..!

FABRO Ondo da go... Eta gerora zer egingo dezu, Xabier..?

XABIER Ara, Fabro... Ni ez naiz besteak ez-bezelako gizona. Ta azkenean nik ere, besteak egiten dutena, egin bearko det: il.

FABRO Egia diozu... ilko zera zu ere, Xabier. Eta eriotz-ondoren epaitua izango zera... Ta epai-artara agertzeko kezkarik ez ote-dezu izango orduan.

XABIER Eta zergaitik izan bear det, ba, keza ori..? Ez ote-

naiz, ba, kristau ona izango..? Ez ote-diot, ba, nere bizitza orretan Jaungoikoa'ri aintzarik emango..?

FABRO Eta ez ote-zenioke, ba, beste bizitza batean aintzarik geiago emango..?

XABIER Beste bizitza batean..?

FABRO Bai, Xabier... Beste bizitza batean..! ez al'dituzu Eneko'ren asmoak ezagutzen..?

Zutitu egingo da, bat-batean, Xabier.

XABIER Barkatu, Fabro..! Bañan ez det Eneko'rekin ezer txo ere nai...

FABRO Zergaitik ez..?

XABIER Nere etsaia dedalako..! Eneko'ri zor diot nik, zerbait beintzat, nere etxearen ondamendia ta nere erriaren ondamendia ere... Ta au, Fabro, ez zait, iñoiz ere, aaztuko.

FABRO Aspaldiko kontuak dira oiek, Xabier.

XABIER Aspaldikoak ez, Fabro... Ez dira-ta, oraindik itxi, orrek irikitako zauriak... Naparra naiz, eta ezin aaztu dezaket orrek ixuri-erazitako napar-odola... Ez, Fabro..! Ez det exertxo ere nai Eneko'rekin...

FABRO Ez diozu, beraz, barkatzen..?

XABIER Barkatu, bai... nere amari onela agindu niolako bein. Bañan aaztu ez..! Ezin dezaket aaztu ta..!

FABRO Bañan, Xabier... Beste gizon bat dezu gaur, Eneko..!

XABIER Bai, nai ba'dezu...

FABRO Bere gaurko asmoak, ez dute zer ikusirik, orduko Eneko arekin...

XABIER Ez, nai ba'dezu... Bañan Iruña'ko gazteluan, naparren aurka gogor jokatu zuan gudari ura, izango da

neretzako, beti, Eneko... Ta barkatu, Fabro. Zai egongo dira-ta nere lagunak... Gero arte, ba...

FABRO Gero arte, Xabier...

 Eta ikusleen ezker aldetik izkutatuko da Xabier, eta ikusleen eskubi-alde-
tik, poliki poliki, Fabro...

 ARGIEN ALDAKETA.

 Iruditegi-atzetik agertuko da Euskal-erria, ta iruditegi-erdian geldituko da...

EUSKAL-ERRIA Nun zaude, alaba..?

 Ikusleen ezker-alde-
tik eta loretegi-aurreko ertzetik agertuko da Naparroa.

NAPARROA Emen nago, ama...

EUSKAL-ERRIA Atoz, ba, neregana... Entzun det zure erantzuna, ta ez zait atsegin izan.

NAPARROA Zergaitik ez, ama..?

EUSKAL-ERRIA Gauza batzuek barkatu ta aaztu egin bear diralako... gauza oiek aizpa-arte-
ko gauzak diranean ba-
tez ere...

NAPARROA Eta nere semeak ixuri duten odola...

EUSKAL-ERRIA Nigandik artutako odola dezu ori, ere, alaba... Zuretzako bañan mingarriagoa izan da neretzako, beti, odol-ixurtze ori. Gorroto diet anai-arte-
ko bu-
rruka oieri. Pakean ikusi nai ditut nere umeak... Eta pake ori ez det ikusiko, zuen arteko gauza as-
ko aaztutzen ez dituzuten artean... Ba'dakit, Eneko izan dezula zure etsairik bildurgarriena... Bañan barkamen-eske etorri zaizu gaur... Zergaitik ez dio-
zu, ba, barkatu bear..?

NAPARROA Barkatu, bai, ama.

EUSKAL-ERRIA Barkatu, bai... ta barkatu, ez..! Zergaitik ez dio-
zu, ba, eldu, arek luzatutako eskuari..? Jaungoikoa'k bat nai ditu, Eneko ta Xabier... eta ez dira bat izan-

go zuek nai ez dezuten artean... Zorigaiztoko egin nindun Jaungoikoa'k...

NAPARROA Ama..!

EUSKAL-ERRIA Bai, alaba...

 Eta besarkatuta izkutatuko dira biak, poli-
ki-poliki iruditegi-arte-
an.

 ARGIAK PIZTUKO DIRA TA IA-BAT-
BATEAN AGERTUKO DIRA BEÑAT, IKUS-
LEEN-EZKER-ALDETIK, ETA FABRO, IKUS-
LEEN ESKUBI-ALDETIK.

BEÑAT Zer esan dizut leen, Fabro... Xabier ez da zuek uste dezuten bezelako mutilla...

FABRO Ez ote-da, ba, mutil ona..?

BEÑAT Ez da ori, nik esan nai dedana, Fabro... Nik zer esan nai dedan, ondo dakizu zuk... Bere atzetik ditu ark Paris'ko neskatxarik aderenak eta...

FABRO Zer..?

BEÑAT Ez dala erreza, alegia, aiek baztarrean utzi ta zuen asmo oiek besarkatzea... Nik ez nuke, beintzat, egingo, Fabro...

FABRO Zuk ez..! Xabier'ek ordea...

BEÑAT Arek gutxiago...

FABRO Jaungoikoa'k esango du ori, Beñat... Ez al'dezu Eneko'rik ikusi...

BEÑAT Ikusi det, bai... Beste bi gazteekin ikusi ere... Ez zera aren zai egongo ba..?

FABRO Aren zai nago, bai, Beñat...

BEÑAT Ba'noa, ortaz, Fabro...

FABRO Bildurra al'diozu, ba..?

BEÑAT Bildurra diot, bai... Euskaldun orren eskuetan erortzen danak... plast..!

FABRO Zer..?

BEÑAT Gutxienez, praille izan bearko duala.

FABRO Ez det, nik, orrelako asmorik...

BEÑAT Dana dala, nik ez det, beintzat, orren eskuetan erori nai... Ain da ederra, nik daramadan bizitza au..!

FABRO Beñat... Ez al'dituzu zuk entzun izan, Jesukristo'ren itz auek: "Eta zer zaio gizonari, mundu guzia irabazi-ta ere, bere animea, azkenean, galtzen ba'du..?"

BEÑAT Praillea izateko asmorik ez... eta "dauneko" sermoi-egiten..? Ez, Fabro, ez... Emen dezu zure laguna. Agur...

FABRO Agur, Beñat...
 Eta ikusleen eskubi aldetik izkutatuko da Beñat.
 Eneko'ren billa joango da Fabro.
 Ikusleen ezker aldetik agertuko da Eneko. Lainez eta Salmeron lagun dituala.

ENEKO Jaungoikoa'k dizula arratsalde on, Fabro.

FABRO Baita zueri ere...

ENEKO Gure lagun-taldea ugaritzen dioa, ikusten dezu-nez. Lainez dezu au, ta Salmeron beste au... Españarrak biak, Bobadilla bezela... Ba'dute gure asmoen berri, ta edozertarako daude gertu... Nun dira Bobadilla ta Rodrigez..?

FABRO Emen bertako eleizan utzi ditut.

ENEKO Etorri ditezela ba... Garrantzi aundiko erabaki batzuek artu bearrean gaude-ta.

FABRO Laister izango dira emen.
 Eta ikusleen eskubi-aldeetik izkutatuko da Fabro.

ENEKO Fabro dezute ori... Saboiatarra... Tolesgabeko gizona... Beste bietatik, españarra dezute Bobadilla, ta portugesa Rodrigez... Sei gera, ba, gaur guztiok... Ez gera asko, ez... Bañan Jesukristo'k berak ere, ez zituan batera amabi apostoluak bildu... Asmo zoroak dira gure asmo auek mundukoentzako... Bañan ezin esango det nik ezer. Munduari jarraitu izan dionik, bat izan ba'da munduan, ni izan naiz bakar ori ta...

LAINEZ Zu ta gu..! Zerk ekarri gaitu, ba, Paris onetara, munduko aundi-naiak ezik..?

SALMERON Egia diozu, Lainez... Aunditasun-naiak ekarri ninduan ni ere onera... Gaurko gure asmo auek, zuri zor dizkizugu, Eneko...

ENEKO Neri ez, Salmeron... Jaungoikoa'ren bitarteko bat besterik ez naiz ni... Jaungoikoa'ri zor dizkiogu, ba, gu-guztiok asmo on auek... Eta asmatuko al' degu, beintzat asmo on auek betetzen..!
 Bobadilla ta Rodrigez'ekin agertuko da Fabro, ikusleen eskubi-aldeetik.

BOBADI.-RODRG. Arratsalde on Jaungoikoa'k.

ENEKO Baita zueri ere... Ezagutzen ez ba'dituzute, gure lagun izango diran bi, dituzute bi gazte auek. Españarrak dira biak, Bobadilla... Eman diet zuen berria ere... Besterik gabe, ba, eldu dezaiogun gure arloari...

FABRO Ez al'dezu jarri bear, Eneko..?
 Eta Eneko erdian dutela, jarriko dira Fabro ta Rodrigez ere... Tente geldituko dira iru españarrak.

ENEKO Eldu bear diogun bizitza berriarekin pensatzen

egon naiz luzaro... Seme gaizto bat sortu zaio Eleiza'ri: Lutero... Ta Lutero'ren erakutsi gaizto oieri, arrerarik onena egiten diote gure gazteak... Emen ere, Ikastola Nagusi ontako ikasleen artean, eskuz-esku dabiltz aren idaztiak... Gudari trebeak bear ditu, ba, gaur, Eleiza'k ere... Ta Eleiza'k bear dituan gudari trebe oiek, zergaitik ez gera gu izan bear..?

FABRO Prest gaude ortarako, Eneko... Gaur bertan irtengo degu, nai ba'dezu, Palestina-aldera, ta ango baztar santu aietan egun batzuek igaro ondoren, apostoluak irten ziran bezela, irtengo gera, gu ere, munduan-zear, Jesukristo'ren berri ona zabaltzera...

RODRIGUEZ Ez degu, ortarako, ezerren-bearrik izango gañera... Eskean bilduko degu, bearko degun guztia, ta ez gaitu Jaungoikoa'k baztarturik lagako.

BOBADILLA Loreen eta txorien ardura duan Jaungoiko on orrek, izango du gure ardura ere...

ENEKO Ondo diozute... Ez naiz orren kezka... Jaungoikoa'k lagunduko digu, bai... Beartsuaren bizitza izan zan Kristo'ren bizitza, ta aren antzekoak izan bear ba'degu, beartsuak izan bear degu guk ere... Beartsuak eta garbiak.

LAINEZ Eta zergaitik ez diogu, gaur bertan egiten, gure garbitasunaren eskeintza Jaungoikoa'ri..?

ENEKO Egia daukat nik, Lainez... Jaungoikoa'renak izan bear degu, gorputz eta anima... Ta Jaungoikoa'renak izan nai ba'degu osoro, bearrezkoa zaigu garbitasunaren eskeintza ori ere...

Ba'da, ordea, egin bear degun beste eskeintza bat ere. Ez dute luterotarrak Aita Santua'ren mendean bizi nai. Ta Aita Santua'renganako menpetasunik gabe, ez dago Eleiza'ren batasunik ere... Ta Eleiza'k bat izan bear du nun-nai ta beti... Aita Santua'ren mendean ipiñiko ditugu, ba, gure buruak

eta gure izatea... Bera izango da, beti, gure laundiaren buru bakarra...

SALMERON

Buru ona...

ENEKO

Bururik onena, Salmeron... Bera bait-degu Jesukristo'ren ordezkoa... Bañan ba'da, esan nai nizuteken, beste gauza bat ere... Gure asmo aukerara eramateko ez degu geiegiko presarik bear... Gure ikaskizunak amaitu bear ditugu lenengo... Bearrezkoak izango zaizkigu ikaskizun oiek, gure asmoak aurrera eramateko ta... TA LAISTER, GURE ARTEAN, BESTE BAT IZAN DEZAGUN, OTOITZ EGIN ZAZUTE, ANAIOK... Eta naikoa izango degu gaurkoz.

Tentetu egingo dira Eneko ta beste bi lagunak...

Zoazte, ba, ta asi zaitezte otoitzean...

Eta ikusleen eskubi-aldera artuko dute guztiak.

Zaude zu, emen, Fabro... Ba'daukat zurekin egon bearra ta...

Egon al'zera Xabier'ekin..?

FABRO

Egon naiz, bai.

ENEKO

Ta..?

FABRO

Aren erriaren eta aren etxekoen etsai izan zera eta, ez duala zurekin ezer nai, esan dit.

ENEKO

Ondo dago... Etxeratu al'da..?

FABRO

Oraindik ez..!

ENEKO

Bakarrrik al-da..?

FABRO

Bere morroi antzeko ori du lagun.

ENEKO

Mikel..?

FABRO

Bai.

ENEKO Ondo dago... Zoatz zu ere, Fabro. Emen geldituko naiz ni...

Ikusleen eskubi aldetik izkutatuko da Fabro ere.

Bere erriaren eta bere etxekoen etsai... Ta egia dio, zoritxarrez..! Ala izan bait-nintzan... Gudari bat besterik ez nintzan ni orduan, eta gudari bateri zegokion bezela jokatu nuan. Alderdirik onenaren alde nere usteetan... Bañan orduan ez-bezela ikusten ditut, gaur, gauza aiek... Naparrak, ere, xabiertarrak ere, alderdirik onenaren alde jokatu zuten, noski, euren usteetan... Bidezkoa da, ba, Xabier'ek didan ezin-ikusia. Bidezkoa benetan..! Nere orduko ametsak, amets ustelak ziran... Aundikeri-naiak narabillen... Eta Jaungoikoa'k bakarrik daki, aundieri-nai ori nere buruari ukatzeak, zenbait lan eman didan...

Gurea izan bear du Xabier'ek... Gure artean nai du Jaungoikoa'k... Eta gure artean ikusten ez dedan artean, ez det utziko...

Argi egin zaiozu, Jauna, neri argi egin ziñidan bezelaxe...

Begiak zeruan josirik, geldituko da Eneko.

Xabier eta Mikel agertuko dira ikusleen eskubi-aldetik.

Xabier ondora iristen zaionean, esnatu bezela egingo da Eneko...

ENEKO Xabier..!

Ez dio Xabier'ek kasorik egingo.

ENEKO Xabier..!

Gogoz-kontra ba'da ere, iruditegi-ertzean geldituko da Xabier... Ez dio Eneko'ri arpegirik emango.

MIKEL Ilko al'det, Xabier..?

Begirasun zorrotz bat zuzenduko dio Xabier'ek Mikel'i... Beste ezer gabe izkutatuko da Mikel ikusleen eskubi-aldetik.

ENEKO Zurekin egon nai nuke, Xabier...

Eta Xabier'engana urreratuko da Eneko.

XABIER Alperrik egongo zera...

ENEKO Eta zergaitik, ba, ori, Xabier..?

XABIER Ondo dakizu zuk. Nere erriaren eta nere etxekoen ondamendia ez zait oraindik aaztu. Eta ez zait aaztuko ere... Ta zuk dakizu, zenbaiterañoko ikusia dezun zuk, ondamendi oietan... Zu ta ni, ez gera, iñoiz ere, lagun izango. Anaiak izateko jaio giñan biok, bañan etsaiak gera alkarrenganako. Ta ez da nere, errua...

ENEKO Xabier, gaur ez daramat ezpatarik, leen eraman oi nuan bezela.

XABIER Gizonaren biotza ez da ain aldakorra, Eneko..!

ENEKO Ez, Jaungoikoa bitartean sartzen ez ba'da... Xabier, mesede bat-bakarra eskatu nai dizut. Ez nazazu lagun bezela artu, nai ez ba'dezu. Bañan paper auek irakurri bear dituzu. Irakurri ta oldoztu. Ez dizut besterik eskatzen... Zer zaio gizon bateri, Xabier, mundu onetan aundia izatea, bere anima galtzen ba'du gero..? Tori, ba, Xabier...

Eta kolkotik atera ta emango dizkio Xabier'i, ondo bilduta dauzkan, paper batzuek... Otz-artuko dizkio Xabier'ek.

ENEKO Ta orain, zoatz, nai ba'dezu... Agur, Xabier.

Ezer esan gabe, izkutatuko da Xabier ikusleen eskubi aldetik.

ENEKO (Otoitzean bezela).

Egin det nik nere... Emendik aurrerako lana, zure lana dezu, Jauna...

Ta ikusleen eskubi-aldetik izkutatuko da Eneko ere.

ARGIEN ALDAKETA.

Gipuzkoa ta Naparroa'ren erdian agertuko da Euskal-erria iruditegi-atzetik.

Iruditegi-erdian geldituko dira irurak.

EUSKAL-ERRIA

Entzun zaidazute, alabak... Ba'zan zazpi umeren aita zan gizon bat. Basarri ederra zuan bizi-leku... Azi ziran umeak... Asi ziran ezdabaidak ere, ume oien artean...

Eta aita-zaar ark lotu zituan, bein, zazpi akullu lo-karri sendo batekin, eta onela itz egin zien zazpi seme aieri: "Ea nork dezuten zazpi akullu auek austeko indarrik"... Alegiñak egin zituzten zazpi ume aietako bakoitzak, bañan akullu aiek austeko ez zan inor gauza izan... Aita zaarrak, orduan, lokarria askatu, ta akulluak banaka artuta, batere nekerik gabe, ausi zituan zazpi akulluak.

"Ona zer gertatu oi dan, beti ere, esan zien bere umeeri. Zuek ere, alkartuta irauten ba'dezute, ez da munduan zuek austeko indarrik izango. Bañan zuetako bakoitzak bere aldetik ekiten ba'dio, ume baten indarrak naikoak izango dira zuek danak austeko"...

Ni nauzute aita zaar ori. Zazpi semeak, zuek zerate nere zazpi alabak... Alkarturik bizi nai ez ba'dezute, zuenak eta nereak egin zuan.

Zergaitik luzatu bear ez diozu zure esku ori, Naparroa, ain maiteki berea luzatu izan dizun zure aizpa Gipuzkoa oneri..?

Ez dago, ba, beste biderik, edo alkartu, edo il..!

NAPARROA

Il ez, ama..!

EUSKAL-ERRIA

Alkartu, ba.

Ta Euskal-erria'ren aurrean alkartuko dira Naparroa ta Gipuzkoa.

EUSKAL-ERRIA

Onela, bai... Onela irauten ba'dezute beti, egun-on-aundi asko emango diozute oraindak zuen ama zaar oneri. Mundu guztian ezaguna izango da nere izena, zueri eskerrak, nere alaba maite oieri...

ZAPIA

LAUGARREN EKITALDIA: ERROMA

Antzezleriak:

ZALDUNA	Aberatsa.
LAINEZ	J. L'ko Aita.
I JESUITA	
II JESUITA	
BI GIZON	Gizon auek ez dute itzerik egiten.
I ANAIA	J. L'ko anai bat.
GAZTEA	Arlote-antzekoa.
ENEKO	
FABRO	J. L'ko Aita.
II ANAIA	J. L'ko beste anai bat.
KARDENALA	
XABIER	
EUSKAL-ERRIA	
NAPARROA	
GIPUZKOA	

Erroma. Jesus'en Lagundi'ko etxe bateko egurastokian.

- ZALDUNA Ta..?
- LAINEZ Okerragorik ez dauka. Egunero jaikitzen da, ta egunero ematen du Meza beintzat... Ementxen igarotzen ditu, gero, eguneko ordurik geienak... Ez du leengo osasunik, egia esan, baña leen-bezein ar-gia gordetzen du bere burua.
- ZALDUNA Bearra ere izango du.
- LAINEZ Bai... Ez berak ala nai zualako, baña bera aukera-tu genduan gure Lagundi'ko zuzendari. Bere gain ditu, ba gaur, Lagundi'ko gora-bera guztiak... Gogo-jardunak zuzentzea atsegin zitzaion leen, orain ez du ortarako astirik ere, artzen... Ba'du gurekin naiko lan...
- ZALDUNA Barkatu, aita... "Gogo-jardunak" esan dezu, ez al da ala?
- LAINEZ Bai, ala esan det..!
- ZALDUNA Askotan entzun izan diet nere laguneri izen ori..! Egiñak dituztela aiek gogo-jardun oiek, eta nik, ere, egin bear nituzkeala, esan oi didate sarri... Zer dira gogo-jardun oiek, aita..?
- LAINEZ Ez al'dituzu, an, baratz-ertz artan, gizon batzuek ikusten..?
- ZALDUNA Bai..!
- LAINEZ Gogo-jardunak egiten ari dira, ba, gizon aiek... Zer diran jakin nai ba'dezu, ba, atoz zu ere... Egin ez dituanak, ezin lezake jakin-da, gogo-jardun oiek zer diran.

- ZALDUNA Alperrikoak izango dira onuzkero neretzako, or-dea...
- LAINEZ Zergaitik izan bear dute zuretzako alperrikoak..?
- ZALDUNA Ez al'dira, ba, gogo-jardunak bizi-era aukeratzeko egiten, batez ere..! Aspaldi aukeratu nuan nik ne-bizi-era, aita... Ta alarguntzen ez ba'naiz, ez daukat beste aukerarik...
- LAINEZ Ez zaude ondo, lagun... Ortarako ta beste gauza askotarako dira gogo-jardunak... Ba'dezu zuk aintbesterañoko astia, ta nere konseju on bat artu nai ba'dezu, ona emen konseju ori: atoz zure emaztearekin... Eta beste zuzendaririk arkitzen ez'ba'dezute, nik zuzenduko dizkizutet biori gogo-jardun oiek.
- ZALDUNA Emazteari ta neri..?
- LAINEZ Eta zergaitik ez ba..? Ez zaizute ortik kalterik etorriko... Danok degu zuzendu bearreko zerbait... Eta zuek ere izango dezute noski...
- ZALDUNA Zaila irizten diot zure nai orrei, aita..!
- LAINEZ Zaila ez..! Gure barrua aztertzeak ematen digu batzuetan bildurra... Ta azertu bearrekoa da gure barrua...
- Ikusleen eskubi aldetik agertuko dira Jesuita bat eta gizonezko bat.
- I JESUITA Bai... Zutzaz kanpoko beste gauza guztiak, zuretzako egin zituan Jaungoikoa'k... Zuretzako osasuna, zuretzako aberastasunak, zuretzako beste gizon eta emakumeak, zuretzako abereak eta mundu ontako beste gauza guztiak. Bañan ez zuk nai dituzun bezela erabiltzeko, ez..! Gauza guzti auek, zuk iritxi bear dezun azkena iristen, lagundu bear dizute. Ta au da, gaur, gogoz pensatu bear dezuna: zure osasun, zure aberastasun oiek, zuk gizon eta emakumeekin dituzun artu-eman oiek, zerurako bi-

dean ipintzen al'zaitue..? ala zerurako bide ortatik apartatu egiten al'zaitue..? Ez zera Jesukristo gure Jauna'k bein esandako arekin aaztu bear: "zure begietatik batek pekatuetara bultzatzen ba'zaitu, atera ezazu begi ori. Obe dezu begi-bakar zerura joan, bi begiak gordetzearren inpernura joan ba'ño".

Ta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira I Jesuita ta gizon au.

Beste Jesuita bat (II) eta beste gizon bat agertuko dira ikusleen eskubi-aldetik.

II JESUITA

Guzti au egin zuan Jaungoikoa'k zugatik. Zoaz, ba, orain eleizara... ta Jauna'ren aurrean, an, ikusi ezazu, zer egin dezun zuk, Jaungoiko orregatik... eta zer egin bear dezun emendik aurrera...

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira auek ere.

ZALDUNA

Ba'noa ni, ere, aita...

LAINEZ

Zer ba..?

ZALDUNA

Entzun ditudanak, naikoa ditut gaurkoz... Leen bildur ba'nintzan, gaur bildurtiago. Garbi asko ikusi bait-ditut gogo-jardun auek zer diran...

LAINEZ

Ez da egia izango..?

ZALDUNA

Bai, aita, bai... Gauza oiek ondo pensatuta, ez dago, gaurko mundu onetan, lasai bizi izaterik... Pensamentu oiek onbideratu zuten Eneko, ez al'da ala..?

LAINEZ

Eneko... ta Eneko ez diran beste asko, ere, bai... Gogo-jardun auek ekarri ziguten Xabier ere... Izan ere, ez du gizonak bere barrua aztertzeke bildurrik izan bear... Mundu guztia irabazita ere, zer zaio gizonari, bere anima galtzen ba'du azkenean..?

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira Lainez eta Zalduna...

Euek izkutatu bezin laister, agertuko da ikusleen ezker-aldetik Jesus'en Lagundi'ko anai bat. (I Anaia). Eneko etorriko danerako, lekua antolatzeraz dator. Eserlekuak-eta, beren lekue-tan ipintzen ari dan artean, arlote-antzeko gazte bat agertuko da ikusleen eskubi-aldetik.

GAZTEA

(Bildurtuta bezela).

Barkatu, aita...

I ANAIA

Ez nauzu ni aita. Lagundi'ko anai bat besterik ez nauzu ni...

GAZTEA

Berdin zait... Orrelako zerbait izan nai nuke nik ere, ta galdera bat egin nai nizuke... Munduan ez daukat ezer askorik. Mundu au uzteak, ez nau, ba, bildurtzen. Lagundi-barruan "egingo" naizen ala ez, orrek bildurtzen nau... Egingo ote-nitzake ni barrurako..?

I ANAIA

Kezka berdiña izan nuan nik ere... Ta orduan neri esan zidatena, esango dizut nik ere, orain. Jesus'en Lagundikoa izan nai duanak, gorputz-illa bezelakoxea izan bear du...

GAZTEA

Gorputz-illa bezelakoa..?

I ANAIA

Bai... Ipintzen duten lekuan, ipintzen dutela, antxen egon oi da ildakoaren gorputza, ta ez du itzerik ere esaten. Onelakoxea izan bear omen-du Jesus'en Lagundikoak ere: ikastera bialtzen baldin ba'dute, ikasi... gaixoak zaintzera bialtzen baldin ba'dute, gaixoak zaindu. Indietara mixiolari, Xabier bezela, bialtzen baldin ba'dute, Indietara mixiolari joan... eta neri bezela etxeko edo baratzako lanak egiteko agintzen baldin ba'diote, lan oiek egin. Eta oiek danak itzerik esan gabe... Orregatik, ezer ukatu bear ba'du Jesus'en Lagundi'ko batek, bere borondatea, bere naimena ukatu bear du... Ta auxe da, esaten dutenez baintzat, Lagundi'ko gauzarik zailena.

GAZTEA

Errezena ez beintzat...

I ANAIA

Jaungoikoa'k laguntzen du, ordea.

Eta ikusleen eskubi-aldetik izkutatuko dira I Anaia ta Gaztea...

Fabro lagun duala, agertuko da iruditegian Eneko ikusleen ezker-aldetik.

ENEKO

Auxen det, Fabro, oraingo nere lekurik maiteena... Joan ziran nere gorputzeko indarrak. Gaixotasunak menperatuta nauka. Ez naiz denbora askorako izango... Zeru ederra ikusten det emendik... eta zeru ortara begiratzen dedan bakoitzean, iguingarriak iruditzen zaizkit mundu ontako gauza guztiak... Zerurako gogo bizi bat nabaitzen det nere barnean... Eta ala ere, Fabro, Jaungoikoa'ren alde zerbait egiteko gauza ba'nintz, pozik geldituko nintzake mundu onetan, mundu onek iraungo duan arteraño. Bai-eta orrekin nere zeruratzea, arriskoa ipiñiko ba'nu ere...

FABRO

Ez da ori, egia izango, aita..?

ENEKO

Bai, Fabro... Urte asko bota izan ditut Jaungoikoa'gandik urruti... Nere orduko uts-egiteak barkatu dizkidala Jaungoikoak', ziur-ziur nago. Bañan... Jaungoikoa'ren morroia-izatea, ez al'da gizonak, mundu onetan, daukan eginbearrik nagusiena..? Jaungoikoa'ren morroia izan nai nuke nik orain, eta Jaungoikoa'ren morroia, munduak iraungo duan arteraño... Naiko asti izango degu, gero ere, zerurako... Ala ere, egin bedi neregana Jaungoikoa'k nai duana...

FABRO

Zuregan eta guregan, aita.

Eta biak eseriko dira.

ENEKO

Ondo diozu, Fabro... Zuengan ere bai... Ezer maite ba'det, zuek maite zaituztet, gaur, nere Lagundi'ko anai oiek... Eta askotan egoten naiz, emendik Batikano-aldera begira... An bizi zaigu Jesukristo'ren ordezkoa dan gure Aita Santua... Ta Aita Santu orrek aginduko ba'lit, gaur bertan deseginduko nuke ainbait maite dedan Lagundi au...

FABRO

Ez dizu, ordea, orrelakorik aginduko... Lagundi au, ez da guk sortutako Lagundia, Jaungoikoa'k sortutakoa baizik... Gogoan ditut oraindik Paris'eko gure lenengo batzar aiek... Gure orduko ametsak, guk amestu ez bezelakoak irten zaizkigu. Jerusalem'era joan-bear genduanok, Erroma'n gelditu bear izan genduan. Emen nai giñuzen Jaungoikoa'k, ikusten danez. Ez gaitu, ba, bere eskutik utziko..!

ENEKO

Ez, guk bera, uzten ez ba'degu, Fabro.

Ikusleen ezker-aldetik agertuko da II Anaia.

II ANAIA

Barkatu, aita... Kardenal Jaun Batek egon nai luke zurekin.

ENEKO

Kardenal Jaun batek..?

II ANAIA

Bai, aita... Ta emen zaudela jakin duanean, ez du etxean gelditu nai izan... Eta emen dator nere ondoren...

Ikusleen ezker-aldetik agertuko da Kardenala.

Arangana urbilduko dira Eneko ta Fabro. Belaun bakarrarekin belaunikatuko dira ta muxu emango diote eraztunean.

Ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da II Anaia.

ENEKO

Ongi-etorria izan bedi gure artera.

KARDENALA

Eskerrikasko, Eneko. Nik merezi ez bezelako arrera ona egiten didazu. (Irriparrez). Zure etsairik aundiena izan nintzala garai batean, aaztu egin al'zaizu..?

ENEKO

Ez da ori egia, Jauna... Bere eginbearra betetzen duana, ez da nere etsaia... Ta bere eginbearra betetzea besterik ez zuan beorrek egin.

KARDENALA

Ala uste al'dezu, Eneko..?

ENEKO

Ez ori bakarrik. Beorri zor diogula gure bizitza ere. Beorri ez izatera, Lagundiri'k ere, ez genduan

- gaur izango, bear ba'da ta... Ainbait etsai izan ditugu..!
- KARDENALA Egia diozu, Eneko... Etsai asko izan dituzu... bañan lagunak ere, bai...
- ENEKO Bai... Jaungoikoa izan det, batez ere, lagun...
- KARDENALA Eseri gaitean... Aspalditik neukan zurekin itz-egiteko gogo... Nik ere, nere barrenari, lasaitu bat eman nai diot... Ez nauzute, beraz, etsai..?
- Kardenala erdian dutela eseriko dira irurak.
- ENEKO Ez, Jauna, ez...
- KARDENALA Ala ere, garbi itz egingo dizutet... Zuen berri jakin nuanean, zuen aurka bezela jeiki nintzan ni ere. Zertarako bear genduan Eleiza'n Ordena berri bat..? Ez al'ziran leengoak naiko..? Onela pentsatzen nuan nik orduan... Eta zuen aurka jeiki ba'nintzan, jeiki nintzan bai... Ez det inoiz, orduan aña eskutitza artu... Ba'dezu munduan laguna galanki, Eneko. Ta nolako lagunak gaiñera... Zure alde zenituan errege ta munduko gizonik aundienak... Apaiz izan-aurretik, gudari izan ziñan, bai.
- ENEKO Ezin ukatu..! Ala ere, lagun oiek billatzearekin, pekaturik egin nuanik, ez det uste... Berak egin lezaken guztia egitea, gizonari dagokiona da. Berak ezin lezakeana, ori da gizonak Jaungoikoa'ri laga bear diona. Ta ori besterik ez nuan nik egin... Lagun asko izan nituan, bai... bañan Jaungoikoa lagunena.
- KARDENALA Egia diozu, Eneko... Jaungoikoa lagunena... bestela...
- FABRO Bestela zer, Jauna..?
- KARDENALA Sortzeko bear zuala oraindik zuen Lagundia'k..!
- FABRO Bai..?

- KARDENALA Bai, Fabro, bai. Berritzalleeri bildur aundia die Elizak. Eta ba'du zergaitik bildur ori izan... Izen orrekin agertu zan Lutero ere... Ta nork ez ditu ezagutzen, arek Eleiza'ri egindako kalteak..? Eta zuek izen ori ekarri ez ba'zenduten ere, zuen araudiak ori esan nai zuten beintzat.
- ENEKO Ala uste al'du..?
- KARDENALA Bai, Eneko, bai... Beste prailleak bere jantzi-berezi bat aukeratzen dute, ta zuek apaizen jantzia aukeratu zenduten zuentzako... Beste prailleak iru edo lau urteetarako aukeratzen dute euren Aita Nagusia, ta zuek bizi dan arteraño aukeratzen dezute. Beste prailleak iru eskeintza besterik ez dituzte egiten, ta zuek lau egiten dituzute. Beste prailleak ordu-bereziak izan oi dituzte euren otoitzak elkarrekin egiteko, zuek ez dezute ortarako ordu berezirik... Auez gaiñera, zu beintzat, Eneko, iru edo lau aldiz espetxean egona zera, zure erakutsiak, sinismenaren erakutsiekin batera ez ote-ziran etortzen eta... Ez ote-ziran gauza guzti auek, beste berritzalleen batzuek ez ote-ziñaten, pensa erazteko lain..?
- ENEKO Bai... Egia diozu... Bañan betiko-leloan jardun bear ote-du, ba, beti, Eleiza'k..? Ez ote-du Eleiza'k, bere lana egiteko era, berritu bearrik..?
- KARDENALA Bai, Eneko... Ta zuen lana-egiteko era au ikusita gero, ez dauka Eleiza'k, zergaitik ontzat eman-ez, zuen Lagundi au... Zuen alde dezute, gaur, Aita Santua. Ta zuen alde nago ni ere... Gaixo artean, Ikastola Nagusietan eta mixio-lurraldeetan egiten dezuten lana, arrigarria da benetan... Ta mixioak aitatu ditugun ezkerro, ba al'dezute Xabier'en berririk..?
- ENEKO Bai, Jauna... ta berri onak ditugu... Aundiak izango dira, aren ango lanak..! Eskua jaso ezin aña, nekatzen zitzaiola besoa, egiten zituan bataioen-ba-

taioz, idazten zidan bein batean beintzat eta... Ala ere, ez zitziola gaizki etorriko ta, onuntz aldera etorri bat egiteko esaten nion nere azkeneko eskutitzan.

KARDENALA

Pozik egongo nintzake arekintxe ere...

FABRO

Etortzen ba'da...

KARDENALA

Ondo dago, ba, Fabro... Ta gaurkoz naikoa izango det... (Eneko'ri) Zuk ez daukazu zergaitik mogitu, Eneko... Fabro'k lagunduko dit aterañio...

ENEKO

Eskerrikasko, Jauna... Ez al'nau bedeinkatuko..!

KARDENALA

Pozik bedeinkatuko zaitut, bai... Ta nere onespen au, zure gain bezelaxe, izan dedilla zure Lagundi'ko guztien gain.

Belaunikatu egingo dira Eneko ta Fabro.

KARDENALA

(Tente).

Benedictio Dei omnipotentis, Patris et Filii et Spiritus Sancti descendat super vos et maneat semper...

ENEKO-FABRO

Amen.

KARDENALA

Etorriko naiz berriro ere.

ENEKO

Nai duanean, etorri.

KARDENALA

Agur, Eneko.

ENEKO

Agur, Jauna...

Ikusleen ezker-aldeetik izkutaiko dira Kardenala ta Fabro.

ARGIAK ALDATU ta ikusleen ezker-aldeetik agertuko da Gipuzkoa iruditegi-atzean.

Ez du Eneko'k ikusiko...

GIPUZKOA

Berri txarrak dakarzkizut, Eneko... Txina'ra joan naiean, Txina'tik gertu dagoan Sancian'go ugar-tean, azkenekotan dago Xabier... Ez du morroi bat beste lagunik... Txina'ra nai du. Txina'n nai luke

kristautasun-azia, orain, erain. Eta Txina'ra eramango duan txalopa baten zai dago... Ez du zure azken-eskutitzik artu...

Mixiolari bezela irabazi duan betiko atsedena, Jaungoikoa'k leenbaitlen eman dezaion, otoitz egin zazute, Eneko...

Agertu dan lekutik izkutatuko da Gipuzkoa.

LEENGORA BIURTUKO DIRA ARGIAK.

ENEKO

Xabier..! Nere kutunetan kutunena... Ez zaude, ez, bakarrik..! Zurekin dezu Jaungoikoa. Zurekin izan dezu egunero nere oroimena. Zurekin dituzu zure ama xamurraren otoitzak. Zurekin Naparroa ta zurekin Euskal-erria osoa... Min det zure eriotzean... Ez det zurekin berriro, munduan, euskerat itz-egiterik izango... Bañan Xabier... laister naiz ni ere, zure ondoan... Eta zeru-goitik zainduko degu biok gure Lagundia, gure Euskal-erria.

Eta otoitzean bezela geldituko da Eneko une batzuetan.

Fabro agertuko da gero, ikusleen ezker-aldeetik. Eneko otoitzean ari dala ikustean, arengana urreratzeko kezkatzen bezela geldituko da Fabro.

ENEKO

Zure bear naiz eta, atoz, Fabro...

FABRO

Zer dezu, aita..?

ENEKO

Nik ezer ez..! Xabier, ordea...

FABRO

Ez zenduan, ba, Xabier'en eskutizarik artuko.

ENEKO

Ez..! Bañan estu dagoala Xabier, azkenekotan, bear ba'da, esaten dit biotzak... Goazen, ba... Bildu ditzagun etxeko guztiak, eta otoitz egin dezaigun Jaungoikoa'ri bere alde... (Jeikiatz). Laister egin bearko dezute nere alde ere, Fabro... Emen, Erroman'n, Euskal-erri'tik urruti, utziko ditut nik nere ezurrak, Xabier'ek, an, urruti aietan utziko dituan

bezelaxe... Gure lurraren maitaleak gera euskal-dunok, eta gure lurraldetik kanpora il bearrak, beti ematen digu min-pixka bat biotzean. Ala ere egin bedi guban Jaungoikoa'ren borondatea... Fabro, gu il-da gero, gure Lagundi'ko bat Euskal-erri'ra joango ba'litz, berea bezela artu dezala Euskal-erria... Bereak izango bait-ditu beti Xabier eta Loiola...

Ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko dira biak. Ikusleen eskubi aldeetik agertuko da I Anaia.

Iruditegi'ko eserlekuak baztartzan dituanean, ikusleen ezker-aldeetik izkutatuko da au ere.

ARGIEN ALDAKETA...

Iruditegi-atzeko zapia jasotzen danean, ondartzatza itxura artuko du iruditegiak.

Xabier agertuko da iruditegi-ertzean, ikusleen ezker-aldeetik. Oso eroria dago. Bere morroi, Antonio'ri eskerrak, dago tente. Gurutza dauka eskubiko eskuan.

Euskal-erria erdian daukatela, agertuko dira, iruditegi-atzean, Gipuzkoa ta Naparroa.

Ikusleen aldeetik dago itxasoa...

XABIER

Lausotuak daude nere begiak, Antonio... Ez det ezer ikusten... Begira zuk itxasora... Ez al'da, gu Txina'ra eramango gaituan txaloparik ageri..?

ANTONIO

Ez, aita... Ez da itxaso guztian txalopa bat ere, ikusten.

XABIER

Begira ezazu ondo, Antonio... Kristau-izateko gure zai daudenak, millaka ta millaka dira Txina'ko lur oietan. Ez nuke il-nai, arutz joan gabe... Antonio, ez al'da txaloparik agiri..?

ANTONIO

Ez, aita, ez da agiri..!

XABIER

Eta zer erantzun bear diot nik Jaungoikoa'ri..? Esku-eskuetan ipiñi dizkit Txinatar oiek..! Pauso bat besterik ez dago emendik ara, ta ez ote-det, ba, pauso ori emango..? Goazen, Antonio. Egin dezagun kristau, erri ori.

ANTONIO

Ezin, ordea, aita. Txalopa bat ere ez da ageri itxaso guztian ta...

XABIER

Goazen, Antonio... Goazen poliki-poliki...

Antonio lagun, nekezo pauso batzuek emango ditu Xabier'ek.

Iruditegi-erdira iristen danean, ondarratan, eta Euskal erria'ren oñetan, eseriko da poliki Xabier.

XABIER

Alperrik da, bai, Antonio... Ez daukat indarririk... Ez daukat Txina'ra joaterik... Ez ote-luteke txinatarrak nere abotsa entzungo... (Ta gurutza jasoz). Ona emen, txinatar maiteok, egiazko Jaungoiko onaren irudia. Maite ta gurtu ezazute...

Eskua jeitxiko du lenengo, ta gero, poliki-poliki etzango da luze ondarratan. Arri aundi bat izango du buruko, burua jasorik euki dezan...

XABIER

Agur, Antonio... Agur txinatar maiteok... Agur, ama... Agur, Naparroa... Agur Euskal-erria... "Aita garea... zeruetan zaudena... Santifikatua izan bedi zure izena... Egin bedi zure borondatea"....

Burua pixka-bat alboratu, ta illik geldituko da Xabier...

Iruditegiko guztiak belaunikatuko dira.

Lur-gañean luze gelditu dan Xabier'en ezkerreko eskuari muxuka ekingo dio Antonio'k.

EUSKAL-ERRIA

Il da zure semerik leialena, Naparroa... Zurea dez... Itxi zaizkiozu, ba, zuk, begiak...

Eta Euskal-erria'k esan bezela, egingo du Naparroa'k.

EUSKAL-ERRIA

Laister egin bearke dezu, zuk ere, Eneko'rekin, nere alaba Gipuzkoa orrek, zure aizpa onek Xabier'ekin orain egin duana...

ZAPIA

1959'garren urteko Dagonilla'n.

V.
LEEN BEAR ZUAN..!

LEEN BEAR ZUAN..!

Antzezlariak:

ON YOSEPE	60 urteko apaiza.
ON IXTEBEN	Apaiz gaztea.
MATXIN	Graxiana'ren senargaia.
GRAXIANA	Matxin'en andragaia.
IZPARRINGI-SALTZALLEA	
I GIZONEZKOA	Jaun-antzeko gizona.
II GIZONEZKOA	Jaun-antzeko gizona.
GAXUXA	40 urteko alarguna.
MIKEL	Gaxuxa-kideko ola-idazlaria.
YANETA	18 urteko neskatxa ederra.
ON MIKOL	60 urteko ola-nagusia.
XALOME	50 urteko emakumea.
KAXILDE	Xalome'ren laguna.
PETTAN	On Yosepe'ren laguna.
PETRI	Mutil gazte ederra.
BI BORRERO	

Bi erdika ditu iruditegiak.
Ikusleen ezker-aldeko erdia, zumardi bat da. Ta zumardietan oi diran aulki luze oietako batzuek (gutxienaz bi) ikusiko dira bertan.

Ikusleen eskubi-aldeko erdia, lan-gela bat da. Bi mai ta aulki batzuek ikusiko dira bertan. Mai auetako baten gañean, urrutizkiña egongo da, ta idazteko makinea bestean.

Iruditegi-erdian, eta aurre-xamarrean, gizon bat zutik egoteko laingo mala bateko lauki bat.

Iruditegi-atzeko sarrera, erdi ate ta erdi zumardi izango da.

Iruditegia irikitzean On Josepe ta On Ixteben egongo dira bertako lan-gelan.

- ON JOSEPE Ez, On Ixteben. Ez dituzu gauza oiek ain estu artu bear..!
- ON IXTEBEN Nola ez ditut, ba, artuko, On Yosepe. Gaur bertan urkatuko dute bear ba'da.
- ON JOSEPE Eta zer..?
- ON IXTEBEN "Eta zer" diozu..? Ez al'da zure biotzean errukirik, On Yosepe..?
- ON JOSEPE Bai, On Ixteben, bai. Bañan errukiaz gain...
- ON IXTEBEN (Gaiztoz).
Zuzentasuna..! Ez al'da ala..?
- ON JOSEPE Bai, ala da..!
- ON IXTEBEN Zuzentasun ori da, ba, nik iñundik ikusten ez dedana, On Yosepe. Zuzentasuna! Gorrotatzen, ere, asi naiz ia izen ori. Izen orren babesean egiten baitdira munduan zuzengabekeririk aundienak. Eta gaur egingo dan au, ez da zuzengabekeri oietan txikiena izango..!
- ON JOSEPE Ez al'du, ba, gizon bat ill..?

- ON IXTEBEN Bai..! Ta ez du aitortzeko lotsarik izan ere...
- ON JOSEPE Eta eraille batek ez al'du urkamendia merezi..?
- ON IXTEBEN Gure gaurko legeetan bai..! Ta ez naiz orren aurka. Bañan...
- ON JOSEPE Zer..?
- ON IXTEBEN Ara, On Yosepe..! Esan nai dizudana, esaten asmatuko dedan ere, ez dakit. Bañan gaurko gure epailleak, Pilatos'ena errezegi egiten ote duten, nago: "or konpon" esan eta eskuak garbitu... Ta epailleak bakarrik ez, guk ere bai, On Yosepe.
- ON JOSEPE Zergaitik diozu ori..?
- ON IXTEBEN Eraille bat epaitzean, ez dalako naikoa eriotz bat egin duan edo ez, jakitea..!
- ON JOSEPE Zer geiago jakin bear da, ba..?
- ON IXTEBEN Eriotz ori zergaitik egin duan..! Eriotz ori egitera, nork bultzatu duan..! Eta jakin-bearreko beste gauza asko..!
- ON JOSEPE Ez dizut ezer ulertzen, On Ixteben..!
- ON IXTEBEN Ez da erreza, On Yosepe..! Ortarako espetxean egon bear da, ta aiek esaten dutena entzun..! Amaika aldiz makurtu-bearra izan det nere burua lotsaren-lotsaz. Gaizkille gutxi izango lirake munduan, guk egingo ez ba'ginduzke, On Yosepe..!
- ON JOSEPE Guk..?
- ON IXTEBEN Guk bai, guk..! Eta barkatu nere itz auek..! Ara On Yosepe. (Eta mai-iguruko aulki baten eseriko da). Jesukristo gure Jauna'ren itzak dira, ainbeste aldiz irakurri ta erriari azaldu dizkiogun itz auek: txiki bati jaraibide txar bat ematen dion guztiak, errota-arri bat lepoan lotu, ta itxasora botatzea merezi duala..! Ta itz auek azaltzean, umeke-riak besterik ez ditugu orain-artean esan. Jarraipi-

de txar bat ematea, besoak edo balaun-buruak agi-
rian ibiltzea ba'litz bezela... Ez, On Yosepe, ez..!
Jarraibiderik txarrena, arria bota ta eskua izkuta-
tzen duten oiek ematen dute... Ta oietako asko
ditugu guk gure eliztar-artean eta "santu" itxuran,
zoritxarrez..!

Apaiz biak izketan ari diran bitartean, Ma-
txin eta Graxiana agertuko dira iruditegi-atze-
tik eta zumardiko aulki-luzeetako batean eseri-
ko dira biak. Eta ixil-kontuetan ekingo diote
goibel.

ON JOSEPE

Atseden pixkat artu bear zenduke, On Ixteben.

ON IXTEBEN

Artu-bear, bai..! Lertu-bearrean daukat burua, zo-
ratzeko zorian... Nun da, On Yosepe, gure kristau-
tasuna..? Nun gure alkarganako maitasuna..? Nun,
On Yosepe, nun..?

ON JOSEPE

Goazen emendik, On Ixteben.

Izparringi-saltzallea agertuko da iruditegi-
atzetik, eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da
iruditegi-muturrean.

Deadar au egingo du, bi edo iru aldiz, ibi-
llaldi bitartean.

IZPARRINGI-SAL

Eriotz epaia Petri'ri..! Eriotz epaia Petri'ri..!
Eriotz epaia Petri'ri..!

ON IXTEBEN

Goazen, bai, On Yosepe.

Eta iusleen eskubi-aldetik izkutatuko dira
biak.

MATXIN

Egin dute azkenean berea, ta kezkarik txikienik
gabe oeratuko dira gañera... Ez al'da Jaungoioa'ren
zuzentasuna, gizonarena bezelakoa izango..! Zuk
ez dakizu zer dan ori, Graxiana. Zuk ez dakizu
iñungo maitasunik-gabe mundu ontan bizi izatea
zer dan..! Nik bai..! Alaxen bizi bait-nintzan ni
ere, zu ezagutu-ez artean. Eta egun asko, illabete,
asko igaro izan nituan nik, ere, espetxean...

GRAXIANA

Bañan zuk ez zenduan eriotzarik egin..!

MATXIN

Ez, ez nuan eriotzarik egin. Bañan...

GRAXIANA

Zer..?

MATXIN

Ezer ez, Garxiana... Zuk ezin lezakezu ulertu gure
orduko izkuntza. Espetxeratueri ere, biotz bat eman
izan die Jaungoioa'k. Maite nai luken biotza, ta
maitatua izan nai luken biotza.

Aiek ordea, nik ez dakit zergaitik, sasikumeak dira-
lako bear ba'da, bañan ez daukate iñor maitatzerik
eta ez ditu iñork maite. Ta arri biurtzen zaie biotza
nai ta nai-ez..! Zergaitik eskatu bear die aieri mun-
duak, sekulan eman izan ez dien gauza bat..?

Eriotzarik egin ez dedala, esan dizut leen. Eta egia
da..! Bañan ez ote nuan egingo zure maitasunik
izan ez ba'nu..?

GRAXIANA

Ez, Matxin, ez..!

MATXIN

Errez diozu zuk... Zuk ez dakizu maitasun-ezak
biotz batean egiten duan lana... Etxe on bateko
alaba zera zu. Sukalde epelde batean zure gura-
soak azia... Guk ez degu orrelako ezertxo ere,
ezagutu. Ez gurasorik, ez sukalde epelik, ez anai-
arrebarik... eta gure gaixo-aldietan ez degu iñor
gure alboan euki. Bide baztarreko arri bat baño
gutxiago izan gera gu munduarentzat.

Eta zergaitik eskatu bear digu, gaur, munduak gu-
ri, zuri aña? Zergaitik, Graxiana..?

Ikusleen ezker-aldetik eta iruditegi-mutu-
rrean agertuko da Izparringi-saltzallea, ta irudi-
tegi-atzean izkutauko da.

IZPARRINGI-SAL

Eriotz epaia Petri'ri..! Eriotz epaia Petri'ri..!
Eriotz epaia Petri'ri..!

MATXIN

Eriotz-epaia, Petri'ri. Ta or ibilliko dira orain da-
nak, Petri'k zer-nai, ura eman naiean, Petri'ren az-
ken-ordu auek arindu naiean. Eta gauza aundi bat

egin dutela, usteko dute gañera. Urkamendira di-
joan gizonak, ez du orain ezer bear. Leen bear zuan
orrek, orain agertu nai dioten gezurrezko maitasun
ori. Ta ez zan Petri gaur urkamendira igoko..!
Bai, Graxiana..! Petri gaizkille bat baldin ba'da, ez
dira txikiagoak Petri urkamendira eraman dutenak.
Eta auentzako ez dago urkamendirik, Graxiana...

Egurasten edo ari diran gizonazko bi ager-
tuko dira iruditegi-atzeko aldetik, eta iruditegi-
muturrean izkutatuko dira ikusleen ezker-alde-
tik.

Eta au izango da bien bitarteko jarduna.

I GIZONEZKOA Or etzegok beste biderik. Eriotz bat egiten duanak,
ordaindu dezala bere buruarekin eriotz ori. Ezin
biziko gaituk beti giza-txar oien mende...

II GIZONEZKOA Gizon baten biziak ez dik beintzat oientzako asko
balio..!

I GIZONEZKOA Ez motell..! Guk ez genikek, beintzat, txakur bat
ere ilko, oiek gizon bat iltzen duten bezein errez...
Eta izan zak gero ik oientzako erruki..! Nik ez bein-
tzat...

II GIZONEZKOA Ez nik ere..! Ta dalako Petri ori urkatzen dute-
nean, lasaiago lo egingo diat, nere ustez. Oiek ez
dituk eta, gizartean bizi-bearreko gizonak...

I GIZONEZKOA Odoletik zekarte oiek ori... Jakin nai nitek zein-
tzuk diran dalako Petri'ren gurasoak... Ez dituk
noski aldareetatik jetxitako santu bi izango... Arra-
za madarikatu ori desegintzen ez diagun bitartean,
ez diagu pakarik, ere, izango. Nik ezin diat beintzat
eskeko bat ikusi. Ta eskeko ori ume bat danean, os-
tikoka bialtzen diat nere ingurutik. Txakur amorra-
tu bat ba'litz bezelaxe. Ta ez diat uste besteak ba-
ño kristau-txarragoa naizenik orregatik... Ez ote
diagu, ba, zintzo bizi geranok, zintzo ta trankil bi-
zi izateko eskubiderik..? Diru-gose ba'dituk, lana

egiñaz irabazi dezatela diru ori. Guk alaxe irabazi
oi diagu..!

Oiek ez ordea...

Besteak irabazitakoa maite die oiek... Bañan ez di-
tuk beti bereakin irtetzen. Oiek, noizean bein ba'
da-re, erortzen dituk, eta bere buruarekin ordain-
du bear izaten zitue egindako okerrak... Ez nitek
oraintxe egon-nai, dalako Petri'ren larruan...

Ez ni ere..!

Eta ez dik iñork malko bat ixuriko.

Ez gurasorik ez ba'dik beintzat...

Orrek gurasorik..? Pozik ezagutuko nizkek..!

Eta iruditegi-muturrean izkutatuko dira
gizonazko biak.

II GIZONEZKOA

I GIZONEZKOA

II GIZONEZKOA

I GIZONEZKOA

II GIZONEZKOA

I GIZONEZKOA

MATXIN

(Ixil-unetxo baten ondoren).

Entzun dezu bi oien jarduna. Gurasorik ez ba'de-
gu, gurekin degu naiko kalde, Graxiana... Ta ez
det uste gure erru danik ori... Diru-zaleak izango
gera bai, bañan ez oiek uste duten bezela. Bizi-
bearra degu guk ere, ta gaurko mundu ontan ez
dago diru-gabe bizi izaterik. Lapurretan egiten de-
gula..? Ta zer egin dezakegu besterik..! Iñork ez
digu lanean erakutsi. Goseak eraginda, ogi-koxkor
baten eske joan izan geranean, txakur-amorratuak
ba'giña bezela ostikoka uxatu izan gaitue. Ta ume-
umetatik ori, arraza madarikatu bat ba'giña beze-
laxe... Ai, Graxiana, eskerrak zuri ez nago ni,
gaur, Petri'ren larruan. Oiekgatik bai...

GRAXIANA

Goazen emendik, Matxin.

MATXIN

Goazen bai... Ta guk, ba'da ere, izan dezagun Pe-
tri'ren erruki.

Eta ikusleen ezker-aldeko iruditegi-mutu-
rrean izkutatuko dira Matxin eta Graxiana.

Urrutizkin-txintzarria entzungo da.
Gaxuxa agertuko da iruditegi-atzeko atetik.

GAXUXA

(Urrutizkiña artuaz).

Nor da..? ... Aa... Beorri al'da..? ... Gaxuxa naiz ni bai...

Eta Gaxuxa urrutizkiñatik ari dan bitartean, iruditegi-atzeko atetik agertuko da Mikel papel batzuek eskuan.

Ez, ba. Ez da oraindik On Mikol'ik etorri... Ez Yaneta'rik ere... Nere kontu bai... Agur On Permin... Agur!

MIKEL

Urrutizkiñaren txintzarria entzun eta etorri naiz... On Permin zan beraz..?

GAXUXA

Bera zan bai..!

MIKEL

Egunero du orrek zerbait. Gutxiena uste degunean, an ikusi bear degu elizan "sakristau" gure nagusi, On Mikol... Eta ez du bere lana ain-gaizki egingo..! Emakumea bear zuan, izan ere, orrek..!

GAXUXA

Zergaitik diozu ori, Mikel..?

MIKEL

Gizonezkoak baño elizkoiagoak izaten zeratelako emakumezkoak. Eta iñor elizkoia ba'da, On Mikol da oietako bat...

GAXUXA

Egia da ori, Mikel... Baña ez didazu, ori pekatua danik, esango..?

MIKEL

Ez, Gaxuxa, ez..! Or ez dago pekatu-rik. An izaten gera gu ere jaietan ba'da ere... Esan dizudana, jolasean esan dizut, Gaxuxa...

GAXUXA

Ala artu det nik ere, Mikel...

MIKEL

Ondo dago, Gaxuxa..! Besteetan baño beranduago dator gaur Yaneta.

GAXUXA

Ala dator, bai.

MIKEL

Emen utziko dizkiot papel auek.

Eta idazteko-makinadun mai gañean utziko ditu esku-artean ekarri ditun papelak.

Agur, Gaxuxa, Ta gaizki-esanak barkatu...

GAXUXA

Agur, Mikel..!

Eta iruditegi-atzeko atetik izkutatuko da Mikel Bertako tresneri autsak kentzen ekingo dio Gaxuxa'k.

Egia esan, bildurtu, ere, egin naiz une batean. Gizonezkoak jolasean ekiten diotenean, edozer gauza esaten dute, esan ere. Ta On Mikol ardiz jantzitako otso bat dala, esango ote zidan bildur izan naiz... Orixen besterik ez genduan bear orain: On Mikol ardiz jantzitako otso bat izatea, ta Yaneta, dan bezelakoa, aren atzaparretan egotea, alegia... Ez al'da orrelakorik izango..! Orain artean beintzat, ez du On Mikol'ek orrelako otsik atera... Ta Yaneta... usotegi batetik atera-berri dan uso txuri bat besterik, ez da Yaneta... Emen da bera..!

Iruditegi-atzeko atetik agertuko da, itun, Yaneta ta idazteko-makinadun maiean eseriko da.

YANETA

Egun on, Gaxuxa.

GAXUXA

Baita zuri ere, Yaneta..! (Yaneta'ren ituntasunaz oarturik). Bañan zer dezu, gaur, Yaneta..?

YANETA

Ezer ez, Gaxuxa..!

GAXUXA

Negar-egin-berri zerala, esango nuke nik.

YANETA

Ez, Gaxuxa, ez..!

GAXUXA

Ez al'zera, ba, ondo arkitzen..?

YANETA

Bai, Gaxuxa, bai..!

GAXUXA

Eta zergaitik zaude, ba, ain triste..? Naiezkoren bat esan al'dizu On Mikol'ek..?

YANETA Ez, Gaxuxa, ez..!

GAXUXA Ondo dakizu zenbait maite zaitudan, Yaneta. Edozer egingo nuke zugatik... Ez zaidazu, ba, zure nagabe ori gorde..! Zer deu, Yaneta..? Zergaitik zaudede, gaur, ain triste..? Ez al'dezu nerekin konfiantzarik, Yaneta..?

YANETA Bai, Gaxuxa, bai... Ta Iñorkin ez bezelakoa..!

GAXUXA Eta zergaitik ez didazu, ba, zerbait esaten..?

YANETA Ezin, Gaxuxa, ezin..!
Yaneta'k ezingo dio negarrari eutsi, ta negarrez asiko da.

GAXUXA Ez zazu negarrik egin, Yaneta... Laister etorriko da On Mikol eta arek, bear ba'da...

YANETA Ez Gaxuxa, ez..! Arek ez nau alaituko..!

GAXUXA Zergaitik ez..?

YANETA Jakingo dezu egunen batean, bear ba'da, Guxuxa. Zoatz orain. On Mikol etortzean, bakarrik egon nai nuke-ta. Ta ez zaidazu au, gaizki artu, Gaxuxa...

GAXUXA Ez, Yaneta, ez..!
Eta muxu bat emanaz, agurtuko du Yaneta Gaxuxa'k.
Ikusleen eskubi-aldeko atetik izkutatuko da au.

YANETA Emezortzi urtekin asi nintzan emen lanean, eta ez nuan gizonezkoen gaiztakeririk ezagutzen orduan. Ardi-larruan otsorik gordeten zanik, ere, ez. Eta esku-legun biguñak atzaparka egiten zutenik, ere, ez... Ogei urte besterik ez ditut gaur. Eta bi urte auek naikoa izan ditut, gizonezkoen gaiztakeria zenbaite-rañokoa dan ezagutzeko. Ez nuan uste iñoiz nere burua onela ikusi bear nuanik..! Eta Jaungoikoa'k bakarrik daki, nola ikusi bearko dedan emendik

aurrera... On Mikol..! Eliz-gizon guztien laguna, elizkizun guztietan lenena..! Nork esan bear zidan neri, ardi-larruz jantzitako otso bat ziñala zu ere..? Nere ez-jakintasunaz baliatu bear ziñela zu, ere..? Nere errukirik ez zenduala izango..? ta maite ninduzula, esaten zidazun beti..! Aita batek bere alaba maite duan bezelaxe... Ez, On Mikol, ez..! Ez nazu maite izan..!

Eta On Mikol agertuko da iruditagi-atzeko atetik.

ON MIKOL Egun on, Yaneta...

YANETA (Otz).
Baita zuri, ere...

ON MIKOL (Yaneta'ren oztasuneaz oarturik).
Zer gertatzen zaizu, Yaneta..? Pozaren-pozez nentorren albiste zoragarri batekin, eta zu onela, Yaneta..? Utzi itzatzu naigabe oiek alde batera... Lantegiaren gora-berak aitzaki, amabost eguneko ibillaldi zoragarri bat egin-bearrean bait'gera biok atzerrian. Beinere ez bezela atseginduko gura, Yaneta. Beinere ez bezela..!

YANETA Ez, On Mikol, ez..! Amaitu ziran neretzat ibillaldi oiek..!

ON MIKOL Etzaiz tontona izan..! Ez du iñork ezer jakingo-ta!

YANETA Ez, On Mikol, ez..!

ON MIKOL Zergaitik ez..?

YANETA (Poliki-poliki).
Aurdun zanulako..!

ON MIKOL (Zer erantzun ez dakiala).
E..?

YANETA Bai, On Mikol..!

ON MIKOL Aurdun..?

YANETA Aurdun, bai, aurdun..!

ON MIKOL Ez da ori egia izango..?

YANETA Egia da, zoritxarrez..!

ON MIKOL Ez al'zera josalean ari, Yaneta..?

YANETA Ez, On Mikol, ez..! Ez det jolaserako gogorik..!

ON MIKOL Ezin leikena da ori, ordea... Nik ez dizut orrelakorik egin. Besteren batekin ibilliko zifian zu..?

YANETA Ori ez, On Mikol..! Neri ez dit, zuk beste, ikutu..!

ON MIKOL Ez, Yaneta, ez..! Besteren batena izango dezu, zuk, aur ori..?

YANETA Besteren batena ez..! Iñorena izatekotan, zurea ta nerea, bakar-bakarrik, da nere aur au...

ON MIKOL Ez nuan uste orrelakorik egin bear ziazunik, Yaneta..!

YANETA Ez nik, ere, On Mikol..!

ON MIKOL Aundia da, ezin aundiagoa, ekarri didazun zoritxarra..!

YANETA Zuk neri ekarria ez da txikiagoa, On Mikol..!

ON MIKOL Ezkongai zera zu, ordea...

YANETA Eta ezkondua zu..!

ON MIKOL Zer esan bear dute nere emazte ta seme-alabak..?

YANETA Eta zer nere guraso ta anai-arrebak..?

ON MIKOL Zu etzera iñor errian..! Zu bezelako milla neska daude erri ontan. Etxekoetatik kanpora, ez zaitu zu iñork ezagutzen... Baztar guztietan ezaguna naiz ni, ordea. Bertako aundi guztiakin dauzkat artu-emanak. Nere lagunak ditut eliz-gizon guztiak... Aundia da nik errian dedan izena. Aundia ta garbia..! Ta ez nago izen ori galtzeko, Yaneta..! (Itxil-

unetxo baten ondoren). Ez zenion iñori ezer esango..?

YANETA Nere aitorleari, bai..!

ON MIKOL On Permin'eri..?

YANETA Bai..!

ON MIKOL Ez al'zegoan erritik-kanpora beste aitorlerik, Yaneta..?

YANETA Neretzat ez..!

ON MIKOL Nere lagunik aundiena dedala On Permin, ondo zenekizun zuk, Yaneta. Ta arrei esan bear zenion gauza au, nai ta nai-ez..? Zergaitik egin didazu au..? Zergaitik ez zera beste-baterengana joan..? Nik, ere, aitortzen ditut nere pekatuak, bañan orrelako bat dedanean, ez naiz On Permin'erengana joaten ez-ezagun baterengana baizik..! Ai, Yaneta, Yaneta..! Buru geiago zenduala uste nuan, bañan ez... Besteak bezein buruariña zera zu ere... (Kezkati). Aitor-lekuan esango zenion, noski..?

YANETA Bai...

ON MIKOL Gaitz-erdi..! Aitor-lekuan esandakoak, ez daukate kanpora irtetzerik, eta jakingo al'du On Permin'ek gure izkutu ori gordetzen..! (Otzanago). Zerbait egin-bearrean arkitzen gera, Yaneta... Lotsagarri litzake zuretzat, ere, aur bat izatea. Aur orrek ez du jaiio bear, Yaneta..! Gaur bertan eramango zaitut, lantegi-aitzakion, atzerrira, ta ango nere lagun, sendagille batek galdu-eraziko dizu aur ori. Ta egun-gutxi-barru emen izango gera berriro, ere, ezer gertatu ez ba'litz bezelaxe...

YANETA Ori ez, On Mikol..!

ON MIKOL Zergaitik ez..?

YANETA Ez dedalako nere leengo pekatua, beste pekatu aundiago batekin estali nai..!

ON MIKOL Umekariak dira oiek, Yaneta..!

YANETA Ez dira umekariak, On Mikol..!

ON MIKOL Umekeriak edo ez, nik ezin lezaket, ume orren jaiotzarik, emen konsentidu..! Aundiegia da neretzat, nere bizkar-gain bota nai didazun zigorra..! Ez, Yaneta, ez..! Nigandik aurdun zaudenik, ez du emen iñork jakin bear. Eta aur bat eman didazunik, ori gutxiago. Nere ondamendia litzake ori, ta ez nago ortarako prest, Yaneta... Nai dezuna esango dezu zuk... Bañan aur ori galtzerik nai ez ba'dezu, erbestera joan-bearko dezu bein-betirako, ta iñork ezagutuko ez zaituan lekuan bizi..! Ez zaizu nere laguntasunik paltatuko. Bañan ez du iñork zure berririk jakingo ere... Ta ez zaidazu ezetz esan, Yaneta... Ez zaidazu zure gurasoak zer-esan bear duten, esan... Illotzik naiago zaitu zure amak, aurdun ikusi baño-ta. Ta zure amarentzat orixe izan-go zera gaurtik: nunbaitean, ez-bearrez il-zaion alaba kutun bat...

YANETA (Negarrez).
Ez, On Mikol, ez..!

ON MIKOL Bai, Yaneta, bai. Ta ez zazu negarrik egin, gu-bion izen onak ez du beste biderik eta... Ta guzti auek gertatzera, noa ni orain...

YANETA Ez, On Mikol..!

ON MIKOL Bai, Yaneta, bai...
Iruditegi-atzeko atetik izkutatuko da On Mikol.
Negarrez geldituko da une batzuetan Yaneta.
Malkoak legortu ta ikusleen eskubi-aldeko atetik izkutatuko da au, ere.

Izparringi-saltzallea agertuko da iruditegi-atzean eta iruditegi-muturrean izkutatuko.

IZPARRINGI-SAL Eriotz epaia Petri'ri..! Eriotz epaia Petri'ri..! Eriotz epaia Petri'ri..!

XALOME Xalome ta Kaxilde agertuko dira iruditegi-atzetik eta zumardiko aulki batean eseriko dira.

XALOME Mutillak, ederrez, ez din aitzakerik. Gaztea den eta ondo egiña. Edozein neska txoratzeko aña... Bañan...

KAXILDE Ez omen dizute, ba, kaso-askorik egin..?

XALOME Ez asko ta ez gutxi..! Ondo dakin ik, ere, nolakoa izaten dan gure eginkizuna. Baten-bati eriotz-epaia ematen diotenean, an izaten gaitun gu, erregalo batzuk artu-ta, ura ikusten... Ez gaitun, berez, erregalo batzuk eramatearren, joaten. Ez..! Ori baño eginkizun aundiagoa eramaten diñagu... Onekin ordea, alperrikoak izan ditun gure lan guztiak...

KAXILDE Zuenak eta On Ixteben'nak, esaten dutenez beintzat. Ez omen din aitortzerik nai izan. Eta arrigarria den ori, laister il bear dun gazte batentzat...

XALOME Arrigarria den, bai..! Bañan guk ez diñagu orrekin kezkarik izango... Inpernu'ra joan nai baldin ba'din, zabalik zeuzkan atea. Guk etzeukanagu geiago egiterik. Orrelakoxeak ditun, izan ere, oiek: jaiotzetik gaiztoak..!

KAXILDE Nola bizi, ala il, ortaz...

XALOME Egia den, bai, ori..!

KAXILDE Eta ez al'dizute iñungo aitzakerik ipiñi..?

XALOME Zertan..?

KAXILDE Aitortu nai-ez ortan..!

XALOME Benetako aitzakerik ez..! Gauza bat besterik ez din

esaten orrek: ez duala orain erruki bearrik. Erruki-bear izan zanean, ez geniola iñork errukirik erakutsi. Ta oraingo onek ez duala arentzat ezer balio.

KAXILDE

Eta ez al'aute itz oie pixkan-bat kezkatzen..?

XALOME

Zergaitik, ordea..?

KAXILDE

Nik ez zekiñak, bañan... Ez ote din arrazoi pixkaren-bat..?

On Yosepe ta Pettan agertuko dira ikusleen eskubi aldeko atetik.

Bere aulkian jarraituko dute, ixil-kontuetan, Xalome ta Kaxilde'k.

ON JOSEPE

(Bere ondoren datorren Pettan'ekin izketan).

Ala dio bai On Ixteben'ek. Dalako Petri orrek ez duala arrazio paltarik..!

PETTAN

Apaiz-jaun batek esateko, ba'da ori zerbait..!

ON JOSEPE

Bai..! Bañan On Ixteben'ek ori esatearekin, ez naiz batere arritzen..! Gaztea da oraindak eta gutxi ikusia. Ta au izango da, aitortu-gabe, ilko zaion lenengoa... Onek ez duala kezkatzen, esaten du berak, bañan baietzean nago ni. Apaiz gazte batentzat aundia da, izan ere, au. Ta On Ixteben bezelako apaiz on batentzat, aundiagoa. Biotzak itsutzen duala, esango nuke nik. Ez du, ez jaten, eta ez lorik egiten..! Anai izan ba'lu ere, ez zuan maiteago izango..! Ta gaixotuko ote dan bildur naiz...

PETTAN

Eta zergaitik ez da, egun batzuetarako, kanpora joaten..?

ON JOSEPE

Ez dago ortarako..! Petri'ren azkena ikusi nai du, ta bere ondoan egon gañera...

PETTAN

Amaika orrelako ikusteko jaiok dira apaizak..!

ON JOSEPE

Egia diozu, Pettan. Bañan ez du ori bakarrik..! Petri'rengandik ikasitako zerbait gordetzen du ba-

rruan, ta ura esan-ez artean ez duala pakerik izango..!

PETTAN

Petri'rengandik ikasitako zerbait..?

ON JOSEPE

Bai..!

PETTAN

Arritzekoa da..! Orain artean beintzat, ez digute gaizkille oiek ezer-onik erakutsi..! Ta Petri bezelako eraille batek gutxiago! Ez ote du gaizkille batentzat, erruki geiegi On Ixteben'ek..?

ON JOSEPE

Nik ez dakit zer esan..!

PETTAN

Baietz esango nuku nik..!

On Ixteben agertuko da iruditegi-atzeko atetik.

ON IXTEBEN

Zuk, bai, Pettan..! Eta ez naiz batere arritzen orrekin. Gaizkilleak, gaizkille jaiotzen dirala esatea, da errezena... Bañan ori ez da egia..! Ez da iñor gaizkille jaiotzen, guk egiten degu bat gaizkille. Ta Petri, ere, guk egin degu. Zuk eta nik..! Eta ez gutxiena zuk, Pettan..!

PETTAN

Nik..?

ON IXTEBEN

Bai..! Ta zure-antzeko beste batzuek..!

PETTAN

Ez da ori egia, On Ixteben..!

ON IXTEBEN

Bai, Pettan... Egia da ori..!

PETTAN

Ez, On Ixteben..! Nik ez det Petri ori ezagutzen, ere... Ez det iñoiz ikusi..!

ON IXTEBEN

Bai, Pettan..! Ezagutzen dezu..! Ezagutu zenduan beintzat. Eta entzun zaidazu au, geiago jakin nai ba'dezu: zure etxeetako batean, eta zure ardura-pean jaiotako ume bat da Petri..!

PETTAN

Gezurra..!

ON IXTEBEN

Nik ez det gezurrik, Pettan..!

Ikusleen ezker-aldeetik agertuko da On Mikol eta zumardiko beste aulkian eseriko da lotsati.

Esagutzen al'dezu gizon ori..?

PETTAN

(Arri-egiñik).

On Mikol..!

ON IXTEBEN

On Mikol bai..! Zure adizkidetako bat, eta zure antzekoa bera ere..! Orain ogei urte, aurdun zegoan neskata bat ekarri zizun On Mikol'ek, eta zure etxeetako batean artu zenduan. Zure ardurapean, Pettan. Zuk zaindu bear zenduan, eta zu beste lagunik ez zuan izango... Neskata onen izenarekin, ez al'zera oriotzen, Pettan..?

PETTAN

Yaneta..!

ON IXTEBEN

Yaneta bai..! Neskata ona ta fiña zuk dakizunez, bere ezjakintasunaz On Mikol baliatu ba'zan ere. Ta orixe dezu Petri. Yaneta'k izan zuan semetxo ura..!

PETTAN

Petri au..?

ON IXTEBEN

Bai, Pettan, Petri au..! Zure errukirik gaur merezi ez duan Petri au..! Ta ez zaitut orain-artean esandakoagatik gaiztetsitzen..! On Mikol'ek illerokoa bialtzen zizun artean, On Mikol'en bildurrez bear ba-da, bañan gizon jokatu zenduan Yaneta'rekin... Aitu ziran, ordea, illerokoak... Galdu zuen On Mikol'ek bere izen "garbia" kutsatuko ote zion bildurra... Aaztu zan Yaneta'rekin..! Eta orduan, Pettan...

PETTAN

Ez beza jarraitu..!

ON IXTEBEN

Jarraitu bearra det, Pettan..! Orduan azaldu zan zure biotzaren ustela..! On Mikol ez-ezik, gure gonapean bizitakoa zera zu, ere..! Ta zure gaiztakeri oiek izkutatzeko, ondo zetorkizun gure itzala..! Erru-

kizko-egintza bat egingo ba'zenu bezela, eraman zenitun Yaneta ta Petri, zazpiren bat urteko mutil-koxkorra au, zure beste etxe bateko ganbara-zaar batera. Oietako bat (Xalome'gatik) bizi zan, eta bizi dan etxeko ganbara zaarrera..!

PETTAN

ON IXTEBEN

Ezin utziko nituan kale-gorrian..!

Ez, Pettan, ez..! Zu bezelako gizon batek, ez ditu errukarri bi kale-gorrian uzten..! Amaika pekatu egiten dira mundu ontan karidadearen izenean. Eta zuk egiñak ez dute izenik, Pettan. Yaneta'k ez zuan zentimorik. Erbestean bizi zan. Eta ez zenioten lagunik egiten utzi..! Ez zeukan, ba, ganbara zaar artatik ateratzerik. Eta ume bat zuan, mantendu bearreko ume bat. Eta ume orretzaz baliatu ziñan zu, Pettan..! Ume orrek bear zuan ogi-kokorretzaz, zure griña gaizto guztiak asetzeko..! Ez zuten zuretzako ezer balio, Yaneta'k egiten zizkizun erreguak. Ez zuten zuretzako ezer balio, Yaneta'ren malko samiñak. Arranoak txoria oi duan bezelaxe, euki zenduan zure atzapar zikiñetan. Eta odol guztia edan zenionean, an utzi zenduan, baztertutrik, trapu zaar bat ba'litz bezelaxe, ez ogi ta ez ezer..!

Ume bat besterik ez zan artean Petri. Zure gaiztakeriarekin, ez zan, bear ba'da, konturatuko... Bañan, an gelditu ziran bere oroimenean, zure etorrera bakoitzean bere amak ixurtzen zituan saminezko malko aiek..! Eta umetako oroimenak ez dira galtzen, Pettan..! Umetan ulertzen ez dana, gerora ulertzen da..! Eta gaiztakeri ikusi zuan Petri'k ere, bere amarekin zuk izan zenduan jokabidea..!

Petri'ren gaiztakeriarekin zer-ikusirik ez dezula, ez zaidazu, ba, esan, Pettan. Ez bait-zenduan okerra baizik egin Petri'rekin..!

Zoatz, Pettan..! Ba'du On Mikol'ek bere aulkian zuretzat aña leku-ta...

Eta On Mikol'en alboan eseriko da Pettan, burua makur.

ON JOSEPE Ez al'zera gogorregi egon, On Ixteben..?

ON IXTEBEN Esan dizkiodanak, egiak dira, On Yosepe. Petri berak esanak..! Ez det, ba, uste gogorregi egon naitzenik..! Ikasi bear genduan, noizbait, apaizak, ere, bakoitzari bere izena ematen..! Eta orrek ez du beste izenik merezi..! Tamalgarria da! Min artzen det nik, ere, auker esan-bearrakin..! Bañan egia, egia da, On Yosepe. Ta guk ezin dezakegu egiaren aurka joan, egi ori mingarri ba'zaigu ere. Eta oraindik ez ditut danak esan..! Petri'k, ere, berea merezi du..! Ta aul bat izango nintzake ni, ere, Petri orrei berea ematen ausartuko ez ba'nintz. Eta auzi ontan, guk, ere, ba'degu zer-ikusia, On Yosepe..!

ON JOSEPE Guk..?

ON IXTEBEN Bai, On Yosepe. Guk, ere, bai..!
Izparringi-saltzallea agertuko da iruditegi-muturrean, eta iruditegi-atzean izkutatuko da.

IZPARRINGI-SAL Eriotz epaia Petri'ri..! Eriotz epaia Petri'ri..! Eriotz epaia Petri'ri..!

XALOME Gizonezkoa izatera, pozik ikusiko niken urkamendian.

KAXILDE Nik ez, Xalome, nik ez..! Ori ez den guretzako egiten dan gauza... Gizon bat urkatzen ikustea, ez den jolasa, Xalome..!

XALOME Ez den, ez..! Bañan ori ez den gizona. Basati bat besterik ez den ori: pizti txar bat..! Eta pizti txarrak erail egin bear ditun.

KAXILDE Ez naun orren aurka..!

XALOME Eta urkamendian gañera..! Beste gaizkille guztientzat ikasbide izan dedin..! Ezin egongo gaitun beti oien mende..! Nik beintzat ori iltzean, gaizkille bat gutxiago izango diñagula ta, trankillago egingo

diñat lo gaur. Eta ez naun biotz-gogorra..! Ondo dakin ik ori... Bañan errukia baño lenagokoa den zuzenbidea. Ta bakoitzari berea emateko, agintzen zigun zuzenbide orrek...! Eta dalako Petri orrek, ez din urkamendia besterik merezi..! Gizon txarra den ori..! Ta kristau txarragoa, Kaxilde, ez biotzik eta ez federik, ez duan gizona..!

KAXILDE Ala dion ik, Xalome..!

XALOME Ez nik bakarrik, Kaxilde... Nere uste berdiñekoak ditun arekin egondako guztiak..!

ON IXTEBEN (Bere lekutik aldatzeke).
Ni ez beste guztiak esan naiko dezu, Xalome. Ni ez bait-naiz zure uste berdiñekoa..!
Petri iltzean, gaizkille bat gutxiago izango degula, esan dezu, Xalome. Bañan ori iltzean, ez ote degun beste gaizkille berriren bat sortuko, bildur naiz ni...

XALOME Guk..?

ON IXTEBEN Guk, bai, Xalome..!

XALOME Zer esan nai didazu orrekin. On Ixteben..?

ON IXTEBEN Guk eman-eza, beste batzueri eskatzea, oso erreza dala..! Eta orixe egiten ari gerala gu Petri'kin..! Guk bera maite izan ez ba'degu, zergaitik maite bear gaitu berak..?
Eta ez zaidazu Pettan'ek esana, esan. Zuk, ere, zer-ikusia aundia izan bait-dezu Petri'ren bizitzan..!

XALOME Nik..?

ON IXTEBEN Zuk bai, Xalome..! Ta orain azaldu nai izan diotzun "erruki" ori, leen azaldu izan ba'zenion, ez zan, gaur, Petri urkamendi-bidean izango.
Gogoan izango dituzu noski Petri berak esan zizkizun itz auker: Orain ez! Leen bear nuan nik zuen errukia.
Gogoan al'dituzu, Xalome..?

XALOME

ON IXTEBEN

Gogoan ditut bai.

Eta Petri'k, zer esaten duan, ba'daki..! Eta ez da Petri, inpernutik etorritako etsai bat. Gure artean jαιο ta bizi izandako gazte bat baizik..! Eta iñor baño geiago ezagutu zenduan, umetan, zuk..! Petri au, ume bat besterik ez zanean, zure etxepean bizi izan zan, Xalome. Zure etxeko ganbara zaarrean..! Goserik eta iñungo laguntzarik gabe..!

Bein baño geiagotan, eskatu izan zizun ogi-koxkor bat..!

Bañan "ama-galdu" baten semea zan, eta ez zeunden zu, ama-galdu baten seme bati ogi-koxkor bat emateko..! Ta karidade egilletzat jotzen zenduan zuk zure burua..!

Yaneta gaxorik zegoala, jakin zenduan, Il zala ere bai. Ta, ala ere, ez ziñan, an, ezertarako agertu..! Eta an egon zan Petri, zazpi urteko ume-koxkorra, bere amaren illotza-gañean bakar-bakarrik, zure aginduz gizon biotz-gabe batzuek bere amaren gorputz-illa kendu zioten arteraño...

Eta zer egin zenduan, gero ere, ume koxkor arren alde..?

Ezer ez, Xalome..! An utzi zenduan bakar-bakarrik, negarrez, ganbara zulo artan..!

Eta errugabea zan artean Petri..! Bañan (Gaiztoz) ama-galdu baten semetxoa zan..!

Ai Xalome, Xalome. Ama galdu ori zeruan ikusten ez ba'degu, ez da ura an ez dagoalako izango, gu arutz joango ez geralako baizik..!

Petri'k aitortu nai ez dula-ta, gaizki esatea, erreza da, Xalome... Ta aitortu al'ditugu guk, Petri'kin egin ditugun pekatuak..?

Jeiki ta iruditegi-atzetik izkutatuko da Kaxilde. Ixilik, eta burua makur, geldituko da Xalome. Ixil-alditxo bat eta...

ON JOSEPE

Esan zaidazu au, benetan, On Ixteben: Petri'ren aitortu-naiezak, ez al'dizu naigaberik ematen..?

ON IXTEBEN

Apaiza naiz ni ere, On Yosepe..! Ta apaiza naizen-aldetik, naigabe aundia ematen dit, bai, Petri'ren aitortu-nai-ez orrek..! Bañan ez naiz arritzen ere, beste alde batetik. Oiek, ere, beren pensatzeko-moduak dituzte. Ta aienak eta gureak berdiñak ez izan arren, ezin esango degu aien pensatzeko-moduak okerrak diranik beti..! Eta beste gauza askoen artean, aitortzaz, ere, itz egin dit Petri'k, ta arek esandako guztia, gezurra danik, ez det uste nik ere... Ba'du, nere ustez, bere arrazioa, ta ez makala gañera..!

ON JOSEPE

Eta berak esan dizun ori, zer da, ba, On Ixteben..?

ON IXTEBEN

Bear beze!a azalduko ez ote dizudan, bildur naiz... Apaizak eta gure-inguruan biltzen diran beste askok, poz aundi bat izaten degu oietako bat aitortzen danean. Lasaitasun aundi bat sentitzen degu gure biotz-barrenetan... Eta lasaitasun ori zergaitik sentitzen degun, galdetu al-degu beinere..? Ez ote da oien aitorketa ori gurutzako, gure illobi-gañetan ipintzen degun arri-zabalaren antzekoa..? Bertan gordetzen diran ustelkeri guztien estalgarri..?

Ez ote da oien aitorketa ori gurutzako, Pilaros'ek eskuak garbitzeko, bein, ibilli zuan ur aren antzekoa..?

ON JOSEPE

Zer san nai dezu orrekin, On Ixteben..?

ON IXTEBEN

Petri'ren gaiztakeriarekin beste askok, ere, ba'degula zer-ikusia noski... Ta ala ere, ez digula guri iñork aitortu bear degunik esaten..!

Eta orregatik nai degu Petri'ren aitorketa ori..! Gure barrenari lasaitasun pixka-bat ematearren... Petri'k gure pekatuak aitortu, ta Jaungoikoa'k, besterik gabe, gure pekatu oiek barkatuko ba'lizkiguke bezeala..!

Ez, On Yosepe, ez..! Gure pekatuak guk aitortu bear ditugu, ta ez Petri'k..!

Pilatos'ek ibillitako ur arek, ez zion Pilatos'i bere pekatua barkatu. Guri, ere, ez digu Petri'ren aitorketak barkatuko. Ez dezagun, ba, Petri'ren aitorketa ori, gure pekatuen estalgarri ipiñi nai izan..! Petri'k ez luke, bear ba'da, guri egindako pekatuak aitortzeko eragozpenik izango, guk berari egiñak aitortuko ba'ginduzke leen..!

Eta ez dakit zein alde eroriko dan Jaungoikoa..! Ez ote da Petri'ren alde eroriko..?

Izparringi-saltzalea agertuko da iruditegi-atzetik, eta iruditegi-muturrean izkutatuko da.

IZPARRINGI-SAL

Eriotz epaia Petri'ri..! Eriotz epaia Petri'ri..! Eriotz epaia Petri'ri..!

ON IXTEBEN

Eriotz epaia..! Ta auxe izango da guk Petri'ri eman-gu diogun gauza bakarra..! Eriotz epaia..!

Lurpean ikusi nai nuke nik orain nere burua, On Yosepe.

Lurpean bai, emen egingo dan pekatu aundi onen lekuko ez izatearren..!

Arria bota ta besoa izkutatzea, oso erreza da, On Yosepe. Iñungo laguntzarik gabe bizi izan dan gizajo baten bizkar-gañera gure gaiztakeriak botatzea ere bai..! Eta kristotarrak gerala, esango degu gero..!

Ez, On Yosepe, ez..! Egitera goatzen eriotz au, ezin lezake Jaungoikoa'k ontzat artu. Ta ez du artuko ere... Ta eriotz onetzaz guk erantzun bearko diogu egunen batean. Guk, On Yosepe, Guk..!

Emen dakarte bera... Jakin dezagun gure pekatua aitortzen, On Yosepe...

Eta ikusleen eskubi-aldera baztartuko dira, burua-makur, biak.

Arpegiak estalitako berrero bien-erdian agertuko da Petri, eskuak lotuak, iruditegi-atzetik.

Iruditegi-erdiko lauki gañera igo, ta an gedituko da eriotzaren zai.

On Mikol. Pettan eta Xalome'k ez dute ezer ikusi naiko, ta bere arpegiak estaliko dituzte eskuekin.

ON IXTEBEN

(Petri'rengana urreratu ta).

Barkatu zaizkidazu, Petri, nere itz auek... Gaiztakeri bat egitera goatz zurekin..! Izenik merezi ez duan gaiztaeria. Ez bait-gera gu, zu baño obeagoak..!

Ala ere, zure eriotz au guretzako ikasbide izan dedin, esan zaidazu au Petri. Zerk ekarri zaitu zu urkamendira..?

PETRI

Kristau arteko maitasun ezak..!

Nere aita, On Mikol'ek, bere izena ukatu zidan jaiotzean. Ogi-koxkor baten truke, galdu zidan nere ama Pettan'ek. Zazpi urteko umetxo bat besterik ez izan arren, bakar-bakarrrik jaso bear izan nua nik nere amaren azken-arnasa.

Nere amaren gorputz-illaren gañean nengoan artean negarrez, gizon zakar bi etorri, ta iñungo begirunik-gabe nere amaren illotza kendu zidatenean.

Eta ez zan, an, ezertarako apaizarik agertu..!

Eta zazpi urte besterik ez nituan nik..!

Ona zan nere ama, On Ixteben. Oso ona..! Jaungoikoa'ri barkamen-eske il zan nere ama otoitzean.

Eta ala ere, ez zenduten zuek, apaizok, nere amaren gorputz illa ur-bedeinkatuarekin busti.

Ez zenioten illetarik egin..!

Ez zenduten aren alde "Pater noster" bat ere esan...

Nun eortzi zuten, ez dit iñork esan, eta ez det, aren illobi-ganean otoitz-egiterik izan...

Pozik ipiñiko nion nik-neronek egindako gurutz bat, bañan ez det ori egiterik, ere; izan.

Gau bertan itxi zidan Pettan'ek ganbarako atea, ta ostikoka bialdu niduten andik etxepeko andra "onak".

Iñork ez dit laztan bat eman geroztik.

Ez itz goxo bat, ere, esan...

Zakar bat ba'nintza bezelaxe ibilli naute geroztik munduan...

(Ikusleeri).

Zergaitik eskatzen didazute ba, gaur, neri, Jaun-andreak, zuek sekula eman ez zidazuten maitasun ori..?

Eriotz bat egin det bai..!

Bañan ez al'zenduten zuek leenago, bai nerekin eta bai nere amarekin, beste eriotz bat egin..?

Eta zuek egindako eriotz orrek, ez al'zuan urkamen-dirik merezi..?

Maitasun pixka-bat eman ba'zidazuten leen, ez negoke ni gaur emen.

Or negoke ni, ere, zuen artean..!

Ez zidazuten eman, ordea...

Eta orain agertu nai didazuten erruki ori, ez det bear orain LEEN BEAR NUAN.

Betor, ba, eriotza..!

Eta izan dezala Jaungoikoa'k nerekin, gizonak izan ez duten errukia ta maitasuna.

Laister naiz, berriro ere, zure ondoan, ama.

Goitik-bera jeisten ikusiko da poliki-poliki Petri itoko duan lokarria.

(Ikusleengana urbildurik).

ALKAR MAITE DEZAGUN, JAUN-ANDREAK..!

ZAPIA.

1965-Garragarrilla'k 11

ON IXTEBEN

KARDABERAZ BILDUMA

1.º KARDABERAZ AITARI OMENALDIA

(Idn bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta.
(Lekuona, Akesolo, Oncindia eta abar).

2.º NEURRIZTIA

(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg., 400 pta. (Teknika gaia).

3.º SUGE GORRI

(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.

4.º ESPALAK

(Uxola). 15 x 21: 181 pg.

5.º AITONAREN IPUIAK

(Ramon Murua).

6.º ERREKA-ZULOAN eta...

(Anastasio Albisu Ayerdi).

7.º 1) KOMEDIAK-SHAKESPEARE

(Larrakoetxea, Bedita).

8.º LANDARE-JAKINTZA

(Larrañaga, Gillermo).

9.º GARTZI-XIMENO eta...

(A. Albisu Ayerdi).

10.º EUSKALERRIA ETA ERIOTZA

(Anastasio Arrinda Albisu).

11.º 2 - KOMEDIAK

12.º 3 - DRAMAK

13.º 4 - DRAMAK

14.º 5 - TRAJEDIAK

15.º 6 - TRAJEDIAK

} SHAKESPEARE

KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º KARDABERAZ
- 2.º UME TXIKIENTZAKO SOINKETA
- 3.º EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK
(A. Arrinda).
- 4.º KARDABERAZ - 2.
- 5.º KARDABERAZ - 3.
- 6.º AMEZKETA'KO PERNANDO

PAKEAREN ERREGIÑA - MEZA

KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan, Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970'an berriua.

Zertarako? a) Euskera jator batean.

b) Kristau-pentsakera barruan (ezi zabala) lan egiteko.

Bazkideak (gizon ala emakume) milla pta. ordainduko dute sarrerako ta beste milla urtero. Diru oiekin ateratzen da KARDABERAZ BILDUMA, bazkideentzako ezean.

Arpidedunak (bazkide nai ez dutenak) liburuak artzera beartzen dituzte beuren buruak.

Bazkide nai arpidedun egiteko nora jo?

Leku auetara:

Kardaberaz Bazkuna:

Tolosa'ra: Juan José Garmendia Arcelus

Técnicas de Difusión.

San Francisco, 1.

Apdo. 83.

